

**Emakumeak,  
hitza eta bizitza**

90 urte  
Emakume Abertzale Batza

# Emakumeak, hitza eta bizitza

Begoña Bilbao Bilbao  
Gurutze Ezkurdia Arteaga  
Karmele Perez Urraza  
Josu Chueca Intxusta  
(biltzaileak)

eman la zabal zazu



Universidad Euskal Herriko  
del Pais Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 2012

ISBN: 978-84-9860-737-6 • Lege gordailua: BI - 2.071 - 2012

# Aurkibidea

## AGURRA

<i>Amaia Maseda</i> . Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordea (UPV/EHU) . . . . .	9
<i>Josune Ariztondo</i> . Bizkaiko Foru Aldundiko kultura-diputatua. . . . .	13
<i>Gurutze Ezkurdia</i> . Emakume Abertzale Batza. 90 Urte. Hitza eta Bizitza . .	17

## EMAKUMEAK ABERTZALETASUNEAN GILTZARRI

Emakume Abertzale Batza. Bere ibilbidea aztergai. <i>Itziar Rekalde</i> . . . . .	21
--	----

## EMAKUMEAK HEZKUNTZAREN ERAGILE

Euzko ikastolen andereñoen formazioa eta eskola-praktikak. <i>Karmele Perez, Gurutze Ezkurdia, Begoña Bilbao</i> . . . . .	45
---	----

## EMAKUMEAK INTELLIGENTSIAK

Emakumeak adimenean. <i>Ana Urkiza</i> . . . . .	79
Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak. <i>Iratxe Retolaza</i> . . . . .	103

## MAKILEN GARAIK

Emakumeak erresistentziaren haziak. <i>Josu Chueca</i> . . . . .	123
---	-----



---

**HURBILEKO BIZIPENAK ETA TESTIGANTZAK**

Julene Urzelai, duintasunaren isla. <i>Asier Aranbarri</i> .....	143
Julia Askorbe. <i>Erkuden Goikoetxea</i> .....	151
Haydeé eta Polixene. <i>Elixabete Garmendia</i> .....	155
Alicia de Aretxabaleta Mendia: emakume aurreratua bere sasoirako. <i>Iosu Madariaga</i> .....	159
Gregoria Etxebarria Eguskiza. <i>Begoña Zalduegi</i> .....	169
Josefina Irujo, emakume baten ibilbide eta testuinguru historikoa. <i>Josu Chueca</i> .....	175
<b>Zertzelada biografikoak.</b> <i>Gurutze Ezkurdia, Begoña Bilbao, Karmele Perez, Josu Chueca</i> .....	187

Liburu honek, jarduera akademiko baten emaitza izateaz gainera, aitortzeko eta omentzeko ekimen bat izan nahi du. Oso egoera zailetan, gizartearen eta herrialdearen alde onena eman zuten emakumeei egini-ko aitortpena eta omenaldia, hain zuzen ere.

Azken hamarkada hauetan emakumeak lortzen ari diren aurrerape-  
nez mintzatzean, eta egiteko dagoen guztia kontuan hartuta, erraza da  
aurrera begiratzea eta atzean utzitakoa ahaztea. Historiak, ordea, ikas-  
bide ugari ditu guri emateko, eta, historia luze horretan, baliagarria  
zaigu emakume askok izandako jokabidea, gure iragana ezagutzeko ez  
ezik, gure etorkizunari begira jartzeko ere.

Izan ere, historia ez da egiten soilik gertatutakoa oroitzeko. Histo-  
riak laguntzen digu, batik bat, gure orainaldia ulertzen eta gizarte ho-  
bea, zuzenagoa eta bizitzeko egokiagoa eraikitzen, non pertsona guztiek  
leku bat aurkituko baitute.

Duela laurogeita hamar urte Emakume Abertzale Batza erakundea  
sortu izana aurrekari bikaina da, emakumeek gure herrialdeko politika-  
eta gizarte-arloetan eginiko ekintzei dagokienez. Emakumeen eta hau-  
rren hezkuntza bultzatu zuten; jarduera politiko bizia izan zuten; eus-  
kal kulturaren alde egin zuten; eta, azken finean, gune publikoa hartzea  
lortu zuten. Izan ere, gune horretan parte hartzeko premia eta gogoia zu-  
ten emakumeek, mende luzez zokoratuta egon ondoren.

Azpimarratu behar dut, halaber, emakume horiek hasi zirela hez-  
kuntza euskaraz ematen Gerra Zibilaren ondoren; hots, giroa guztiz aur-  
kakoa zen garaian. Eskura zituzten baliabide materialak ere erabat ziren  
mugatuak. Nire ustez, egoera horri gutxitan bezala egokitzen zaio den-  
borarekin zuhaitz hostotsua ematen duen haziaren metafora. Emakume

haien lana, xx. mendearen erdialdean, gaur egungo hezkuntza-sistemen abiapuntua izan zen; sistema bat, genero-berdintasunaz gain, hizkuntzen, kulturen eta ideien arteko berdintasuna bultzatzen duena.

Arestian esan bezala, omentzeko eta aitortzeko ekitaldi bat da liburu hau argitaratzea eta bertan jasotako hausnarketak zabaltzea. Alabaina, iragan emankor baten lekukotza ere bada, gaur egun baliagarria izan daitekeena nondik gatozen jakiteko eta berdintasunaren bide luzean gu baino lehen egondako emakumeen lana ezagutzeko.

Amaia Maseda

Gizarte Erantzukizun eta Unibertsitate Hedakuntzako errektoreordea

Este libro, además de ser el fruto de una actividad académica, quiere ser también un acto de homenaje y de reconocimiento; homenaje y reconocimiento a unas mujeres que, en circunstancias muy difíciles, supieron dar lo mejor de sí mismas en pro de su sociedad y su país.

Cuando hablamos de los avances que está experimentando la mujer en estas últimas décadas, y a la vista de lo que aún queda por hacer, resulta fácil mirar hacia adelante y olvidar lo que dejamos atrás. Pero la historia tiene muchas lecciones que darnos, y el ejemplo de las mujeres, de muchas mujeres, a lo largo de la historia, nos puede servir no solo para conocer nuestro pasado, sino también para proyectar mejor nuestro futuro.

En efecto, la historia no está solo para recordar lo que ha ocurrido. La historia, sobre todo, está ahí para ayudarnos a entender nuestro presente y para ayudarnos a diseñar una sociedad mejor, más justa, más habitable, en la que encuentren su lugar todas las personas.

La constitución hace noventa años de una organización como Emakume Abertzale Batza es un excelente precedente de la acción de la mujer en el ámbito político y social de nuestro país. Ellas promovieron la educación de la mujer y de la infancia, desplegaron una intensa actividad política, apostaron por la cultura vasca y ocuparon, en definitiva, un espacio público importante, un espacio público donde la mujer quería y debía participar activamente, tras siglos de haberse visto relegada.

También debo subrayar el hecho de que fueran mujeres como ellas las que emprendieron la educación en euskera después de la guerra civil, en medio de una notable hostilidad ambiental y con unos recursos materiales extraordinariamente limitados. Creo que en pocas ocasiones

como esta sería más ajustado recurrir a la metáfora de la semilla que ha dado lugar, con el tiempo, a un árbol frondoso. El trabajo de aquellas mujeres, a mediados del siglo xx, fue el arranque necesario de todo un sistema educativo que hoy trabaja desde principios de igualdad de género y también de igualdad entre lenguas, culturas e ideas.

La publicación de este libro y la difusión de las reflexiones que contiene son un acto de homenaje y de reconocimiento, como decía al principio, pero son también el testimonio de un pasado fecundo, que hoy puede servirnos para ser conscientes de dónde venimos y reconocer la labor de las mujeres que nos han precedido en el largo camino por la igualdad.

Amaia Maseda

Vicerrectora de Responsabilidad Social y Proyección Universitaria

Aurten, Emakume Abertzale Batzaren sorreraren 90. urteurrena ospatzen da. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak gogora ekarri nahi izan dugu urteurren hori. Hori dela eta, erakusketa bat eta hitzaldi batzuk antolatu ditugu, arloko azterlan eta ikerketen ondorioak jendaurrean jartzeko. Itziar Rekalde EHUko irakasleak gogorazi digu EABren ibilbidea. Idoia Fernández irakasleak erakutsi digu emakume horiek gizartearen hainbat arlotan eginiko lana: irakaskuntza, politika, idazle klandestino gisa... Ana Urkizak emakumeon literatura-ikuspegiaren berri eman digu: beren garaian ekintzaile izan ziren emakume horiek utzitako legatua. Josu Chuecak gogora ekarri du emakumeok Erresistentzian izandako garrantzia, eta Gregorio Arrienek, erbestean bete duten eginkizuna.

Ekitaldi, hitzaldi eta mahai-inguru horien bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Sailak, Euskal Herriko Unibertsitateko Garaian (Araka) taldeak eta Goaz taldeak memoria historikoa ikertu eta berreskuratu nahi izan dugu; kasu honetan, Euskadin orain 90 urte konpromiso sozialaren alde, emakumeen eginkizunaren alde eta nazionalismo demokratikoaren alde emakume talde batek hasitako bidearen berri eman nahi izan dugu. Izan ere, konbentziturik gaude historia gogorazi eta memoria berreskuratu behar dela, etorkizuna eraikitzeko; beraz, jakin behar dugu zein izan ziren garai hartako emakume horietako batzuk, hainbat urtetan ostu diguten memoria odolez, izerdiz eta malkoz bizi zutenak. Zorretan gaude-eta andre horiekin, Emakume Abertzale Batzako emakumeekin, Euskadi gure nazioa egunerokotasunaren heroismoz bizi eta erakutsi ziguten emakume guztiekin.

Bidezkoa da aintzat hartzea emakume horiek orain 90 urte hasitako bidea, eta, hori dela eta, zorionak ematea. Argitalpen honen bidez, ida-

tziz utzi nahi dugu memoria horren lekukotza eta emakume horiekiko esker ona. Horrez gainera, eskertu nahi dugu proiektuan jardun duten erakunde, ikertzaile eta pertsonak gaia zabaldu eta gizarteratzeko eginko lana ere. Beraz, eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Josune Ariztondo

Bizkaiko Foru Aldundiko kultura-diputatua

Este año se celebra el 90 aniversario de la creación de Emakume Abertzale Batza. Una efeméride que la Diputación Foral de Bizkaia y la Universidad del País Vasco hemos recordado con una exposición y una serie de charlas en las que se han expuesto las conclusiones de los estudios y trabajos de investigación realizados sobre la materia. La profesora de la UPV/EHU Itziar Rekalde nos ha recordado la trayectoria de EAB. La profesora Idoia Fernández, nos ha dado a conocer la labor desempeñada en diferentes facetas de la sociedad como en la enseñanza, la política, su labor como escritoras clandestinas... Ana Urkiza nos ha ofrecido la visión de estas mujeres en la literatura, el legado de estas emprendedoras en su tiempo. Josu Chueca ha recordado la entrega de estas mujeres en la Resistencia, y Gregorio Arrien, la labor desempeñada en el exilio.

Mediante estos actos, conferencias y mesas redondas, la Diputación Foral de Bizkaia, Garain (Araka) taldea de la Universidad del País Vasco y Goaz, hemos querido investigar y recuperar la memoria histórica, en este caso de un grupo de mujeres que emprendieron una senda de compromiso social, de visualización de las mujeres y de nacionalismo democrático en la Euskadi hace 90 años. Con el convencimiento de la necesidad de recordar la historia, de recuperar la memoria para construir el futuro, saber quiénes fueron algunas de las mujeres que vivieron con sangre, sudor y lágrimas la memoria que nos ha sido hurtada durante años, es una deuda que tenemos con ellas, con las mujeres de Emakume Abertzale Batza, con todas las mujeres que vivieron y nos mostraron la Nación Vasca, Euskadi, desde el heroísmo de lo cotidiano.

Es justo reconocer y agradecer el camino inédito que emprendieron en la sociedad de hace 90 años. Esta publicación pretende dejar por es-



crito ese recuerdo y agradecimiento a aquellas mujeres, y también a quienes han colaborado en esa labor de difusión y socialización, como es el caso de las entidades, investigadores y las personas implicadas en este proyecto. Gracias por vuestra colaboración.

Josune Ariztondo

Diputada de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia

## Emakume Abertzale Batza. 90 Urte. Hitza eta Bizitza

Aurtengo 2011-2012 ikasturtea historikoa da Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolarentzat, eta baita Emakume Abertzale Batzakoentzat ere.

Aurten, Emakume Abertzale Batzaren sorrerako 90. urteurrena betetzen da. Lehen aldiz, 1921-1922an eratu zen. Ondoren, Primo de Riveraren diktadura garai gogorak etorri ziren, eta loraldia Errepublikako saioan ezagutu zuen. Euskal Herrian emakumeen beste mugimendu batzuk ere izan ziren arren, EAB gertatu zen euskal emakumeak antolatzeko eta etxetik mundura eta ekimen politikora irteteko abian jarri zen antolaketa. Emakume asko maistrak ziren, *Escuela Normal Superior de Maestras de Bilbao* eta ondoren *de Vizcaya* zeritzon ikasiak. Badira Nafarroan eta Gipuzkoan ere; ez hainbeste Araban (alegia, maistrak zirenak). Denean dela, kopururik nabarmenena Bilboko Eskolaren ingurukoa izan zen.

1911-1912 ikasturtean —orain 100 urte, hain zuzen—, *Escuela Normal Superior de Maestras de Bilbao* zeritzona eraiki eta zabaldu zen Solokoe txeko Eskolan, Bizkaiko Diputazioaren ekimenez, zuzendari Juliana Agirrezabala zela. Aurten, Bizkaiko Diputazioari esker —zati handi batean— Bilboko Irakasleen Eskolak eraikin berria zabaldu du, UPV/EHUko Leioako campusean. Hori horrela, Lehen eta Haur Hezkuntzako graduei, goi-mailako titulazioei, goi-mailako egoitza. Horrez gain, hezkuntzako beste esparru batzuetara zabaldu gara, eta hezkuntza ez-formaletan diharduten gizarte-hezitzaileak ere ari dira gurean ikasten. Joan den mende hasieran bezala, oraingoan ere irakaskuntza aitzindaria eskaintzen da, metodologietan aurrerakoia, etorkizuneko maisu-maistrak nahiz hezitzaileak modurik aurrerakoienean heziz.

Ekimen honetarako abiapuntua joan den urrian aurkituko dugu. Bizkaiko Kulturako foru-diputatua den Josune Ariztondorekin elkarrizketan jardunik, pentsatu genuen bazela garaia emakumeen lana goraitzeko, kalera ateratzeko eta, bide batez, haiek garatu zuten ekarpen pedagogikoa —besteak beste— batzeko. Badira hainbat lan jadanik burutuak. Hala ere, gure asmo irmoa izan da emakumeen gaineko liburu biltzailea prestatzea. Horretarako, diziplinarteko taldea osatu dugu. Batetik, Karmele Perez Urraza, Begoña Bilbao Bilbao eta ni neu aritu gara Bilboko Irakasleen Eskolaren aldetik. Bestetik, Asier Madarieta BizkaikoA eta Josu Chueca UPV/EHUkoa aritu dira gurekin lanean. Dendenei, eskerrik asko.

Eskuartean duzun liburuan lau atal bereizi ditugu. Lehenik eta behin, Bizkaiko Diputazioak eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) emakume hauen lanari egiten dioten aitorpena aurkituko duzu. Ostean, Emakume Abertzale Batzaren 90. urteurrenean antolatu diren hitzaldi akademikoak bildu ditugu. Ondoren, mahai-inguruetan aurkeztu diren familiartekoen testigantzak aurkeztu ditugu, eta, azkenik, zenbait emakumeren bizitzaren ezaugarri batzuk. Ez dira denak hemen, milaka izan baitziren, baina daudenak izan ziren.

Biltze lan honetan, eskerrak eman behar dizkiegu zenbait emakumeren senitartekoei, argazkiak eta datuak eman dizkigutelako, euren bizi-esperientzia kontatu digutelako. Bestalde, eskerrik asko Sabino Arana Fundazioari, GOAZ Museum-ari, Garaian (Araka) ikertaldeari, Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegiari eta Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegiari eta Nazionalismoaren Agiritegiari, sarean dauden bildumei, bibliografiatan agertzen direnei, denentzat gure esker ona.

Laster, hamar urte barru, 100. urteurrenerako lana eta gonbitea luzatzen dugu. Oso gutxi dakigu zenbait emakumez eta polita izango litzateke haien bizitzetan sakontzea. Bitartean, bego egin dugun lana! Gustukoa izango duzulakoan,

Gurutze Ezkurdia

Bilboko Irakasleen Eskolako zuzendaria  
2012ko urria

**Emakumeak abertzaletasunean  
giltzarri**

# Emakume Abertzale Batza. Bere ibilbidea aztergai

Itziar Rekalde Rodríguez  
UPV/EHU

Emakume Abertzale Batzari buruz (EAB) idaztea benetako ohorea da niretzat, baina erantzukizun handia ere bai. Izan ere, beste sasoi batean gertatutakoa azaldu beharra dago gaur egun, baina azaldu beharreko ekintzak sortu eta garatu zireneko testuinguru politiko, kultural eta soziala inolaz ere galdu gabe. Atzera begiratzean, iraganari egin behar dizkiogu galderak, eta aztertu, interpretatu eta balioetsi ere egin behar dugu. Lan honetako orrialdeek EABren historian zehar bidaia-tzeko aukera eskainiko digute, eta emakumeen erakunde horren ibilbidea nolakoa izan den jakin ahal izango dugu. Horretarako, ausartu da egilea bera emakume, nazionalista eta prestatzaile moduan interesgarritzat hartzen dituen egitateak aukeratzen.

Bidaia hasi baino lehen, irudimena askatzeko, 100 urtez atzera egiteko eta trenaren historian igotzeko eskatu nahi nizueke. Hona hemen gure bidaiaren helmugak: siglen zentzua eta esanahia, emakume talde ugariaren ideiak nahiz ekintzak, eta XXI. mendean ikaragarritzat hartu ahal izan diren lorpenak. Hain zuzen ere, helburu nagusia da teknologia berrietako belaunaldiei oroitzapen horren lekukoa ematea.

## 1. Sarrera

Euskal emakume nazionalisten EAB erakundea Eusko Alderdi Jeltzalearen inguruan sortu zen, eta aztertu, gogoratu eta balioetsi egin behar dugu, ahalegin eragingarria egin zutelako emakumeentzat gogorra bezain latza zen testuinguru politiko eta sozialean.

Ekintza horiek balioesteko orduan, gutako asko lekuratu egin behar gara, eta egoera irudikatu behar dugu: emakumeek nolako bizi-baldin-

tzak eta aitorpena zeuzkaten xx. mendearen hasieran. Egoera hori irudikatzea oso lagungarria da, emakume horien ekintzak balio urrikotzat edo hutsaltzat ez hartzeko, eta kontuan hartzeko ekintza bakoitzak gaur egungo emakumeon izaeran eduki duen ekarpen txikia. Historian zehar egingo dugun bidaiari emango diogu hasiera.

Fenomeno feminista berantiarra izan zen Espainiako estatuan, eta are nabariagoa Euskadin, kontserbadorea zelako eta emakumeen zeregin-aldaketaren aurka zegoen eliza katolikoak zeresan handia zeukalako bertan. Industrializazioa bera ere oso berantiarra izan zen, Espainiako estatuko beste gune batzuetan baino askoz lehenago garatu bazen ere. Edonola ere, meatzaritza eta burdingintza espezializatzean, emakumeentzat ez zen batere erraza izan laneratzea. Dena dela, zailtasunak zailtasun, emakumeek euren lekua bilatu zuten gizarte aldagarri hartan, nahiz eta eurekin oso sentsibilizatuta ez zegoen. Ahal izan zuten neurrian, apurka-apurka iritsi ziren esparru publikora, eta ahalegin ikaragarria egin zuten, lanerako prestakuntza edukitzeko, soldatapean laneratzeko, ekimen erlijiosoetan laguntzeko eta sasoi hartako gizonen erakunde politiko eta sindikaletan parte hartzeko, hasiera batean zeresan handirik eduki ez arren. Horren guztiorren ondorioz, aldaketa nabarmenak gertatu ziren, gero ikusi eta balioetsi ahal izango dugunez.

## 2. xx. mendeko lehenengo urteak: euskal emakume nazionalisten ahotsa, prentsaren bidez

Euskal emakume nazionalistek 1906. urtetik aurrera izan zuten agerpen publikoa, baina, batez ere, prentsaren bidez. Apurka-apurka eta segurtasun handirik gabe azaldu ziren Bilboko Euskal Gazteriako organoan: *Aberí*. Astekari horren bitartez, euren ahotsa entzunarazi zuten, ideologia nazionalista sexu eta genero bereko kideen artean zabaldu nahian. Sekulako lorpena izan zen, ordura arte eurentzat eskuraezina zen esparru sozialean zeukatelako agerpena, prentsan bertan, alegia. Era berean, beste argitalpen nazionalista batzuek ere *Aberí* astekariaren adibidea hartu zuten kontuan, eta, zenbait urte geroago, inorentzat ez zen harrigarria prentsako orrialdeetan emakume idazle nabariak sinatutako artikuluak aurkitzea: Purificación Gorostiza, «Garbiñe»; Maria Barbier, «Mirentxu»; Raket de Alda; edo *Tene Mujika* (Ugalde, 1991).

Guzti-guztiek ahalegin handia egin zuten euren ahotsa eta pentsaera zabaltzeko, baina gehienek gaztelaniaz idazten zuten. Robustiana Mujika, ordea, *Euzko Deya* argitalpenerako idazten hasi zen sarritan, eta euskaraz idazten zituen testu guzti-guztiak. Deban jaio zen, eta, 1923an, EABko diruzaina izan zen udalerrri horretan. Halaber, EABko Gipuzkoako Federazioko presidentea ere izan zen 1935. urtetik aurrera. Horrez gain, Tenek berak *Euzkadi* egunkarirako ere idazten zuen, *Mujer y nacionalismo* atalean. Bertan, hain zuzen ere, Miren Itziar pertsonaia asmatuari idatzitako epistolen bidez, emakume nazionalisten arketipoa azaltzen eta marrazten zuen: emakumeek etxean eta gizartearen erakutsitako jokabidea eta jarrera... Gutun horiek guztiek helburu didaktikoa zuten, emakume gazte nazionalistak hezteara, alegia:

Ene Itziartxo: Aldi ontan aipatu dizkizut zenbait euzko-oitura zar, zeñak irauteko, edo bizitzeko emakumion eragiña bearreko duten; onela agertu nairik, beraben alde egiñaz, berabek zaituaz, geuk ere Lege-Zar alde zerbait dezakegul... Utzi ditut baña baita batzuk aipatu gabe, gaurko aurrerapenakin, oitura oyek alperrikako ditugulako... Gaurko bizikera berri eta aurreratuak, beste oitura berri batzuk eskatzen dizkigu, egibera berri bat eskatzen digulako; eta abetan okertu ez gaitezana, ardura berezi bat bearreko zaigu, Jainkoaren eta Aberriaren maitasunean gure egiñenen zuzenbidea billa (R. Mujika, *Euzkadi*, 1921).

1906. urteaz geroztik, emakumeen ahotsa entzuten hasi zen prentsaren bidez. 1907ko uztailean, Rakel de Alda «Kataliñ»ek, 20 urteko neska gazte bilbotarrak, proposamen iraultzailea egin zuen *Aberri* astekarian, emakumeen erakunde nazionalistaren sorrera proposatzean, emakumeek esparru pribatutik zein etxeko eremutik irten zitezen eta, gizonekin batera, gure aberriaren eraketan parte har zezaten.

M. Ugaldek dioenez (1991), asmo handiegiko proposamena izan zen garai hartarako, baina oihartzuna eduki zuen. Izan ere, «Libe»ri, beste emakume bati (Victorina de Larrinaga omen zen), beste era bateko emakume-elkartea gauzatzea bururatu zitzaion 1908ko otsailaren 2an; *Ropero Vasco* (Euskal Jantzitegia), alegia. Ongintza zein laguntzarako erakundea zen, eta arropak nahiz tresnak biltzen zituen egoera txarra goan zeuden sektore sozialentzat. Bertan elkartutako emakume nazionalistek Eusko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) helburuak lortzea bultzatu nahi zuten, banan-banan zein taldean, etxean bertan nahiz etxetik

kanpo. Helburu bikoitza zuten: euskal nazionalismoa taldean sustatzea eta balio *jelkideak* bultzatzea. Elkarre horrek, beraz, ez zuen sorrarazi Rakel de Aldak proposatutakoa besteko aurkakotasunik, ongintzarako zelako. Dena dela, elkartzeko eta taldeko jarduera publikoa egiten ikasteko aukera eskaini zien emakumeoi.

Liberen pragmatismoak arrakasta izan zuen. Haien helburua ongintzarantz desbideratu bazen ere, Kataliñen aldeko emakume nazionalistek sektore nazionalista guztien adostasuna lortu zuten *Ropero Vasco* sortzeko, Kataliñek proposatutakoa bezalako emakume-erakunde nazionalista eratzeke moduko baldintzen zain. Hori dela eta, EABren aurrekaria omen da *Ropero Vasco*.

Nolanahi ere, *emakumeen* ahotsa prentsaren bidez entzun zen 1910-1920ko hamarkadan, *Bizkaitarra* argitalpenean, «*Colaboración femenina*» atalean, hain zuzen ere. Bertan, dozena erdi emakumek idazten zuten sarritan, baina, nor ziren jakiterik nahi ez zutenek, ezizenpean idazten zuten, beren anonimatuari eusteko: *Miren Ikerne*, *Gotzone Miren*, *Miren Josune*, *Andra Garatz*, *Maite*, *Igone*... Beraz, ezinezkoa da atzean zer emakume dagoen jakitea. Hori horrela izanik ere, argi eta garbi dago zein den euren helburua: ideia *jeltzaleak* zabaltzea eta *emakumeen* ekintza nahiz lana gizonek garatutakoen osagarri moduan bultzatzea.

Hamarkada horretan, gogoan izan behar dugu Karmen Errazti «*Etxakin*»en, izena ere. Tene Mujikarekin batera, *Euzko Deya* argitalpenean idazten zuen, eta, 1922. urtean, EABko presidente ere izan zen. Bilbotarra zen, eta, 26 urte zituela, euskara ikasi zuen Kirikiñorekin. Bere lan gehienak euskaraz idatzi zituen *Euskeldun neskatillai* argitalperako, eta Sabino Aranaren ideologia irakastea eta emakumeen artean zabaltzea zeukan helburu nagusi.

### 3. Egia bihurtutako guraria: EABren sorrera 1922ko maiatzean

xx. mendeko lehenengo bi hamarkadetan, emakumeen erakundea eratzeke giro atsegina sortu zen. Dena dela, 1920ko hamarkadaren hasierara arte ez ziren EAB sortzeko baldintza egokiak agertu. M. Ugalderen esanetan (1993), hiru faktoreri esker, 1907an sortu ezin izan zen erakundea eratu zen garai horretan:



- Lehenengo eta behin, Lehen Mundu Gerraren ostean, aldarrikapen feministen aldekoa zen erabat nazioarteko egoera. Urte haietan, hainbat eta hainbat herrialdek legez aitortu zuten emakumeek eskubidea zeukatela botoa emateko eta jarduera politikoan parte hartzeko. Hori dela eta, inoiz uste ez bezalako lekuetan sortu ziren emakumeen erakundeak. Euskadin, ostera, ez zegoen horrelako erakundeak sortzeko moduko baldintzarik. Hori horrela izanda ere, gure testuinguruan aurrera egin zuen modernizazio prozesuak; mugimendu nazionalista bertan murgilduta zegoen eta, horren ondorioz, aldaketak sortu ziren emakumeei zein euren eginkizun sozialari buruzko ideien inguruan, nahiz eta oso txikiak izan.
- Bigarrenez, EAB sortzeko orduan, oso erabakigarria izan zen euskal nazionalismoaren barne-banaketa gertatzea eta, 1921. urtean, Bilboko Euskal Gazteriaren nahiz *Aberí* astekariaren inguruan alderdi nazionalista berria sortu izana. Hain zuzen ere, 1906. urteaz geroztik, sektore horiek emakume nazionalisten aurrerapausoak sustatu zituzten esparru publikoan, eta, une hartan, ahalik eta babes handiena lortu behar zuten, emakumeena euren ere bai, alderdi berria euskal gizartean are gehiago ezartzeko asmoz.
- Hirugarrenez, oso faktore erabakigarria izan zen Ambrose V. Martin O'Daly irlandarrak 1922ko apirilean Bilbon emandako hitzaldia. Bertan, Irlandako emakume nazionalisten *Cumann na mBan* erakundea nola sortu zen azaldu zuen. Emakume irlandarrek hausturarik gabeko mobilizazioaren alde egin zuten, esparru sozial berrietara heltzeko eta, horrez gain, gizartean bertan eragin nahiz ospe handia erdiesteko. Berehala, berrogeita hamar emakumek, emakume irlandarren antzera, bat egin zuten Euskadin emakume nazionalisten erakundea eratzeko proposamenarekin; handik egun gutxira, ehun emakume ere baziren.

Mercedes Ugalde historialariak dioenez (1993), bi etapa daude: lehenengoa, 1922ko maiatzean eratu zenetik 1923ko irailean desegin zen arte; eta bigarrena, 1931ko apiriletik aurrera.

Lehenengo etapan, Bizkaiko hiriburuan baino ez zen ezarri EAB. Karmen Errazti presidentearen esanetan, 400 emakume afiliatu inguru zituen, eta Euskal Gazteriaren eskumendeko moduan sortu zen. 1922ko maiatzaren 7an, EAE eratzeko batzarrerako deia egin zen Euskal Gazte-

riako lokaletan. Hona hemen Zuzendaritza Batzordeko kideak: Karmen Errazti, Pilar Eguiraun, Paulina Ramos, María Jesús Ibaseta, Jesusa Fresnedo, Alicia Arechabaleta eta Petra Gandarias. Oso-osoa familia nazionalistetako kideak ziren; kide aktiboak zituzten alderdian, euren kulturamailla handia zen eta gehienak maistrak ziren.

Bi eratako afiliatuak ziren: izangaiak, 12 eta 16 urte artekoak (ezin ziren zuzendaritzako kide izan, eta ez zuten botorako eskubiderik); eta 16 urtetik aurrerakoak, inolako adin-mugarik gabe. 1922ko maiatzaren 31 baino lehen izena eman zuten guztiak kide sortzailatzat hartu zituzten.

Urte eta erdian garatutako lana lau ekintza multzotan banatu zen: propaganda, ongintza, hezkuntza eta zerbitzu afektiboak.

1. Lau ekintza multzo horietatik, *propaganda* baino ez zegoen arlo politikoarekin berarekin zuzenean lotuta, eta *emakumeek gizonen ekintzaren eraginpean ez zeuden lekuetan* baino ez zuten egin behar. Propagandaren arloan garatzen zuten lana bizi-bizia bazen ere, oro har, jarduera politikoan zeukaten zeregina bigarren mailakoa edo osagarria zen, alderdiko gizonen esku jarraitzen zutelako funtsean.
2. *Ongintzaren* arloan, behartsuei laguntza materiala eman nahi zieten, ongintzako erakundeak sortu zituzten, euren artean ere propaganda sustatu nahian.
3. *Hezkuntzari* dagokionez, emakumeak eta umeak zituzten helburu nagusi. Batez ere, etxeko jarduera hobetzen lagundu nahi zieten emakumeei sukaldaritzako ikastaroen bidez, baina, era berean, premiarik sortuz gero, arlo profesionalean erabilgarri izan zitezkeen zenbait irakaskuntza praktikoa ere eskaintzen zizkieten; takigrafia eta mekanografia, esaterako. Bestetik, honako arlo hauetako ikastaroak ere antolatzen zituzten neska-mutilentzat: literatura, antzerkia, musika, dantzak, jokoak eta euskara. Ongintza eta hezkuntza oso ondo ikusita eta onartuta zeuden gizartean, eta, aldi berean, jarduketa publiko zein profesionala garatzeko abagunea ere ematen zieten nolabaiteko aukera ekonomikoak zeuzkaten emakumeei. Lanbide-prestakuntzari begira, 1920ko hamarkadan, gizarte-maila ertaineko emakumeek irakaskale-ikasketak egin zitzaizketen gehienez ere, eta goi-mailako familiarietako emakume kideentzat ongintza zen beren garapen pertso-

nala lortzeko bitartekoa. Beraz, oso ondo onartzen zituzten gizartean, emakumeek tradizioaren arabera zeukaten ama-eginkizunarekin bat egiten zutelako. Hori dela eta, ez zegoen inolako eragozpenik, eta abantaila asko zeuden, EABk bi zeregin horiek garatu zitzen.

4. *Zerbitzu afektiboei* dagokienez, eguneroko borrokan adorea ematen zieten militante nazionalistei, euren idealak defendatzeko sakrifizioa nahiz eroapena igortzen zizkieten, eta kontsolatu egiten zituzten gobernuak zapal dutako zein istilu politikoetako gainerako biktimak eta presoak.

EABk berak ere Euskal Gazteriarekin batera parte hartzen zuen ekitaldi oroigarrietan: Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena, literaturako zein musikako arratsaldiak... Karmen Erraztik *Aberri* astekarian adierazi zuen bezala, EABk emakume-eredua zabaltzen zuen, eta,aldi berean, gizonak ez bezala parte hartzen zuen jarduera publiko nazionalistan, gizonen aurrean alde batera utzi gabe beren nortasuna eta familiar zeukaten eginkizuna.

Dena dela, alderdiaren aldeko lana ez ezik, askok eta askok lan handia egin zuten hezkuntza arautuaren arloan ere, euskararen zabalkundearen, hain zuzen ere. EABko zenbait emakume Bizkaiko Aldundiak 1977an lurraldeko Trebakuntza Publikorako Batzaren bidez sortutako *Auzuneko Eskoletako* maistrak ziren; esate baterako, Julene de Azpeitia, Sorne Unzueta, Encarnación Velasco, Josefa Inés Aranzadi, Carmen Egia, Purificación Mandiola edo Consuelo Gallastegi.

Orain, geldialdi laburra egingo dugu geure bidaian, Julene de Azpeitiaren lana nabarmendu ahal izateko, oso legatu historiko handia utzi digu-eta. Zarautzarra zen, sustrai nazionalista sakonak zituen, eta ekinzaitza *jelkidea* izan zen bere bizitzako ardatzetako bat. EABko kidea zen, euskararen ekintzailea, Eusko Ikastola Batzako zein Eusko Irakasle Bazkuneko laguntzailea, Matienako Auzuneko Eskolako maistra (Abadiño) eta mendearen lehenengo herenean prentsan artikulatu gehien idatzi zituzten euskal emakumeetako.

*Aberri* eta *Gipuzkoarra* argitalpenetan eman zituzten argitara doktrina jeltzalea defendatzeko idatzi zituen lehenengo aldarrikapenak, «Arritokietak» edo «Eskauriatzak» ezizenpean. Azken hori, gainera, senarraren abizena zen. Beretzat ez zen batere erraza anonimatutik irtetea,

gainerako emakume kideek bezala erresistentzia sendoak hautsi behar zituelako, nazionalismoko sektore zabaletan nahiz euren artean. Zeregin berriari aurre egin behar zionez, ez zeukan behar besteko segurtasunik, eta, horrez gain, ez zegoen batere argi bere eskumendekoa zen ala ez.

1931tik 1933ra, 57 lan argitaratu zituen *Euzkadi* egunkarian, Esteban Urkiaga «Lauaxeta»ren eskaerari erantzuteko asmoz. Artikulu horien % 70ek baino gehiagok euskal umeen hezkuntza zuen hizpide, eta «Euzkotar umien alde» goiburupean argitaratu ziren euskaraz. 1933ko urtarriaren 18an, atal horri hasiera eman zion Julenek egunkari horretan euskaraz idazten zen orrialdean, eta etengabe idatzi zuen bertan, harik eta gerra hasi zen arte. Sail horretako artikuluetako bategatik, *Kirikiño saria* (1934) eman zioten. Artikulu horretan, hain zuzen ere, euliaren bi-zi-zikloa azaltzen zuen umeentzako ipuin moduan.

Atal horretako artikuluen edukia pedagogikoa zen funtsean. Hala ere, gai politikoak ere nahasten ziren sarritan; esate baterako, umeen artean autonomia-estatutuaren alde egindako propaganda, edo garai hartako gobernu errepublikarrak ezarri nahi zuenarekin bat ez zetorren eskola-eredu nazionalista konfesionalaren defentsa. Ama-hizkuntzan emandako irakaskuntza ez ezik, irakaskuntza euskaldunean erabili beharreko metodo pedagogiko modernoagoak ezartzea ere aldarrikatzen zuen bere idatzietan; hau da, pedagogia subjektu bakoitzaren ezaugarrietara egokitzea, haien jarduera nahiz sormena bultzatzea, eta hizkuntzaren ikaskuntzan ikusizko teknikak erabiltzea.

Euskarazko idatzi horiek ez ezik, zenbait artikuluko ere argitaratu zituen gaztelaniaz. Bertan, eskola pribatua eta irakaskuntza erlijiosoa defendatu zituen, eta aurka egin zion gobernu errepublikarraren hezkuntza-politikari, eskola publikoa garatu nahi zuelako pribatuaren kalteetan eta irakaskuntza laikoa ezarri nahi zuelako. Hiru artikuluko gaztelaniaz argitaratu zituzten *Euzkadi* egunkariko lehenengo orrialdean; eta beste bat, hirugarren orrialdean, Eusko Irakasle Bazkunak eskatuta. Bertan, hain zuzen ere, Txekoslovakiako esperientzia azaldu zuen ama-hizkuntza errespetatzen zuen irakaskuntza elebidunaren eredu moduan.

Horrez gain, gai politikoak ere jorratu zituen Julenek; esate baterako, emakumeen sufragioa, dibortzioa, hezkuntza-politika eta autonomia-estatutua. Julenek beti-beti defendatu zuen emakumeen jarduketa

politikoa, argudio eraginkorrean oinarrituta, hau da, bere ingurunean harrera onena zeukan argudioa kontuan hartuta: euskal nazionalismoari begira zeukan onura.

1923ko irailaren 13an amaitu zen EABren lehenengo etapa, Primo de Riveraren diktadura militarra aldarrikatu ondoren.

#### 4. EABren hedapena eta garapena 1931tik aurrera

1931ko apirilean, II. Errepublika ezarri zenean, hasi zen EABren bigarren etapa. Egoera sozial hartako inguruabar politikoa ezin hobea izan zen, erakundea bera berriro agertu eta eratzeko orduan. Espainiako estatuan ezarritako legegintza prozesuak emakumeen bereizkeria zibil eta politikoa desagerrarazi nahi zuenez, emakumeek jauzi kualitatiboa eman zezaketen esparru publikoaren okupazioan. Emakumeek sufragio aktibo zein pasiborako eskubidea zeukatenez, hau da, hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea zuten, ireki egin zitzaizkien ordura arte itxita eduki zituzten politikaren ateak. Emakumeek euren botoa eman ahal izan zuten 1933ko eta 1936ko hauteskunde nahiz plebiszituetan. Era berean, hauteskunde-zerrendetako hautagai, parlamentario, alkate edo zinegotzi izateko aukera ere eduki zuten, artean gutxi bazeuden ere.

Euskadin, EAJk berriro bat egin zuen. Aldi berean, EAB bera Bilbon berrerratu zen, eta 1931ko ekainaren 25ean Zuzendaritza Batzordea aukeratu zuten. Hartara, 1931ko urrian, EABk 26 elkarte zituen Bizkaian, eta, 1933an, EABko 110 elkarte zeuden lurralde horretako 85 udalerritan. Beraz, Bizkaiko 31 udalerrri soilik ziren horrelako elkarterik ez zeukatenak.

Gipuzkoari zegokionez, 1931ko udan, 13 elkarte sortu ziren, eta, 1933an, EABko 57 elkarte zeuden 49 udalerritan. Beraz, Gipuzkoako udalerrien erdietan baino gehiagotan zegoen EAB. Nafarroan, ostera, 20 elkarte zeuden 1933an; eta, Araban, 10 (Ugalde, 1993).

Ikuspegi geografikotik, itsasertzeko eta barrualdeko gune industrializatuetan hasi zen hedapena, biztanle ugarieneko guneetan, hain zuzen ere; eta, ondoren, biztanle gutxieneko landa-inguruneetara hedatu zen. Araban eta Nafarroan, ordea, EAB are gehiago ezarri zen hiriburuetan eta Bizkaiko zein Gipuzkoako eremu mugakideetan.

Emakume afiliatuen kopuruari dagokionez, Errepublikako lehenengo biurtekoan, *Erreformatan*, alegia, EABk 20.000tik gora emakume kide zituen guztira, eta haietatik 12.000 inguru ziren Bizkaikoak. Tamaina ertaineko udalerrietan, 300, 400 edo 600 laguneko erakundeak zituen, oro har.

Garai hartan, honako hauexek izan ziren EABren jarduera nagusiak: gizarte-laguntza; gaixoen, egoera txarragoan zeuden bizilagunen eta presoen babesa; emakume eta umeen hezkuntza; kazetaritza; eta literatura. Izan ere, mezu eta ideia nazionalistak zabaltzeko mitin zein ekitaldi publikoetan parte hartzen zuten bete-betean. Loriaren etapa izan zen beharbada, *emakumeek* agerpena izan zutelako gizartean.

Edonola ere, seguruenik, hezkuntzaren arloan lortu zuten aurrerapena izan zen emankor, iraunkor eta ezagunena. Orain, beste geldialdixo bat egingo dugu zenbait gai berreskuratzeko.

#### 4.1. II. Errepublika eta hezkuntza: EABrentzako aukera aparta

II. Errepublikako hezkuntza-politikan, asmo handiko proiektua jarri zuten abian, hezkuntza-sistema eraldatzeko asmoz. Lehenengo biurtekoan, zirriborroa egin zuten, Irakaskuntza Askearen ideietan oinarrituta. Honako hauexen erregularizazioaren inguruan egin zituen legeak, gainera: elebitasuna, erlijioaren irakaskuntza, eginkizun pedagogikoak eta eskola nazionalen eraikuntza, Bost Urteko Planaren bitartez.

Une hartan, Euskal Eskolak (1932-37) eratu zituzten. Hasiera batean, Bizkaian sortu zituzten, eta *emakumeek* diseinatu eta bultzatu zituzten. Eskola horiek, hain zuzen ere, euskal nazionalismo konfesionalak 1931ko Konstituzioko politika laizistari emandako erantzuna izan ziren, baita euskal nazionalismoa sustatzeko tresna ideologikoa ere. Eusko Ikastola Batza 1932ko martxoaren 4an eratu zen, eta, horretarako, urte bereko apirilaren 9an erregistratu zen kultur elkarte moduan.

EABko elkartean ustez, honako hauexek ziren emakumeen hezkuntzaren hiru ardatzak: etxean egindako lana hobetzea, etxetik kanpoko zenbait jarduera profesionaletarako prestatzea, eta euskal kulturaren zein doktrina jeltzalearen inguruko jakintza lantzea. Horrez gain,

umeak ere hezi behar zituzten, emakumeen ama-eginkizunaren proiektu eta osagarri moduan. Horretarako, helburu desberdin bezain osagarriak zeuzkaten bi erakunde bultzatu zituzten: Eusko Ikastola Batza eta Eusko Gaztetxu Batza.

#### 4.1.1. EUSKO IKASTOLA BATZA

Batetik, II. Errepublika oso epealdi egokia zen Euskadiko irakaskuntzan aldaketak egiteko. Hain zuzen ere, erlijio katolikoa alde batera utzita, gobernu zentralerako hezkuntza-politikak eskola laikoa ezarri nahi zuenez, alarma handia sortu zen euskal biztanleen artean eta, batez ere, nazionalismotik hurbil zeuden sektoreen artean. Bestetik, ezin negona erabatekoa zen, emandako lehen mailako irakaskuntzaren edukia ez zelako euskalduna, ez eskola publikoetan, ezta Euskadiko ikastetxe erlijiosoetan ere. Gainera, bertan euskara ahaztuko ote zuten beldur ere baziren.

1931ko Konstituzioa onartu eta gobernuko hezkuntza-politika zehaztu ondoren, mugimenduaren helburu nazionalistei eta erlijiosoei erantzuten zieten eskolak sortzea bultzatu zuen EABk. Eusko Ikastola Batzaren antolaeran, bi zuzendaritza-organo eratu ziren. Gobernu Batzordea Bilbon zegoen finkatuta, eta Bizkaia osoan zeukan jurisdikzioa. Toki-batzordeak, ordea, Gobernu Batzordearen menpe zeuden, baina independentzia administratiboa zeukaten, eta Bizkaiko herrietan sortu zuten eskola bakoitzaren gaineko jurisdikzioa zeukaten. Federazioa bultzatu zuenez, EABk zuzendaritzako leku nagusia bete behar bazuen ere, gizonak alboratu egin zuten, eta presidentetzatik aldentutako oso-oso ordezkari urria eduki zuen Gobernu Batzordean zein toki-batzordeetan. Bi ordezkari izan zituen Gobernu Batzordean, eta bertako kideak izan ziren: Concepción Gangoiti eta Consuelo Gallastegi, EABko presidenteordea eta idazkariordea, hurrenez hurren. Hona hemen Gobernu Batzorde horretako batzordekideak: presidentea, Francisco Horn y Areilza; diruzaina, Félix Zubizarreta; idazkaria, Elías Gallastegi; eta kideak, Manuel Eguileor, José Vilallonga, Concepción Gangoiti eta Consuelo Gallastegi.

Bere funtsezko hezkuntza-printzipioaren arabera, hezkuntza familia-eginkizuna denez, gurasoek erabaki behar dute nolako hezkuntza eman nahi dieten seme-alabei. Hori dela eta, hezkuntza pribatuaren alde zeuden.

Lehenengo ikasturtean, matrikulatuen kopurua mila umekoa izan zen, gutxi gorabehera. 1933. urtearen amaierarako, 21 eskola zeuden abian, eta 1.250 inguru ikasle zituzten. 1934. urtean, Galdakao, Gernika eta San Salvador del Valleko eskolak ireki zituzten; eta, 1935ean, Durangokoa. Garai hartarako, 27 eskola ireki zituen federazioak, eta 1.500 inguru ikasle zeuden matrikulatuta.

Eskola horietako eta sistema ofizialeko curriculumak desberdinak ziren honako arlo hauetan: erlijioa, euskara, euskal geografia eta historia, kantua eta musika. Nazionalismoaren aldeko irakaskuntza elebiduna zen, beraz (Fernández, 1994). Ulergarria denez, ez zen talde sozial guztien gustukoa izan estatuko politikaren aurka zeuden eskola horiek sortzea. 1933ko apirilean, Bilboko *Errotatxueta* eskola erre zuten, guztientzako eskola bakar eta berdina aldarrikatzeko asmoz. Kontrolik gabeko ekintza guztietan gertatzen den bezala, ezjakintasuna izan zen arrazoi nagusia, hau da, jendeak ez zekien zer adierazten zen 1931ko Konstituzioan eta gobernu errepublikarrak ezarritako legerian. Euskal eskolak eskola pribatuak zirenez, estatuaren kontrolpean egon behar ziren. Hala ere, dotrina kristauaren ikasbidea irakats zezaketen, betiere irakasleen eta gurasoen arteko adostasunik lortzen bazuten. Ordena erlijiosoak ez zirenez, irakatsi egin zezaketen. Euskararen erabilerari zego-kionez, 1931ko apirilaren 29ko Dekretuaren bidez araututa ez zegoenez, ez zen horren aurkakoa.

Bertan emandako irakaskuntza elebiduna, katolikoa eta euskalduna zen. 8 urtera arteko umeak Haur Hezkuntzan egon behar ziren; eta 8 eta 12 urte artekoak, Lehen Hezkuntzako lehenengo mailetan. Horrez gain, Belostikaleko eskolan, batxilergoa eta merkataritza prestatzeko ikastaroak ere antolatu ziren, baita frantses, ingeles, takigrafia eta mekano-grafiako klase bereziak ere.

Materialei zegokienez, arreta handi-handiz aukeratu zituzten eskoletan erabili beharreko liburuak. Liburu horiek Aita Luis Aguirrek aukeratu zituen, eta, aldi berean, eskoletako hezkuntza moral zein erlijiosoa-ren arduraduna ere bazen. Horretarako, indarreko legeria eta Konstituzioko 48. artikulua hartu zituen kontuan.

Irakaskuntzarako instalazioak desberdinak ziren kasu bakoitzean, baina baldintzak antzekoak ziren, bat-batekoak izan ziren-eta. Hona hemen non jarri zituzten eskolak: horretarako sortutako lekuetan, Bilboko eskoletan adibidez (Belostikale eta Errotatxueta); etxebizitzetan,



Barakaldon, Elorrion, Galdakaon, Gernikan, Ondarretan nahiz Sondikan; edo, batzokietan, Durangon, Portugaleten, San Salvador del Vallen eta Bergaran, esaterako.

Euskararen erabilerari zegokionez, ez zen modu berean garatzen federazioko eskola guztietan. Euskara komunikazio zein ikaskuntzarako hizkuntza zen, eta gaztelania bigarren hizkuntza moduan ikasten zen honako udalerrri hauetako eskoletan: Amorebieta, Durango, Elorrio, Galdakao, Gernika, Sondika eta Bergara; hau da, euskaldun gehien zituzten guneeetan. Euskara, lexikoa eta gramatika ikasten zituzten; euskal musikagileen lanen inguruko gustu musikala eta erritmoa lantzen zituzten; eta Euskal Herriko historia bera ere azaltzen zuten.

Euskal Eskolen Federazioko maistrei dagokienez, Polixene Trabuduaren biografian egin behar dugu geldialditxo.

Polixene Trabudua Sondikako Eusko Ikastola Batzako eskolako maistra izan zen, baita EABko emakume propagandagile ospetsuenetakoa ere. Espetxeratu egin zuten, bere hitzaldi batean Espainiaren aurka egindako irainen ondorioz jarri zioten isuna ez ordaintzeagatik. Eskolan bertan atxilotu eta Haydée Aguirrerekin batera espetxeratu zuten 1933ko urtarrilaren 11n. Bi emakumeek Bizkai Buru Batzarreko presidenteari idatzi zioten espetxetik, euren egoeragatik emakume nazionalisten alde egingo zuten omenaldiaren ordeztu euskal amen omenaldia egin zezatela eskatzeko. Horrela, bada, bi propagandagileek euren ama-eginkizunarekin uztartu zituzten emakumeak, garaiko pentsaeraren arabera, eta alde batera utzi zuten gizakitzat hartutako emakumeen izaera. Izan ere, amatasuna bizitzeko eta, horren bidez, nazionalismoa sendotzeko gai ziren, baina, aldi berean, gai ziren euren ideia politikoen propaganda zuzen eta publikoa garatzeko ere. Hain zuzen ere, horrexegatik zeuden espetxean euren kideekin batera.

Maistra hori ahozko propagandagile aditua zen mitinetan nahiz hitzaldietan, eta, lantzean behin, prentsarako lanak ere egin zituen, ideologia nazionalista zabaltzeko asmoz. Esate baterako, *Euzkadi* egunkari-rako, *Aberri Eguna* aldizkarirako eta, batez ere, *Jagi-Jagi* astekarirako lan egin zuen. Artikulu horietan, nazionalismo maximalistaren alde egiten zuen maistrak. Hori dela eta, aukera txikiena ere ez zien ematen aurkari-iei, hitzen bidez aurre egiten zion kapitalismoari, eta langileak eurak defendatzen zituen, jarrera populista, sozial eta kristautik. Bere ustez,

emakumeak etxean egon behar ziren, eta emakumeek euren ama-eginkizunaren bidez egin behar zuten nazionalismorako ekarpena. Horretarako, Jaungoikoa eta Aberria maitatu behar direla zioen doktrina nazionalistan hezi behar zituzten seme-alabak. Edonola ere, Euskal Herria esklabotzapean zegoela uste zuenez, oso egokia zen emakumeak euren bizia emateko eta *emetasunari* uko egiteko prest egotea, aizkora edo fusila hartu behar bazuten.

Eusko Ikastola Batzako zuzendaritzako erantzukizun karguak alderdiko gizonak bete bazituzten ere, ez zen gauza bera gertatu irakaskuntzaren eguneroko jardunean, ia-ia emakumeen esku bakarrik egon zelako.

#### 4.1.2. EUSKO GAZTETXU BATZA

Eusko Gaztetxu Batza umeak hezteko erakunde moduan sortu zen, emakumeen ama-eginkizunaren proiektzio eta osagarri moduan. *Gaztetxuak emakumeekin* joaten ziren alderdiak edo udalerriko batzokiak antolatutako ekitaldi gehienetara. Era berean, *Dirua Biltzeko Mahaietan* ere parte hartzen zuten, alderdiarentzako funtsak batzeko asmoz. Mahai bakoitzean, *mutil* bat eta *neska* bat zeuden, eta kasuan kasuko herriko batzordeko ordezkaria zen burua. *Emakumeek* horretarako eratutako batzordeetan, klase osagarriak ere antolatzen zituzten umeentzat, eta astean zehar garatzen ziren EABko egoitzetan: besteak beste, Euskadiko Historia eta Geografia, Euskara, Lanak, Abestiak, Dantzak eta *Ikaskuntzen Zirkulua* ziren *emakumeek* umeei prestatzaile moduan emandako klaseak.

Gerra bete-betean, EABk eta Bilboko Euskal Gazteria elkarteak *mutiko* eta *neskatilentzako* inskripzioa ireki zuten, erlijio-, aberri- eta dantza-arloko prestakuntza jaso zezaten. Bestetik, *umetxuei* eurei ere kristau-ikasbideko klaseak ematen zizkieten euskaraz. *Emakume abertzaleek* hainbat eta hainbat ekitaldi antolatu zituzten umeentzat, inguruan gertatutakoari erreparatu ez ziezaioten: filmen emanaldiak, tonbolak, antzezpenak... Era berean, jaunartzeko mezak ere antolatzen zituzten *gaztetxuentzat*. Hilabete horietan, *umetxuek* parte hartu zuten EABk eta Euskal Gazteriak antolatutako hainbat ekitalditan, une latz haiek eroangarriagoak izan zitezten. Horrez gain, era guztietako helburuetarako funtsak ere biltzen zituzten bertan: EABko laguntza sozialaren alde, gudarien alde, errefuxiatuen alde, gaixoen alde... Era berean,

txikientzako mezak ere antolatzen zituzten, baita frontean hildako *gaztetxu* ohien omenezkoak ere.

## 5. EAB, 1936-1937ko Gerrako hilabeteetan

Badirudi EABren lan guztia Gerra Zibila hastean eten zela, baina ez da egia. Aurreko epigrafean aurreratu dugun bezala, EABren lana oso oso aktiboa izan zen artean, segurtasunik eza, indarkeria eta ziurgabetasuna nagusi baziren ere. Edonola ere, oso garai egokia ere bazen euskal emakumeek etxetik kanpo egin zezaketen lana suspertzeko. Historiografiari begira, hilabete horiek erakundearen garapeneko alditzat hartzen ez badira ere, frankismoak luzaroan isilarazitako eta ahaztutako ekintzak aldarrikatu beharko genituzke. Izan ere, erabat gutxietsi zituzten gerra-giroan, nahiz eta horren ondorioz emakumeek inoiz baino agerpen handiagoa eduki zuten gizartean. Ondoren, gerrako hilabeteetan, 1936ko uztailetik 1937ko ekainera, Bilbon egingo dugu geldialditxo, EABren ekintzak aztertzeke asmoz.

1936ko uztailaren 18an, Franco izan zen matxinadako burua, eta, horren ondorioz, gatazka armatu odoltsua sortu zen. EAJk hautestontzietan ezarritako erregimen errepublikarrarekin bat zetorrela aldarrikatu zuen. Gerra bete-betean, Estatuko Gorteen lehenengo Euskal Autonomia Estatutua onartu zuten, eta Jose Antonio Agirre buruzagi nazionalista aukeratu zuten lehendakari, EAJk eta beste alderdi demokratiko batzuek osatutako gobernua eratzeke. Agirrek agindu zuenez, irakas-kuntzaren arloko eskumen guztiak estatuarenak eta, haren ordezkari moduan, Eusko Jaurlaritzako lehendakariarenak izango ziren. Lehendakaritzak, beraz, behin-behineko gobernuko Justizia eta Kulturako J. M. Leizaola sailburuaren esku utzi zituen.

Bilbadura politiko horretan, EABk zuzenean eta zeharka parte hartu zuen zenbait arlotan:

- Euskal eskola publikoa eraikitzea: Eusko Ikastola Batzaren eredu oinarritutako Euzkadiko Eskolak.
- Julia Fernández Zabaletaren bidez, EABk Euskal Unibertsitatea eratzeke ekarpena egitea.
- Emakumeen garapen profesionalerako prestakuntza ematea: gerrako erizainak.
- Atzeguardian, emakumeen lan zabal bezain zuzena hedatzea.

### 5.1. Euzkadiko Eskolak

1936ko urriaren 16an, Leizaolak Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolei eman zien bere sailera atxikitze aukera, halaxe nahi izanez gero. Guztira, 53 eskolak eskatu zuten atxikimendua: 14 Eusko Ikastola Batzakoak ziren, 25 federazio horretara zeuden atxikita eta beste 14 fundaziokoak eta/edo erlijiosoak ziren. Era berean, bitarteko irakasleen tituluak ere sortu ziren, eskola horietan lan egin zezaten. Bertan, hain zuzen ere, Polixene Trabudua eta Libe Altuna aurkituko ditugu berriro.

Horretarako, testuinguru sozial eta kulturala hartu zen kontuan, euskal gizartean bizitako gerra-egoerari erreparatu gabe (Rekalde, 2001). Etorkizunari begira ari ziren eratzten, eta ez orainari begira (ikus 1. irudia).

Eskola horietan ama-hizkuntzan irakasten zuten, bigarren hizkuntza ere landu beharra zegoela ahaztu gabe. Eskolaren kokalekuaren arabera

## 1. irudia

### *Euzkadiko Eskolen curriculum-a*

#### **Euzkadiko Eskolen curriculum-a**

- Irakaskuntza praktikan oinarritua
  - Irakaskuntza aktiboa
  - Lanean oinarritutako irakaskuntza
  - Irakaskuntza "objektiboa"
- Gizartean parte-hartzeko irakaskuntza integrala

**Guda kontutan hartu  
gabe, eta testuingurura  
begiratuz**

- Ezagutza tradizionalak
- Lan praktikoak (marrazketa, kaligrafia, eskulanak, mapen eraikuntza, ...)
- Ama hizkuntza erabiliz (bigarren hizkuntza progresiboki landuz)


**Eskola curriculum-ean  
berrikuntzak**

- **Euskara:** hasieran jokoan bitartez, geroago gramatika
- **Heziketa fisikoa:** Europako mugimenduak
  - Eskola higijena
  - Musika
  - Dantza

sailkatzen ziren. Honako hauxe agertzen zen curriculumean: euskara, hezkuntza fisikoa, eskolako higiena eta euskal folklorearekin lotutako arlo guztiak; musika eta dantza, esaterako. Arlo horiek, hain zuzen ere, ezinbestekoak ziren euskal kultura bera aztertzeo eta garatzeko orduan (ikus 2. irudia).

## 2. irudia

### Euzkadiko Eskolen curriculum-a (jarraipena)



Argi eta garbi zuten hezkuntza fisikoko irakasleak egon behar zirela, eta hezkuntza fisikoko katedra ezarri zen eskola arruntetan.

Ez zen behin betiko eskola-eredurik ezarri, Auzuneko Eskoletan hasitako esperientziei eta, batez ere, EABk berak Eusko Ikastola Batzan zein Eusko Gaztetxu Batzan bultzatutako ereduari eman nahi izan zielako jarraipena. Hain zuzen ere, helburu nagusia izan zen EABren proposamena Lehen eta Haur Hezkuntzako esparru publikoan ezartzea.

## 5.2. Julia Fernández Zabaleta eta Euskal Unibertsitatea

Julia Fernández Zabaleta izan zen Nafarroako EABren sekzioko lehenengo presidentea eta bultzatzailea. Idazle moduan, *Euskal Esnalea* erakundearen eman zituen lehen urratsak. Urtero, erakunde horrek hitzaldiak antolatzen zituen euskaraz, eta, gero, argitaratu egiten zituen. Hain zuzen ere, 1924ko abenduaren 14an elkarte horretan hitzaldia eman zuen lehenengo emakumea izan zen. Garai hartan, 26 urte baino ez zituen, eta Lehen Hezkuntzan lan egiten zuen Iruñean. Honako hauxe izan zen hitzaldiaren gaia: «Emakumien etorkizuna». Emakumeen eskubideak defendatzen zituen bete-betean, eta prestakuntzaren zein soldatapeko lanaren bidez emantzipatzea proposatzen zuen. Modu berean, emakumeek kargu publikoetan parte hartu behar zutela aldarrikatzen zuen, emakumeentzat gai politikoak debekatuta egon ez zitezen eta emakumeek eurek euren interesak defenda zituzaten.

1936ko urriaren 9ko Dekretuaren bidez, Euskal Unibertsitatea ezartzeko oinarrien prestaketarako batzordea eratu zen, Bilboko Medikuntza Fakultatea abian jarri zenean. Kultur enpresa hori prestatzeko, unibertsitateko diziplinetako adituen aholkularitza jaso beharra zegoen. Izan ere, erakunde horren antolamendurako oinarriak idazteko eskatuko zieten, behin-behineko gobernuak onartutakoan.

Honako hauexek ziren batzorde horretako *Atal Nagusiko* kideak (Euskal Unibertsitatea): Alfredo Ruiz del Castaño, saileko idazkari nagusia; Telesforo de Aranzadi, katedradun erretiratu (Zientziak); Angel de Apraiz, unibertsitateko katedraduna (Letrak), presidente izendatu zuten; Manuel de Usandizaga, unibertsitateko katedraduna (Medikuntza); Julia Fernández Zabaleta, maistra, lehen ataleko idazkari izendatu zuten; Moisés de Urmeneta, institutuko katedraduna; Cesáreo de Madañaga y Rementeria (Industriako Ingeniarren Eskolako irakaslea); Alberto de Otaduy, Zuzenbideko doktorea eta Bizkaiko Unibertsitateko irakaslea; J.M.<sup>a</sup> Martínez Ercilla, Bilboko Merkataritzako Goi Ikasketen Eskolako zuzendaria; eta Aniceto de Olano, Filosofia eta Letretako lizentziaduna.

Gogoan izan behar dugu 1936ko abenduaren 1ean egin zela Medikuntza Fakultateko hasiera-ekitaldia, Basurtoko Ospitaleko kontsulten pabilioian. Egia bihurtutako ametsa zen, eta EABren ekarpenaz gauzatu zen, Julia Fernández Zabaleta emakumearen bidez (Rekalde, 2009).

### 5.3. *Garapen profesionalerako prestakuntza: gerrako erizainak*

Gerran, *emakumearen irudi tradizionala* zen nagusi: otzana, esane-koa, maitagarria, adeitsua, atsegina, amatiarra... Era berean, Euskadi-arentzako emakume egokia ere bazen une hartan: *langilea*, indartsua, borrokalaria, idealista eta abertzalea. Une hartan, emakume *dual* hori zen Euskadirentzako ideala. Beraz, ezinbestekoa zen prestatuta egotea, eta prestakuntza horrek faxismoaren aurkako tresna ere izan behar zuen (Rekalde, 1995).

Gerra Zibila hastean, premia-premiazkoa zen erizainak edukitzea. Eusko Jaurlaritzak ikastaroak sortu zituen Bilboko Ospitale Zibilean, emakumeak gerrako erizaintzarako prestatuta egon zitezen. Ikastaro haietan, gutxienez ikasi zuten, eta, ondoren, apurka-apurka, egunero jardunean osatu zuten ikasitakoa. Presaka ikasi zuten, gertaeren araberrako erritmoan, eta, gutxi gorabehera, hilabete iraun zuen ikastaroak, 1936ko abenduaren 12an amaitu zen-eta. Ikastaroa egin zuten emakumeei *gerrako erizainen agiria* eman zieten, odol-ospitaleetan lan egin zezaten. Dena dela, bazekiten berretsi egin beharko zutela, inguruabarren arabera horretarako aukera zeukatenean.

Baiezta dezakegu 1.150 ikasleen artean EABko emakume asko eta asko egon zirela. Hori dela eta, eztabaida handia sortu zen beste jarrera politiko batzuetako emakumeen artean, bereizkeria itzela zioten-eta. Alderdi Komunistako edo Gazte Sozialista Bateratuetako emakume ki-deak zeuden haien artean (Rekalde, 2001).

### 5.4. *EAB eta atzeguardian egindako lana*

Armada osoa sortu zen Euskadiko atzeguardian, abangoardiak irmo eta borrokalari eutsi zieziaion. Egia esan, fronteko lerroko balak, granadak eta jaurtigaiaik ez ezik, egunez eguneko borrokan nagusi ziren atzeguardiako orratzak, titareak, lapikoak, pikotxak, palak, liburuak... ere. Betiko moduan, emakumeek isil-isilik garatu zuten lan hori. Hala ere, oso-oso gutxik babestu zuten emakumeen lana, arma politiko eta egoeraren araberrako beharrezko lan moduan eta bizimodu sozialean sartzeko eta bertako egituretan parte hartzeko aurretiazko eta ezinbesteko urrats moduan. Beraz, oso garrantzitsua da ahotsak entzunaraztea. Izan ere, nahiz eta historia oraintsueneko epealdi luzean isilpean egon, argu-

dio suntsiezin moduan berreskuratu ziren emakumeen emantzipazioaren diskurtsoa eratzeko orduan.

Atzeguardian askotariko ekintzak garatu ziren, eta haietako bi nabarmenduko ditugu: 1) gerran zehar emakumeentzat bat-bateko lantoki ugariak izango ziren jostintza-tailerrak, *emakume* gehienak bertan pilatu ziren-eta; eta 2) lantegietan garatutako lana, munizioko lantegietan, esaterako. Lan hori emakumeen erakundeen kontrolpean zegoen, eta, emakumeen afiliazio politiko edo sindikala egiaztatu ondoren, zeregin horretarako konfiantzazkoak ziren ala ez adierazten zieten. Adibidez, aipatu beharra dago San Salvador del Valleko *Zugaztietako* lantegia, bertako emakume langile guztiak EABkoak ziren-eta.

*Emakumeek* prestakuntzaren eta lanaren arloa landu zuten, hasiera batean gerrako arazo larriei eman nahi zitelako berehalako erantzuna. Beraz, agerikoa da sare sozialak zituztela eta, horren bidez, euren lana eta emakume-generoa bera gehiago aitortu, balioetsi eta errespetatzen zituztela.

## 6. Erbestea eta deserrotzea

1937ko ekainean, frankistek Bilbo menderatu zuten, Agirrerren gobernuaren azken gotorlekua, alegia. Hori dela eta, nazionalismoak eta indar politiko demokratiko guztiek erbeste luzeari ekin behar izan zioten.

Gertaera horiek emakume nazionalisten artean ere izan zuten eragina. Batzuk Euskadin bertan geratu ziren, eta frankismoaren aurkako erresistentzia-jarduerak garatu zituzten ezkutuan. Beste batzuk Kataluniara joan ziren, eta, han ere, lan handia egin zuten; esate baterako, Bartzelonako *Gure Etxia*, lagun askorentzako babesleku segurua izan zen-eta... Bertatik, gehienek erbeste luzeari ekin zioten honako herrialde hauetarantz: Frantzia, Ingalaterra, Belgika, Txile, Uruguai, Argentina, Venezuela eta beste batzuk.

Euskal lurraldean, gerrak eta diktadurak ezin izan zuten emakume nazionalista haien adorea zapuztu. Espetxeratuei laguntzeko sarea indartu zuten, nazionalismoaren printzipio ideologikoak eta Euskadiren zein euskararen inguruko maitasuna zaindu eta seme-alabei igorri zituzteten, euskaraz argitaratutako liburuak zabaldu zituzten ezkutuan, eta berriro ere nabarmendu nahi nuke ikastolak berrantolatzeke gai ere



izan zirela, hezkidetzan oinarritutako euskarazko hezkuntza mistoa eskaintzeko asmoz. Dena dela, nire kideek emango dizute horren guztiorren berri hurrengo kapituluetan.

## 7. Atzera begira, aurrera egiteko

XXI. mendean bizi denaren begiradaz, ez da erraza *emakumeek* garatutako era guztietako lanak, ahalegina, arduraldia eta oztopoak ulertzea. Antolaera hori balioestean, kontuan hartu behar da garaiko euskal gizartea kontserbadorea zela eta emakumeen eginkizun soziala astiro-astiro aldatzen zela. Testuinguru kontserbadore horretan, ez zuten aldaketarik onartu nahi, eta, gainera, oso egoera latza ere bazen emakumeentzat. Hori zela eta, emakume nazionalistentzat oso-osoa garrantzitsua zen ekintza kolektibo publikoa garatzea (ongintzatik eta, batez ere, etxeko jardueratik haratago), euren egintzak agerikoak izan zitezen eta behar besteko agerpena eduki zezaten.

Amaitzeko, benetako omenaldia eskaini nahi nieke milaka eta milaka *emakumeri*, afiliatutakoei nahiz afiliatu gabekoei, zerbitzu eskerga garatu zutelako euskara babesteko eta hedatzeko orduan, ikastetxe eskaldunen sarea eratu zutelako apurka-apurka, gainerakoen alde lan egin zutelako era altruistan, euren lanbidea garatzeko prestakuntza aldarrikatu zutelako, eta bihotzean zeramaten adierazi zutelako hitzen bidez. Batez ere, honelako argitalpenetan euren izenak aipatu eta idatzi ez zituzten emakume guztiei eskaini nahi nizkieke azken lerro hauek. Bere garaian, ez zioten behar besteko baliorik eman egindako lanari, eta buru-belarri ahalegindu ziren, berezko zentzu zein esangura kulturalak zeuzkan Euskal Herrian sinesten zutelako. Azkenik, eskerrak eman nahi nizkieke aberria legatu didaten emakume guztiei, euskal gizarte anitz bezain adeitsuaren alde borrokatu diren emakume guztiei, eta oraindik ere euren idealak defendatzeko ekintzei ekiten dieten emakume guztiei.

## Bibliografia

- DE LA GRANJA, J. L. (1995). *El nacionalismo vasco: un siglo de historia*, Madril: Tecnos.
- FERNANDEZ, I. (1994). *Oroimenaren Hitza. Ikastolen historia 1960-1975*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA. [http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/30\\_emakume-batza.pdf](http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/bidegileak/30_emakume-batza.pdf)
- REKALDE, I. (1995). *Mujer y educación en las publicaciones periódicas de Euskadi (1936-37)*, Salamancako Unibertsitatea: argitaratu gabeko tesina.
- , (2001). *Escuela, Educación e Infancia durante la guerra civil en Euskadi*, Salamanca: Vitor bilduma, Salamancako Unibertsitatea.
- , (2009). *Una sociedad escolar en guerra. La educación durante la guerra civil en el País Vasco*, Salamanca: Amarú edizioak.
- UGALDE, M. (1991). «Emakume Abertzale Batza», *Emakunde*, 6, 58-63.
- , (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco: Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua eta Emakunde.

## **Emakumeak hezkuntzaren eragile**

## Euzko ikastolen andereñoen formazioa eta eskola-praktikak

Karmele Perez, Gurutze Ezkurdia, Begoña Bilbao<sup>1</sup>

UPV/EHU

EABn, politikagintzan aritu ziren maistra asko. Emakume ikasiak ziren heinean, karguetan egoteaz gainera, herrietan eragile ere baziren, eta jakina da mitinlari eta propagandista lan handia bete zutela. Gehienak bizkaitarrak ziren, eta asko Bilboko Irakasle Eskolan ikasiak. Prestakuntza ona jasota irteten ziren, eta maistra askok lanpostua lortu zuten auzo-eskoletan, udal-eskoletan edo EABk propio sortuak zituen Euzko Ikastoletan. Ahalegin handiarekin, II. Errepublikak hezkuntzarekiko zabalitzen zituen ateak aprobetxatuz, eta oztopoak gaindituz, Euzko Ikastolaren eredu hedatzen hasi zen 1932tik 1936ra. Hezkuntza-sistema ofizialari aurre eginez, hezkuntza-proiektu gisa, hizkuntzaz, helburuz eta pedagogiaz alternatiboa izan nahi zuen EAJren hezkuntza-proiektu politikotzat hartu behar da. Proiektu horretan sekulako garrantzia eman zitzaion eskolaren eraketari, metodologiari, irakasleriaren prestakuntzari eta haurrek erabiliko zuten materialari. Hezkuntzan, hizkuntza eta kultura besarkatu nahian diseinatzen ziren euskaraz sortutako ikasmaterialak. Zeregin horretan, bi idazleren goraipamena egin nahi dugu: Jose Arana-Zabala eta Julene Azpeitia. EABren sorkuntzako zertzelada historikoak emanez, Euskal Pizkundek bultzatutako ekimenetik argitaraturiko eskola-liburuak ezagutuko ditugu, eta, azkenik, Euzko Ikastola Batzatik begiratuta, gogoeta pedagogikoa egingo dugu bi idazle horien ekarpen didaktikoaz.

---

<sup>1</sup> Euzko Jaurlaritzak IT 298/10 zenbakiarekin babestutako Hezkuntzako Azterketa Historiko eta Konparatuetarako (Garaian) taldekideak dira egileak, eta Euskal Herriko Unibertsitateko «Hezkuntza, Kultura eta Gizartea» Prestakuntza eta Ikerketarako Unitateko (UFI 11/54) kideak.

## 1. EAB, testuinguru historikoan

XIX. eta XX. mendeetan antolatu ziren, lehenengoz, emakumeen parte-hartze sozial, ekonomiko eta politikoaren aldeko mugimendu aldarrikatzaileak. Eragileak hainbat ziren, eta lurralde bakoitzean ezaugarri batzuk zituen. Gure artean, 90 urte bete dira aurten Emakume Abertzale Batza modu ofizialean antolatu zela. Luze eta sakon idatzi da horretaz, eta ez da lan honen asmoa gaiaren inguruan esan direnak errepikatzea. Bai, ordea, ñabardura batzuk gehitzea, bereziki hezkuntza-arloari dagozkionak.

Berantiarra da emakumeen aldeko mugimenduen antolaketa Euskal Herrian. Karlisten eta liberalen arteko diskurtso kontrajarriak markatu zuen lehen abertzaletasunaren jarrera emakumeen gaineko eginbeharreran. Sabino Aranak berak *Libe* izeneko lanean plazaratu zuen, argi eta garbi, emakumearen irudikapen abertzalea, zeinetan erlijio katolikoak eta gizonen asmo, irudikapen eta beldurrak sortzen duten ordeinuaren isla aurkitzen baitugu. Haren arabera, Genesiatik edanda, emakumea gizonaren irudikapena da, haren mende egon behar duena; amatasuna da bere lehen ardura, eta etxeko eta familia mantentzeko lanak egin behar ditu.

Gogoan hartu behar dugu 1877an Espainiako Parlamentuan eztabaidatu zela, lehen aldiz, emakumeek botoa emateko eskubidea, eta, 1890ean ezarri zela Espainian gizonentzako boto-emate unibertsala. Era berean, 1907an sortu zen emakumeek botoa ematearen aldeko eta kontrako eztabaida, eta 1931n lortu zuten botoa emateko eskubidea, Espainian. XX. mendeko lehen hamarkadan hasi ziren emakumeak parte hartzen, modu argian, esparru publikoan, astekarietan idatziz. Gure artean, 1906an, *Aberrin*, abertzaleen sektore erradikalaren ahotsa zen astekarian, dei egin zitzaion emakumeei beren iritziak plazara zitzaten. Eranztuna *Euskalduna* astekarian agertu zen, sektore moderatuak emakumearen plazaratze hori salatu zuenean. Hiru izan ziren aipagarri eztabaida hartan: lehena erantzuten Purificación Gorostiza, «Garbiñe», izan zen; baita María Barbier, «Mirentxu», arabarra ere. Biak goizik zendu ziren, 1909an eta 1908an, hain zuzen; modu konserbadorean ulertu zuten emakumearen papera; nahiz eta emakumearen parte-hartzea defendatu, beti etxetik eta familiarik abiatuta egiten baitzuten, eta ez modu publikoan. Hirugarrenak, Rakel Alda «Kataliñ»en aldarrikapenak, ordea, berritasuna eman zion diskurtsoari. Emakumeek prentsaren

bidez egiten zuten bakarreko lana salatu, eta, etxeetatik irten eta gizonetzkoekin batera lakidetzan aritzea proposatzen zuten honek. Ikuspegi horrek ez zuen arrakastarik izan une hartan, aurrerakoiegia zelako.

«Libe» ezizenez ezagutu zenak aurkitu zuten lehen elkarterako bidea. Honek *Ropero Vasco* izenez ezaguna den elkarte sortzea proposatu zuten, jakinik zer nolako arazoak sortzen zituen horrelako ekintza batek (Ugalde 1993: 60-61):

..., perseguía con voluntad firme un objetivo de participación de las mujeres en el nacionalismo, y era consciente de las dificultades que la empresa encerraba debido, no sólo a la oposición que esperaba encontrar en la mayoría de los varones nacionalistas, sino también a la falta de disposición de la mayoría de las mujeres para enfrentarse a aquellos y llevarla a cabo. Buena prueba de ello fue el escaso eco suscitado por la propuesta de *Kataliñ*. Por esta razón elaboro un plan con objetivos escalonados y propuso subir el primer escalón llevando a cabo la única alternativa que en aquellos momentos consideraba posible realiza. Con ello demostró una capacidad de análisis, una resolución y un espíritu práctico que no tenían nada que ver con la encantadora debilidad, la gentil inconsciencia y el mundo irracional...

Horren ondorio izan zen *Ropero Vasco* zeritzona antolatzea. 1907an, geroago EABko zuzendaritzan egongo ziren emakume batzuen izenak agertzen dira: Carmen Errazti, Rakel Alda «Kataliñ», Jesusa Fresnedo, Purificación Gorostiza «Garbiñe», Paulina Arana Goiri, Catalina Aburto, Victorina de Larrinaga, besteen artean. 1910etik aurrera, oso emakume gutxik idatzi zuten, eta idatzi zutenek abertzaletasunari laguntzeko asmotan egin zuten, eta ez politikagintzan eragiteko, gizonen arloa baitzen hura. Hainbat artikulugilek zabalkunde ideologikoa bilatu zuten artikulatu eta poesien bidez.

1919-1920an, Euzko Gaztedi elkartearen ekimenez, Emakumeen Elkartean baten egitasmoa sortu zen, baina bertan behera gelditu zen EAJ-PNVren barnean zeuden bi joeren arteko liskarrak zirela-eta. 1921ean, Euzko Gaztediko kide gehienak Euzko Alderdi Jeltzalearen barruan gelditu ziren, eta berreskuratu egin zen Emakumeen aldeko Elkartearen egitasmoa. Marokoko gerla-sasoia zen eta, bertaratzen ziren gazteen aldeko babesa bilatuz, Euzkotarren Aldezko Jel-Bazkuna edo *Junta Nacionalista Vasca de Socorros* zeritzona antolatu zen. Zuzendaritzan honako

izen hauek agertzen ziren: Victorina de Larrinaga, Sofia de MacMahon, Teresa Azkue, Teresa Uralde, Maria Aranzadi, Carlota Olano, Catalina de la Sota, Juana Chalbaud, Juana Atxa, Antonia Zabalandikoetxea, Pilar Egiraun, Teresa Epalza, Carmen Ibarra, Asunción Urrutia, Carmen Errazti, Maria Beaskoetxea, Isabel Benedicto, Concha Smith, Concha Ballarin, Mercedes Viguera eta Elena de la Quintana y Fano.

1922ko martxoan, Ambrose V. Martin O'Daly irlandar inependentziazalea Bilbon zen bisitan, Euzko Gaztedik antolatutako ekitaldian, eta, besteren artean, *Cumman na mBan* irlandar emakumeen mugimenduarien gorazarrea egin zuen. Bertan, emakume abertzaleen elkartasunaren beharrezkoa aldarrikatu zuen Paulina Ramosek. Urte bereko maiatzaren 7an, Bilboko Euzko Gaztediko egoitzan, Batzorde Antolatzailerik bati deitu zitzaion Emakume Abertzale Batza antolatzeko; araudia eta batzorde-zuzendaria aukeratu ziren: Carmen Errazti, Pilar Egiraun, Paulina Ramos, Maria Jesus Ibaseta, Jesusa Fresnedo, Alicia Aretxabaleta eta Petra Gandarias. Gehienak bilbotarrak ziren —Ibaseta lazkaotarra eta Fresnedo santurtziarra izan ezik—, Bilbo erdian bizi ziren; beraz, maila sozioekonomiko goikoan edo erdikoan kokatzen ziren, etxeko lanak egiteko neskame bat edo gehiago zituzten, eta, batez beste, 30 urte zituzten. Haietariko batzuk militante abertzaleak izan ziren, Carmen Errazti «Etxakin», idazle lanetan aritua, Jesusa Fresnedo eta Pilar Egiraun *Ropero Vascoko* zuzendaritzakoak, eta Maria Jesus Ibaseta, Eusko Ikaskuntzako kidea. Denak ere familia abertzaleetako kideak ziren, eta kultur maila handikoak. Irakasle-ikasketak egindakoak ziren, ziurrenik, Ibaseta, Gandarias, Fresnedo, Ramos eta Aretxabaleta. Carmen Erraztik Euskara ikasi zuen. Mercedes Ugaldere (1993: 138) esanetan:

Las dirigentes de EAB eran mujeres profundamente enraizadas en el sector aberriano del nacionalismo e íntimamente emparentadas con sus dirigentes, y tanto su edad (todas ellas jóvenes o en la plenitud de su vida) como su preparación cultural, y, sobre todo, la radicalidad de sus convicciones nacionalistas, les impulsaban a superar las dificultades que sus responsabilidades familiares, en algunos casos, y los prejuicios, ponían a su compromiso dirigente en una organización política.

Elkartearen helburuak *Aberri* astekarian aldarrikatzen dira: aberriaren aldeko propaganda egitea, giza laguntza, hezkuntza, elkartasun-zerbitzuak (Ugalde 1993: 133):

En cuanto a la beneficencia y la educación, eran dos actividades hacia las que se encauzaban, con aceptación social, los intentos de actuación pública y profesional de las mujeres con ciertas posibilidades económicas. El magisterio era el grado máximo de cualificación profesional al que una mujer de clase media podía aspirar en los años veinte, y la beneficencia era un medio de realización personal de las que pertenecían a familias de elevada posición social. Ambas eran bien aceptadas socialmente debido a su afinidad con su función maternal. No habría por tanto ninguna objeción, y sí muchas ventajas, a que EAB se dedicara a ambos cometidos.

Gainera, hezkuntza-arloaren inguruan hau gehitzen du Ugaldek (1993: 134):

En cuanto a la educación, *Emakume Abertzale Batza* se dirigía especialmente a las mujeres y a los niños. A las mujeres pretendía sobre todo ayudarles a perfeccionar su actividad doméstica, aunque también estaba dispuesta a ofrecerles algunas enseñanzas prácticas que les fueran útiles profesionalmente en caso de necesidad. Para los niños y las niñas proyectaba fundar escuelas y organizar clases de literatura, teatro, música, bailes, juegos y lengua vascos.

1923an, *Euzkadi* egunkariak antolatu zuen «Emakumea eta Aberria» atalean, beste batzuen artean, Tene Mujikaren idazkien ondorioz elkarte berria sortzeko ahaleginak egin ziren, Emakume Azarri Bazkuna zeritzona, EAJko joera komunionistaren aldekoek bultzatuta. Talde horrek ez zuen aurrekoaren arrakastarik izan eta, Mercedes Ugaldere (1993: 178) esanetan, EABko emakumeek lortu zuten bai abertzaletasunean eragitea eta baita emakumeen onarpenean eragitea ere:

La EAB aberriana podía así compaginar el rupturismo de la salida de la mujer del hogar de sus afiliadas con la defensa del papel tradicional de la mujer. Las comunionistas tenían más dificultades para hacerlo. El nacionalismo comunionista no les ofrecía el empuje necesario para enfrentarse a esta contradicción. Los mismos dirigentes de Comunción se habían inhibido y no habían impulsado como los aberrianos la creación de una organización de mujeres. En el caso de *Emakume Abertzale Batza* fue la Dictadura la que interrumpió su desarrollo. *Emakume Azarri Bazkuna*, en cambio, había muerto ya antes de que la Dictadura se proclamara.



1923an Primo de Riveraren diktadura ezartzeak elkarte nazionalistak debekatzea ekarri zuen, emakumeena barne, eta moderatuak isilpean aritu ziren. 1931ko apirilaren 14an Errepublika aldarrikatu zen Espainian. Urte bereko urriaren 1ean onartu zen Espainiako Parlamentuan emakumeek botoa emateko eskubidea. Hori guztia gertatu zen EAJ-PNVko *Comunión* eta *Aberriko* kideak elkartzen hasi zirenean, eta berrindartze-lanetan murgilduta zeuden hainbat barne-antolaketa bultzatuz: mendigoxaleak, ELA-SOV, EAB eta abar. Bilboko Emakume Abertzale Batzaren berrantolaketa 1922-1923an izan zen, aurreko lantaldea bilduta antolatu baitziren. Aldaketa txiki batzuk gertatu ziren talde zuzendarian; Paulina Ramosek ardura txikiagoak hartu zituen, hiru seme-alaba baitzituen, eta Alicia Aretxabaletak hartu zuen idazkaritza. Pilar Egi-raun eta Petra Gandarias moja joan zirenez, Concepción Gangoitik eta Sorne Unzuetak hartu zuten haien ordezkotza. Beste idazkariordetza bat sortu zen, eta Consuelo Gallastegik hartu zuen hura. Emakume talde haren ezaugarri soziologikoak antzekoak ziren: adin batezbestekoa 1920ko hamarkadakoa baino handiago zen, 40 urte ingurukoa; askoz gehiago ziren ezkonduak, ezkongabeak baino; eta maistrak zirenak ere gehiagoa, Petra Gandarias, Concepción Gangoiti eta Sorne Unzueta. Bilboko EAB berrantolatzean, beste herrietako emakumeak ere berrantolatzen hasi ziren. Autoreek kopuru ezberdinak eman bazituzten ere, eztabaidaezina da milaka emakume antolatu zirela talde haren inguruan Euskal Herri osoan.

1931ko abenduan, Araudiaren aldaketaren ondorioz, zuzendaritzataldea aldatu egin zen. Ordura arteko *Aberrri* joeraren aldeko kideen orde-z, joera moderatuagoaren ordezkariak sartu ziren: Carmen Erraztik, Paulina Ramosek, Alicia Aretxabaletak eta Jesusa Fresnedok uko egin zioten karguari, eta, haien orde-z, Teresa Azkue, Juliana Mujika, Jesusa Zubizarreta eta Mercedes Viguera sartu ziren. Hurrengo urtean, 1932an, Concepción Gangoiti, Consuelo Gallastegi, Maria Jesus Ibaseta eta Sorne Unzueta irten ziren, eta, haien orde-z, Rakel Alda «Kataliñ», Rosario Olazabal, Dolores Rousse eta Ventura Kareaga sartu ziren. 1933an, Jesusa Yarritu eta Sofia Mac-Mahon sartu ziren. Horretara, Mercedes Ugaldek (1993: 313): «Al terminar el primer bienio republicano culminaba por tanto el proceso de desplazamiento del control de EAB de Bilbao del sector nacionalista radical, fundador de la organización, y quedaba ésta bajo el dominio de la tendencia política nacionalista moderada y posibilista, que tenía en sus manos también las riendas del PNV».

1933ko hauteskundeen ostean, eskuineko partidu politikoak nagusitu ziren Espainiako Parlamentuan, eta gero eta tentsio handiagoa bizi izan zen, batetik, eskuin muturraren igoera etengabeagatik, eta, bestetik, ezkerrekoen erradikalizazioagatik. Euskal Herrian, gainera, asmo abertzaleak burutu ezinik, jendearen nekea eta ezina plazaratu zen. EABren hazkundera eten egin zen 1933-1936 bitartean, nahiz eta elkarte berriren batzuk antolatu ziren. Emakume Abertzale Batzaren loraldia Espainiako II. Errepublikaren lehen urteetan gertatu zen, 1931-1933 bitartean. Ondoren, 1936an, Gerra Zibilak eten egin zituen ekintza guztiak.

## 2. «Emakumeen prestakuntza» akademikoa

EABn, maistra asko politikagintzan aritu ziren. Bizkaian eta Gipuzkoan, EABren zuzendaritzetan zeuden emakume gehienak maistrak ziren. Nafarroan eta Araban ere berdintsu gertatu zen. Emakume ikasiak ziren heinean, karguetan egoteaz gainera, herrietan eragile ere baziren, eta jakina da mitinlari eta propagandista lan handia bete zutela.

xx. mendearen hasieran, Bilbon aldaketa handiak izan ziren merkataritza, siderurgia eta meatzaritzaren garapenari esker. Garapen ekonomikoarekin batera, hezkuntzarekiko interes handia zegoen Bilbon, beste hiriburu askotan ez bezala, 6.000 ume ibili baitziren zeuden 33 eskoletan. Horrez gainera, baziren helduentzako gaueskolak, kontabilitate-eskola, musika-akademia, Arte eta Lanbideetako Eskola, eta «Instituto Vizcaino», zeinetan Bigarren Hezkuntza zein merkataritzarako ikasketak egiten baitziren. Goi-mailako ikasketak egiteko aukera ere bazen Deustuko Unibertsitatean, Ingeniaritza Eskolan eta Nautika Eskolan. Testuinguru horretan sortu zen, Bilboko Udalak eta Bizkaiko Aldundiak eskatuta, Bizkaiko Goi Mailako Maistren Eskola. Eskari hark zioenez, ikasteak herri honetako emakumearen garapen intelektualean eta moralean eragin handia izateaz gainera, haren ongizaterako bidea ere zabaldu egingo zuen.

1902an zabaldu zen Bizkaiko Goi Mailako Maistren Eskola Bilbon, hurrengo urteetan EABko emakume askoren prestakuntza-eskola izango zena. Han ikasi zuten Koldobike Natxitubek, Polixene Trabuduak, Jesusa Ibasetak, Raket Aldak... Adibidez, Paulina Ramosek, 1910eko ekainean egin zuen sarrerako azterketa Bilboko Eskolan; 1928an Koldobike Natxitubek, eta 1927ko ekainean Polixenek.

Azterketa horrek hiru motatako frogak zituen: ahozkoa, idatzizkoa eta froga praktikoa. Hiru irakaslek osatutako mahaiaren aurrean azaldu beharra zegoen; ikasleentzako mailaketa-sistema izan zen. Dirudienez, azterketa gogorra zen eta ikasle askok alde aurretik prestatzen zuen horretarako sortutako akademietan.

Hala ere, arrakasta handia izan zuen Maistren Eskolak; 1902-1931 urteen artean 7.506 ikasle matrikulatu ziren. Ibilbide paraleloa izan zuten gainerako euskal hiriburuetak Maistren Eskolek ere. Nafarroako Maistren Eskola, kasurako, 1874an sortu zen arren, 1911ra arte ez zuen lortu goi-mailako izaerarik.

Interesgarria da mitinlari eta propagandista izan ziren emakume haien prestakuntza aztertzea. Maistren prestakuntzako curriculumean, ikasgai gehienak kultura orokorrari eta oinarrizko gaitasunei zegozkien: geografia, gramatika, historia, erlijioa, jostea, marrazkia eta musika ikasten zituzten. Horrez gainera, garrantzi handia zuten irakurketak eta idazteak.

1901-1902 ikasturtean, honako ikasgai hauek ikasten ziren oinarrizko ikasketetan:

### 1. taula

Bilboko Irakasle Eskolako maistren ikasketak (1901-1902)

1. maila	2. maila	3. maila
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lengua castellana</li> <li>• Pedagogia 1</li> <li>• Geografia orokorra</li> <li>• Aritmetika</li> <li>• Geometria</li> <li>• Psikologia eta Logika</li> <li>• Erlijioa eta Historia Sagrada</li> <li>• Marrazkia</li> <li>• Kaligrafia</li> <li>• Gorputz-jokoak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lengua castellana</li> <li>• Pedagogia 2</li> <li>• Españako Geografia</li> <li>• Algebra eta trigonometria</li> <li>• Etika, oinarrizko zuzenbidea</li> <li>• Historia unibertsala</li> <li>• Marrazkia</li> <li>• Kaligrafia</li> <li>• Gorputz-ariketak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pedagogia 3</li> <li>• Fisika</li> <li>• Kimika aplikatua</li> <li>• Fisiologia eta higiena</li> <li>• Nekazaritza eta bere teknikak</li> <li>• Zuzenbidea eta eskola legedia</li> <li>• Españako Historia</li> <li>• Kaligrafia</li> <li>• Historia naturala</li> <li>• Eskolako praktikak</li> </ul>

1914ko abuztuaren 30eko Dekretuak berrikuntzak ezarri zituen; ikasgaiak zortzi multzotan ordenatu zituen: 1) gramatika eta erdal literatura, 2) pedagogia eta bere historia, zuzenbidea eta eskola legedia, 3)

geografia, 4) historia, 5) aritmetika, geometria eta algebra, 6) fisika, kimika, historia naturala eta nekazaritza, 7) jostea, 8) praktikak.

Matrikula kopurua handituz joan zen; hala, 1918-1919an, 206 ikasle ofizial eta 31 ez-ofizial egon ziren matrikulaturik. Ordukoa da euskarazko katedra sortzea, ikasleentzat dohainik eta bolondresei esker. Hasiara batean, Manuel Orueta irakaslearen izenean jarri zen abian; gerroago, Maria Nieves Gomeza eta Maria Dolores Naberan egon ziren irakasle, baina 1923ko Erret-dekretu batek debekatu zuen betiko. Datuak ikusirik, arrakastatsua zela ikusten da. Adibidez, 1920-1921 ikasturtean, ikasleen % 18 zegoen matrikulaturik; 1921-1922an, % 27, eta 1922-1923an % 64 (% 58, 4. mailan; % 57, 3. mailan; % 40, 2. mailan; eta % 96, 1. mailan). Notei begira, gutxiegiarik eza nabarmentzen da: % 4 ez aurkeztua, % 20 oso ongi, % 35 bikain, eta % 41 gainditua.

Honako taula honetan jasotzen dira zeuden lau mailak, 1927-1928 ikasturteko ordutegian, Maria de Berasategi zuzendariak sinatutakoan. Hauek dira mailaz mailako ikasgaiak:

## 2. taula

Bilboko Irakasle Eskolako maistren ikasketak (1927-1928)

1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
• Musika	• Españako	• Joskintza	• Etxe Ekonomia
• Kaligrafia	• Geografia	• Fisika	• Kimika
• Antzinaroaren	• Pedagogia	• Geografia	• Españako
Historia Orokorra	• Kaligrafia	unibertsala	Literatura
• Marrazkia	• Gaztelaniaren	• Pedagogia	• Frantsesa
• Joskintza	Gramatika	• Aro	• Españako
• Aritmetika eta	• Marrazkia	modernoaren	Geografia
Geometria	• Arropa zuriaren	Historia	• Zuzenbidea eta
• Geografia	joskintza	• Historia	Legedia
• Irakurketaren	• Aritmetika eta	naturala	• Historia
Teoria eta	Geometria	• Frantsesa	Garaikidea
Praktika	• Erljioa eta	• Algebra	• Pedagogiaren
• Erljioa eta	Morala	• Gaztelaniaren	Historia
Historia Sagrada	• Erdi Aroko	gramatika	
	Historia		

Ikus daiteke Geografia eta Historia maila guztietan ikasten zirela, era batekoak edo bestekoak; pedagogia hiru mailatan ikasten zuten; aritmetika, geometria eta algebra ere hiru mailatan; kaligrafia bi mailatan, eta

irakurketaren teoria eta praktika bakarrean. Ikasgai horiez guztiez gainera, lan praktikoak egiten ziren eta, arratsalde batzuetan, irteerak ere bai.

Bilboko Maistren Goi Mailako Eskolaren zientzia-laborategia eta parke botanikoa, maistragaiek eramaten zituztenak, eredugarri ziren, orduko gainerako Eskola Normalekin konparatuz gero. Haiek ere, Martina Casiano irakaslearen ardurapean, Bilboko eguraldi-behatokiaren arduraduna zuten. Geografiako Institutuaren mendean, Bilboko Maistren Eskolako jolastokian kokatuta zegoen. Behatokia Udalak ordaindu zuen, datuak hilero aditzera emateko baldintzarekin. Martxan egon zen 1923tik Gerra Zibilera arte.

Eskola Normaletako prestakuntza modernoa zen, oraintsu lortu den mailaren parekoa, baina euskaltasunean eskasa; hori zela eta, Euzko Gaztediak zein Euzko Ikaskuntzak antolatzen zituen Udako Ikastaroetara joaten ziren maisu-maistra euskaldunak.

### 1. irudia

Lehen andereño gaien promozioa (1932) (Arg: Arrien 1983: 64)



Aipagarriak dira 1931n, 1932an eta 1933an antolatu zirenak. Badakigu maistra eta maisu euskaltzale asko joan zirela Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Nafarroatik, batez ere. Ikastaroak prestakuntza ertainetik gorakoa zute-

nentzat izaten ziren, Euskal Herriko ezagutzaz sakoneko prestakuntza nahi zutenentzat. Horrez gain, aproposak ziren irakaskuntzan euskaraz lan egin nahi zutenentzat ere, euskarazko azterketara aurkezteko aukera baitzegoen, euskararen titulua lortzeko. Emakume Abertzale Batzako maistra asko, bestalde, kideak ziren: Jesusa Ibaseta, Rakel Alda, Adela Apraiz, Elbira Zipitria, Julene Azpeitia, Pilar Sansinenea, Julia Fernandez Zabaleta eta abar luzea.

Esan liteke, hezkuntza ofizialaren esparru alternatibo bat gauzatu nahian, ikastaroen bidez bermatzen zela irakasle ogibidearen *habitusa*-ren transmisioa. Artisau pedagogikoaren antzera, ogibidearen jakituria gelan birstestuinguratuz eta frogatuz teorizatzen zen, eta horrela, testuinguru hurbileko materialak erabiliz eta berriak eginez, gelako tresneria eta pedagogia propioa sortzen zuten.

### 3. Euzko ikastola batza

Esan berri dugu EABren helburuetariko bat euskal umeen eta emakumeen hezkuntzan sakontzea zela; gizartean ondo ikusia zegoen, alde batetik, amatasun funtzioak luzatzea zelako, eta, gainera, bestetik, eragile izan zitezkeelako bai erlijioaren ezagutzan eta bai euskaltasunean umeak hezteko. Horregatik, EABren egitekorik garrantzitsuena belaualdi berrien hezkuntzaren transmisioa zenez, horretarako propio sortu zuten Euzko Ikastola Batza izenez ezagutzen den erakundea.

#### 3.1. Euzko ikastolaren barne-antolaketa

Egoera horretan, ahalegin askorekin, II. Errepublikak hezkuntzari zabaltzen zizkion atea aprobetxatuz eta oztopoak gaindituz, 1932tik 1936ra Euzko Ikastolaren eredia hedatzen hasi zen. Hezkuntza-sistema ofizialari aurre eginez, hezkuntza-proiektu gisa, hizkuntzaz, helburuz eta pedagogiaz alternatiboa izan nahi duen EAJren hezkuntza-proiektu politikotzat hartu behar da. Horrela zabaldu ziren, 1932an, zortzi ikastola Bizkaian, eta bat Gipuzkoan. 1936rako, berriz, hamabost zeuden Bizkaian, eta Gipuzkoan bakarra, Bergarakoa.

Antolaketari begira, lehen mailan eta hainbat ikastolaren koordinazioa bermatzeko, Euzko Ikastola Batza zegoen, eta horren menpe, herri


bakoitzeko Ikastolako Batza. Ardatz ideologiko komuna zegoen, honako bi alor hauen inguruan: batetik, eskola elebiduna, naziotasunaren eta kristautasunaren oinarriean; bestetik, eredu pedagogikoa, non, irakasleen prestakuntza pedagogikoaz gain, ezinbestekoa baitzen euskal kulturari buruzko prestakuntza. Eskola bakoitzaren esku gelditzen ziren gainerako arloak, hots, egunerokoaren antolaketa eta baliabide ekonomikoen kudeaketa.

Euzko Ikastola Batzak ahal izan zituen egoitzetan sortu zituen bere ikastolak; askotan, batzokian bertan edo handik hurbil. Batzak zuen eskola-eredua espreski aurrera eramateko eraikin bakarra Bilboko zentroan sortu zen, Errotatxuetan. Luis Vallejo arkitektoari enkarguz agindua, baserri baten itxura eman zitzaion lehen zirriborroan (Sanz, 1988: 181). Eskola deseraikitze moduan sortu zen; Euzko Ikastola Batzak hala eskatu, eta Vallejok, auzo-eskoletako eredu gaintu nahian, edifizio guztiz razionalista diseinatu zuen, Europako joera berantarrinak kontuan harturik. Baserriaren itxura emanez, balibide aproposak erabili zituen. Egitura xumea zen, apaindurarik gabea, baina bere sinpletasunean ederra eta funtzionala. Eraikinak bi barrakoi zituen, bat neska-toentzat, eta bestea mutilentzat; eta aldamenean, estalitako gune ireki bat. Ikurrinaren hiru koloreak nagusitzen ziren. Behea eta hormak egurrezkoak ziren (gorriak); teilatua, berriz, uralita zurizkoa, eta jolastokia berdea. Harresi batez inguratua, berdegune batek toki nahikoa uzten zien ikasleei, dantzak, kantak, gimnasia egiteko eta oltatzeko. Garrantzi handia eman zitzaion argitasunari. Ikasgela handiak ziren eta oso argitsuak. Leihoak, bestalde, handiak ziren, eta goitik beherako joguneaz, ikasgela ondo aireztatzeko. Horrez gain, aire freskagarriak zeuden goitegiekin, eta berokuntzarako gas-instalazio aproposa. Komunak ere aproposak ziren.

Eta ikuspuntu didaktikoaz, zer esan liteke? Europa osoan indarra zeukan «Eskola Berriak» berritasun pedagogikoak eta psikologikoak ekarri zituen, metodologia desberdinak proposatu zituenean. «Eskola Berriak», eskola tradizionalaren planteamenduaren aurka eginez, ikaslea prozesuaren ardatz bihurtu nahi zuen, eta hortik datorkio «eskola aktibo» izena ere. Gainera, gaur egun ere orduan esandakoa aldarrikatzen ari gara, pedagogo haien esanak ez baitira zahartu. Eskola hori Ingalaterran sortu eta Belgikan, Frantzia, Alemanian, Suitzan, eta Europako herri askotan zabaldu zen. Hala dira ezagunak Maria Montessori, Adolphe Ferriere edo Ovide Decroly, zeinen izenak eta ekarpenak

## 2. irudia

Errotaxueta ikastola (Arg: Informe 1933).  
Ezkerrean, Luis Vallejoren bozetoa (Sanz, 1988: 181)



guregana ere heldu baitira. Hona hemen orduan aldarrikatu ziren printzipio batzuk, eta Euzko Ikastola Batzak, neurria handi batean, beretzat hartu zituenak: 1) Eskolak aktiboa izan behar du; ikaslearen jarduna ezinbestekoa da, baita haren autonomia ere. 2) Ikasleak eguneroko bizimoduari aurre egiten ikasi behar du. 3) Beraz, edukiak eta jarduerak aukeratu eta antolatzerakoan, funtsezkoak dira ikaslearen interesak. 4) Irakaslearen zeregina garrantzizkoa denez, haren prestakuntzak hobea izan behar du.

Bilboko Errotatxuetako eskolako adibidea har dezakegu ikasleek erabiltzen zituzten ikasgela, altzari, mahaien antolaketa eta abar adierazteko; hor ikus daiteke ikastola horietan bideratu nahi zen pedagogiaren nolakotasuna. Mahaiaren antolaketa baserriko sukaldeetan erabiltzen zen modukoa zen, mahaiak zein aulkiak arinak, mugitzeko eta egoera berrietara erraz egokitzekoak. Horrelako antolaketak talde-lana ahalbidetzen zuen, esperimenezko eta ikasleen eztabaidak eta hartu-emanak bideratzeko aukera eskainiz. Esan liteke antolamendu aproposena zela, sustatu nahi zen metodologia aktiboari begira. Irakaslea ere erraz mugi zitekeen mahaien artean, bai ikasleek egiten zutena behatzeko bai ikasleek eurengandik hurbil edukitzeko. Irakasleak ez zuen oholtzarik. Ez zegoen apaindurarik: gurutzea, Sabino Aranaren argazkia, paperontzia eta armairu bat. Irakaslearen mahaia tiradera zen, paperak gordetzeko, batik bat. Gregorio Arrienek (1983: 46) aipatzen du ohikoa zen materiala: Europako eta Euskadiko mapak, mapamundia, Amerikako eta Afrikako mapak, munduko esfera, sistema metrikoa erakusteko neurriak, eta zenbait marrazketa-koaderno irudi-orriz beterik.




### 3. irudia

Bilboko Errotatxueta ikastolako ikasgelaren antolaketa (Arg: Informe, 1933)



### 4. irudia

Bilboko Errotatxueta ikastola. Ikasleak eta irakaslea lanean  
(Arg: Informe, 1933)



Ulertu behar da, horregatik, irakasleen prestakuntzari ematen zitzaion garrantzia. Barne-ikastaroak antolatu zituzten oinarrizko prestakuntza emateko, eta aurkeztu ziren hirurogei ingurutik hogeit hamar aukeratu ziren Eusko Ikaskuntzako lehen irakasleak izateko. Ikastaro horietan prestakuntza zabala ematen zen, Euskal Herriko gi-

zartearen ezagutza fisiko-natural eta soziala, gure historia eta folklorea-rena, euskararen ingurukoa eta erlijioarena. Atal berezi batean, metodologia pedagogikoari heltzen zitzaion, batez ere, Haur Hezkuntzara zuzendua. Ikastaroak eman zituztenen artean Julene Azpeitia izan zen emakume bakarra, EABko kide izateaz gain, pedagogia-alorrean eskarmentu handikoa.

Ikasgelaren antolaketa horretan, toki berezia zuen Euzko Ikastoletan landu nahi zen curriculumak. Euzko Ikastola Batzako Gobernu Batzordeak prestatu zuen 1932-1933 ikasturteko lehen txostenean, 21. orrian, «Métodos de enseñanza» aipatzen duenean, irakaskuntzaren curriculumaren ildo nagusiak agertzen dira:

Por lo que se refiere a procedimientos de práctica, queremos dejar sentado que consideramos la enseñanza primaria como labor formativa, en oposición a la preocupación intelectualista con que muchos pretenden enfocarla. Por lo tanto, y apoyándonos además en otras consideraciones de orden práctico, desechamos radicalmente, en nuestras escuelas, la organización de la enseñanza primaria a base de asignaturas. [...] En torno a un motivo de lectura y conversación irán agrupándose los temas previamente preparados, cada día o cada semana, por la maestra. Estos ejercicios y dictados, aún versando sobre actividades humanas (historia), localizaciones (geografía) y elementos y accidentes y funciones físicas y naturales, tendrán fijamente como finalidad: el desarrollo religioso, e instrucciones y prácticas de Religión; la caracterización y afianzamiento del espíritu nacional vasco; la orientación del gusto y formación de la personalidad individual; ejercicio gramatical y de expresión; desarrollo del sentido matemático y ejercicios aritméticos.

Baina, espazio fisiko aproposa edukitzetik kanpo, zertaz baliatzen ziren Euzko Ikastoletako irakasleak? Zer-nolako materialaz baliatzen ziren? Ondorengo lerroetan aipatuko dugu ordura arte zer zegoen eta zer sortu beharra izan zuten.

### 3.2. *Ikasmaterialaren beharra*

Euskal kultura eta euskara asimilatzeko joera bortitzak izan badira ere, euskal intelligentsiak horri aurka egiteko hainbat saio egin ditu historikoki. Horra hor, foruen ondorengo gizarte-mugimenduen protestak

eta euskaltzaleen hizkuntzaren aldeko errebindikazioak (Sabino Arana, Julio Urkixo, Azkue, Kanpion eta abarrenak), edo auzo-eskolen esperimentzia eta lehen ikastetxeak. Edo Landeta, Elizalde eta abarren teori-zazio-lana. Ezin ahaztu, bestalde, Eusko Ikaskuntzaren hainbat kongre-sutan hizkuntza eta irakaskuntzako arloei buruzko erabaki eta ekimenen emaitzak, edo Eusko Pizkondeak euskal nortasuna esnatzeko izandako asmoak (1931-1936).

Historia labur bat eginez, ikus dezakegu kartilak direla gramatiken eta dotrinen ostekoak. Kartila eta liburu zaharragoak badaude ere, guk aipatuko dugun lehena 1896an argitaratu zen, Kepa Andoni Ormaetxearen *Agakia euskeraz irakurten ikastekoa* (bizkaieraz idatzia, eta 1897an berrargitaratua, irakurgaiak, otoitzak eta hiztegitxoak gehituz); bigarrena, 1897an, Sabino Aranaren *Umiaren lenengo aizkidea*, bizkaieraz egina hori ere eta «bizkaitar batek iratzija». Bizkaitar biak lagunak eta euskaltzaleak ziren; lehenak herriko euskara erraza zerabilen; besteak, ordea, euskara garbizalearen ñabardurarekin batera, «*Jaungoikoa eta Lagi Zarra*» goiburuaren ideologia abertzalea proiektatu nahi zion irakurleari, haurrari zein helduari.

Auzo-eskolak bideratzearekin batera, hainbat testuliburu sortu ziren. Izan ere, auzo-eskola horietan ez zen libururik; Luis Elizalde ikuskatzaile euskaltzalearen ekimenez antolatutako testugintzarako lehiaketaren sariak argitaratzeak ekarri zuen lehen uzta, ordukoak baitira bizkaieraz idatziriko *Euskeraz irakurteko irakaspidea ta lenengo irakurkizunak* (Gaztañaga, 1920) silabarioa, *Euzko errixen edesti laburra* (Eugenio Urroz, Gabriel Manterola, 1920), *Euskal Zenbakistia* (Luis Elizalde, 1920), *Azijerea ta ozazunbidea* (Xemeingo C, 1920), eta *Ume euzkeldunen laguna* (lehengo eta bigarren idatzi) (Joseba Altuna, 1920). Baina, 1922an, Bizkaiko Aldundian eta Liga Monarkikoan sendotutako abertzaleen nagusigoa galdu zenean, auzo-eskolen izaera aldatu egin zuten agintari berriek. Lehenengoz, izaera elebiduna eman zitzaion irakaskuntzari, eta bertan erabiltzen ziren aipatutako liburu horiek; testu haietako pasarte batzuek kutsu politikoa omen zutelako, galarazi egin zituzten.

R.M. Azkuek eta Sabino Aranak izan zuten, lehenengoz, umeei erabiltzeko kartila egiteko asmoa; 1897an, *Agakia euskeraz irakurten ikastekoa* silabario argitaratu zuen Azkuek. Isaac Lopez de Mendizabal izan zen liburuxka eta eskuliburu gehien prestatu zituena 1907tik au-

rrera: *Zenbakistia* (1913), *Umearen laguna* (1920), *Nekazaritza* (1929), *Martin Txilibitu* (1931), *Seaska-abestia* (1932) eta *Xabiartxo* (1925), arraskasta handiena izan zuena. Dena den, ez dira ahaztu behar Aita Zabala-Aranaren lanak; 1920an hasi eta 1936ko Gerran hil zen arte, eskola-liburu asko idatzi zituen, gehienak bera irakasle zen Donostiako Muñoa Fundazioko ikasleentzat. Bereak dira *Edesti Deuna, ume ikaslarivyentzat* (1921), *Eusko Lutelesti Txikia* (1922), *Daneurtiztia, Amabi atal-txoatan*, (1922), *Zenbakiztiya* (1922), eta *Josutxu, umientzako Otoi-idaz-tiñua* (1931).

Eskola-liburuen ekoizpenari dagokionez, etenaldi nabarmena azaltzen da 1931. urtera arte. Orduetik aurrera hasten da ernatzen eta loratzen euskal ikasliburuen hastapena. «Lehen Irakaskuntzaren Batzordeak», euskaraz idatziriko eskola-liburuen premiaz jabeturik —*Xabiartxo* agorturik zegoen eta euskal lumak urriak ziren—, berriro, Lopez Mendizabalek eskola-testuak idazteari ekin zion, eta sasoi hartako idazle aipagarriena dugu, P. Iturriotzekin batera. Ordukoak dira irakurtzen ikasteko *Umearen laguna* (L. Mendizabal, 1920; 1931n berrargitaratua), *Txomin Ikasle* (P. Iturrioz, 1931), *Martin Txilibitu* silabarioa (L. Mendizabal, 1931).

Sasoi berean argitaratu ziren *Sabin Euskalduna* (Estornes Lasa, 1931) —Agustin Zumalabek itzuli eta gainbegiratua— eta *Lutelestia* (P. Iturrioz, 1932); lehena, bigarren mailako irakurketa-liburua, eta, bigarrena, aldiz, lehen geografia-liburua. Sormen-lan horiek jauzi kualitatiboa ekarri zuten euskal testugintzara, gaiari eman zitzaion trataeragatik eta formalki agertzeko moduagatik. Liburu mardulagoak dira, landuagoak, inprenta-teknika berriagoez eginak eta *Xabiartxoren* ildo ideologikotik edaten dutenak, orduko hezkuntza ofizialari uko eginez; berrikuntza pedagogiko eta ideologikoaren isla izan nahi zuten. Neurri handi batean, Eusko Ikaskuntzaren eraginari esker, joera eta sentikortasun hori nabaritzen zen testuliburu mota desberdinetan. *Txomin ikasle* kartilatik hasita, pedagogia ulertzeko era modernoa zegoen testuan zein irudietan. *Umearen laguna* silabarioan, adibidez, oso aurrerakoia zen testu-taxutzea eta ikonografiaren erabilera sasoi hartarako (irudi erakargarriak, koloreetan batzuetan eta zuri beltzean gehienetan); edo baita irakurtzen ikasteko eta trebatzeko *Xabiartxo* moduko irakurketa-liburuetan ere. Liburu horretan, euskal nazionalismoaren sintesia agertzen zen modu erraz, atsegin eta irudikapen biziz emana; erlijiotasuna eta natura besarkatzen zituen. Bestalde, liburu enblematiko bihurtuko zen, fran-

kismoaren eskasiak eraginda, ia gaur arte iraun duena gure ikasgeletan. Antzeko zerbait gertatu zen diziplina jakin bati zegozkion testuliburuekin ere. *Lutelestin*, adibidez, Euskal Herria irakasgune bihurtu zen Euskal Herriko errealitate demografiko, geografiko, sozial eta linguistikoak azaltzeko orduan. Sasoirako egoki eta modernoak ziren irudiz eta testuz hornitua da, argazki eta mapa koloreztatuak, laburpenak, galderak eta antzeko errekurso didaktikoak erabiltzen baitira. Beste urrats kualitatiboak Gabirel Jauregiren *Pisia* (1935) eta *Kimia* (1936) liburuetan sumatzen dugu. Itxura mardulagoko horietan, zientziaren alorreko fisika eta kimika diziplinak jorratu nahian, hiztegi berezia sortzeko eta egokitzeko ahalegina nabarmendu behar da, irudietan eta apainduretan euskal ohiturak eta Euskal Herriko testuingurua ardatz hartzen dituenak.

### 3.3. *Euzko ikastola batza sorkuntzan*

Euskaraz idatzirik agertzen ziren Euskal Pizkundearen egitasmoen bilakaeraren emaitzak eta, hezkuntza-alorretik ikusita, esan liteke, foruak ezeztatu ondorengo hizkuntza-galerari so egiteko, Euskal Pizkundearen irakaskuntza-saioak liburu didaktikoen susperraldia sortu zuela. Hori bistakoa zen, baina ulertzekoa da Euzko Ikastoletan garatzen zen giro pedagogiko berrian testuliburuak erabiltzearen aldeko joerak egoitea, eta baita kontrakoak ere.

Euzko Ikastola Batzaren Gobernu Batzordeak prestatu zuen 1932-1933 ikasturteko *lehen informean*, 22. orrian *Material de enseñanza* aipatzen duenean, argi islatzen da testuliburuekin zuten arazoa:

Uno de los puntos que puede extrañar en nuestra organización de la enseñanza es la ausencia de libros y la escasez de material de enseñanza. [...] pero hemos tropezado con los siguientes inconvenientes: los libros vascos de sano espíritu nacional, o están agotados, o son caros, o su estilo es impropio para la escuela; y en los libros españoles su espíritu es inadaptable, sus temas o asuntos no son apropiados, o su estilo es absurdo para esta edad [...] Igual dificultad hemos encontrado para proveer a nuestras maestras de los libros de consulta necesarios para la preparación y desarrollo de los temas de enseñanza.

Lekuan lekuko Euzko Ikastoletan erabiltzen zen materialaz ez daukagu datu zehatz askorik —gerra zela eta, paper asko erre behar izan zi-

ren eta—. Dakiguna da Euzko Ikastoletan erabiltzen zen ikasmateriala ordura arte euskaraz egina zegoela, besterik ez zela. Horren lekuko dira 1933tik 1936ra arte Bergarako Euzko Ikastolan erabiltzen ziren testuliburuak, bertako Miren Ojanguren andereñoak honela adierazita (Askoren Artean, 1972:269):

Berrogei neska-mutil, 5 urtetik 14 artekoakin asi nintzan. Ezin izan zan berestasun aundirik egin, bakarra ta lenbiziko saioa zalako. Urte ingurukoakin taldeak egiñaz, txandaka artzen nituan, 8 urterarte euskera utsa erabiliaz.

Irakurketa: Irakurtzen ikasteko norberan moldaketak. Martin Txilibitu, Xabiertxo, Loretegia eta orduko, euskal liburuak ibili genitun esku artean.

Kristau-Ikasbidea: Eliz Barrutikoa.

Geometria: Aita Zabala'na.

Lutelestia: Iturriotz'ena: Emendik itz eta izenak artuaz, lur, belar, ur, arri eta orrelako gaiakin, oso errez ikasten zuten, begietatik sarturik lur azaleko gaiak.

Zenbakiztia: Zumarraga'ko Hermanos de las Escuelas Cristianas'en babespean «Ediciones Bruño»-k atera zuan, amarreko sistema asmatuaz, amar, beramar, iramar, lamar eta abar. Sistema onekin erderara pasatzen ziranean ez ziran nastutzen naiz izkuntza batean edo bestean kontuak egin.

Errikoia ez izan arren, ikastola barrurako eta geroko denborarako oso egokia iruditzen zait, bestela batian ogeitik ogeira kontatuaz eta erderaz amarretik amarrera nastu egiten ziran.

Edesti edo Kondaira: Aita Estela'rena erderaz izanik, euskerazko berriketaldietan Euzkadi-ko egite garrantzienak ikasten zizuten.

Elizti edo Gramatica: Ez genduen egokirik. Nola-nai, ikasle guztiak euskaldunak ziralarik, esaerak apaindu, aditz-jokoak erabiliaz, esanalak idatziaz, euskeraz landua ikasi zuten.

Edukien gaiak erabat kezkatzen zuen Euzko Ikastolen Federazioa. Euzko Ikastolen Batzako Gobernu Batzordeak prestatu zuen 1932-1933 *ikasturteko lehen informean*, 17. orrian, aipatzen da «galdetegi» bat zabaldu zitzaizela irakaskuntzaren antolaketaz prestakuntza tekniko eta aberkoia zutenei. Eta egindako galderen zergatia azaldu nahian, islatzen da edukiaz eta testuliburuaz zuten benetako arazoa:

Los principales factores que se han tenido en cuenta al enunciar el tercer punto de la consulta son: los maestros y los libros.

¿Cabe esperar de la preparación que reciban en las escuelas de magisterio españolas que los maestros se encuentren en condiciones de practicar la enseñanza según las bases que aquí se prevén? ¿Practican el idioma con la necesaria facilidad y corrección euskérica? ¿Poseen la suficiente riqueza de léxico para las necesidades de toda la enseñanza? En el uso de la Historia ¿han sido orientados en el sentido de la finalidad educadora vasca que se le debe exigir? Y en cuanto a la Geografía y Ciencias naturales ¿sabrán explicarla a la enseñanza de los aspectos económicos que deben interesar a los vascos?

En otras palabras: ¿enseñarían lo que debe interesar al Pueblo dentro de la Historia y de la Geografía y de las Ciencias naturales, sin aislar entre sí tales disciplinas?

Aipuren azken esaldiak adierazten du arazoa ez zela soilik edukia edo ikasmateriala, baizik eta, lehenik, metodoan zegoela arazoa. Hautaketa egina zegoen ordurako: metodo globalizatuak erabiliz, horietan uzartu behar ziren testuliburu-tako edukiak, ez alderantziz. Infomearen orri berean, apur bat geroago, gehiago zehazten da, galdetegiari erreferentzia eginez: «Los libros que se amolden al sistema de instrucción que se adopte habrían de ser enumerados por las personas consultadas, y a falta de libros existentes, fijarían modelos a imitar en cuanto al método, propondrían el plan a que habrían de sujetarse los que expusieran».

Arestian esandako «Informe»an, orri handi batean dator galdetegiaren erantzuna. Testuliburuaren gainean bost iritzi eman ziren. Denak ez zetozen bat puntu horren inguruan. Julene Azpeitia testuliburuaren aurka zegoen, erabat. Proposatzen zuen irakasleentzako liburu bat prestatzea, terminologia zientifikoa, artistikoa eta industrialak gaurkotuz, eta euskaraz, Batzako irakasleei hizkuntza nazionala erabiltzeko aukera emango ziena. Irakasleentzat, berriz, irakurketa-liburuak proposatzen zituen, egokiak eta ikasleen maila goratzeko balioko zutenak. Paulina Ramos, oroimenkeriak baztertuz, irakasleak uste zuen moduan erabiltzeko liburu egokiaren alde agertu zen, baina, beti ere, ikasleen eta liburuaren artean irakaslearen bitartekaritza-lana aldarrikatuz. Hirugarrenak, Bilboko Maisu-maistren Elkarteak ez zuen erantzun. Muñoa Eskolako Etxebarriak proposatu zuen Bartzelonako *Sei Barraleko* testuak eredu garri izan zitezkeela. Azkenik, Aita Alzok honako hau zioen: «VASQUIZACIÓN DE LOS METODOS Y TEXTOS; con escenas vascas, con modelos y tipos vascos; de los métodos Montessori, Seigné, de los centros de interés

froebelianos, del método de proyectos de Dewey, del método sociológico de Gall, etc. Vasquización de las planchas murales, estampas, proyecciones, cines etc.».

Euzko Ikastola eskola euskaldun alternatiboa sortzeak orduko eskola ofiziala errotik iraultzea zekarren, zati handi batean, behintzat; eskola horretan euskaraz eraiki behar bazen pedagogia berria —aktiboa, modernoa eta eragilea—, horretarako ikasmateriala ere sortu beharra zegoen. Baina ez hala nola!

Euzko Ikastolen Batzak aurreko hamarkadan sortutako materialak erruz erabili arren, 1932tik 1937ra doan epealdian material berriak sortu zituen. Euskaraz sortua zegoen materiala erabiltzen zuten Euzko Ikastoletan, bai, baina matematika lantzeko eta irakurtzen irakasteko materialaren eskasia ikusirik, bi liburu-egileri proposatu zitzaaien horretan jardutea. Matematika-arloa prestatzeko, Jose Zabala-Arana Goiriena, «Txipi», nabarriztarra hautatu zen, eta irakurketa-liburuak egiteko, Julene Azpeitia «Arritokieta» zumaiarra.

Jose Zabala-Arana, nabarriztarra, oso gazte sartu zen klaretarren kongregazioan. Donostian hamaika urte bete zituen, beste hiru Valladoliden. 1934an, S. Vicente de la Barquera-ko (Kantabria) ikastetxeko nagusi izendatu zuten. Gerra Zibila piztu zenean, Bilbora alde egin zuen, bizitza arriskuan zuelako. Hala ere, bere kideak bakarrik ez uzteko, atzera Kantabriara itzultzeko trenera igo, eta istripuz bidean desagertu zen betiko.

Predikari eta idazle oparoak *RIEV*, *Euskera*, *Ekin* eta *Euzkera* aldizkarietan argitaratu zituen bere lanak. Euskal hizkuntza eta erlijioa izan ziren haren obretako ardatz nagusi. Gramatika-liburuez gain, eskolarako testuliburuak idatzi zituen: *La conjugación en el Euzkera bizcaíno*, 1919an; *Edesti Deuna. Ume ikaslariyentzat*, 1921ean; *Euzko Lutelesti txikia*, 1922an; *Daneurtiztia*, 1922an; *Eliztia gipuzkeraz: I malla*, 1924an; *Aste Gurena euskeraz ta leteraz*, 1924an; *Euzkerazko Zenbakera*, 1928an; *Jesukristo erregeari bederatzurren*, 1928an; *Josutxo. Umientzako otoi-idaztiñua* 1931n; *Zenbakiztija: I mallea*, 1932an; *Zenbakiztija: II mallea*. —argitalpen datarik gabe—.

Arana-Zabalaren liburu guztietatik bi bakarrik argiratu ziren Euzko Ikastola Batzak aginduta. Bildumaren hirugarren zenbakia ez zen argiratu.



## 5. irudia

Arana-Zabalak matematikarako argitaraturiko lanak.  
Goikoak Euzko Ikastola Batzarako



Bildumaren helburua zen adin bakoitzerako matematikaren oinarriko edukiak lantzea, euskarazko lexikoa erabiliz eta modu arrazoizkoan antolatua, ordura arte egiten ez zena, hain zuzen ere. *Zenbakiztija: I mallea* Bilboko Verdes-Atxirikatarren Irarkolean argitaratu zen, Euzko Ikaskuntza Batzak ohikoa zuen telazko azal berdez, eta erdian Batzaren anagramaz. Lehen orrian datorrenez, 1932an idatzi zen «Arana-Goiti 'tar Sabin'en gomutaz». Hurrengo orrialdean honela dakar: «Zenbakiztija. Lenengo malea. «Nabariztara 'k» atondu eta Euzko-Ikastola-Batzak argitalduta». Eskuliburua da, tamainaz txikia, 12,5 x 18,5 cm-koa eta 130 orrialdekoa. Albo bietatik idatzitako aparteko orri batean hitzen hiztegia agertzen da, gaztelaniazko hitzen parekoekin. Egileak berak azaltzen du zein den liburuaren erabilera. Honela dio sarrerak:

«Irakaslientzako uartxubak.

- 1.<sup>a</sup> Lenengo idaztijau, umiak 6-7 urte dabezanetatik asi 8-9 urte bete-arteño erabilteko da.
- 2.<sup>a</sup> Urriotan gauza bijok jadetsi bihar dabez umiak:
- batetik eunerako asmakixun eta buruzko zenbatza keraz uler-tu ta ganoraz erabagi al-ixatia;
  - amarerazko zenbakerea zetan datzan argi-ta-garbi uartu.
- 3.<sup>a</sup> Edozenbat jardukixun eta asmakixun imiñi dira idaztijon. Irakas-liak, baña, eztauz oneik bakarik erabili bihar; barijak asmatu be-gikez, ta umiai, be, asmau-erazo».

Liburua irudi askorekin hornitua dago, haur euskaldunen errealita-tetik hurbil, baina ez da aipatzen marrazkilaririk. Matematikako liburua klasikotzat har liteke, garaikoen antzera, baina didaktikoki ohikoa zena baino zainduagoa. Edukiak lantzeko erabiltzen diren asmakizun, buru-keta eta horrelakoetan, haur euskaldunei zuzendua dagoela ikusten da, eta datozen adibideek, izenek... eta horrelakoek erakusten dute haur ho-rientzat apropos egina dagoela liburua.

## 6. irudia

### Arana-Zabalaren Zenbakiztija: *I mallea* liburuko barnea

-- 40 --

Zenbakendu:

4<sup>a</sup> 100 - 10 = 90 - 10 = 80 10 = 70 - 10 = 60 - 10 = 50 - 10 = 40 10 =

5<sup>a</sup> 30 - 10 = 20 - 10 = 10 - 20 = 30 - 20 = 60 - 30 = 40 - 30 = 90 - 30 =

6<sup>a</sup> 100 - 50 = 80 - 40 = 90 - 40 = 60 - 50 = 80 - 30 = 90 - 60 = 70 - 40 =

Zenbaketa ta zenbakendu:

7<sup>a</sup> 60 + 20 = 70 - 30 = 90 - 60 = 80 + 10 = 40 - 10 = 90 - 30 = 50 - 30 =

8<sup>a</sup> 50 + 40 = 30 + 60 = 80 - 30 = 20 + 30 + 40 = 50 + 20 + 20 = 70 - 30 =

9<sup>a</sup> 100 - 50 - 20 = 80 40 - 20 = 50 + 40 - 60 = 90 - 50 + 30 = 10 + 90 - 30 =

**Idatzizko eragokunak**

Itsezkoak eurar.

100 eunen, laufeko 1 dira.

10 txakuf-andi, laufeko 1 dira.

**Asmakixunak**

1<sup>a</sup> Zenbata atzamañ dodaz eskubetan? Eta oietan zenbata bist? Zenbatu atz gustilara?

-- 41 --


2<sup>a</sup> Urtzagaf (laran) bakotzaren ordex 10 eunen kentaen lu-dautex, zenbatu eunen bist-dodaz + erusteko? gata 10 erusteko?

3<sup>a</sup> Madalain (limo) bakotzaren sanofija 20 eunen kantzakero zenbatu euni alixango leukodax 60 eunenegaz? g<sup>a</sup> madalain ez?

4<sup>a</sup> Anea ta bijok onbea ikosten jun gara. Osabenenera puteko, guddhil-tarrit bakotzagatik 20 eunen kentu daut-hulez, Junostoterako zenbatu eunen jalgi (gastau) doguz?

5<sup>a</sup> Miren Eduñe'ci amamek 50 eunen eunen dautsar; Ien 20 eunen leukazan. Zenbatu dautsar, ba, orain?

6<sup>a</sup> Lilietu'k, ikastola-ondoko alokijan (dendean), sagat bar, upil bat eta alafikera-bikua erosi dauz, sagata ta upila txakuf-andi lanatan, eta alafikera, sagi txakuf-andi-



Euzko Ikastola Batzak argitaratu zuen matematika lantzeko bigarren liburua *Zenbakiztija: Il mallea* da, baina ez da urterik aipatzen. Eskuliburua da, tamainaz txikia, bestearen antzekoa: 12,5 x 18,5 cm-koa eta luzeraz laburragoa, 111 orrialdekoa. Lehenaren kolore bereko azala du, ez da aipatzen irudigilearen izenik, eta sarrera berdina da. Itxura bereko sarreran, honako hau dator:

«Irakaslientzako uartxubak.

- 1.<sup>a</sup> Bigaren maleaz asi baño lenago, egun batzutan lenengo malako gairik urtenenak gogorazoten ekin.
- 2.<sup>a</sup> Asita gero, be, noxian-bein, gayari dagokijanentz, lenengoko eragokunak-eta bariro erabilitia, bigaren onetakuak obeto egiteko bide zuzena ixango da.
- 3.<sup>a</sup> Irugaren atala, **Neurijak** deretxana, bigarena baño lenago, be, irakatsi lateke, edo osorik, edo zati batzuk».

Sarrera biek erakusten dute testuliburua erabiliko zuen irakasleaganako egileak zuen errespetua eta sentikortasuna. Irakaslea anonimoa izan arren, egileak bazekien nolakoa zen eta non egingo zuen lan. Horregatik, onartzen zuen irakaslearena zela ikasgelaren erantzunkizuna, eta proposatzen zion testua egokien ikusten zuen eran erabiltzeko. Hala ere, liburua erabiliz gero, argiago azaltzen ziren oinarritzko ildo didaktikoen nondik norakoak, irakasleak hala erabiltzea egoki ikusiz gero.

Ekarri berri diren horiez gain, aipagarria da Julene Azpeitia idazle eta pedagogoak 1932an idatzitako *Irakurri Matte*, Euzko Ikastola Batzaren enkarguz egina. Hiru liburuz osatutako bilduma horrek —irakurtzeko zailtasun maila txikitik handira— ez zuen jarraipenik. Badakigu bigarren *ingurraztia* (koadernoa) egiteko konpromisoa hartua zuela, eta idatzi ere egin zuela, baina gerrak moztu zituen argitalpenaren kontu guztiak. Badirudi jatorrizkoa ere galdu egin zela.

*Irakurri Matte* liburuaren bigarren orrian, liburuaren helburua azaltzen da Euzko Ikastola Batzak sinatua. Honela dakar:

Euzko-umiai irakastia ta eurok mendutia da geure euzko-ikas-tolaen elburuba. Lan onetarako irakaskintza ederak eta ugarijak atera daikez Irakasliak onetariko irakurgai bakotxetik. Irakurgai bakotxaz ostian dagozen itaunak eta eragokunak eredutzat baño

eztagoz, Irakasliak, gero, gura-aña irakaskintza, ta onduen eritxiko dautsan eraz, dagixantzat. Idazti au euzkeraz idatzi da lenengo, ta erdeldun-luraldietako ikastolaetan erabilteko espane-raldu da gero. Euzko-Ikastola-Batza.

Julene Azpeitiak, Bizkaiko Aldundiko auzo-eskoletako irakasleen artean ikuskari zenak Euzko Ikastola Batzan aholkularitza pegagokikoa eta prestakuntza-ikastaroak eskaini zituen; Montessori metodoak ezagutzen zituen, eta baita, zuzenean behatuta, Granadako «Ave Maria» eskoletako esperientzia pedagogikoak ere. Bazuen European irakaskuntza elebiduna helburutzat zuten esperientzia pedagogikoen berri, eta Bilboko Euskal Irakasleen Elkarteko partaide ere izan zen. Horrez gain, ekintzaile eraginkorrenetarikoa izan zen II. Errepublikako Ikastolen sorreran. Eskoletan landu behar zen programari —edukiak— eta metodoari dagokienez, Ovide Decroly belgiar psikologo eta hezitzailearen pedagogiaren jarraitzaile sutsua izan zen Julene Azpeitia. Decrolyren kontzeptualizazioarekin bat zetorren Julene, hark esaten zuenean «haurra bizitzarakoikasten duela eta bizitzen den horretatik ikasten duela bere bizitza indibiduale-rako zein gizarte bizitzarako», eta barneratze hori «ideia elkartuen» eta «interesguneen» bitartez gauzatzen dela esatean. Bat zetorren, baita ere, Decrolyk aipatzen zuen beste honekin: ikaslearen nitasuna (gutasuna) haren ingurune fisiko eta sozialean eraiki behar dela. Horregatik, Julenek haren «printzipio oro hartzaileak» hartu zituen, eta globalizazio printzipio hori gorde zuen berak idatzitako *Irakurri Matte. Irakurgayak. Lenengo Inguraztija* liburuan, non 40 orrialdetan, 14 gai jorratuz, haurren hezkuntza indibidual, sozial eta nazionalaren gaia lantzen baita. Euskaraz sortua dago liburua —azal berdeduna— eta egileak berak egin zuen gatzelaniazko bertsioa —azal gorriduna—. Azal biak dira Euzko Ikastola Batzak Arana-Zabalaren liburuetan erabilitako modukoak, baina handiagoak. Liburuak 17,5 x 19,5 cm ditu, ohiko eskola-liburuena baino handixeagoa. Irakurgaiak zailtasun-maila gorenean eginak zetozen, eta marrazki handiekin hornituak. Atzeko azalean aipatzen da marrazkiak Aranoa 'tar J.M marrazkilariak eginak direla, Bilboko Verdes-Atxirikatarren Irarkolean argitaratua, hain zuzen ere.

Julenek gomuta bat idatzi zuen irakurgaiak baino lehen. Gogoan zuen Bizkaiko Ea herrian 1911tik 1916ra egon zeneko maistra-jarduera. Han sei urte haietan izan zuen neska-taldeari —88 guztira— egin zien gomuta, eta aitortu ere bai irakurgaietan azaltzen zen guztia haiengandik ikasia zuela. Honako hauek dira liburuan agertzen diren irakurgaien

izenburuak: «Garbitasuna», «Berekoya», «Egiñen ona», «Inurrijak», «Jatekerija», «Miren Espetxu», «Mutiko aldakorra», «Umiaren otoa», «Gotzona eta umia», «Mutiko arua», «Mutiko egitija», «Itxuskija ta maya», «Zaldi andi-naya», eta «Elayen edestija». Izenburuek erakusten dute liburuak zuen joera moralista; baina, edukietan sakonduz gero, aberria, erlijioa, elkartasuna, jakinduriaren garrantzia... eta abar agertzen direlako, Emakume Abertzale Batzaren ideologia aberkoi eta erlijioso nagusi zela esan daiteke. Alde horretatik, *Xabiartxoren* antza suma liteke, baina hemen, bestean ez bezala, ez dago liburuaren irakurgaiak harilkatzen dituen protagonistarik. Irakurgai errazak dira, arinak, xumeak, samurrak eta haur euskaldunen errealitatetik hurbilak. Irakurgai gehienek orrialde eta erdiko edo bi orrialdeko luzera dute; azkena luzeagoa da, sei orrialde ditu. Irakurgai bakoitzari bere irudia dagokio, eta bukaeran zenbait galdera datoz, ikasleak irakurri duenaz gogoeta egin dezan, edo ikasleak buruz ikas zezan gogoratu beharrekoa; hots, dotrina ikasten zen moduan, galderari erantzuna idatzita emana. Irakurlearen nekea ez sortzeko, idazkera zuzena da, letra tamaina arrunta baino handiagoa, eta deskripzioa zein elkarrizketa erabiltzen ditu ikasleengana errazago eta zuzenago heltzeko.

## 7. irudia

### Azpeitiaren *Irakurri Matte* liburuaren ipuinak

16

—Bai, iru xiti egingo dogu, irurena da.  
—Au postal—lituan Matalc—gonuzal erosiko doguz.  
—Oba andrakila bat—lituan Nekasetzuk.  
—Ikastolako stezanari emongo dautsagu, Mirentxu bere alabari eskijak erosi dughozautsa—esan leban Gentrane'k—(Eitakixobe gaxun ortosik dabilala?  
Gentrane'k esanda lez egin leban.  
Mirentxu, atozanaren alaba, etzan aitzu iru neskatilatsubak egin leutsuen eskafaz.

*Erregokoratu gihundik beragan orkaltatutxiki? Zelan leban nerez? Zer leban leban? Zer gura leban oroz? (Mirentxu) zelan niki leban leban? Zer leban leban? Zer leban leban? Zer leban leban?*

### INURIJAK

Olaizola'taf Ane Miren, neskatoxu ona, esangiña ta ikastuna zan.

Egun baten, inurijak lurpian leuken gelatsura egiten lebezan ostereak ikusten leguan.

Inurijak euren etxera jakijak eruaten litariduben.

Ane Miren'i bere atek esan leutsan: «Ofa of, maite, nun donan eredu edeta.

Inurijak,  
negu.



Nabaria da irakurketa-liburu hori egiterakoan Julenek jarri zuen arreta. Bi gauzek kezkatzen zuten Julene: batetik, letraka esandako irakurketak; bestetik, euskaldunei erdaraz irakurtzen irakastearenak. Julenek luze idatzi zuen horri buruz Euskaltzaleen Biltzarrean idatzitako «Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi» artikuluan; honela diosku 290. orrialdean:

Nire lanen gaitzat auxe det: «Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi lezayokien?. Ara zergatik. Ume euskaldunak ez dira berez irakurri zale handiak. Eta, nire ustez, gaiz au, urrutik datorkigu euskaldunoi. Behintzat, gure aurretikoak etzuten alfabeto bat asmatzen denborarik eman; eta onegatik gure mintzoak dituen otsak, fonemak, gure inguruko erdera biak ezin adierazi izan dituzte euren alfabetoaren bitartez, eta gure apellido ederrak, eta gure mendi, erri, ibai, etxe ta abarren izenak, danak alperrik galduak artu ditugu. Eta oraiñ eziñ aldatu.

Ni neu, ez naiz jardun ume euskaldunai euskeraz irakurtzen irakasten, beti erdaraz baizik; eta ez dakit euskeraz irakatsi al izan banien irakurzaleago izango ote ziran edo ez.

Gañera, irakurtzea, beste jakinduri guztien giltza da, eta gure umeak euskeraz ezer ikasiko badute, leengo leengotik euskeraz irakurtzen ikasi bear dute. Gaur eguneko euskaldun danok erdaraz beziñ ondo euskeraz irakurtzen ikasi bagenu, etzan euskera gaur dagon bezela beia jota egongo!!.

Aipatutako azken horrek azal dezake Julenek irakurgaietan neska-mutilei eta haien izen-abizenei ematen zien protagonismoa, hain zuzen ere. Hauek agertzen dira: Mikel, Jon, Josu, Paul, Goriño'tar Matale, Zubia'tar Nekane, Iruskieta'tar Gentzane, Olaizola'tar Ane Miren, Pagonabaraga'tar Eroman, Miren Espetxu, Gotzon, Iturgoyen'dar Kepa, Olatxobekoa'tar Karla, Erotabide'tar Alesander, Agire'tar Andonitxu. Julenek, neska-mutil horien izenak erabiliz, irakurle euskaldunen identifikazioa lortu nahi zuen, bai baitzekien haur euskaldunen irakurtzeko zaletasuna suspertuko zuela irakurtzeko gogoia irabaziz gero.

Ovide Decroly hezitzaileari jarraituz, Julenek esaten zuen irakurketaren hastapenak metodo ideo-bisualean oinarritu behar zirela. Irakurketa esaldika egin behar zen, ikasleak irakurtzen zuenaren zentzu osoa hartzeko. Horrez gain, Julenek uste zuen euskaldunei erdaraz irakur-

tzen irakasten zitzaiela; ez, ordea, euskaraz irakurtzen. Horrela jokatzuz gero, batetik, irakurketa-metodo desegokia erabiltzen zen, eta, bestetik, irakurketaren erritmoa, tonua, eta abar, arrotzak ziren erdarazko irakurketarenak, eta haur euskaldunak irakurtzea gorroto zuen horren ondorioz. Aipatutako artikulu horretan, 293. orrialdean, Julenek honela azaldu zuen arazoaren gakoak:

«Ekatzu ogi zati ori». «Eraman ogi zati ori mai gañera». «Artu ogi zati ori». «Eman ogi zati ori zure albokoari».Eta abar, eta abar.

Frase osoa irakurtzen dutenean ikasten dituzte frase barruan dauden itzak, gero, itzen barruan dauden zati edo silabak, eta azkenez silaben barruan dauden letrak. Metodo onetan pedagogogiako garrantsi aundidun lege bat betetzen da. Auxe: «Umeei irakasteko nai-ta-nai-ezkoa dala gauza ezagunetik ezezagunera joatea».

Umeentzat gauza ezagunak dira ogi zatia, maya, aldameneko laguna, ta abar. Baita ere ezagunak ditu, ekarri, eraman, artu, frase oyetan daudenak. Eta gauza ezagun oyetatik dijoa, silaba edo itzen zatitxoak –gauza ezezagunak- ikastera: e-ka-tzu, o-gi, za-ti, o-ri. Eta azkenez, beste gauza ez ezagunak: e-k-a-t-z-u. Pedagogiak agintzen duan bezela. Lengo eran, deletreo eran, *ce e ce*, *ce a ca*, lege ori ez da betetzen, ez eta aintzat artu ere eta umeari legez kontra erakusten zayo, pedagogia ta logika guztien aurka, ezagutzen ez danetik asita».

Arestian aipatu dugunez, Julenek beharrezkoa ikusten zuen irakas-kuntzatik bertatik haurrei euskaraz irakurtzen eta euskara maitatzen irakastea, eta haurren esku utzi zuen berak liburu horretan idazle gisa zuen bikaintasuna. *Irakurri Matte* liburuak, bestalde, lehen saria eskuratu zuen Bizkaiko Diputazioak pedagogia-alorrean 1925ean antolatu zuen lehiaketan. Joera bera erakutsi zuen geroago idatzi zituen haurrentzako idazlanetan. Horra hor *Euli baten edestia* ipuina, *Amandriaren al-tzoan* liburua, *Goizeko Izarrak* ipuina, *Auntza Baratzen* ipuina, *Umien Adizkia* kartila eta *Zuentzat* ipuin-liburua.

Esan liteke, Julene Azpeitiaren liburu horren ostean, ikastoletarako material gutxi argitaratu zela. Geroago, 1933an, Bruño argitaletxeak gipuzkeraz prestatutako 256 orrialdeko *Zenbakizti lengaien ikastia* ikaslearen liburua dugu. Aritmetika-liburu itzulia da, Madril-Bartzelonako «La Instrucción Popular»en argitaratua, Eusko Ikaskuntzaren oniri-

tziz. Badirudi, garai berean, beste bi lan argitaratu zituela argitaletxe berak, *Pisia* eta *Kimia*, Joseba Altunak itzulita; baina guk ez dugu horren berri.

Epealdi emankor horretan bi ezaugarri azpimarra litezke: 1) Material horiek gaurko ikastolen aurreko eskoletan erabili ziren, hots, 1932-1937ko epealdian, Euzko Ikastolen Batzaren babesean sortutako euskal eskoletan, zeinetan lehen helburuetarikoa baitzen heziketa guztia euskaraz ematea Eusko Jaurlaritzaren babes eta laguntzarekin. 2) Eskola-liburuaren egile horiek, ikastola eta eskola elebidunetako testuliburuaren hutsuneari erantzun beharrak eraginda, helburu argiak ziztuzten: eskola-umeei euskaraz eskaintzea beren hizkuntzaren gramatika, beren herriaren geografia eta historia, kristau-dotrina, aritmetika, fisika zein kimikaren oinarriak, nazionalismoaren ikuspegitik, ideologia abertzale horren bidez biharko euskaldunaren oinarria eraiki zitekeelako. Beste modu batera esanda, eskolatik bertatik txiki-txikitatik hasitako sozializazio horren bidez eta antolatzen ziren eskolaz kanpoko beste ekitaldiekin batera, euskal gizaki elebiduna lortu nahi zen, bere herriko ohiturak eta historia ezagutu eta maitatuko zituen.

Zoritxarrez, Euzko Ikastola Batzak ez zuen gehiago argitaratu, Gerraren etenaldiaren ondorioz. Hala ere, badugu 1961ean Julene Azpeitiak argitaratutako 30 orrialdeko *Umien adizkia. I. Idaztija*, Bilboko *Talleres Gráficos Ordorica* moldiztegian argitaratua. Irakurtzen ikasteko koloretako silabarioa zen. Ordura arte euskal irakaskuntzan erabili ziren silabarioen itxura eta irakurgaien gradualtasuna gordez, ordukoan, kolorez eta ikastolen erreferentzia hartuta, gerra aurreko euskal nazionalismoaren balioetatik edaten zuen liburuaren edukiak. Bildumaren hurrengo idazkiak ez ziren argitaratu. Julenek gehiago idatzi zuen haurrentzat, baina literatura-alorrean kokatzen ditugu hark idatziako *Amandriaren altzoan* (1961) eta *Zuentzat* (1974) lan bikainak.

Kolore biziko irudiak nabarmen daitezke eta, ildo didaktiko desberdinei jarraitu arren, edukiaren aldetik euskal ohituretan oinarritzen zen; eta euskaldun-fededun pentsamoldean sozializatzeke joera izan arren, aurreko hamarkadetan baino maila apalagoan zuen. Alde horretatik, gero hainbat eskolaren eta irakurketa-liburuaren aitzindari gisa har daiteke, *Xabiartxo* liburuarekin batera. Haur taldea da irakurlea, azalean eta barnean, *Xabiartxon* ez bezala.



## 8. irudia

Azpeitiaren *Umien adizkia* liburuaren azala eta barnea

1937tik 1960ra ia ez da ezer argitaratzen Hegoaldean. Euskal agintariak, pentsalariak, hau da, euskal intelligentsia politiko eta kulturala erbesteratuta zegoela, Iparraldean eta Amerikan zokoratu zen euskarazko ekoizpen gehiena, Hegoaldean zigortua baitzen inolako euskal adierazpenik jaio baino lehen. *Xabiartxo* erabili zen euskara-liburu bakartzat isilpean iraun zuten ikastoletan edo etxe-eskoletan, Argentinan 1943an berrargitaratutako bertsioa edo zaharragoak erabiliz, eta 1959an Bilbon berrargitaratu zena Aita Onaindiak bizkaierara moldatuz. Bestalde, aipatzekoa da 1952an Baionan egile ezezagun batek argitaratutako *Battitta eta Mariaño*. *Haurrak ikhas-azue eskuaren irakurtzen* kartila. Iparraldeko euskalkiak erabiltzen zituen, eta hitzurre modura agertzen ziren, frantsesez, euskal ahoskerako eta idazkerako oharrak. Aipatu ditugun bi lan horiez gain, katixima, dotrina edo elizliburuak ziren haurrentzat eta eskolan erabiltzeko euskaraz argitara zitezkeen liburu bakarrak. Horra hor, 1948an, Baionako Elizbarrutiak komiki modura, lumaz eta koloreztatuta argitaraturiko *Ichorio Ederrena*, non irudiaren ondoan testu argigarriz Liburu Santuko zatirik garrantzitsuenak agertzen baitziren. Bestalde, baditugu 1948an Manuel Lekuonaren 14 orrialdeko *Iesu aurraren bizitza*, irakasteko erabilia, eta 1949an ildo beretik argitaraturiko *Haurren Eliz-liburutxo*a eta *Kristau-ikasbidea* (bizkaieraz eta gipuzkeraz) lan anonimoak.

Amaitzeko, Euzko Ikastola Batzaren egitasmoak eutsi nahi zion gerrara arte bizirik iraun zuen ideologiari (nazionalismo tradizionalari eta

karlismoan erroturiko ideologiari); eta aurreko eta osteko ereduekin alderatuz, honako funtsezko ezaugarri hauek zituen: familiaren ideologiaren garrantzia, emakumea sare hezitzailea, hizkuntzaren gordelekua, erlijiotasunean errotua, beheko mailako eskolatzea eta alfabetatzea, eta andereñoa «bigarren ama»tzat hartzea. Ideologikoki pentsamolde kontserbadorea nagusitu arren, pedagogikoki Europako «Eskola Berri»ko joera berritzaileak erabiltzen ziren. Euskal Pizkundearen testuinguruan kokatu behar da Euzko Ikastolaren eredu; eredu horrek kontuan hartzen zituen euskal eskolaren teorizaziorako edo testugintzaren alorra sustatzeko hastapen eta bitarteko guztiak, horiek izan baitziren euskal hezkuntzaren baratzeko uzta aberastu zuten hazi emankor eta urratzaileak, batzuetan maila pertsonalean gauzatuak (Landeta, Elizalde, Lopez de Mendizabal, Azpeitia... eta geroago Zipitria), eta beste hainbat kasutan antolatutako eta erakundetuak (auzo-eskolak, Eusko Ikaskuntza, Euzko Ikastola Batza... eta geroago, Ikastola). Euzko Ikastolen eredian, nabarmendu daiteke, batetik, ikasmaterialen urritasuna, eta, bestetik, emakumeen protagonismoa, andereñoa baitzen ikasmaterial-egile eta funtsezko pedagogia-eragile, Julene Azpeitiaren aitzindaritzapean.

Esanak esan, eta atal honetan zehar ikusi duguna laburbiltzeko asmoz, ondoriozta dezakegu euskaraz idatzi diren testuliburuak intelligentzia pedagogikoak bultzatuak edo sortuak izan direla. Are gehiago, Euskal Herriko interesak babesteko asmoz, euskal sorkuntza berezkoa izan da, geure kulturatik abiatuta sortua, tokian-tokian eta aldi-aldi zegoenarekin konparatuta pedagogikoki aurrerakoiagoa eta zainduagoa; eta, azkenik, euskal irakasleriaren berrikuntzatik sortua eta berrikuntzarako sortua —egiteke zegoen irakasleriaren eguneroko beharrianak asetzeko asmoz—.

## Bibliografia

- AMENABAR, F.J. (1991). *La Escuela Superior de Maestras de Vizcaya 1902-1931*. Doktorego-tesia. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, polikopiatua.
- ASKOREN ARTEAN. (1972). *Gure Ikastola*, Oñate: E.F.A.
- ASKOREN ARTEAN. (1988). *Julene Azpeitia. Ehun urte mugan (1888-1988)*, Bilbo: Zumaiaiko Udala.
- ARRIEN BERROJAEHEVARRIA, G. (1983). *La generación del exilio. Génesis de las escuelas Vascas y las Colonias Escolares (1932-1940)*, Bilbo: Onura.
- AZPEITIA, J. (1962). «Ume euskaldunai euskeraz idazten eta irakurtzen zelan irakatsi». *Euskaltzaleen Biltzarra, Euskera*, VII, 289-297.

- BILBAO BILBAO, B., PEREZ URRAZA, K. (2008). «Euskal curriculuma lehen eta orain», *Ikastaria, Cuadernos de Educación*, 16, 83-108, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- BILBAO, B., EZKURDIA, G., PEREZ, K. (2004). *Euskal Curriculuma ala Euskal Dimentsioa Curriculumean?* Donostia: Utriusque Vasconiae.
- ESTORNÉS ZUBIZARRETA, I. (1983). *La sociedad de Estudios Vascos. Aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*, Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- EUZKO-IKASTOLA-BATZA/ FEDERACIÓN DE ESCUELAS VASCAS. (1933). *Informe de la gestión del primer ejercicio, presentado por la Junta de Gobierno de Euzko-Ikastola-Batza, 1932-33*, Bilbo: Talleres Gráficos Verdes-Achirica.
- SANZ ESQUIDE, J.A. (1988). *La tradición de lo nuevo en le País Vasco. La arquitectura de los años treinta*. Doktorego-tesia. Bartzelona: Kataluniako Unibertsitate Politeknikoa. Bartzelonako Arkitekturako Goi-mailako Eskola Teknikoa. Grupo Norte del GATEPAC.
- UGALDE SOLANO, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-19036*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde.

## **Emakumeak intelligentsian**

# Emakumeak adimenean

Ana Urkiza

Bankoa Crédit Agricoleko Giza Baliabideen Zuzendaria

Emakume Abertzale Batza (EAB) 1922an sortu zen, gizonezko abertzaleek politika arloan egiten zuten lana osatu asmoz. Bizitza publikoan ordura arte parte hartu gabe zeuden emakumeek rol propioa edukitzea eskatuko zuten.

Alderdi Jeltzaleak emakumeak behar zituen, nazionalismoaren oinarriak zabaltzeko. Eta emakumearen esku utziko zituen, besteak beste, abertzaletasuna zabaltzea, euskara sustatzea, hezkuntza, nazionalisten ekimenen antolaketa, ongintza, eta ohitura zaharren defentsa eta hedapena (*Jaungoikoa, Lagi Zarra*, hizkuntza eta arraza).

Dialektika sakona irekitzen da, beraz, emakumearen rola inguruan. Emakumeak bizitza publikoan ikusten zuen bere burua, baina nazionalismoak bizitza publiko mugaturako sarbidea ahalbidetzen zion.

EABko emakumeak, gizonak bezalaxe, egunkari eta aldizkarietan idaztera heldu ziren, ipuinak eta antzerkiak idaztera, irratsaioak prestatzera, literatura-sariak irabaztera, hizlari gisa herriz herri ibiltzera...

EABko emakumeak, abertzaletasuna zabaldu alde, nazionalismoak agintzen ziona betetzen zuen: gizonari politikagintzan laguntzea eta, horri esker, nazionalismoak bide egitea. Bide oparoa.

Baina, bitartean, emakumearen rola inguruan ere hausnartu zuen eta, ADIMENA ERABILIZ, bizitza publikoan parte hartzeko bidea zabaldu.

## 1. EAB: sorrera, helburuak eta aldiak

### 1.1. EABren sorrera eta helburuak

Emakume Abertzale Batza 1922ko apirilean sortu zen Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan, eta bi aldi nagusi bizi izan zituen: 1922tik 1923ko irailera, Primo de Riveraren diktadurara arte; eta diktadura desagertu zenetik, 1931tik aurrera, 1936ko Gerrara arte.

**Emakume abertzaleen helburu nagusia zen, EABren bitartez, gizonezko abertzaleek politika-arloan egiten zuten lana osatzea.**

Idea hori ulertzeko, ostera, ezinbestekoa da 1922. urtea baino lehenagoko giroa eta pentsamendua azaltzea.

### 1.2. EAB sortu aurreko ataria

Alderdi Jeltzalearen sorrera garaian eta Alderdi Jeltzaleak defendatzen zituen oinarrien artean —«Jaungoikoa eta Lagi Zarra»—, gizonezkoa zen jakituria eta boterea zituena, politikagintzarako zena; emakumea, ostera, gizonaren luzapena baizik ez zen. Hala ere, emakumeak bazuen dohain bat: amatasuna (ama izateko gaitasuna). Amak ekartzen baititu umeak mundura, ama euskaldunak ume euskaldunak sortzen baititu (euskal arrazakoak), eta amak egiten baititu gure herria sostengatuko eta defendatuko duten biharko gizonak. Hortik, besteak beste, gure herriari «ama-lurra» esatearen zergatia.

xx. mendearen lehen urteetan, nazioarteko mugimendu sufragisten oihartzunak heltzen hasiak ziren Euskadira. Horren harira, 1906. urtean, jada, *Aberri* egunkarian agertu zen, lehenengo aldiz, emakumei zuzenduriko artikulu bat, zeinetan emakumeak ere politikagintzan parte hartzera gonbidatzen baitzituen; nahiz eta emakumeari uzten zitzaion lekua «hezitzailearena» zen, eta ez politika «aktiboa» egitekoa.

Aldi berean, *Euskalduna* aldizkarian beste artikulu bat agertu zen, emakumeek etxean egon behar zutela zioena.

Dena den, emakumeak *Aberri* aldizkarian idazten hasi ziren (garai hartan 30 artikulu inguru zenbatu ziren), beti ere, izengoitia erabilia; izan ere:

- Artean ez ziren prentsan idazten aritu izan eta, beraz, ez ziren ziur sentitzen.
- Ez zekiten idazketarako eta beren ideiak azaltzeko balio zuten.
- Gizartean erresistentzia nabari zen, emakumeek bizitza publikoan parte har zezaten.
- Ez zekiten «ausartu» zitezkeen.

Garai hartan, nazionalismoak lau ideia nagusi defendatzen zituen: Euskadik aurreko garaietan askatasun politikoaz gozatu zuela eta, beraz, orduan, galbidean zeuden lege eta ohitura zaharrak berreskuratu behar zirela; sinesmena berreskuratu behar zela; hizkuntza landu; eta odolaren garbitasuna zaindu.

Emakumeak ere diskurtso hori babestuz eta defendatuz hasiko dira lanean, baina emakumearen rola zein den erakutsi nahian ere bai.

Garai horretan, hiru argumentu mota azaldu ziren:

- **Maria Barbier «Mirentxu»**ren eskutik zetorkigun lehena. Ez zuela gizonezkoen lekua hartu nahi esan zuen; eta bera helburu garbi batekin hasi zela prentsan idazten: emakumeei dei egitea, doktrina nazionalista zabaltzen eta aberria defendatzen laguntzeko. Emakumeak ez zuen idazle izan behar, baina «pasibo» izateari utzi behar zion aberrigintzan lagunduz. Hori bai, bere familia-eremutik atera gabe.
- **Rakel de Alda «Kattalin»**. Kattalini, ostera, gutxi iruditzen zitzaion emakumeek prentsan bakarka idaztea. Haren ustez, emakumeak etxetik kanpora irten behar zuen eta gizonekin lankide izan behar zuen aberrigintzan.
- **Victoriana Larrinaga «Libe»**. Kattalinen proposamenak gizonen interesekin talka egingo zuela iruditu zitzaion Liberi. Eta, beraz, ongintzarako erakunde bat antolatzea proposatu zuen. *El Ropero Vasco* izan zen erakunde hori, eta zera suposatu zuen: emakumeak etxetik ateratzea eta aberriari laguntzen hasteko aukera irekitzea. Estrategikoki ondo pentsatutako proposamena izan zen, hurrengoan, beste aurrerapauso bat ematea ahalbidetzen zuena.

Sabino Aranak ere, bere garaian, ongintzarako erakunde propio bat aldarrikatu zuen. Ez zuen pentsatu antolakuntza hori emakumeek osa

zezaketenik, baina, orain, nazionalisten helburuari erantzuten zion emakumezkoenak.

Hala ere, ez zen kontrako iritzirik falta izan, eta argudio hau erabili eta defendatu zuten aurkako ahotsen aurrean: nazionalismoa herri oso baten ahotsa dela askatasunaren bila eta, beraz, emakumeak ere herri horren parte direla.

Beraz, emakumeak bide horretatik hasi ziren bizitza publikoan parte hartzen: ez beren eskubideak aldarrikatzeko (sufragistek bezala), baizik eta sentimendu abertzalea eta ideia nazionalistak bultzatzeko. Eta, horretarako, hiru lan hartu zituzten beren gain:

- Propaganda nazionalista egitea (ongintzako erakundeen bidez).
- Euskara zabaltzea.
- Gainerako emakumeen artean proselitismoa egitea.

### 1.3. EABren aldiak

#### 1. ALDIA: 1922-1923

Elias Gallastegi izan zen elkartearen eragilea, Bilboko Euzko Gaztedi Batzako lehendakaria. 1922ko apirilean, O'Daly izeneko irlandar abertzale propagandista gonbidatu zuten Bilbora hizlari bezala, eta hitzaldi hartan, irlandar emakumeen eginkizuna azaldu zuen (Cumann na mBan elkartearen barruan). Batez ere, etxe barruan eta erlijioaren alde egiten zuten lana azpimarratu zuen, baina ekintzaile gisa herriaren askatasunaren alde egiten zutena ere goratu zuen.

Hitzaldi horren ostean, EAB sortu zen, eta 300 emakume inguruk eman zuten izena.

Helburua zera zen:

- Abertzaletasunaren gogoia eta *ideiak zabaltzea*.
- Abertzaletasunaren alde eratzen ziren *lan-ekintzak antolatzea*: ekimen horien artean zeuden, besteak beste: ongintza, euskarazko eskolak ematea, makinaz idazten ikasteko eskolak, ume eta emakumeen heziketa eta kultura, abertzaleen ospakizun eta agerraldietan parte hartzea, mendigoizaleei mendirako irteeretan laguntzea, etxeetako balkoietan ikurrina ipintzeko kanpainak, gi-zarte-arazoetan laguntza ematea, etab.



## 2. PRIMO DE RIVERAREN DIKTADURA GARAIA

Industrializazioa zela eta, emakumea etxetik kanpo lan egiten hasi zen, apurka-apurka. Eta erbestean, emakumeak politikan parte hartzen hasi ziren.

Primo de Riverak ez zuen joera hori gelditu, sufragioa erraztuz gero, bozka gehiago jasotzeko aukera zegoelako.

Elizak, ikusirik emakumeak bizitza publikoan postu esanguratsuak lor zitzakeela, «Acción Católica de la Mujer» sortu zuen, eta emakumeak gonbidatu zituen sinesmen katolikoa bultzatu eta emakumeek gizartean behar zuten funtzioa zehaztera.

Sufragioa, bestalde, zera esatera zetorren:

- Emakumeek bizitza publikoan parte har zezaketela.
- Emakumeek eremu hauetan parte har zezaketela: hezkuntzan, ongintzan, osasunean, gizarte-aurreikuspenetan, hirigintzan (hiriko plaza, lorategi eta etxeetako premiak zehazten), ogasunean, polizian (alkoholismoa eta moraltasunik eza ekiditeko), gastuak eta sarrerak kontrolatzen...

Idea berri horien etorrera profitatuz, jarrera aldatu zuten emakume nazionalistek ere. Horien artean, aipagarriak dira **Julia Fernandez Zabaletak** defendatutako ideiak. Juliaren ustez, arazoa ez zen feminismoa, emakumearen duintasuna baizik. Hark argi zuen emakumeek balio zutela gizonek egiten zituzten lanak egiteko (erbestean, gizonen lekuak hartuz, gerrara joan zirenean bezala); ikasteko gai zela emakumea eta baita lan intelektuala garatzeko ere; eta, ondorioz, politikan ere parte har zezakeela.

Haren ustez, emakumeak prestatu beharra zuen nazionalistek irudikatutako emakumearen irudia indartzeko. Hau da, hizkuntza, lege zaharra, ohiturak, artea eta, bereziki, familia zaintzeko. Hain zuzen ere, emakumearen ezaugarriak indartzeko: abertzaletasuna, erlijiotasuna, etxe-zaintza, alaitasuna, kemena, sakrifizioa, erabakimena, seme-alaben heziketa, eta gizonaren laguntzaile izatea.

Idea horrekin, bigarren mailan geratzen zen emakumearen politikan sartzeko ustea edo nahia; eta etxea zaintzen zekien emakumearen irudiak zaintzen zituen nazionalismoaren oinarriak: «Emazte euskaldunaren zeingia ama ona eta emazte ona izatea da».

Beraz, lana egiteko, dirua irabazteko, eta kulturara sarbidea izateko nahiak ere bigarren mailan gelditzen ziren.

Ondorioz, ikasteko aukera irekitzen zitzaion emakumeari, eta baita nazionalisten emakume-eredua hobetzeko ere.

Primo de Riveraren diktaduran aukera politikorik ez edukitzean, nazionalistek ekintza kulturalak gehitu zituzten, batez ere, euskararen inguruan (argitalpenak, etab.). Eta emakumeek ekintza hauetan parte hartu zuten: Idazleen Federazioan, *Euskaltzaleaken*, «Emakumeen omenaldia euskarari» antolatu zuten, eta egunkari kultural eta erlijio-soetan idazten jarraitu zuten: *Euzkerea*, *Euskal Esnalea*, *Euskalerrriaren alde*, *Jaungoiko Zale*, *Euzkadi*, *Diario Vasco*, *Bizkaitarra*, *Argia* eta *El Obrero Vasco*.

### 3. BIGARREN ALDIA: 1931TIK AURRERA

1931ko urrian, sufragioa onartu zen gizon eta emakumeentzat baldintza berdinetan.

II. Errepublika ezartzearekin, batetik, nazionalismoak autogobernuerako aukera gehiago ikusten zuen, baina, bestetik, gizarte laikoaren ereduak kolokan jartzen zuen erlijioan oinarritutako bere eredu soziopolitikoak.

Hori zela eta, inoiz baino premiazkoagoa zen emakumeen indarra eta ahotsa. Eta 1931ko urtarrilean, *Bizkaitarra* egunkarian, emakumeei dei egin zitzaion 1923an utzi zuten ekimena berrartzeko. Dei horri honela erantzun zion Tenek: «**Gure aberria askatuko dutenen laguntzaileak izango gara**».

**Emakumea, beraz, ez zen lehen lerroan kokatuko, baina bai lehen lerroan arituko zirenekin «batera».**

Sorne Unzueta «Utarsus»ek ere zera esan zuen: «Ez gara egongo gizonak askatasuna ekartzeko zain. Abertzaletasuna zabaltzen lagunduko diegu. Beren ekimenen ahotsa izango gara, eta gure bidez zabalduko dugu abertzaletasuna».

1931ko ekainaren 23an, berriro egituratu zen EAB; Bilbon sortu zen, eta gero, poliki-poliki zabaltzen joan zen Bizkaian eta gainerako probintzietan. 1931ko udarako, jada, 26 talde eratu ziren.

Nazionalismoaren aro berrian ere, emakumea gizonaren sostengu izatea nahi zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak. Eta emakumeak bizitza publikoan zegokien tartea aurkitzeko zirrikituak probestuko zituen; hala nola:

- **Euskara bultzatzea.** Nazionalistek emakumea jarri zuten euskararen arduradun: bai irakasteko, bai biziraunarazteko.
- **Ongintza.** Aberriaren alde lanean ari zirenei laguntza ekonomiko eta afektiboa ematea zen helburua; hiltzen zirenak oroitzuz, haiei omenaldiak prestatuz...
- **Propaganda egitea.** Hizlari gisa arituko ziren emakumeak, bai emakumeei zuzendutako bileretan, bai batzoki berrien inaugurazioetan... Hizlari batzuk beren herrian bakarrik aritu ziren (Pilar Unzueta, Miren eta Ciriana Garate, Miren Lazcano, Elvira Zipitria...); beste batzuk, berriz, herriz herri (Maria Echabe, Sorne Unzueta, Mercedes Careaga eta Maria Uranga). Horixe izango zen bizitza publikoan zuzenean beren lana agertzeko eta onarpen osoz aritzeko unea.
- **Ekimen publikoetan parte hartzeko berrespena.** Omenaldiak antolatu zituzten abertzaletasuna zabaltzen aritutako emakumeentzat, etab. Horrek esan nahi zuen berretsi egiten zela emakumearen rola ekimen publikoetan.

## 2. EABren ekimen nagusiak

Emakumearen eragin-eremua ezagutzeko, 1931ko urritik 1933ko azarora bitartean aurrera eramandako ekimen nagusiak aipatzen dira jarraian:

### 2.1. EAJ-ren politika bultzatzea

#### 2.1.1. AHOZKO PROPAGANDA

Bozkatzeko eskubidearekin batera, emakumea are eta gehiago hasiko zen bizitza publikoan parte hartzen. Eta emakumearen parte hartzea, batez ere, ahozkoa izango zen.

Ahozko propaganda egiteko, beraz, bi era nagusi zeuden:

- a) **EABren lokaletan, batez ere, emakumeei zuzenduriko hitzaldiak antolatzen zituzten.** Hasieran, bazkide berriak lortzeko egiten zituzten hitzaldiak, baina, azkenean, asteroko hitzaldizikloak antolatzen zituzten nazionalismoaren doktrina zabaltzeko.
- b) **Nazionalista guztiei zuzendutako EAJren mitinetan eta ekitaldietan parte hartzen zuten hizlari gisa.** Emakumeek parte hartzen zuten, hizlari gisa, batzoki berrien inaugurazioetan, mendigoizale eta Euzko Gaztediren ekimenen inaugurazioetan, eta abarretan. Garai hartan, leku askotatik deitzen zitzairen emakumeei hitzaldiak ematera joateko eta, hizlari asko ez zegoenez, hizlari gehienek asteburuero zuten nonbait hitzaldia eman beharra. Hitzaldiak emateko ekimena hainbeste zabaldu zen, ezen Bilboko EABk propaganda-azpibatzerdea osatu baitzuen; aldiro biltzen zituen emakumeak hitzaldiak nola eman behar ziren jakinarazteko: eskemak, puntu garrantzitsuenak... 1933an, BBBren propaganda-komitearen parte izango ziren Batzorde horretako kide batzuk. BBBk bere gain hartu zuen hizlarien prestakuntza, eta baita kontrola ere.
- 1933an 176 hitzaldi eman zituzten emakumeek.

Hizlarien artean, aipatzekoak dira: Bizkaian, Polixene Trabudua, Sorne Unzueta, Miren Nekane Legorburu, Gloria Zubia, Teresa Zabala eta Haydée Aguirre; Gipuzkoan, Mercedes Careaga, Miren Lazcano eta Julene Urzelay; Nafarroan, Catalina Alastuey eta Julia Fernández Zabaleta; eta Araban, Carmen Sánchez Gamarra.

### 2.1.2. IDATZIZKO PROPAGANDA

Bi modu nagusi zeuden idatzizko propaganda egiteko:

- a) **Esku-orriak argitaratzea eta banatzea.** Emakumeen ekintzetako egitarauak, inaugurazio-egunetakoak eta nazionalismoaren doktrina idatziak prestatzen zituzten.
- b) **Prentsaren erabilera.** Garai horretan aurrekoetan baino gehiago idatzi zuten emakumezkoek. *Euzkadi*, *El Día* eta *La Voz de Navarra* ziren garai horretako hedabide nagusiak. Horieta egiten zituzten bileren deialdiak eta ematen zuten beren ekimenen berri. *Euzkadi* egunkarian, euskarari egokitutako orriari idazten zu-

ten emakumeek, eta baita *Argia* eta *Euzko* aldizkarietan ere. Artikulu horietan jasotzen zituzten, baita ere, euskara aberasten eta irakasten joateko abestiak, ipuinak, euskarazko esaerak, etab.

Idazleen artean ditugu: Mañariko, Lorea, Lilitxo, Tene, Mirentxu, Lorentxu, Iñazi, Ira, Arantza, Yolanda, Mariaren alaba bat, Mirenen jopu bat, Itziartxo, Edurne, Olatz, Jexuxa, Beatrix, Ekarnetxu, etab.

Doktrina nazionalistarekin zerikusia zuten 100 artikulu inguru agertu ziren *Euzkadin*. Idazleak, oster, 50 inguru.

Hiru ziren, nagusiki, propagandaren edukiak:

- a) **Garaiko gai politikoak:** autonomia-estatutua, hauteskundeak, Eliza katolikoaren defentsa, gobernuaren neurri errepresiboak, etab.
- b) **Jeltzaleen doktrina:** sinesmena, arraza, hizkuntza, ohiturak, eta erregimen juridiko eta ekonomiko propioa.
- c) **Emakumeari buruzko pentsamendua.** Gai hauek lantzen dira alor horren inguruan:

c.1. *Ama eta emazte funtzioarekin identifikatzea emakumea, hau da, familia funtzioarekin.* Gizonarentzat familian zegoen emakumearen lekua; emakumearentzat, berriz, ez agertze-ko modua zen kokapen hori. Emakumeak ezberdintasun edo berezitasun horretan azpimarratzen zuen bere balioa. Amatasunak balorazio soziala ematen zien. Baziren gehiago ikasi eta egin nahi zuten emakumeak, eta ikastera animatzen zituzten, baina «euren lana hobeto betetzeko» helburua jarritz.

c.2. *Emakumea gizonaren osagarri eta haren menpekotzat hartzea.* Familiaburua gizona zen, baina hark emakumearen esku uzten zuen etxearen eta etxekoen gobernu. Horren inguruan, zera dio:

- **Carmen Erraztik**, 1931n: emakumeak zuela zeharka botere guztia; izan ere, amak/emazteak/alabak gizonarengan eragiten zuela eta, beraz, emakumeak nahi zuen lekuan zegoela gizona.
- «**Mate**»ren ustez ere, emakumeek emaitza hobeak lortzen zituzten nazionalismoarentzat, maitasunaren bidetik: «ema-

kumeok maitasunarekin lortzen dugu gizonek indarrarekin lortu ez dutena».

- **Teresa Zabala:** «Emakumea ez da bakarrik bizia ematen duena, baizik eta izana ere ematen du. Horregatik, Euzkadi izango da emakumeek nahi dutena».

Emakumeek, beren funtzioaren balioespen hori eginda, gizonaren ekimena babestu behar zutela azpimarratzen zuten.

- c.3. *Familiako funtzioari esker, etengabe laguntzen zion emakumeak nazionalismoari:* arraza, fedea, ohiturak, hizkuntza, eta gizonei hauspoa emanez beren lana egin zezaten.
- c.4. *Emakumearen ekarpena mugimendu nazionalistari, etxetik kanpo* (etxeko lanak utzi gabe): politika ez zela emakumeentzat esan arren, onartzen zen, beharra zegoenean, emakumeak ere etxetik kanpora joan behar zuela.
- c.5. *Nazionalisten funtzio publikoa, emakumeen familiako funtzioaren proiektzio gisa:* ñabardura horri esker, feministengandik bereiztea lortu zuten.
- c.6. *EAB, emakumearen ekimen publikorako tresna, nahiz eta mugatua izan:* EABk defendatzen zuen nazionalismoa eta nazionalismoak emakumea, baina baita nazionalismoaren funtsa/oinarria ere.

## 2.2. Hezkuntza eta kultura babestea

Esparru horretan izugarritzko lana egin zuten EABko emakumeek; besteak beste:

- 2.1. *Emakumeen prestakuntza.* Antzerkian, orfeoian, eta hizkuntza lantzeko ekimenetan parte hartzeaz gain, eskolak eman eta klaseak hartu zituzten euskara ikasteko. Eta euskara gutxi egiten zen lekuetan, irrati bidez ematen hasi ziren eskola horiek (Nafarroarako, adibidez). Klaseak irrati jarraitzen zituzten ikasleei, nahi izanez gero, idatziz zuzentzen zizkieten ariketak. Lanbide-heziketa ere eman zuten, liburutegiak sortu, «ikasketa-guneak» eratu... Emakumeek argi zuten zein garrantzitsua zen beren garapen intelektuala, bizitzako edozein arlotan aritzeko.
- 2.2. *Umeen heziketa.* EABk pentsatu zuen umeei lanbide-heziketa eta euskal kultura erakutsi behar zitzaizela, eta euskal historia

ere bai. Hori zela eta, Euzko Ikastolen Batza eta Euzko Gazte-txu Batza sortu zituen. EABk elebitasuna bultzatu zuen ikaste-txeetan, eta umeei euren euskal izenez deitzeko eskatu. Helbu-rua zen nazionalismoaren ideia kultural eta erlijiosoari erantzungo zion ikastetxe-sarea bultzatzea. Eta EAB arduratu-ko zen horretaz. Bi hilabeteen, sortua zuten ikastetxeen euskal federazioa.

Eta Gaztetxoan Batzordea ere sortu zuten, denbora librerako gazteentzako ekimenak antolatu ahal izateko. Batzorde horie-tan hasiko ziren, bestalde, etorkizunerako hizlariak prestatzen.

EAJren politika bultzatzeaz eta hezkuntza eta kultura babesteaz gain, ekimen erlijiosoak eta ongintzari zuzendutakoak hartu zituen EABk bere gain.

### 3. Dialektikaren funtsa emakumearen rolaen inguruan

Emakumeari zuzendutako eremua «pribatua» zela aipatu dugu ares-tian, eta gizonari zegokiola «politikagintza». Baina interes berak bat egiten du garai horretan: batetik, nazionalismoak behar zuen emaku-meek eremu publikoan parte har zezaten, nazionalismoaren ideiak bul-tzatzeke eta, gero, sufragioaren etorrerarekin, emakumearen bozka ere bereganatzeko; bestetik, emakumearen beraren interesa zegoen bizitza publikoan parte hartzeke eta adimena lantzeke.

Nolatan egiten dute aurrera, ordea, bi interes horiek? Nola azaltzen eta defendatzen dira?

1908-1918 aldiko prentsako kolaborazioetan (*Bizkaitarra* eta *Gipuz-koarra* aldizkarietan, batik bat) hasten dira, lehenbizi, gai horren ingu-ruko aipamenak. Ahots asko zeuden emakumeak bizitza publikoan parte hartzearen aurka. Hori zela eta, honako hauek dira nazionalis-moak defendatzen zituen ideiak:

- Eremu ezberdinak dira abertzaletasuna eta politika. Abertzaletasuna bultzatzea emakumeari dagokio, eta politika bultzatzea gizonari.
- Abertzaletasunak aberria maitatzea esan nahi du eta emakumea-ren eremuko da, «sentimenduen mundua» baita.
- Emakumeak parte har dezake bizitza publikoan, beti ere, etxeko bere zereginekin talka egiten ez badu. Izan ere, emakumei gai-

nerako emakumeak mugiarazteko eskatuko zaie, abertzaletasunaren alde egiteko.

Aldi hartako emakumeen artean, bi dira aipagarri:

- **Carmen Errazti «Etxakin».** 1916an hasi zen *Euzko Deyan* idazten «Euzkeldun neskatilari» atalean. Bertan, emakumearen zereginak zein ziren azaltzen zuen: familia zaintzea, etxea garbi izatea, nolako izan behar zuen neska gazteen jokaera finak, eta emakumeak barruan gorde behar zituela haserreak aipatzen zuen, besteak beste. Etxekinek emakumearen arketipoa zehaztu zuen bere idatzietan, eta emakumeei prestakuntza ematea zen bere funtsa edo helburua.

Etxakinek emakumeak automutilatzea proposatzen zuen, baina bazuen konpentsazio bat: gizarteak emakumearen irudia «ondo» ikustea, «ontzat» hartzea. Emakumeak «bere lana» ondo egin izanaren lasaitasuna izatea.

Garai hartako prentsa-lanek, beraz, interes nazionalistei erantzun zieten: prestakuntzaren beharra aldarrikatzeko erabili zen, gauza txikiei garrantzia eman behar zitzaizela aldarrikatzeko balio izan zuen, eta baita emakumearen despertsionalizazioaren inguruan eztabaidatzeko ere.

- **Tene Mujika.** 1918-1921 urteen artean «Emakumea eta Aberria» atala sortu zen *Euzkadi* egunkarian Kirikiño erredakzioburu zela, eta, atal horretan, ideia hauek zabaldu zituen Tenek «Miren Itziar» izeneko pertsonaia bati zuzenduta:

- Abertzaletasuna eta politika eremu ezberdinak zirela.
- Politikaren eremua gizonarena zela.
- Emakumeak abertzaletasuna bultzatu behar zuela, familiako bere zereginetara itzuli egin gabe.

Ideiei zegokienez, Tene Mujikaren ekarpena ez zen berria izan, baina, lehenengoz, emakume batek egiten zuen politikaren eta abertzaletasunaren arteko bereizketa; lehenengoz aipatzen zuen emakume batek zein ziren emakumeei eta gizonei zegozkien zereginak. Eta, gainera, euskaraz idazten zuen. Horretaz gain, ondotik ikusiko dugun bezala, emakumeak bizitza publikoan parte hartu ahal izateko aukerak aztertu eta aldarrikatu zituen.



Azter ditzagun, bada, nazionalismoaren oinarrien gainean Tenek jakitera eman zituen irakaspenak:

### Jaungoikoa

Emakumeak fedea lantzen lagundu behar zuen, abertzaletasunak fedearen arabera jokatzeko eskatzen baitzuen. Eta familia zen horretarako oinarria: seme-alabei familian irakasten baitzitzaien. Amak (emakumeak), beraz, familian izango zuen boterea, zeina herriaren oinarria baitzen: bai hizkuntzaren erabilerari zegokionean, bai fedea bultzatzen, bai jokaera egokia erabilarazten.

### Lagi Zarra

Emakumea ez zenez politikagintzan arituko, Tenek zera esaten zion emakumeari: ohitura zaharrak defendatu behar zituela, eta bi alderdi azpimarratzen zituen: euskal ohituren izaera defendatzea, eta emakumearen ardura ohitura horiek ezagutu eta bete daitezen.

Ohitura horien artean zeuden, adibidez, familiarteko harremanak. Ez maitasunezko harremanak bakarrik, baizik eta baita familiak, gizarteari begira eta gizarte unitate bezala, gainerako familiekin zuen harremana ere. Horrela lantzen ziren herri baten kohesioa, indarra eta konpromisoa.

Hemen argi ikusten da Tenek, nazionalismoaren oinarriak ondo ezagututa eta gizarte-mailan emakumezkoari agertzen zitzaizkion mugak ulertuta, baliatzen zituela zirrikituak «bere politika» egiteko.

### Arraza

Emakumeari zegokion euskaldunen arraza garbi eta sendo mantentzea ere. Langintza horretan, emakumeari zegokion garbitasuna eta janaria zaintzea, lan egokia egitea (etxeoetan, batez ere), gizon egokia aurkitzea, eta umeen osasuna bermatzea.

### Hizkuntza

Amak irakasten zien umei euskaraz hitz egiten. Emakumeak sostengatu behar zuen, beraz, euskararen jarraipena, belaunaldiz belaunaldi.

Tenek bi kontraesan erakusten zizkigun:

- Alde batetik, Tenek berak esaten zuen emakumea ez zela politikagintzarako, baina emakumeak bultzatzen zituen antolakuntza baten barruan parte hartzera.
- Bestetik, joera kontserbadorea edukitzera bideratzen zituen emakumeak, baina sufragismoak hedatutako jokaera soziala izan zezaten nahi zuen.

#### 4. Idazle eta hizlarien ekarpenak

##### 4.1. *EAB sortu aurretiko emakume idazleak: alderdi jeltzalearen ideologia zabaltzea*

Idatzizko lanen esparruan egindako lehen urratsak mende hasieran orduko egunkari eta aldizkarietan eginiko idatzietan agertzen dira: *Bizkaitarra*, *Gipuzkoarra*, *Napartarra*, *Aberri* eta *Euzkadi* egunkarietan.

Honako hauek ditugu aipagarrienak 1910. urtearen aurretiko idazleen artean: Maria Barbier «Mirentxu», Purificación Gorostiza «Garbiñe», Rakel de Alda «Kattalin» eta Sorne Unzueta «Utarsus». Aldi hartan, oso idazlan gutxi argitaratu ziren.

1910. urtearen azkenera, *Bizkaitarra* agerkarian «Colaboración femenina» izeneko saila sortu zen, nahiz eta han ere oso urria izan partaidetza.

Garaiko idazlanon edukia zen *Alderdi Jeltzalearen ideologia zabaltzea* eta, emakumearen rolari zegokionean, *emakumearen betebeharra gizonezkoaren abertzale-lanaren osagarri izatea* zela defendatzea.

Garai hartako idazlerik esanguratsuena Tene Mujika dugu:

**Tene Mujika (Deba, 1888-1981).** Helburu Didaktikoa: Euskal Emakumearen Arketipoa Zehaztea

Tene Mujika izan zen *Euzko Deya* hamabosteroko euskarazko aldizkarian maiztasunez idazten hasi zen lehenengo euskal emakumezko idazlea. Horretaz gainera, gutun edo eskutitz generoko idazkiak argitaratu zituen *Euzkadi* egunkariko «Emakumea eta aberria» atalean; «Mi-

ren Itziar» izeneko asmaturiko pertsonaia bati zuzendu zizkion gutunok; beste era batera esanda, euskal emakumeari.

Gutun horien bidez, emakume abertzalearen arketipoa eskaini zuen: emakumeak nolako jarrera eta jokaera izan behar zuen etxean eta gizartean. Izan ere, Teneren helburua didaktikoa zen.

Hauek dira haren idazlan ezagunenak:

- *Miren Itziarri idazkiak eta olerkiak*. Emakumeei zuzenduriko gutunak eta olerkiak. Emakumearen arketipoa eta funtzioak zehaztea izan zen lanaren helburua.
- *Gogo oñazeak, Gabon* eta *Juan Jose* antzerki-lanak. Euskara erakargarri egiteko, antzerkia kultura-gai egokia zela ohartu zen; herri handi nahiz txikietan arrakasta lortzen ari zela; eta antzerkilariak zer antzestu handirik ez zutela eskuartean... Horrela, bada, idazteari ekin zion eta hiru antzerki idatzi zituen; hirurak sariatuak izan ziren.
- *Cuadernos de Vasceuce hablado*. Ipuinak eta narrazio laburrak.

#### 4.2. *EAB sortu ondoko euskal idazleak: Euskararen Zabalkundea*

Aurrekoa baino garai oparoagoa izan zen aro hau, emakumeek aldizkarietan eta egunkarietan zuten partaidetzari zegokionez. *Euzkerea*, *Euskal Esnalea*, *Euskalkerriaren Alde*, *Jaungoikozale*, *Euzkadi*, *Diario Vasco*, *Bizkaitarra*, *Argia* eta *El Obrero Vasco* izan ziren garaiko hedabideak.

Hala ere, ez ziren asko izan euskaraz idatzi zutenak, eta idatziz agertzen diren testu asko mitinetan berbaz esanikoaren transkripzioak baizik ez dira. Idazleen artean aipagarriak dira: Karmen Errazti, Sorne Unzueta, Julia Fernandez Zabaleta, Maria Echabe, Elvira Zipitria, Tene Mujika eta Errose Bustintza.

1922ko abenduaren 3an euskararen gaineko kongresua egin zen Bilbon, eta han EABri eman zitzaion euskararen ardura. EABk bere eginkizuntzat hartu zuen euskararen erabilera sustatzea eta zabalkundea bermatzea. Eta egitasmo hauek aipa daitezke helburu hori betetzeko sortu zirenen artean: irakurketa-idazketaren irakaskuntza eta euskal abes-tiena.

Garai hartako idazle esanguratsuenen artean ditugu:

- **Julia Fernandez Zabaleta.** Nafarroako EABren sortzaile eta eragileetakoa izan zen; bere lehen hitzaldian, «Emakumien etorkizuna» izenburupean 1924an eman zuen hartan, zera defendatu zuen jada: emakumeak prestatu beharra zuela bere burua jakitez eta lanbidez hornitzeko; emakumeek etxetik kanpoko alokairulanean sartu behar zutela; eta gai zirela adimen-lana egiteko ere. Eta, era berean, emakumeak herri-karguetara ere iritsi behar zuela. Haren aburuz, politika-eremua zabalik zegoen emakumearentzat.
- **Maria de Echabe.** Zarauzko EAB taldeko lehendakaria izan zen, eta *Euskal Esnaleak* eratzen zituen hitzaldi-saioretan parte hartu zuen bigarren emakumea. 1930ean eman zuen hitzaldiak «Zorionaren iturria gizonak non du?» zuen izenburutzat.

Hitzaldiez gainera, *Iziarko Ama* izeneko antzerki-lana ere idatzi zuen, lehen saria irabazi zuena 1929. urtean Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak eratutako literatura-lehiaketan.

### **Julene Azpeitia (Zumaia, 1889-1980):** Hizkuntza eta Hezkuntzarekiko Ardura

Haren helburua ez zen literatura egitea izan, euskara suspertzea eta hizkuntzaren etorkizuna eraikitzea baizik. Andereño nekaezina izan zen, eta umeei zuzendutako testuak lantzea izan zen haren lan nagusia.

Ehunka artikulua argitaratu zituen «Arritokieta» ezizenarekin *Euzkadi* egunkarian, eta *Karmel*, *Yakintza*, *Egan* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan. Literatur-sariketetara aurkeztu eta sariak ere bereganatu zituen, eta irratsaio ugari egin zuen euskara bultzatze aldera.

Idatzizkoan, estilo zuzena eta arina zen berea, hiztegi herrikoia eta egitura sinpleduna. Ardura handia erakutsi zuen Azpeitiak hizkuntzarekiko: gipuzkera zein bizkaiera erabili zituen, bizi izan zen lekuetako umeen hizkerara moldatzen saiatuz.

Irakurlearekiko komunikazioa bilatzen zuen, bai baitzekien, euskara bultzatzeko, irakurleen arreta piztu behar zela.

Julenek une oro zuen presente hizkuntzaren egoera, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarrean irakurritako txostenean aurkeztu bezala. Bertan, hizkuntza berpizteko lau proposamen egin zituen, ipuin, eskola, eta irratsaioen bidez euskara hedatzea helburutzat hartuta.

Hauek dira bere lanik ezagunenak:

- *Amandriaren altzoan* ipuin labur eta ugariz josiriko idazlana.
- *Azeri jauna* izeneko ipuin-liburua: asmo didaktikoz idatziriko fabula-liburua.
- *Osasuna, merketza eta janaritza* izeneko sukalde-liburua.

### **Errose Bustintza (Mañaria, 1899-1953):** Herri Kronikak eta Ipuin Herrikoiak

Errose Bustintza *Euzkadi* egunerokoan hasi zen idazten, «Euzkel Atala» zeritzon orrialdean, «Errijetatik» sailean, hain zuzen. Sail horretan, herri bakoitzak bere kronikaria edo korresponentsala zuen, eta hamaika ziren beren herrietako kronikak idazten zituzten emakumeak.

Baina Errose izan zen *Euzkadi* egunkariaren kronikaririk ugari eta fidelenetarikoa.

Egunkari hartan, tarteka-tarteka, ipuin batzuk ere eman zituen argitara; era bitako ipuinak idatzi zituen: oinarri mitologikodunak eta ipuin miresgarri edo harrigarriak.

*Euzkadi* egunerokoan eta *Euzko-Endan* idatzi zituen ipuinak, 49 guztira, «Euskalerriko ipuiñak» izenburupean argitaratuko ziren ondoren.

Erroseren ipuin zein kontaera-gaiak herrikoiak ziren, bizkaieraz idatziak, ahoz jasotakoak segur aski, eta egileak onduak.

Olerkiak ere idatzi zituen: «Abestitxu zarra», «Josuren biotzari» eta «Siaska abestia», aipagarri. Errosek, osaba hil ondoren, haren lekukoa hartu zuen *Euzkadi* egunkarian. Egin ohi zituen kroniketan, nortasun handia eta heldua erakutsi zuen.

EABko kide izan zen emakume honek erakutsi zuen garaiko emakumezko idazleen artean balio literariorik handiena; eta, bestalde, bere garbizaletasunagatik egin zen ezagun.

## Sorne Unzueta (Bilbo, 1900-2004): Gizartearekiko Betebeharra

Sornerentzat idaztea zen helburu orokorrago bat lortzeko «beste» lan-esparru bat. Gizartearekiko sentitzen zuen betebeharragatik idazten zuen: euskara indartu eta gizarte-mailan abertzale-gogoia zabaltzearren.

1930-1933 aldikoak dira haren lanik ugarienak; orduko *Bizkaitarra*, *Euzkerea*, *Aberri-Eguna* eta *Jaki-jaki* aldizkarietan idatzi zituen. Ondoren, ardura handiak hartu zituen EAB barruan, eta isilaldian mantendu zen 1977 arte.

Hiru ataletan bana daiteke haren ekintza:

- Hitzaldiak: euskal emakumeen lana eta betebeharra aldarrikatu zituen.
- Olerkiak. 1930-1932 bitartean, euskal poesiak goraldia ezagutu zuen garaian, idatzi zuen zatirik handiena. Poesiaren bidez jorratutako gai nagusia ere euskal gizartea izan zen: giza maitasuna, eta aberriaganako eta Jainkoaganako maitasuna. Baina landu zituen beste gai batzuk ere, hala nola: amatasuna, natura, urtarokak...
- Ipuinak eta narrazioak: alegiak izan ziren, nagusiki, idatzitako lanak, eta bere iritziak agertzen zituen aberri, herri eta euskararen inguruan, animalien bidezko ipuinetan.

1933-1936 aldian, *Euzkadi* egunkariaren euskal atalean, beste hainbat emakume idazle aritu ziren. Guztira, EABko kideek eginiko 120 idazlan baino gehiago dira aldi hartakoak; gehienak euskaraz idatziak.

Ezin esan gabe utzi, bestalde, *El Dia* egunkarian «Emakume Ingoskia» euskarazko orrialdea sortu zela garai hartan. Gipuzkoako EABk zuen orri horren ardura, eta euskararen aldekoa zen helburu nagusia: euskara zabaltzea eta indartzea. Orri hartan iritzi-artikuluak eta literatura-lanak argitaratu ziren, batik bat.

## 5. Emakumeak adimenean

EABren sorrera, helburuak eta ekimenak ondo aski dokumentatuta daude. Baita garaiko emakumeek egindako lanak zein izan ziren eta nola gizarteratu zituzten ere: hizlari gisa mitinak ematen, egunkarietan idazten, ipuinak argitaratzen eta irratsaioak prestatzen ibili zirenen ibilbideak.

Eta ondo zehaztuta gelditu dira haien eragin-esparruak ere: abertzaletasuna zabaltzea, eta nazionalismoaren oinarriak indartzea eta hedatzea.

Baina EABko emakumeen ekarpena are handiagoa izan zen hizlari, andereño, idazle, irrati-esatarí, ama, emazte eta EABko kide izateagatik erakutsitakoa baino. Izan ere, inteligentzia edo adimena hori baino askozaz kontzeptu orokorragoa da (hitzaldiak eman, kronikak, ipuinak eta narrazioak idatzi, edota irratsaioak prestatu izatera mugatuta uzteko). EABko emakumeek erakutsi zuten adimena *pluralagoa, koralagoa eta sakonagoa* izan zen.

Gaur egungo ikuspegitik, EABko emakumeek beste adimen hauek ere erabili eta erakutsi zituzten:

### 1. *Adimen emozionala*

Erakutsi zuten gaitasuna zutela beren sentimenduak eta besteenak ulertzeko eta bideratzeko.

Hau da, bazekiten ama baino gehiago izan zitezkeela; bazekiten bizitza publikoan parte har zezaketela, gai zirela; eta bazekiten, familiaren kargu eginez gero, botere handia eskuratzen zutela.

Baina ez zuten gizonezkoarekin talka egin nahi; berak ere abertza-leak ziren eta, beraz, ez zuten nazionalismoaren oinarrien kontra joan nahi; amatasunaren garrantzia onartuz, aberrigintzaren parte zen emakumea, eta gizonaren aldamenean kokatzen zen. Ez beherago.

Beraz, emakumeen eta gizonen sentimenduak ezagututa, zirrikituak bilatzea izan zen emakume haien ahalegina. Helburu ezkutuko bat zuten, gainera: pauso txikiak ematea, baina beti aurrera egiten lagunduko zutenak; apurka, gero eta plaza gehiago irabaztea.

Aipagarri dira Teresa Zabalaren hitzak: «Emakumea ez da bakarrik bizia ematen duena, baizik eta izana ematen duena ere bada. Horregatik, Euzkadi izango da emakumeek nahi dutena».

### 2. *Adimen interpertsonala*

Erakutsi zuten oso ondo zekitelara zein ziren emakumearen indarra eta balioak, eta zer lortu nahi zuten.

Eta lanari esker lortu zuten. Aldamenean joanez. Ideiak emanez. Ekarpinak eginez.

*Adibide gisa, aipa dezagun Carmen Errazti «Etxakin»ek nola defendatu zuen ezinbestekoa zela emakumearentzako prestakuntza. Prestakuntzan ikusten zuen emakumea etxetik ateratzeko aukera, eta horixe zen erronka berriei aurre egiteko modua.*

*Emakumearen arketipoa aurkezterakoan, haren automutilatzea bazekarren ere, sari batekin zetorren: gizarteak emakumearen lana «on»tzat ikustea, hain zuzen. Beraz, etxean egiten zuen lana ondo ikusten bazuen, emakumea langintza horretarako prestatzea ere «on»tzat ikusiko zuen, eta hori guztia aurrerapausoa zen bizitza publikoan aritzean ere «on»tzat ikusteko.*

### 3. Adimen soziala

Erakutsi zuten adimen sozialaren hiru alderdiak menderatzen zituztela; hala nola:

- *Enpatia*. Erakutsi zuten bazekitela identifikatzen «bestearen» beharrekin (ideologikoak zein afektiboak izan). Adibidez, emakumeek «emazte onaren» rola hartzen zutenean (gizonaren interesekin ez zutela talka egin nahi jakinarazten zutenean) eta gizonari bere ibilbidean lagunduko ziola zin egiten zuenean, emakumeak hauspo bikoitza ematen zion gizonari: batetik, normaltasun sentzazioa (etxea ez zuela zaindu gabe utziko esaten zuenean) eta, bestetik, lasaitasun eta kontrol sentipena, aberri-gintzan lagunduko ziola esanez.
- *Kooperazioa*. Erakutsi zuten bazekitela elkarlanean; bai emakumeak emakumeekin, bai emakumeak gizonen helburuekin. Bai gizarteko estamentu eta egoera sozial ezberdineko jendearekin; bai ekimen berriak sortzeko; bai laguntzeko.
- *Altruismoa*. Erakutsi zuten ez zutela arazorik musu-truk lanean aritzeko. Hau da, ideia bat edo helburu bat lortzeko egingo zutela lana.

*Horren adibide dugu Victoriana Larrinagak («Libe»), EAB sortu aurretik, egin zuen proposamena emakumeak etxetik kanpora ateratzeko:*



El Ropero Vasco sortzea. *Bat egin zuen gizonen eta emakumeen beharrek, elkarlanerako langintza bat proposatuz, eta altruista zen. Emakumeak etxetik ateratzea eta aberriari laguntzen hasteko aukera irekitzea ekarri zuen horrek guztiak.*

#### 4. Adimen kolektiboa

Erakutsi zuten bazekitela masak mugiarazten (EABren sorrera, kasu), masak antolatzen, masarekin elkarlanean aritzen, eta guztiei helburu bera, sentimendu bera transmititzen.

*Adibide gisa aipa genezake, 1931ko ekainean EAB berriro sortu ondoren, gaitasuna izan zutela bi hilabeteren buruan 26 talde berri sortzeko. EABko emakumeek erruz erakutsi zuten mugitzeko, lana egiteko, kontzentzitzeko eta antolatzeko gaitasuna.*

#### 5. Adimen exekutiboa

Erakutsi zuten menderatzen zituztela arrazoiaren lau adarrak:

- *Ordena.* Denboran zehar, asmatu zuten garaian garrantzitsuak ziren gaiak tratatzen eta bigarren mailakoak zein ziren identifikatzen. Baita zain egoten eta lehenesten ere.
- *Konstantzia.* Konstante izan ziren bai EABren ibilbidearekiko, bai Alderdi Jeltzalearen oinarriak zabaltzarekiko, bai emakumearen egoeraren inguruan lanean jarduteko.
- *Borondatea.* Egindako lan guztia borondate onez egin zuten, ume askoko sendiak osatu ondoren. Seguru egotearen indarra erakutsi zuten.
- *Gogoa/motibazioa.* Nekerik gabe aritu ziren. Sinesten zuten esateko eta egiteko zutena. Hasi zirenetik joan ziren aurrerapausoak ematen eta, beraz, aurrera egiteko balio zuen egiten zuten guztiak.

*Mitinak ematen hasi zirenean, leku askotatik hasi zitzaizkien emakumeei eskatzen hitzaldiak ematera joateko. Eta ez zirenez aritzen emakume asko hizlari lanetan, emakume batzuk asteburuero ibiltzen ziren herriz herri.*

*Modu horretan lan egitea betidanik izan da emakumearen ezaugarria. Hau da, egitekoa argi izanez gero, bere burua baino lehenago jartzea helburua (askok osasun-arazoak ere izan baitzituzten). Emakumeak konpromiso paregabea erakutsi zuen, ordena, konstantzia, borondate eta gogoaz gain.*

## 6. Adimen politikoa

Argi utzi zuten oso ondo zekitela zein zen helburua: bai nola zihoan Alderdi Jeltzalea eta bai zein ziren nazionalismoaren beharrak; eta emakumeek jakin zuten helburu horiek lortzeko lana egiten, bai hainbat ekimen antolatuz eta gizonaren aldamenean egonez, bai proposamen berriak egin eta ardura berriak berenganatuz.

*Tene Mujikak argiro aipatu zuen emakumeak zer-nolako saretze-lana egin behar zuen familiaren baitan eta familien artean. Izan ere, familien arteko baturak, gizarte-unitatea zen heinean, herriaren kohesioa, indarra eta konpromisoa lantzea suposatzen zuen.*

## 7. Adimen artistikoa

Hemen bilduko genituzke edertzeko, hunkitzeko, transmititzeko, betikotzeko... erabilitako edo sortutako artikuluak, ipuinak, antzerkiak, olerkiak, abestiak, eta abar.

*Arestian esan dugu EABko emakume idazleen helburua ez zela izan literatura egitea; maila goragoko helburuak lortzeko tresnatzat zutela hori.*

*Hala ere, parte hartu zuten literatura-sariketetan, eta baita sariak irabazi ere. Beraz, esparru hori ere erabili zuten beren lana balioesteko bitarteko gisa.*

## 8. Adimen etikoa

Erakutsi zuten bidea egiten jakin zutela zalantzaz edo mugaz betetako ibilbidean: egitasmu berriak abian jartzen jakin zuten, egindako bidean indarra hartzen, eta une oro zintzotasunez jokatzten.

Jakin zuten, baita ere, goitik inposatzen zitzairen kulturaren edo indarraren gainean hausnartzen eta hausnarrarazten.

### 9. Adimen espirituala

Jakin zuten zentzuz, edukiz eta esanahiz janzten beren bizipenak eta ingurukoek bizi zituztenak.

*Amak (emakumeak) fedea lantzen eta indartzen lagundu behar zuen. Familia zen horretarako oinarria, umeei familian irakasten baitzitzairen. Emakumeak familian izango zuen boterea, eta familia zen herriaren oinarri: bai hizkuntza hedatzeari zegokionez, baita fedea bultzatzerakoan ere.*

### 6. Lorpenak

EABko emakumeek askotariko adimen motak erabili zituzten maite zuten aberriaren gidariek agintzen zutena egiteko, aberrigintzan laguntzeko, familiaren pisua eurek eramateko, ohitura zaharren eta euskararen ikasketa eta transmisioa bermatzeko, eta garai berrietarako prestatuta egoteko.

EABko emakumeek gaur egun hain ezagunak diren adimenaren askotariko ahalmenak erabili zituzten, taktika erraz (edo ez hain erraz) bat jarraituz: garaiko premiak eta agintarien beharrak ezagutu eta lagundu (polemika sortu gabe), lan egin (lehentasunak ondo markatuz), **eta beren ekarpenei balioa erantsi: BAI ETXEAN, BAI POLITIKAN.**

### Bibliografia

- AA. AA. (2005). *Tene Mujika*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- UGALDE, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco: Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua eta Emakunde.
- ETXEBARRIA, I. (2000). *Sorne Unzueta «Utarsus»*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- KALTZAKORTA, X. (1999). *Errose Bustintza*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- MINTEGI, L. (1994). *Julene Azpeitia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.

# Emakume Abertzale Batza eta emakume idazleak

Iratxe Retolaza  
UPV/EHU

Artikulu honetan aztertuko dugu nola garatu zen «emakume idazle» kategoria testuinguru jakin batean, Emakume Abertzale Batza erakundearen testuinguruan, hain zuzen ere. Horretarako, kontuan hartuko ditugu XX. mende hasierako euskal literatur esparruan «idazle» kategoriaren inguruan zabalduko ideiak eta iritziak, eta halaber, aipatuko dugu nola zedarritu zen «emakume» kategoria orduko esparru politiko abertzalean —are zehatzago, Emakume Abertzale Batzak aldarrikaturiko abertzaletasun katolikoan—, betiere, erakunde horretan «emakume idazle»aren figura nola garatu zen argitzeko asmoz.

## 1. Emakume idazleak: literatura esparruaren eta esparru politikoaren bidegurutzean

«Emakume idazle» kategoria, historikoa eta kulturala da, garaian garaiko eta lekuan lekuko ikusmoldeek eraikitzen dute. Zehazki, literatura-esparruaren eta esparru politikoaren bidegurutzean sortzen den kategoria bat da. Batetik, «idazle» kategoria aldakorra da, literatura-esparruaren arabera, zein aldi historikoaren arabera. Bestetik, «emakume» kategoria ere aldakorra da, eraikuntza kulturala baita<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Ezaguna denez, Simone de Beauvoir-ek (1962) argi adierazi zuen emakumea ez dela jaiotzen, izatera iristen dela (emakume identitatea kultur dinamikan eraikitzen doala ohartaraziz). EABko kideen kasuan, esaterako, argi dago emakume identitate zehatz bat eraiki eta hedatu zutela, emakume abertzale eta katolikoa, gaztelaniazko testuetan ere *emakume* edo *emakume abertzale* izendapenarekin agertzen zena, «emakume» kategoria eta definizio kulturala zehazteko beharra agerraraziz.

Bestalde, jakina denez, komunitatea eta subjektu kolektiboa eraikitzeko bide eraginkorrenetarikoa bat izan da literatura-esparrua Mendebaldeko kulturaren. Batetik, literatura-esparruak komunitate nazionala eraikitzeko zeregina ere egin du bere, ezin baita ahaztu literatura kohe-siorako edo batasunerako osagai garrantzitsu bilakatu zela Aro Modernoko nazio-estatuaren eraikuntzan (Even Zohar 1994). Bestetik, literatura-esparrua komunitate femeninoa eta komunitate feminista<sup>2</sup> eraikitzeko tresna izan da (González 2009). Bide horretatik, hurrengo gogoeta hauetan, hiru komunitate horien arteko elkarreraginak eta tentsioak izango ditugu hizpide: komunitate literarioa, komunitate nazionala eta komunitate femeninoa.

Emakume Abertzale Batza<sup>3</sup> erakundea (1922-1923/1931-1936) izango dugunez abiapuntu, hiru komunitate kultural, politiko eta sozial horien arteko harremana nola eratu zen aztertuko dugu batez ere xx. mende hasierako euskal literaturaren esparruan. Horretarako, beharrezkoa da garai hartako literatura-esparruaren eta esparru politikoaren arteko harremanaz gogoeta egitea (ikus 2. eta 3. atalak), eta, aldi berean, baita literatura-esparruaren eta esparru femeninoaren arteko bidegurutzak aztertzea ere (ikus 3. eta 4. atalak).

## 2. Esparru politiko eta komunitate politikoak: Emakume Abertzale Batza

Identitate nazionalaren eraikuntzak eta askapen nazionalerako mugimenduek subjektu politikoaren izaera erdiestea dute helburu. Ob-

<sup>2</sup> *Komunitate femenino* terminoak emakume subjektuak biltzen dituen talde sozialari egiten dio erreferentzia; eta *komunitate feminista* terminoak, aldiz, subjektu feministak biltzen dituen talde soziala identifikatzen du. Egia da emakumeen ikusgarritasuna izan dela, eta dela mugimendu feministen lehen helburuetariko bat; hartara, komunitate femeninoaren eraikuntza ere funtsezko izan da, sarritan, komunitate feminista osatzeko. Nahiz eta komunitate feministaren eraikuntzan komunitate femeninoa osatzea urratsetariko bat izan den, komunitate femenino baten eraikuntzak ez du zertan beti komunitate feministaren eraikuntza helburu izan. Hain zuzen ere, horixe dugu Emakume Abertzale Batza erakundearen kasua. Komunitate femeninoa osatzeko tresna ezinbesteko bihurtu zen, baina, ez zuen komunitate feminista osatzeko urratsik egin. Horregatik, artikulu honetan komunitate femenino —eta ez feminista— horren eraikuntzaz arituko gara.

<sup>3</sup> Hemendik aurrera, EAB laburdura erabiliko dugu Emakume Abertzale Batza erakundea izendatzeko.

jektu izateari utzi, mendeko izateari utzi, eta subjektu izateko erronkari loturik doaz proiektu nazionalak, eta helburu horri ere lotzen zaizkio proiektu feministak. Emakumeen askapenerako mugimenduek ere subjektu izaera horren aitortza dute ardatz (Palau 2012: 9).

Era berean, eraikuntza nazional orok genero-diskurtsoen eta generorolen eraikuntza dakar (Palau 2012: 10). Imajinario kolektibo orok, izan ere, genero-rol zenbait hedatzen ditu. Zentzu horretan, eraikitze- eta finkatze-bidean diren imajinario kolektiboak (eta literatura-esparruak) aproposak izan zitezkeen genero-rol tradizionalak auzitan jartzeko, eta diskurtso berritzaileak sortzeko. Baina, ez da ohikoena izan, tamalez. Bi proiektu politiko hauek, nazionalismoa eta feminismoa, bat etorri arren subjektu izaeraren aitortzan, proiektu biak gutxitan garatu dira elkarren osagarri. Helena Gonzálezek (2009: 10) dioen moduan, diskurtso nazionalistak joera homogeneousatzailea izan du, eta nazioaren eraikuntza lehenetsi izan du, beste edozein komunitate sozialen eta kulturalen aldarrikapenak bigarren lerro batean utziz, edo diskurtso nazionalistaren zerbitzura jarritz. Helena Gonzálezek (2009: 29) ohartarazi bezala, hierarkizaziorako joera hori areagotu egiten da garai historiko ahuletan, edo proiektu nazionalistak kinka larrian ikusten duenean bere iraupena. Estaturik gabeko nazioetan, esaterako, zurrungoa izan ohi da hierarkia hori.

Montserrat Duch-ek (2012) argitu bezala, *aberriaren imajinarioak* sortzerakoan honela mugatu izan dira genero-rolak: emakumeak (sinbolo fosilizatuak) vs gizonak (protagonista aktiboak) (Duch 2012: 35). *Aberriaren imajinario* gehientsuenetan, funtzio sinboliko hori egotzi izan zaie emakumeei, nazioa erditzeko edo ugaltzeko zeregina bere eginez.

xx. mende hasierako abertzaletasun jeltzaleak ere emakumeen parte-hartzea bultzatu zuen (EAB erakundea sortuz), baina, emakume abertzale eta katolikoek ordezkatzeko zituzten sinbolo fosilizatu horiek iraunarazteko asmoz, eta ez emakumeen parte-hartze publikoa eta ekin-tzailea bultzatzeko asmoz. Erakunde horren helburua zen abertzaletasun katolikoa babestea eta hedatzea, eta, beraz, diskurtso nazionalista jeltzalearen zerbitzurako garatu zen emakume talde horren parte-hartzea. Horregatik, ez zuten emakume subjektua aldarrikatzeko asmorik, ez eta lan publikoaren ikusgarritasunaren alde agertzeko xederik ere, baizik eta laguntzaile eta babesle izatea zuten helburu. Egoera horretan, «emakume» kategoria definitzerakoan, EABk bi kontzeptu giltzarri

hauek garatu zituen, haien ikusmoldean banaezinak zirenak: abertzale-tasuna eta fede katolikoa. *Mari-gizon* eta antzekoekin kalifikatzen zitu- zten eredu horretatik kanpo geratzen ziren emakumeak, arauetatik at zeudela adierazteko. Hartara, EABren funtzio nagusietariko bat zen dis- kurtso jeltzalea eta euskaltzaletasuna hedatzea, baina, batez ere, ema- kume katolikoaren ereduaren ordezkari bilakatzea.

EABk ordezkaturiko abertzaletasun jeltzaleak amatasunari egin zion gorazarre, eta bere egin zuen *emakume=ama* aldarria:

«Si la identificación entre el ser mujer y su función maternal era general a todos los grupos sociales, al margen de las diversas ten- dencias políticas, en el caso de los nacionalistas adquiriría una rele- vancia mayor, debido al simbolismo que ponía en relación a la ma- ternidad con la patria, la razón de ser de su misma existencia como grupo político y como movimiento social». (Ugalde 1993: 356).

Amatasunaren funtzio hori hiru norabidetan garatu zen EABren jar- dunean, beste hainbat imajinario nazionalistatan gertatu bezala: ama biologikoak, ama kulturalak eta ama sinbolikoak (Palau 2012: 11; Duch 2012: 42). Jakina, EABko partaideak ideia horiek hedatzeko aritu ziren hizlari eta idazle. Alegia, idatziak argitaratu bazituzten, ez zen izan idazletza garatzeko asmoz, maiz partaide horiek aitortu izan duten mo- duan, baizik eta imajinario abertzale eta katolikoa hedatzeko asmoz; eta, bereziki, emakume abertzale eta katolikoaren eredia garatzeko as- moz. Hartara, EABko emakume idazle horiek genero literario jakin bat- zuk landu zituzten, ideia horiek zabaltzeko baliagarri zitzaizkienak. Gainera, ama mota horietariko bakoitza —biologikoak, kulturalak eta sinbolikoak— nazioaren ikuspegi baten ondorio da, eta nazioaren ikus- kera jakin batek indarra hartu ahala, ama-eredu bat gailenduko da. Edo- zein modutan, nazioaren hiru ikuskerak garatu eta hedatu diren uneet- an (EABko erakundearen kasuan, esaterako), elkarren osagarri bilakatu ohi dira hiru ama eredu horiek, eta elkar elikatzen dute.

**Ama biologikoa, aberriaren ugaltze biologikoa.** Arrazan oinarri- turiko nazioaren ikuskera dugu ama biologikoaren oinarri nagusi (Duch 2012: 41). Ikuskera horrek emakumeen arduratzat jotzen du arrazaren iraupena. Horretarako, xx. mende hasiera hartan, euskaldunekin ezkon- tzeko deia egin zen (eta ahal izanez gero, kanpotarrekin ez ezkontzeko aholkua hedatu), seme-alaba euskaldunak izanez arraza garbiaren bizi- raupena ziurtatzeko, odol garbiaren ideiarri lotuz. EABren hizlari eta

idazle zenbaitek diskurtso horren alde egin zuten. Iritzi-artikuluetan ez ezik<sup>4</sup>, genero literario konkretu batean garatu zen tematika hori, antzerkian. Antzerki-lan didaktikoak garatu zituzten, irakaspenak helarazteko asmoz. Sabino Aranak berak *Libe* antzezlanarekin abiatu-erako tematika literarioa garatu zuten. Antzezlan horrek irakaspen moral eta aberkoia nahi zuen zabaldu emakumeen artean: euskaldunekin ezkontzeko premia, arrazak bizirauteko. Karmele Errazti dugu halako diskurtsoen ordezkari nagusietariko bat, literaturan behinik behin. 1915. urtean saria irabazi zuen Karmele Erraztik *Oleskari biyak* antzezlanarekin, eta ordutik aurrera ugaritu egin ziren ezkontzaren inguruko auziak gaitzat zituzten antzezlanak, motibo dramatiko errepikatua izateraino. Antzezlan horietan, protagonistak senargaia hartu behar du, bi gizonen artean zalantzan delarik, arraza euskaldunekoa eta arrotza; eta irakaspenek esango dute arraza euskaldunekoarekin ezkontzea duela patu, eta zori on. Kontuan hartu behar dugu garai hartan antzerkia propaganda politikorako tresna bihurturik genuela, eta, gainera, antzerkia izan zen genero nagusi eta arrakastatsuenaren garaiko argitalpenengintzan (Torrealda 1997: 119-120<sup>5</sup>).

**Ama kulturala, aberriaren ugaltze kulturala.** Kulturaren oinarrituriko nazioaren ikuspegi hau hiru zutabe nagusitan egituratu ohi da: ohiturak, hizkuntza eta fedea (Duch 2012: 42). Heziketaren funtzio horri loturiko ama-ereduaren bueltan aritu ziren EABko emakume hizlari eta idazle gehienak. Alegia, nazioaren ikuspegi kultural hori gailendu ahala, emakumeek ere urratsak egin zituzten heziketaren eta kulturaren esparruan, eta emakumeen parte-hartzea handitu zen, besteak beste, haiengan jartzen zelako hezkuntzaren eta hizkuntzaren transmisioaren ardura<sup>6</sup>. Kulturaren transmisioa helburu izanik, honako hauek izan zi-

<sup>4</sup> Sorne Unzuetak (1997: 176-177) badu «Raza vasca» izeneko artikulu bat, 1933. urtekoa, eta artean ere odola, abizen euskaldunak eta arraza goraiatzaren zutuen.

<sup>5</sup> Kontuan hartu behar da, dena den, J.M. Torrealdaik liburuaren ekoizpena besterik ez duela neurritzat hartu; ez ditu aztertu aldizkarietako ekoizpenak edo ahozko jardunak.

<sup>6</sup> *Etxe-ikastolak* bultzatu zituzten, emakumeek etxean gara zezaten umeen heziketa eta kulturaren transmisioa. Jada Estatuan eta Europan zehar sorturiko etxeko-eskola horiek Euskal Herrian ere garatu ziren, baina, abertzaleek eskola horiei prestakuntza- eta irakaskuntza-lerro bat gehiago gehitu zieten: euskal kultura. Horretarako, hizkuntza, dantzak, kantuak eta ohiturak irakasteko beharra azpimarratu zuten. 1918. urtean aldarrikatu zuen euskal kulturaren lerro horren premia Alberto Atxika-Allendek («Jonalber»ek), eta nahiz eta 1930eko hamarkadara arte gauzatu ez (Ugalde 1993: 201-202), argi ikusi zen irakaskuntzarako euskarazko testuen premia, eta jardunbide horretan aritu ziren garaiko hainbat maistra, gehientsuenak EABko kide.



ren joera horretan gailendu ziren genero literarioak: eskolarako materialak (ipuinak eta alegiak, umeentzat irakaspen eta guzti), literatura kostunbrista (ohituren berri emateko) eta literatura nazionalista (aberriaren imajinarioa irudikatzeko helburuari lotuta, besteak beste, hizkuntzari gorazarre eginez). EABko emakume idazle gehienak hurbil daude ama kulturalaren eredu horretatik. Tene Mujikak, esate baterako, literatura kostunbrista garatu zuen poesian, eta ondoren, antzerki didaktikoa; Sorne Unzueta, aldiz, literatura nazionalistagorantz lerratu zen. Maite Nuñez Beteluk (Nuñez 2001: 99; Lasarte 2010: 200) ohartarazi bezala, literatura kostunbrista edo ohiturazale horrek batez ere gizonetzko pertsonaiak gorpuztu zituen, euskal ohituren erretratu egite-rakoan. Badu zentzurik, izan ere, ohiturak irudikatzerakoan, imajinario kolektiboan gailentzen zen gizonaren ohiturak zituzten hizpide, eta herri-paisaia osatzerakoan, gizonetzko pertsonaiak hautatzerakoan, nagusitasun hori ere islatzen zuten. Literatura nazionalistan, aldiz, indar handiagoa hartu zuten emakumezko pertsonaia eta protagonistek; izan ere, helburua ez zen herriaren eta ohituren paisaia osatzea, baizik eta emakume abertzaleek herrigintzan zuten zeregina eta garatu behar zuten eredia adieraztea.

**Ama sinbolikoa, aberriaren ugaltze sinbolikoa.** Ama sinbolo bihurturik agertzen da gizarte tradizionalan, Mariarekiko debozioari loturik (Ugalde 1993: 41), edo Mariren mitoarekin harremanetan (Ugalde 1993: 42). Baita bien arteko bidegurutzean ere. *Aberria=lurra=herria=familia* kontzeptuak pareko eginez, familiaren zaindari dugu ama, baina baita lurraren, herriaren eta aberriaren zaindari ere: «La familia es presenta, així, com a metàfora de la nació i és problemàtica i necessària. La mare, que ja constituïa una de les al·legories de la nació, es convertirà en la guardiana de la tradició nacional» (Duch 2012: 40-41). Ama identitatearen eta kulturaren zaindari den neurrian, harengan gordetzen dira eta harengan irauten dute euskalduntasunaren ezaugarriek. Horregatik, amek (eta emakumeek), ohitura zaharren, hizkuntzaren eta fedearen ikur bihurturik, nolabait lausoturik izango dituzte herritartasuna eta subjektu izaera, eta ez dute aukerarik izango egituratzaile, eratzzaile, edo ideia-sortzaile izateko. Sorne Unzueta poetaren ekarpena da aipagarri, ama sinbolikoaren eraikuntzan.

Ikuskera sinboliko hori poesian landu zuten batez ere EABko emakume idazleek; izan ere, poesia genero literario ezin aproposagoa da osagai sinbolikoak eta emozioak transmititzeko.

Diskurtsoari dagokionez<sup>7</sup>, rol tradizionala iraunarazi nahi zuten, baina, ekintzetan, aldaketa zenbait gauzatu zituzten rol horretan. Kontraesan horretan garatu zen emakume katoliko eta kontserbadore horien ekimena eta pentsamendua (Ugalde 1993: 242-243). Izan ere, eremu publikoan arituko dira, baina, emakumeak espazio pribatuko zereginetan aritzera bultzatuko dituzte plaza horretatik, eta etxeoandarearen rolar lotzera:

La confusió entre la mare pàtria i la mare social situa les done sen el compromís de vetllar per la tradició que s'encarna en l'idioma, amb una separació rígida d'aquelles esferes que la història de les dones ja ha superat entre l'esfera privada-domèstica i l'esfera pública-política. (Duch 2012: 42).

Izan ere, plazan hitza harturik ere, ez dute eremu pribatuaren eta eremu publikoaren arteko dikotomia horrekin hautsiko, betiere espazio pribatuaren hedatze gisara ulertuko baita EABko kideen jarduna espazio publikoan. Hala izanik ere, espazio publikoetaranzko jauzia garrantzitsu bihurtu zen, emakume abertzaleak ikusgarri egin ez ezik, jarduteko gaitasuna ere erakusteko bide izan zelako (hizlari<sup>8</sup>, artikulu-egile<sup>9</sup> edo literaturgile gisa).

<sup>7</sup> Emakume abertzale gehienek rol tradizionalari eutsi nahi zioten. Baina, bazeuden, feminismoaren goraldiaren ondorioz, espazio eta posizio berriak hartzearen aldekoak. Julia Fernández Zabaleta izan zen emakume feministaren eta borroka feministaren alde agertu zen bakarrenetarikoa; emakumeentzat prestakuntza eta enplegua aldarrikatu zituen (Ugalde 1993: 192). Emakumeen emantzipazio ekonomikoa aldarrikatu zuen Julia Fernández Zabaletak (Ugalde 1993: 196), besteak beste, emakume ezkongabeek sostengu ekonomikoa izan zezaten, eta ezkontzea irtenbide bakarra izan ez zedin (Ugalde 1993: 197). Beraz, nahiz eta diskurtsoan beste ikuspegi hori ere garatu, ez zuen praktikan emakumeen beste funtziorik aldarrikatu.

<sup>8</sup> Hizlari modura, hasieran, beste batzuek –gizonek– sorturiko testuak irakurriz parte hartu zuten, agerpen sinbolikoak eginez; geroxeago, emakumeei zuzenduriko espazioetan hartu zuten hitza; eta, azkenik, espazio mistoetan ere aritu ziren, haiek sorturiko hitzaldiak eginez.

<sup>9</sup> EAB sortu aurretik, euskal prentsan xx. mende hasieratik bihurtu zen eztabaidagai emakume abertzaleek herrigintzan eta fede katolikoaren transmisioan izan behar zuten funtzioa. Bide horretatik, emakume zenbait euskal prentsan ekarpenak egiten hasi ziren, batez ere emakumeek abertzaletasuna hedatzean izan beharreko jarreraren inguruan aritzeko, eta emakume-eredu katolikoa zabaltzeko. 1907. urtetik 1931. urtera bakanak dira artikulu horiek, han-hemenka ateratakoak, baina, 1931. urtetik aurrera iraunkortasunez argitaratu zituzten emakumeek iritzi-zutabeak eta artikuluak euskal prentsan, astero (Ugalde 1993: 362). 50 bat emakume aritu ziren langintza horretan (Ugalde 1993: 363).

EABko kideen ekarpena urratsez urrats egin zen, pixkana espazioak berenganatuz. Hasieran, emakumeei zuzenduriko espazioetan aritu ziren, emakume gaitzat hartzen zirenak lantzen zituzten, eta hori ere nabari da haien literaturgintzan; ondoren, espazio mistoetan ere parte hartu zuten, eta jauzi hori nabari da idazkuntzan ere, bestelako gaiak eta begiradak ere landu zituztelako.

### 3. Literatura-esparrua eta komunitate literarioa: *Euzko Pizkundera*

*Primo de Riveraren diktadurak (1923-1930) eragindako errepresioak* eta hersturak mugimendu euskaltzalearen loratzea eragin zuen, eta bide berriak urratu zituen jada XIX. mendearen amaiera aldetik indartu zen abertzaletasun jeltzaleak eta euskaltzaletasunak. Kultur eta literatur mugimendua sustatzeko, hainbat elkarte sortu ziren (*Euskaltzaleak* —1927—; *Euzkerea* —1929—; *Federación de Escritores Vascos* —1930—). XX. mende hasierako kultur berpizkunde horrek eraldaketak proposatu zituen literaturaren funtzioan ere. Jon Kortazarrek (2000; 2008) adierazi bezala, «1930. urte ingurura arte, uste zuten herriaren arima hizkuntza zela; ordutik aurrera, berriz, herriaren arima literatura dela esango da» (Kortazar 2000: 13). Edo zehatzago, literaturaren aldeko joera horrek indar handiagoa hartuko du 30eko hamarkadatik aurrera. Ikuskera-aldaketa horren eraginez, kulturgile jeltzaleek erakunde edo instituzio literarioak eratzeko premia aldarrikatu zuten, eta esparru literarioa egituratzeari ekin zioten, horretarako, esparru literario autonomoa osatzeko beharrezko ziren diskurtso eta praktika kulturalak indartuz: kritika literarioaren lehen saioak egin ziren (Iztueta 2002), sari literarioak<sup>10</sup> antolatu ziren, erakunde literarioak egituratu ziren (Euskal Idazleen Batza), eta baita euskal literaturaren lehen historia idatzi ere (Ormaetxea 2002 [1927]). Ur Apalategiren ustez (2005), ordukoa dugu euskal literaturaren lehen *protoesparru* edo *protosistema*, Francoren altxamenduak eten zuena. Jakina, literatura-esparru hark esparru politikoa legitimatzea zuen helburu, Europako nazio-estatuaren sorreran gertatu bezala. Besteak beste, honako hauxe adostu zen Euskal Idazle Batzaren araudian: «Euskadi gure aberria irakurgai eta idazlanen bidez bizkortu eta

<sup>10</sup> Lore Jokoetan eta Euskal Jaietan ere literatura-lanak saritu izan ziren, baina, zoko eta 30eko hamarkadan espresuki literatura (eta bereziki poesia) sustatzeko sariak antolatu zituen *Euskaltzaleak* elkarteak: *Olerti Egunak*.

sendotzea» (Urkiaga 2005: 258). Bide horretatik, nazio-literaturaren aldarrikapena egin zuen Aitzolek, Iñaki Aldekoak gogorarazi bezala:

Erromantizismo kulturala barru-barruan sartua zeukan Aitzolek. Ondo aztertua zuen literaturak zer-nolako zeregina bete zuen Europa barruko hainbat gutxiengo nazionaletan —Finlandia, Belgika, Provenza, Katalunia— kontzientzia nazionala, hizkuntza eta kultura berreskuratzeko ahaleginean, eta egiaztatua ere bai horietako herri askok independentzia politikoa ere iritsi zutela, hala nola Finlandiak eta Txekosloveniak. *Mireio*, F. Mistral-ek provenzalez idatzia, eta *Kalevala*, E. Lönnrot finlandiarrarena, hautatu zituen Aitzolek poema nazionalaren eredutzat, nazioaren kontzientzia linguistikoa eta kulturala piztu eta herritar gehienak bere axolagabetasunetik atera zitzaizkien. Poema nazionalak danbetekeo bat izan behar zuen eta herrialde modernoenen txaloea eta onarpena sorrarazi behar zuen.

Pizkunde literarioak hasiera-hasieratik izan zuen poema nazionala ontzeko asmoa; poema horrek euskaldunen gogo benetako eta bizia irudikatu behar zuen, elezaharrez, tradizioz eta folklorez ehundua eta Euskal Herriaren sentimendurik sakonenez blai. (Aldekoa 2008: 190).

30eko hamarkada hartan, beraz, kultur mugimenduak indar guztiak jarri zituen euskal literatura sustatzeko ahaleginetan. Paulo Iztuetak (2002) adierazi bezala, «1930-1936ko epealdian, euskaltzaletasuna sukartsuenik zegoen unean, Euzko Pizkundera eta literatura — hemen poesia, bereziki— hertsiki batuta agertzen dira» (2002: 17). Hau da, euskararen gaitasuna erakusteko eta euskarak prestigioa izateko bidetzat jo zuen Aitzolek literatura, Mistralen *Mireio* poema gogoan. 1904. urtean Literatur Nobel saria jaso zuen *Mireio* poema, eta ondorioz, hizkuntza probentzala hizkuntza modernoan mailan zegoela erakutsi zuen; era berean, literatur errenazimenduaren aitzindariarik egokienak poetak zirela iradoki zuen (Iztueta 2002: 38). Aitzolen eraginez, genero literario jakin bat gailendu zen hamarkada hartan, poesia, eta baita idazletza ulertzeko modu jakin bat ere. Poetaren jarduna zen idazle kategoriarik be-teen, eta zehazki, poema lan oso eta egituratua egiteko gai zen poeta, eta ez ale bakanak egiteko gai. Garai hartako eztabaida estetiko guztiak (eta baita kritika literarioak gehientsuenak ere) poesiaren inguruan harilkatu ziren, hain ezagun zaizkigun eztabaidetan mamiturik. Poema nazionala osatzea bihurtu zen erronka nagusi. 30eko hamarkada hartan, nazionalismo literarioa egitetik naizo-literaturaranzko urratsak egin zi-

ren. Xoán González-Millán-ek (1994) ongi bereizten ditu bi bide horiek: nazionalismo literarioa da nazio-identitatea eratzen duten osagaiak garatzen dituen obra literarioa; esperientzia nazionala ondoen helarazten duten lorpen estetikoek deritze. Alegia, identitate kolektibo eta nazional horren ezaugarri bereizleak adierazten dituen literatura da. Nazionalismo literarioa esparru politiko ahula denean garatzen den mugimendu literarioa da. Nazio-literaturaz aritzeko, aldiz, beharrezkoa da eragile eta instituzio zenbaitek osaturiko literatura-esparru autonomia eratzea, eta erakunde sozial edota literarioen autonomia horrek barne-logika garatzen du (kanpo-logika batekin harremanetan, jakina), eta kanonizazio estetikoaren autonomia egituratzeko irizpideak sendotzeko doaz. 30eko hamarkada hartan, bi horien artean kokatzen zen literatura-esparrua, batetik besteranzko jauzia egin nahian. Eta jakina, nazionalismo literarioan erosoago sentitu ziren emakume idazleak (komunitatearen zerbitzurako idazten baitzuten).

EAB erakundeak bialdi izan zituen, jakina denez. Lehen aldian (1922-1923), oraindik ere ez ziren ia garatu literatura-esparruaren lehen urratsak (kritika literarioa, sari literarioak, elkarteak, eztabaida estetikoak). Baina, bigarren aldian (1931-1936), literatura-esparrua sendotzearen aldeko giroa zen nagusi. Badirudi EABko kide gehienak erosoago edo identifikatuago sentitu zirela hizkuntza lehenesten zuen joera euskaltzale harekin, literatura lehenesten zuenarekin baino. EABko kideek idazteari ekin bazioten ere, ez zuten idazle izateko asmorik, hainbatetan adierazi zuten moduan (Ugalde 1993: 58). Ez zioten ekin lan publikoa eta kulturala ekiteari asmo literarioak zituztelako. Are gehiago, emakume sozialistak eta anarkistak espazio publikoetan agertu zirenez, EABko kideek eredu horietatik urrundu zen emakume katolikoaren ereduaren plazan ere aurkezteagatik egin zuten espazio publikoranzko jauzia (Ugalde 1993: 59), Sorne Unzuetak berak aitortu bezala (Unzueta 1997: 22). Alegia, ez zituzten ispilutzat emakume idazleak, baizik eta politikagintzan ari ziren emakumeak. Hartara, politikagintzaren adartzat zituzten literatura-jarduna eta idazkuntza bera, ez esparru kultural autonomotzat<sup>11</sup>.

<sup>11</sup> Bada salbuespen bat. Julene Azepeitiak Txekoslovakiako independentziaren alde txekiar emakumeek eginiko lana goraiatu zuen, eta, testuinguru horretan, emakume idazle ezagun zenbait aipatu zituen: esaterako, Bozema Némcová, XVIII. mendean txekiar literaturako lehen nobela idatzi zuena (balio literariodun lehena) (Ugalde 1993: 368). Hortaz, adierazpen horietan, nazionalismo literariotik nazio-literaturaranzko jauzia egiteko premia iradokitzen da, nolabait.

Hala ere, idazle jarduera lehenesten ez zuten arren, eta literatura-esparruaren egituraketaz jardun ez zuten arren, parte hartu zuten erakunde literarioen sorreran, eta izan zuten oihartzunik erakunde literario horietan ere. Lehenik, hainbat emakumek parte hartu zuten Euskal Idazle Batza sortzeko batzarrean (Lauaxeta 2005: 273); bigarrenik, EABko emakume idazle horiek ere sariketetan parte hartu zuten (Lauaxeta 2005: 297); hirugarrenik, euskal prentsan ere emakumeen ekarpenak jasotzeko espazioak aldarrikatu ziren<sup>12</sup> (Lauaxeta 2005: 258 AIPUA); eta laugarrenik, haien literatura-lanak goraiatu zituen garaiko kritika literarioak<sup>13</sup>.

Egia da garai hartan ez zela neurri bertsuan edo irizpide bertsuekin<sup>14</sup> balioetsi emakumeen sorkuntza literarioa (edo irakurraldi literarioak) eta gizonen sorkuntza literarioa, ez eta irizpide bertsuekin ere, baina, Lauaxetaren eta haren inguruko hainbat kultur-gileren bitartez, garaiko emakume idazle horien ekarpena balioesteko saioak egin ziren, gerora ia oihartzunik izan ez badute ere, eta euskal literaturaren historiografiak itzalean izan baditu ere.

Baina, nazio-literatura sortzeko urratsek eta diskurtsoek aurrera egin ahala, EABko kideen literatura-jarduna isilduz joan zen, «idazle» kate-

<sup>12</sup> Lauaxetak, *Euzkadi* aldizkarian, «Emakume arlua» izeneko txoko bat bultzatu zuen, eta bertan parte hartzera deitu zituen euskal emakume idazleak, 1932. urtean (Ugalde 1993: 363). Gipuzkoako EABk «Emakume ingoskia» atala abiarazi zuen *El día* egunkari donostiarrean, 1935. urtean. Espazio publiko horren kudeaketa aldarrikatu zuten, eta berau kudeatzeko autonomia —jarrera hori salbuespen bat izan zen emakume jeltzaleen ibilbide hartan— (Ugalde 1993: 520). Batez ere euskararen aldeko aldarrikapena egiteko erabili zuten espazio hori. Gainera, aldizkari propio bat sortzeko ahalegina ere egin zuten (Ugalde 1993: 522).

<sup>13</sup> Lauaxetak emakume idazle askoren ekarpena laudatu zuen: esate baterako, Julene Azpeitiaren *Irakurri Maite...* haurrentzako liburua (Urkiaga 2005: 221), eta Sorne Unzue-ta ere garaiko poeta handien mailan jarri zuen. «Sin con con «Lizardi» y «Bedoña», fallecidos recientemente, podemos presentar poetas de alta inspiración: Orixe, Jauregi, Tapiá-Perurena, Loidi, Enbeita, Jakakortajarena, Etxeberria, *Utarsus*, Kerexeta. Nombres que pasarán en la literatura vasca como símbolos de un renacimiento pleno» (Urkiaga 2005: 247). Kataliñe Eleizegiren *Yatsuri* ere aldeko kritika egin zion Lauaxetak (Urkiaga 2005: 290-293). Hortaz, emakumeen ekarpenak balioetsi egin zituen literatura-esparruan izen handikoa zen poetak eta literatura-adituak.

<sup>14</sup> Irakurraldien edo ekitaldien kronikak egiterakoan, gizonen parte-hartzeaz hitz egiterakoan, haien azkartasunaz edo nortasunaz hitz egiten du Lauaxetak, eta emakumeak aipatzean, aldiz, edertasuna du aipatzen («emakume lirain»). Bestalde, garai hartan ere, Orixe «eme» ezaugarria erabili zuen Lauaxetaren poesia gutxiesteko, besteak beste, nolabait «emetasuna» literaturgintzan ere gutxiesten zela argi utziz.

goria gailendu baitzen, «emakume abertzale» kategoriaren aldean. Ikuspegi berri horrek zailago egiten zuen komunitatearen zerbitzura bakarrik egoteko aukera, eta literatura-esparrua ere nortasun artistikoak garatzeko bide bilakatu zen. Izan ere, emakume idazle horien literaturgintzan ez dago literaturaren inguruko aipamenik, ez eta literatura-jardunaren inguruko inolako gogoetarik ere (garaiko beste poetetan gertatu ez bezala, esaterako, Lizardiren eta Lauaxetaren poesian). Are gehiago, iritzi-testuetan eta prentsako artikuluetan, ez zuten literatura eztabaida-gaitzat hartu, ez testu literarioen funtzioa hizpide izan; ez zituzten harilkatu estetikaren inguruko gogoetak (nahiz eta garai hartan pil-pilean egon eztabaida horiek). Alegia, ez zuten genealogia literarioerik eratu, baina, ezta femeninorik (edo feministarik)<sup>15</sup> ere, ez baitzituzten emakume idazleen ekarpenak kontuan hartu, baizik eta gizonezkoen literatura tradizioaren jarraitzaile izan ziren, eta haiek sorturiko literatura-ereduak egin zituzten bere. Azken batean, EABren helburua, eta bertako idazleen helburua, genealogia abertzalea eratzea baitzen.

#### 4. Euskal emakume idazleak eta literaturaren historiografia

Aipatu dugun moduan, euskal literaturaren historiografiaren lehen saioak ere Euzko Pizkundera kultura-mugimenduaren eskutik etorri ziren, Orixek idatzitako *Euskal literaturaren historia laburra* (2002 [1927]). Orixeren ekarpen historiografiko hark aita intelektualen edo autoritateen arabera egituratu zituen aldi historikoak, eta hartara, autoritatearen eta aitaren irudi hori indarturik geratu zen hainbat hamarkadatan. Orixek ez zuen ekarpen historiografiko horretan, gainera, emakume idazlerik aipatu ere egin; absentzia hori nabaria da Villasanteren *Historia de la Literatura Vasca* (1961) liburuan ere, Orixeren bidetik, autoritate(et)an oinarrituriko historia egitea baitu helburu. Koldo Mitxelena emakume idazle bi baino ez zituen aipatu, Bizenta Mogel eta Katalina Eleizegi. Hortaz, xx. mende hasierako emakume idazle bakarra aipatu zuen, EABko kide ez zena. Katalina Eleizegiren aipamen hori ulertzeko —eta gainerakoen absentzia azaltzeko—, gure ustez garran-

<sup>15</sup> Emakume idazleen taldea osatzeko ahaleginen bat egon zen, arrakasta handirik gabekoa. 1930. urtean Zarautzen euskal emakume idazleen bilerak abiatu zituzten (Ugalde 1993: 361). Gerora ez zuten iraunkortasunik izan, baina, tarteka parte hartu zuten euskal idazleen bileretan, esan bezala.



tzitsua da kontuan hartzea 6oko hamarkadan egituratzen ari zen euskal literatura esparruaren honako ezaugarri hauek: lehenik, 30eko hamarkadan hasitako bidetik, genero literario bakar batean espezializaturiko ibilbide literarioak lehenetsi ziren (eta Katalina Eleizegik, xx. mende hasierako emakume idazle gehientsuenek ez bezala, genero bakar batera lerratu zuen jardun literarioa, antzerkira); bigarrenik, liburuak bilakatu zen literaturaren neurri, eta hartara, Euskal Literaturaren historia-ren katea osatzerakoan, liburuak bilakatu ziren katebegi; hirugarrenik, literatura-esparruaren autonomia aldarrikatzeko bidea abiatu zen 6oko hamarkadako historiografian, eta hartara, ideia abertzaleen eta ideia katolikoek zerbitzura eginiko jardun literarioa gutxiesteko joera zabaldu zen, esaterako, Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca* (1961) —eta autonomiaren irizpide hori erabiliz, gehiago balioetsi zen erakunde politiko batekin lotura hain zuzena ez zuten idazleen jarduna, Katalina Eleizegi, kasu—; eta laugarrenik, urte luzez iraun du euskal literaturan emakume idazlerik egon ez delako usteak, aritu diren horietan itzalpera kondentatzeraino. Katalina Eleizegiren oihartzuna azaltzen duten faktore horien ondorio ere bada EABko kideen absentsia: pentsamendu eta diskurtso jeltzalea zabaltzeko bidetzat zuten literatura, alegia, komunitatearen zerbitzura aritu ziren literaturgintzan eta ez jardun literario pertsonala garatzeko asmoz; hainbat genero literario jorratu zituzten, eta, gainera, ez zuten obra egituraturik osatu (EABko kideek argitaratu zituzten liburu gehienak han-hemenka argitaraturiko artikulu, ipuin edo poemen bildumak ziren, ez osotasunaren eta egitura bateratuaren ideari loturiko literatura-obrak) (Etxebarria 1997: 31). Gainera, liburu horietariko asko gerora argitaratu izan dira, emakume idazle haien ekarpena gogora ekartzeko asmoz, edo ikusgarri egiteko asmoz: esate baterako, Sorne Unzuetaen *Idazlan guztiak* (1997), edo *Bidegileak* bilduman Emakume Abertzale Batzari, Sorne Unzueta eta Tene Mujikari eskainitako aleak, besteak beste. Gainera, EABko emakume idazle horietariko gehientsuenek EAB desegiterakoan eten egin zuten haien idazkuntza eta jardun literarioa, eta nahiz eta XXI. mendera arte bizirik iraun (Sorne Unzueta, kasu), han-hemenkako testu solteak besterik ez zituzten idatzi; ez zitzaizkion berriro ere idazle jardunari iraunkorki lotu, nahiz eta euskal literaturgintzak testuinguru hobea ezagutu 8oko hamarkadatik aurrera.

Igone Etxebarriak (1997: 31) gogorarazi bezala, EABko kide askok eta xx. mende hasierako prentsan aritu ziren emakume askok ezizenez ida-



tzi zuten, eta horrek ere ikusezin bilakatu zituen, sarritan ez baitago jakiterik nor den ezizenaren atzean dagoen pertsona.

Bestalde, datu esanguratsu batek agerian uzten du emakume idazle horien ikusgarritasunik eza: Joan Mari Torrealdaik 1977. urtean euskal idazleen profil soziologikoa aztertu zuenean, esate baterako, ez zuen generoa aintzat hartu (Torrealdaik 1977), aldagai ez zelakoan; hogeitau urte geroago, aldiz, euskal idazleen profil soziologiko hori berritzean, atal berezitu bat eskaini zion emakume idazleen gaiari (Torrealdaik 1997: 393-396), eta generoaren araberako banaketa zein portzentajeak eskaini zituen (Torrealdaik 1997). Giro horretan, beraz, xx. mendearen hondarrera arte ia ez da ahaleginik egin emakume idazleen eta autoritate femeninoaren arrastoak bilatzeko, baina, ordutik hona, ugaritu egin dira genealogia femenino horien eraikuntzak (White 1996; Olaziregi 1999; Nuñez 2001).

Juan San Martinek (1975), «Emakumeak euskal literaturan» artikuluan, euskal emakume idazleen ibilbide historiko labur bat egin zuen, baina, horretarako ere lehen aipaturiko irizpideak egin zituen bere, eta EAB erakundean arituriko bi kide baino ez zituen aipatu: Julene Azpeitia eta Tene Mujika, liburuak argitaraturik baitzituzten bere garaian. Egun ere, euskal idazleen ikusgarritasuna liburugintzak mugatzen du, ikusi besterik ez dago *Literaturaren zubitegia* webguneko idazleen zerrenda, bakar-bakarrik liburuak argitaratu dituztenak dira agertzen. Liburuaren neurri horrek eragin du, besteak beste, EABko emakume idazleen jarduna isilaraztea, testu motzak eta solteak egin baitzituzten, eta ia inork ez zuen egin arnas luzeko ibilbide luzerik.

## 5. Ondorio zenbait

EABko emakume idazleek batez ere abertzaletasun jeltzalearen imajinarioa zabaltzeko hartu zuten luma, betiere irakaspen moralari lehenatasuna emanaz. Horretarako, prentsan iritzi-artikuluak idatzi ez ezik, literaturgintzara ere egin zuten jauzia (irakaskuntzarako edo heziketarako testu literarioak eginez —batik bat antzerkia eta alegiak—, edota emakume-eredu baten inguruko osagai sinbolikoak sortuz, poesian).

Nahiz eta euskarazko espazioetan (aldizkarietan eta bileretan) emakumeen parte-hartzea bultzatzen ahalegindu, baziren aldeak euskaraz eta gaztelaniaz sorturiko idatziatan. Euskara ohitura zaharren igorletzat

eta babesletzat hartzen zen, eta gaztelania ideia berritzaileen ekarle. Hona hemen Julene Azpeitiaren jardunaz Mertxe Ugaldek adierazitakoa, eta EABko beste hainbat kiderengan ere ohiko zena:

Podría decirse que en la disyuntiva en que se encontraba el pensamiento de la articulista [Juliana Azpeitia], el euskera, una de las señas de identidad vasca, era considerado por ella como vehículo de las ideas que trataban de conservar la función social tradicional de las mujeres, mientras consideraba el castellano vehículo de las ideas sobre el cambio. (Ugalde 1993: 516).

Feminismoaren eragina berankorra izan da euskaltzaletasunean eta euskal kulturaren (hortaz, euskal literaturan), besteak beste, orain arte aipatu ditugun bi arrazoi horiengatik: batetik, abertzaletasunaren diskurtso hegemonikoak bere zerbitzura jarri zituelako beste edozein diskurtso sozial eta kultural xx. mendearen hasieran —mugimendu feministak haziak erein zituen garai hartan—; bestetik, pentsamendu feministaren hedapena batez ere gaztelaniaz garatu zelako xx. mende hasieran, Espainiako estatuan eta Euskal Herrian, eta euskaltzaletasunak tradizioari eustea izan zuelako helburu nagusi, ez zen kasik zirrikiturik egon diskurtso eta ikuskera berritzaileentzat. Gainera, kontuan hartu behar da, Espainiako estatuan euskal eta katalan autonomiaren kontra agertu zirela mugimendu feministako hainbat kide, eta horrek ere zaildu egin zuela abertzaleen eta feministen arteko identifikazioa (Ugalde 1993:); eta EABko kideek ez zuten idazle kontzientziarik izan, zail egin zitzaizen emakume idazleengan ispiluak topatzea. Hartara, 60ko hamarkadara arte ez da sortuko euskal literaturaren esparruan «emakume idazle» kontzientzia duen subjektu kulturarik. Izan ere, EABko kideak «emakume» eta «abertzale» kontzientzia zuten subjektuak baziren, baina, ez zuten «idazle» kategoria bere egin, eta are gehiago, zailtasunak egon ziren literatura-esparruan bi kategoria horiek («emakume» eta «idazle» -poeta, Euzko Pizkundean-) bateratzeko ere.

## Bibliografia

- ALDEKOA, I. (2008). *Euskal literaturaren historia*, Donostia: Erein.
- APALATEGI, U. (2005). «Iparraldeko azken aldiko literatura euskal literatura sistemaren argitan (eta vice versa)», *Lapurdum*, 10, 1-18.
- BEAUVOIR, S. (1962). *El segundo sexo*, Buenos Aires: Siglo XX.

- DUCH, M. (2012). «Tot pensant històricament el sexe de les nacions», in PALAU, M. eta TODA, A. (arg.): *In/dependents: dones i projectes nacionals*, [33-50], Valentzia: Tres i Quatre.
- ETXEBARRIA, I. (1997). «Sorrie Unzueta'ren literatura», in UNZUETA, S. (1997). *Idazlan guztiak*, [31-38], Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilboko Udala.
- EVEN-ZOHAR, I. (1994). «La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa», in VILLANUEVA, D. (bil.): *Avances en Teoría de la Literatura*, Santiago Konpostelakoa: USC.
- FIGUEROA, A. (2001). *Nación, literatura, identidad*, Vigo: Xerais.
- GONZÁLEZ, H. (2009). *Género y nación. La construcción de un espacio literario*, Bartzelona: Icaria.
- GONZÁLEZ-MILLÁN, X. (1994). «Do nacionalismo literario a unha literatura nacional. Hipóteses de traballo para un estudio institucional da literatura galega», *Anuario de estudios literarios galegos*, 67-81.
- IZTUETA, P. (2002). *Kritika literarioaren lehen saioak (1926-1936)*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- , (2002). *Testu hautatuak euskal estetikaz. Aitzol, Lauaxeta, Orixe*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- KORTAZAR, J. (2000). *Euskal literatura xx. mendean*, Zaragoza: Prames-Las Tres Sorores.
- , (2008). «La literatura vasca y la creación de la nación. Las ideas de José Arismituño, Aitzol (1896-1936)», in ROMERO, L. (koord.) (2008). *Nación y literatura. La emergencia de las literaturas nacionales*, [207-221], Zaragozako Unibertsitatea.
- LASARTE, G. (2010). *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakera euskal narratiba garaikidean*, EHU [Doktore-tesi argitaratu gabea].
- MITXELENA, K. (1960). *Historia de la literatura vasca*, Madril: Minotauro.
- NUÑEZ BETELU, M. (2001). *Género y construcción nacional en las escritoras vascas* [Doktore-tesi argitaratu gabea].
- OLAZIREGI, M.J. (1999). «Intimismoaz haraindi: emakumezkoak idatzitako euskal literatura», *Oihenart. Cuadernos de lengua y literatura*, 17, 1-77.
- ORMAETXEA, N. (2002 [1927]). *Euskal literaturaren historia laburra*, Donostia: Utriusque Vasconiae.
- PALAU, M. eta TODA, A. (arg.). *In/dependents: dones i projectes nacionals*, Valentzia: Tres i Quatre.
- RETOLAZA, I. (2012). «Comunitats literàries i comunitats polítiques: gènere, nació i identitat col·lectiva vasca», in PALAU, M. eta TODA, A. (arg.): *In/dependents: dones i projectes nacionals*, [271-295], Valentzia: Tres i Quatre.
- TORREALDAI, J.M. (1977). *Euskal idazleak, gaur*, Donostia: Jakin.
- , (1997). *Euskal kultura, gaur*, Donostia: Jakin.
- UGALDE, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- WHITE, L. (1996). *Emakumeen Hitzak Euskaraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century*, Renoko Unibertsitatea [Doktore-tesi argitaratu gabea].

- 
- URKIAGA, E. (2005). *Gure aberriaren elea. Kazetari-lanak*, Bilbo: Labayru-BBK.
- UNZUETA, S. (1997). *Idazlan guztiak*, Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilboko Udala.
- VILLASANTE, L. (1961). *Historia de la literatura vasca*, Bilbo: Sendo.
- ZAVALA, I.M. (koord.) (2000). *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, Bartzelona: Anthropos.

**Makilen garaiak**

# Emakumeak erresistentziaren haziak

Josu Chueca Intxusta  
UPV/EHU

Honako lerro hauetan idatzitako artikulua «emakume» zenbaiten ibilbide politiko eta solidarioa biltzen du. II. Errepublikan zehar ekimen politikoetan eta kulturaletan aritu ziren horiek garaituekiko elkartasun-lanei ekin zieten ardura handiz, 1936ko Gerrak ekarri zuen hausturaren karietara. 1931-1936ko tarte demokratikoan gizonezko politikarien lan politikoaren osagarri izan zirenek, 1937az geroztik, lehen lekua hartu zuten elkartasun eta informazio politikoa gauzatzeko tenorean. Izan ere, EABn ibilitako hainbat emakumek, abagune eta egoera arriskutsuen gainetik, ederki frogatu zuten merezi zutela eta erabiltzen bazekitela Errepublikak kostata onarturiko eskubide politikoak bere osotasunean izatea, lege, muga eta arau guztien gainetik, diktadura frankistaren zartada errepresiboa pairatu zuten arte.

## 1. Elkartasuna epaitua

1940ko Gabonak latzak suertatu ziren hainbat euskal herritarrentzat. Nafarroan, urte horretako abenduaren 20an hasi ziren atxiloteta zenbaitek jarraipen azkarra izan zuten hurrengo egunetan Euskal Herriko lurralde guztietan. Baztan bailara izan zen sarekada horren abia-gunea. Hor atxilotu baitzituzten Bittori Etxeberria, haren anaia Esteban, Felicitas Ariztia eta haren neba Agustin.

Urtea amaitzen ari zela, Bilboraino iritsi zen zapalkuntza, eta anzeko sarekadak izan ziren Iruñean, Donostian eta Gasteizen ere. Horren ondorioz, aipaturikoez gain, beste 24 atxilotu izan ziren. Nafarroan: Felipe Oñatebia, Felix Ezkurdia, Rafael Goñi Latasa, Modesto Urbiola, Jose Agerre; Gipuzkoan: Iñaki Barriola, Itziar Mujika Irastorza,

Rafael Gomez Jauregui, Delia Lauroba Yeregui, Jose Damian Etxeberria, Inocencio Tolaretxipi, Patxi Lasa, Luis Canovas; Bizkaian: Pepe eta Tere Verdes, Julian Arregui, Antonio Causo; Araban: Luis Alava Sautu eta Victor Gonzalez Herrero. Horien guztien kontra 103.590 epaiketa-sumarioa abiarazi zuen Infanteriako komandante zen Carrasco Verdes epaile bereziak, eta bi epaiketaren bitartez bukatu zuten auzi hori.

Gerra amaitu zenetik bi urte betetzear zeudenean, zergatik hainbeste atxilotu? Zergatik geroxeago etorri ziren heriotza-zigorrak eta kartzelaldiak? Presoekiko elkertasuna eta Eusko Jaurlaritzaren aldeko espilotza-sarea osatu zutelako. Jarduera horretan, egundoko garrantzia izan zuten aipaturiko lau emakumek: Itziar Mujikak, Bittori Etxeberriak, Delia Laurobak eta Teresa Verdesez. Ekimen horren lehen oinarri izateaz gain, luzez eta arrisku handiz jardun zuten, erakundearen zutabe nagusiak izan zirelako.

## 2. Noiz eta nola sortu zen sarea

Jakina denez, Bizkaia galdu ostean, Kantabria aldera jo zuen euskal armadak. 1937ko uda zen, eta matxinatu frankistek, Bruneteko gudaldia geldiarazi ostean, asmoa zuten Iparraldeko Frontearekin amaitzeko. Testuinguru horretan etorri zen, Santoña aldean, Eusko Armadako batailoi gehienen errenditzea.

Hitzarmenak hitzarmen, Bartzelonan edo Frantzia aldean zeuden Eusko Jaurlaritzako buruzagiek jakin nahi izan zuten zer-nolako baldintzetan gauzatu zen amore emate hori, eta zer ondorio izan zituen. Italiako armadarekin negoziatutako errenditzea izan zen, berehala frankistek kudeatu zutelako, hitzartuari bizkarra emanda; oso beharrezkoa zuten zuzeneko informazioa izatea, jakiteko zer-nolako egoeran gelditu ziren hor atxiloturikoak eta horrez geroztik pairatu beharko zituzten egoera errepresiboen berri izateko.

Hori lortzeko, hiru emakume jarri zituzten martxan Eusko Jaurlaritzakoek. Horrela, Jose Maria Lasarte Gipuzkoako diputatu ohiak eskatuta, bi gipuzkoar, Delia Lauroba eta Itziar Mujika, eta napar bat, Bittori Etxeberria, arduratu ziren informazioa jasotzeaz Santoñan suertatutakoaz eta El Dueson gertatzen ari zenaz. Lehendabiziko biek senitarte-koak zituzten Santoñan atxilotu zituztenen artean: Delia Laurobak se-

narra zuen preso, Jose Azurmendi; eta Itziar Mujikak ere bi anaia zituen atxilotuen artean. Bittoriri zegokionez, kate-mailarik garrantzitsuena zen informazioa mugaz bestaldera eramateko. Baztandarra izanik, Esteban anaiarekin eta Agustin Ariztia lagunarekin, gerra hasi zenetik arduratu zen ezkutuan edo ihesean zeudenak mugaz bestaldera eramaten, errepresiotik kanpo uzteko. Baina, 1937ko udaz geroztik, laguntza horrek ez ezik, beste garraio mota batek ere garrantzi handia hartu zuen: informazioa eramatearenak, alegia.

Bittori Etxeberriaz, argi eta garbi izkiriatu zuten Pariseko egoitzan aurkitu zuten «Barne Zerbitzuaz» izeneko txostenean. Horrela zioten:

Pepitarengandik sortu zen erakundea. Hark egin zituen lehen urratsak; hark zabaldu zuen bidea. Egun, harreman ororen funtsezko oinarri izaten jarraitzen du. Laredoko azken unean, Pepita Etxanok (gerra-izena zuen Bittori Etxeberria) ezkutuko txangoa egin zuen hara. Jarraian, berarekin elkarrizketatu ginen: probidentziazkotzat jo genuen. Berak ezagutzen zituen bitartekoak eta isolaturik zeuden hainbat abertzale, giza ekimenetan eta elkartasun-lanetan zihardutenak... Hasieratik bermatu zigun bitartekoak zituela, esku onez eta erabateko ziurtasunez, mugaz bi alde-tako komunikazioa bermatzeko.

Hori ikusita, ez da harritzekoa Pariseko txosten horrek nabarmen-tzea, egin zuen legez: «Sare hori, ia-ia osotasunean, emakumez eraturik dago». Atxilotuen eta auziperatuen zerrenda ikusita, bistan da gizonez-koek osatzen zutela gehiengoa; baina lehen kontaktuak egiteko, Nafarroatik beste lurraldeetara erakundea hedatzeko, eta jardunean izan zituzten ardurak kontuan izanda, aise erran daiteke emakume horien garrantzia bat zetorrela aipu horrek duen mamiarekin.

Emakume horiek ez ziren politikara iritsi berriak. II. Errepublikako urteetan, gehienak Emakume Abertzale Batzaren taldeetan ibilitakoak ziren eta, gerrarekin batera, hala edo nola, elkartasunezko ekimenetan sartu ziren, bakoitza bere aldetik; 1937az geroztik, guztiek bat egin zuten. Bittori Etxeberria, esate baterako, Eusko Alderdi Jeltzalearen idazkari izan zen Baztan aldean, Errepublikan zehar. EABren buru ere izan zen bailara horretan. Mitinlari bezala nabarmen-tzeaz gain, euskal ekimen kulturaletan aritu zen Jose Ariztimuño «Aitzol»ekin eta Aingeru Irigarairekin, Euskeraren Adiskideak eta Euskaltzaleak elkarteek bultza-



turiko jardunetan. Gerra abiatu bezain laster, deserriratu egin behar izan zuen hainbat hilabetez; baina bere eskualdera itzuli zenean, anaiarekin, Felicitas Ariztiarekin eta Timoteo Plazarekin batera, ikaragarritzko lana egin zuen jendea mugaz bestaldera eramateko.

Itziar Mujikak ere hainbat ardura izan zituen Donostiako Emakume Abertzale Batzaren erakundearen. Elkarte horren idazkari eta idazkariorde izan zen 1932-1936 bitartean. Laster pairatu zituen gerraren ajeak, familikoaren bitartez; izan ere, bi anaiak preso zituen eta beste bi erbesteratuta.

Delia Lauroba, aldiz, ez zen izan EABko partaide. Baina, gerra iritsitakoan, Jose Azurmendi Goikoetxea senarra «Euzko Indarra» batailoian sartu zitzaion, kapitain-mailari helduz. Hori zela eta, preso suertatu zen, Santoñan atxilotua izan ostean. El Duesotik Larrinagako kartzelara eraman zuten, eta hantxe egon zen 1938ko maiatzaren 28an fusilatu zuten arte. El Dueson zegoela, aukera paregabea izan zuen Deliak harekin informazio-trukeak egiteko, sukaldean ari zen donostiar gudari ohi baten bitartez. Hurrengo kartzelan, Larrinagakoan, zailagoak izan ziren horrelako lanak, baina harremanetan jarraitu zuten.

Epaiaren erabakietan, horrela zioten Delia Laurobaz:

Separatista fanatikoa. Erakundearekin harremanetan jarri zen 1937ko irailean, Itziar Mujikaren bitartez. Armada Gorriaren kapitain izan zen senar zenaz baliaturik, euskal presoekiko lotura izan zen. Espetxe askotara hedatu zituen bere kontaktuak, eta txosten ugari eta zabaletan jaso zituen haien gaineko egoera eta han zeudenen ustezko pairamenak. Bere ausardia, trebetasuna eta odol hotza zirela medio nabarmendu zen. Behin, preso zegoen hartzaile bati eskuz helarazi zion Frantziatik ekarritako agiri bat, Santoñako errendizioaren hitzarmena urratzeari buruzkoa, Italiako general bati eskainia. Txostenean, «presoen erakundearen arima»tzat jotzen dute.

Antzeko lotura zuen sareko beste partaide izan zen Tere Verdesek, anaiak Jose preso izan zuelako 1937-1939 bitartean. Denbora gehiena Burgosko espetxean eman zuelako, baliabide handia izan zen hori han bertan erresistentzia- eta informazio-lanei ekiteko, bai Josek berak, baita arreba Tere bisitariak ere. Azken horretaz, akatsak akats, nahiko deskribapen hurbilekoa eman zuen epaiak, honako hitz hauekin:

Auziperatua. 1931tik Emakumeen Elkarte separatistaren bazkide izanik, 1938an erakunde klandestinoan hasi zen «Timotea Arizpun», «Ariz» izengoitiek. Presoendako ere «Tomasa» gerra-izena erabili zuen. Lauroba auziperatuari bidali zizkion kartzeletako informazioa, epaien kopiak, eta presoekin zer ikusia zuen oro. Bizkaiko erakundearen arduradun izendatu arte, bera izan zen eginbehar horri heldu ziona eta, aldi hartan, presoek gaineko txostenak egin zituen. Era berean, industria-ekoizpenaz eta barkuen mugimenduez arduratu zen. Propaganda zabaltzen ahalegindu zen eta, horretarako, hainbat laguntzaile lortu zituen, bereziki kartzeletan edo «UpoMendi» barkuan, non preso baitzeuden euskal separatista ugari. Epaiak honela laburbiltzen zuen Tere Verdesen jarduna: «Ordainezina da auziperatu horrek elkarte horren alde egindako lana».

Lau emakume horiek harilkatu zuten, beraz, sarea, azkarra bezain sendoa, Euskal Herria baino zabalagoa. Akiulua eta abiapuntua Baionan bazuen ere, laster, Baztanetik Iruñera, Donostiatik Bilbora eta Gasteiza hedatu zuten, helduleku irmoak osatuz. Gerroxago, euskal presoak barreiatzarekin batera, El Duesotik Burgosera, Dueñasera eta Puerto de Santa Mariaraino luzatu zuten elkartasun-sare horien guztien eragina. Izan ere, Santoñan gertaturiko errendizioa eta atxilotze masiboa argitu ostean, Bittori Etxeberriak, Jose Maria Lasarteren aginduz, Itziar Mujikari eta Delia Laurobari proposatu zien presoek inguruko informazioa biltzen jarrai zezaten.

Era berean, beste partaide batzuk lortu zituen Gipuzkoa aldean, informazio politikoa eskuratzeko asmoz. Araban ere, Luis Alavarekin jarri zen harremanetan Bittori Etxeberria, eskualde horretan erakundeko arduradun izan zedin. Lortu zuen, gainera, ordutik aurrera, «Venancio» edo «Vicente Viteri» gerra-izenekin aritu baitzen lurralde horretan, Victor Gonzalez Herreroekin batera. Nafarroan ere lortu zuten erakundea zabaltzea. Iruñerrian osatu zuten laguntzaile talderik handiena. Izan ere, auziperatu zituztenez gain, Jose Agerre, Jabier Ciga, Jose M. Iturralde, Angeles Azketa eta beste batzuk aritu ziren elkartasun eginbeharretan, gerra hasi zenetik eta Alava sarea egituratu zenean. Azken horretan, Baztangoekin batera, Felipe Oñatebia, Modesto Urbiola, Rafael Goñi Latasa eta Felix Ezkurdia aritu ziren.

Eragin handikoak izan ziren guztiak. Pariseko txostenak azpimarrazten zuen legez, Rafael Goñi apezka laguntza paregabea izan zen Dueñaseko kartzelan zeuden euskal kapilauekin kontaktatzeko eta haien gaineko

### 1. irudia

Tere Verdes, Delia Lauroba, Bittori Etxeberria eta Itziar Mujika  
(Argazkia: Sabino Arana Fundazioa)



informazioa izateko. Era berean, Modesto Urbiola ere bere lanbidez baliatu zen, Iruñeko epaitegiko langilea baitzen, San Cristobalgo eta espetxe probintzialeko presoei buruz informazioa jakiteko eta haiekin harreman jarraitua izateko.

Bizkaiko taldea, berriz, txikiagoa izan zen, eta Tere Verdesengan oinarritu zen denbora osoan. Hark beste partaide batzuk lortu zituen eta, haien artean, lurralde hartako ordezkari nagusia izan zen Julian Agirre Garaigordobil, «Justo» eta «Jose Juaristi» izengoitiak erabili zituena. Tere Verdesek anaia Jose preso izan zuen 1937az geroztik. Arrazoi horretaz baliaturik sartu ahal izan zen harremanetan, El Dueson, Larrinagan eta geroago Burgosko kartzelan zeudenekin.

### 3. Sarearen zereginak

Dena den, erakunde horrek lortutako garapena eta eraginkortasuna lortzea ez zen izan pentsa daitekeen bezain erraza. Izan ere, Tere Verde-

sen bitartez iritsi zaigun eskutitz sortari begiraturaz, aise antzeman dai-teke zer-nolako zailtasunak izan zituen taldeak aurrera jotzeko. Ozto-poak oztopo, batzuk eta besteak aritu ziren, nahiz eta frankisten menpe egon, ausardia gero eta handiagoz. Tereren kasuan, esate baterako, Bizkaiko eskualdean hainbat pertsonak uko egin ziolako sarearen ordezkari-tzari, bera tematu zen eginbehar horretan, Julian Agirrek eginkizun hori bere gain hartu zuen arte. Aitzitik, egundoko lana egiten jarraitu zuen Terek, eskutiz batean aitortzen zioten lez.

Zenbait lan-ardatz aurrera eramateko eratu zuten erakundea. Haien artean, lehen unetik garrantzirik handiena hartu zuena, zalantzarik gabe, presoan aldeko laguntza sustatzea izan zen. Lehendabiziko egin-beharra izan zen erbestean zeuden buruzagi politikoan eta kartzeletan zeudenen arteko harremana bermatzea. Horren kariatara, oso laster, harremanetan jarri zituzten, esate baterako, atxilo zeuden Juan Ajuria-gerra, Jesus Solaun edo Luki Artetxe buruzagi jeltkideak kanpoan zeuden Jose Mari Lasarte, Ramon Agesta, Juan Iturbe eta beste agintari abertzale batzuekin. Kartzeletako informazioa mugaz bestaldera bidaltzea zuten helburu zehatza: presoek zituzten zigorrak, bereziki heriotzarenak, nazioarteko eragilean bitartez eragozteak. Justizia (?) frankistak zigor gailenak azkar eta sarri ezarri zituenez, bai gerran bertan, baita ondorengo urteetan ere, behar-beharrezkoa izan zen informazio ahalik eta zehatzena eskuratzea bizitzen aurkako segada hori geldiarazteko.

Hori dela eta, egundoko garrantzia izan zuten Itziar Mujikak, Delia Laurobak eta Tere Verdesek eskuratutako zigortuen zerrendak, epaien erabakiak eta sumarioen kopiek, jende askoren bizitzari eusteko. Era berean, gerra amaitu baino lehenago egin zituzten bi aldeetako presoan trukaketak gauzatzeko, arras garrantzitsua izan zen haiek bidalitako informazioa. Beharrezkoa da gogoratzea hasierako kartzeletatik —hau da, Larrinagatik eta Santoñatik—, beste espetxe askotara sakabatu zituztela presoak, haien inguruko oinarritzko informazioa oztopatuz —zer jende zegoen preso eta non zeuden—. Sarri askotan, alferrikakoak izan ziren sarekoek egindakoak bizitzak edo presoan askatasunak erdiesteko; baina, beste batzuetan, lortu zuten, heriotzazigorra erabaki ostean, «ejecutese» beldurgarria beste zigor baten truke ordezkatzeko.

Gerra amaitzear zutela, honela idatzi zioten Tere Verdesi:

Ez dakigu, etorkizunean, zer informazio izan dezakegun beharrezko. Horregatik, behin eta berriro, ahalik eta gehien eskatzen dizuegu. Presoen sakabanatzeari dagokionez, behinik behin, euskal multzoak non dauden jakin beharko genuke. Ahal bada, zenbaki zehatzak eta izen-abizenak. Era berean, zer-nolako tratuak pairatzen dituzten, lan-batailoietan, kontzentrazio-zelaietan, eta abarretan. Nazioarteko erakundeen aurrean, gauza guztien gainetik, datu zehatzak behar ditugu egoera tamalgarri horiek salatzeko.

Gerra bukatutakoan, egoera larriagotu egin zen, nabarmen. Alde batetik, gerran zehar izan ziren aipaturiko trukeak desagertu egin zirelako. Bestetik, errepresioa, moteldu beharrean, handitu egin zelako. Izan ere, kartzelen eta espetxeratuen kopurua ugaltzeaz gainera, beste esparru errepresiboek, hala nola, lan-batailoiek eta kontzentrazio-zelaiek biderkatu egin zituzten gatibuen multzoak, Espainia osoan zehar. Garaituak zanpatzeko indarrean ezarritako legeak (1939ko otsailaren 9koak, Erantzukizun Politikoen Legeak, edo 1940ko Komunismoaren eta Masoneriaren aurkako Errepresioaren Legeak) neurririk gabe zabaldu zuten zigorren eta zigortuen esparrua.

Hori zela medio, informazio zabala eskatu zieten horren inguruan, esanez:

Zehaztasun ororekin ezagutu behar dugu Euskadin dagoen giroa, honako atal hauetan: Gure presoen egoera eta adorea. Bertan daudenak zein kanpoan daudenak (Jesusen taldekoak). Gure jendearen jarrera eta, egungo egoeraren aurrean, zer-nolako portaera duten bereziki Erantzukizun Politikoen Legearen aitzinean.

Bigarren lan-atala, ezbairik gabe, Espainiako estatuari buruzko informazioa biltzea izan zen. Izan ere, okerrera aldatzen ari zen egoera politiko militarri buruzko jakin-nahiak bultzatu zuen jatorriz presoen aldeko sarea zena informazio-erakunde ere izatera. Batzuetan, Lasartek eta enparauek eskatzen zutena zen giroko informazio orokorra. Tankera honetakoa: «etsaiek duten elkarretaratzeari dagokion informazioa; hau da, militarrek, falangistek edo frankistek zein jarrera dituzten, egungo arazoan aurrean».

Baina, beste batzuetan, galdera oso zehatzak ziren, arlo militarraz, industrialaz, politikoaz edo kulturalaz. Izan ere, ia astero izan zituzten kontaktuen bitartez, informazio askoz zehatzagoa eskatzen zuten, eta

besteek bidali egiten zieten. Adibide moduan, nolabaiteko bereizketa eginez, honako hauek azaldu ziren Tere Verdesen eta Endarakoen arteko eskutitzetan:

Zer tirada dute egunkari bilbotarrek? Zer asmo dituzte Sondikako aerodromoarekin? Alemaniar teknikariak lanean ari dira, industrian edo meategietan? Kruppekopek eskuratu ditu hainbat meategi? Zergatik dimititu du Larrinagako zuzendariak? Zein da ordezkari sindikalaren errolda? Burtsaren funtzionamendu eta garrantziari buruzko datuak; errazionamenduari buruzkoak... etab.

Baina, ez ziren mugatu bi esparru horietara. Sare horri esker, informazioaren jarioak alderantzizko norabidea hartu zuen, preso zeudenak ere jakinaren gainean egon zitezen. Hori zela eta, ohar informatiboen bitartez edo txosten luzeagoen bidez, Gerra Zibilaren gorabeherak jarraitu ahal izan zituzten. Helburu garbia zuten informazio hori bildu eta prestatzen zutenek: «Etsaien propaganda indargabetzea eta gure jendearen bihotzak altxatzea».

Preso zeudenei edo erresistentzia-lan horietan zebiltzanei informazioa emateaz gain, aurreikusitako eremu propagandistiko zabalagoa lantzea ere. Honela zioten Tere Verdesi bidalitako eskutiz batean: «Uste dugu garaia dela propaganda indartsua egiteko». Ordurarte egindako propaganda kritikoaz gain, beharrezkotzat jotzen zuten beste propaganda mota bat, euskal abertzaleek zuzendua, zegoen «prestasun abertzalea goritzeko eta, horren ondorioz, erakunde indartsuagoa izateko». Garbi igartzen zen eskutiz horretan bertan egitasmo hori ez zela ahobekeria. Izan ere, Tere Verdesi adierazi zioten bazutela bide berezia Nafarroara propaganda multzo handiak eramateko, eta Itziar Mujika «Shole»ren bidez aztertzen ari ziren nola eman jarraipena garraio handi horiei, gainerako lurraldeetarako.

Dena den, ia hamarkada bat igaro behar izan zen propaganda hori gauzatzeko. Jakina denez, Espainiako Gerra Zibila amaitu bezain laster, gorpuzten hasi zen II. Mundu Gerrarekin lehertuko zen abagune beroa. Mundu Gerra horrekin batera, 1939ko irailean, hots, Gerra Zibilaren bukaeratik bost hilabete eskaseko tartean, gero eta liskartuago azalduz joan zen nazioarteko giroa. Frantziak eta Britainia Handiak Espainiako Gerran zehar izan zuten jarrera neutralak jarraitu egin zuen, baina nazionalsozialismoa indartzen lagundu zuen, bare-

tzen lagundu beharrean. 1939ko irailaren hasmentan izan ziren elkarren aurkako gerraren adierazpenetan, euskaldunak eta espainolak zuzenean aipatu ez bazituzten ere, berehala ulertu zuten haien etorkizuna ere jokatu zela, nazioarteko testuinguruan, Europako esparruetan eta itsasoetan, mundu osoko gerra-zelaietan. Hala zirudien bederen.

Hori zela eta, areagotu egin zen sare horrek izan zuen bigarren arloa, hau da, informazioarena. Espainiako Armadak zuen ezarrera, muga aldean zituzten gotorleku zein kuartelak, barkuen mugimenduak, alemaniarren joan-etorriak, Estatuko barne-egoera giza politikoa... dena oso interesgarria zen Frantziako zein Britainia Handiko agintarientzat. Horren ondorioz, txostenak eta oharrak biderkatu egin zituzten, Jose Maria Lasarteren eta Pepe Mitxelenaren eskutik, Frantziako zerbitzuen eta militarren eskuetan jartzeko.

Sarearen eraginkortasuna handia izan zen oso. Izan ere, Pariseko Eusko Jaurlaritzaren egoitzan aurkitutako txostenak zioen «liburuak, aldizkariak eta antzekoak aparte utzita, 1.242 agiri» jarri zituztela Eusko Jaurlaritzakoen eskuetan. Guk ikusitako eskutitz sortak eta ohar informatiboak adierazten du ia astero harremana izaten zela alde batetik bestera. Eraginkortasun horren beste faktore bat izan zen klandestinitatearen eginbeharrak era egokian eramatea. Sareak iraun zuen bitartean, partaide batek bakarrik alde egin behar izan zuen erbestera, polizia haren arrastoaren atzetik ibili zelako; Agustin Ariztiak, hain zuzen ere. Gainerako guztiak, sarea egon zen bitartean, inolako susmorik gabe aritu ziren, tamalez, Parisen aurkitutako txosten famatuak Espainiako polizia haien atzetik jarri zuen arte.

Erakundeko partaideen gerra-izenak noizbehinka aldatzeaz gain, eskutitzei ohar informatiboan itxura eman zieten, aldizkako harreman komunikatiboaren itxura gutxitzeko asmoz. Etengabe egin zituzten mugaz gainetiko joan-etorrietan, sekula ez zen atxiloketarik gertatu, nahiz eta Pirineoetako pasealekuak oso zainduak izan. Aintzat hartu beharra dugu, Guardia Zibilez gain, mugetara bidali zituztela soldaduak ere, eta, gerra amaitu zenetik, porlanezko bunkerrek zein egitura defentsiboek gotortu zuten Endarlatzatik Port Bouraino Espainiaren eta Frantziaren arteko lerro osoa. Eskualde horietan beti ugari izan diren kuartelak biderkatu zituzten, soldaduen eta antzeko muga-zaindarien bitartez.

Hala ere, behar zuten guztietan, jendea mugaz bestaldera eramateko edo dokumentazioa garraiatzeko, bidaiak egin zituzten joan-etorri arriskutsuetan. Felicitas Ariztia eta Timoteo Plaza baztandarrek gogorarazten ziguten legez: «Bietara joaten ginen, Sarara edo Aldudera. Sara aise urrunago izanik ere, segurago zen harako bidea; zazpi-zortzi ordu behar ziren eta hiru linea gainditu behar genituen: karabineroak, falangea eta erreketek. Nik ez dut sentitu beldurrik, ez dakit zertaz baina inkontziente edo zer, baina hala da».

Izan ere, «drôle de guerre», hau da, alemaniarrek Frantziako inbasioa gauzatu ez zuten bitartean, barrura begira, informazio luze bezain baikorra bidali zieten. Zetorren gerra ontzat ematen zuten, «gerraren beste biderik ez dutenen aurkako erantzun bakarra» zutelakoan. Zehaztasun handiz azaldu zuten hurrengo hilabeteetan izandako borrokarako goraldia, txosten luzeei esker. Itxaropen handia zerien; alde batetik, frantziarrek eta britaniarrek erasotzaile naziei arrakastaz aurre egingo zitelakoan zeudelako; bestetik, alemaniar armadaren aurreikusitako porrotarekin lotzen zutelako Espainiaren bilakaera politikoa. Beraz, hori gauzatutakoan, laster izanen zuten aukera, 1939ko galerari buelta emateko.

Hala eta guztiz ere, Frantzia aldean, kukuak oker jo zuen 1944ra arte. Izan ere, Errepublikak eta frantziar armadaren hondamendia Belgikakoa edo Holandakoa bezain azkarra suertatu zen. Maginot defentsalerro ospetsua gaindituta, alemaniar armada ziztu bizian Pariseratu zen, eta Bordeletik oso laster Espainiako mugetaraino hedatu zen jaun eta jabe. Frantziaren armadaren eta gobernuaren deskalabruarekin batera, indarrean jarri zen Petainen erregimen kolaborazionista. Testuinguru horretan suertatu zen Parisen Eusko Jaurlaritzak zuen ordezkaritza deuseztatzea. Oso ezaguna denez, Jose Antonio Agirre lehendakaria bera harrapatu zuen alemaniarren erasoak Belgika aldean, eta bertan ezkutatu beharra izan zuen hainbat hilabetez, Hegoamerikan onik eta osorik azaldu zen arte. Gainerako buruzagi jeltkideek —hala nola Leizaolak, Landaburuk...— ezkutatu edo Parisetik alde egin zuten.

Baionatik, aitzitik, ohiko lanekin jarraitu zuten, eta lotura izan zuten Enderatik barruko sarearekin, hainbat hilabetez. Hori dela eta, gauza horien guztien berri izan zuten Espainiako estatuan zeuden presoek. Frantziako porrotaren egunetan, esate baterako, Ipar Euskal He-



rrian egindako atxiloketen eta Gurseko kontzentrazio-esparruan barneratutakoen berri eman zieten. Era berean, azaldu zieten Eusko Jaurlaritzarekin zuten kontaktu eza, eta lehendakariaren egoerari buruzko ezjakintasuna.

#### 4. Kartzelaz bestaldean

Ezkortasun garaiak ziren, alemaniar basakeriaren alde jokatzeko ari zirelako orduko borrokak, eta sarekoek, berek ustekabea, alemaniarrek aurreratzearen ondorioak pairatu behar izan zituzten. Ezaguna denez, Paris eskuratzearekin batera, frankisten eskura igaro zen Eusko Jaurlaritzak Marceau etorbidean zuen ordezkariak, alemaniarren bitartez. Gestapokoek ala polizia frankistek han bertan aurkitu zuten «Barne Zerbitzua» izenburua zuen txostena, dirudienez, Jose Antonio Agirrerren bulegoan. 1940ko ekainaren bukaera zen, eta, handik gutxira, miaketak egin zituzten, Urraca polizia frankistaren aginduetara, artean indarrean zegoen sarea desegiteko.

Hainbat hilabete geroago, azken bilera izan zuten sare horretako ordezkariak Gasteizen, abenduaren 15ean hain zuzen ere, Frantziako egoera zela eta, erakundea bertan behera uzteko. Baina, ordurako, horien berri nahiko zehatza zuen polizia frankistak. Izan ere, handik astebera izan ziren lehenengo atxiloketak. Baztanen, Madrildik iritsitako poliziek atxilo eraman zituzten Bittori Etxeberría, haren anaia Esteban eta Felicitas Ariztia. Egun batzuk geroago, gauza bera egin zuten Gipuzkoako partaideen aurka, baita bizkaitarren eta arabarren kontra ere. 1941eko urtarrilaren 12rako, Madrilen zeuden 28 atxilotuak. Batek baino gehiagok izan zuten alde egiteko aukera, lehen atxiloketak izan zirenetik hainbat egun igaro zirelako; baina bakoitza bere herrian geratu zen, haiek egindako elkartasun-lana ez zela zigortu beharko pentsatuz.

Kartzelatuen aldekoak espexeratuak zeuden, eta ez edozein lekutan. Izan ere, «Fomento»ko txeka izan zen haien lehen espexea. Ohiko espexeak jendez gainezka zeuden, eta frankistek erabiltzen jarraitu zuten gerra garaian izandako atxilogune berezi hori, militarren kontrolpean, hain zuzen ere. Atxilotze-lekua izateaz gain, itaunketak egiteko erabiltzen zuten militarrek eta poliziek. Hori dela eta, sumarioa gauzatzeko hantxe jarraitu zuten itaunketak egiten, ekainaren

hasieran gizonak Porlierreko kartzelara eta emakumeak Las Ventasera eraman zituzten arte. Tarte luze horretan, apirilaren 12an eta 17an, hainbat atxilotu (Jose Agerre, Pelayo Azkona, Pepe Verdes, Felicitas Ariztia...) libre geratu ziren sumariotik kanpo gelditu zirelako; gainerakoak epaiketaren zain gelditu ziren aipaturiko txekan edo kartzeletan.

Emakumeak Fomentoko txekatik atera zirenean, egonaldi labur bat egin zuten Coello kalean zegoen beste kartzela batean, baina Las Ventaseko espetxean izan zuten behin betiko norakoa; han egon ziren, epaiketak izan arte eta 1945ean kaleratu ziren bitartean. Presondegi-tako zuzendari izan zen Victoria Kenten agindupean eratu zuten espetxe hura, 1933an. Legelari errepublikano horren ideiei eutsiz, kartzela eredugarri izateko eraiki zuten. Izan ere, ordurarte izandako kartzelen eredu errepresiboekin apurtu nahian, presoak gizarteratzea zuten helburu. Hori dela eta, hainbat aurrerapen eskaintzen zituen: liburutegia, tailerrak, erizaindegi handi bat, presoan adinaren araberako galeriak...etab.

Baina, gerrarekin batera, pikutara joan zen hori guztia. Hasteko, gerran bertan, presoak metatzeak txiki utzi zuen kartzela. Dena den, oke-rrena iristear zegoen. Izan ere, gerra amaitutakoan, biderkatu egin zen arazo hori. Lekukotasun guztiek bat egiten dute jende kopuruak gora eta gora egin zuela adierazteko, 1941era arte. Bostehun emakume izatekoa zen espetxea hamar mila gordetzera iritsi zen. Testigantza gehienek azpimarratu dute egoera hori. «1939an 11-12 emakume zeuden ziega ba-koitzean. Hori zela eta, garai bateko oheak kenduta, 9-10 lastairek betetzen zuten gela». Antzinako egongelak eta esparru komunak desagertu egin ziren, eta emakumeen biltegi ikaragarri bihurtu». Victoria Kentek eraikuntza eredugarria eta jendea bergizarteratzekoa izan zedin eratu zuena jendez gainezka zegoen, eta aipatutako helburu hori ahaztuta zegoen, erabat. Izan ere, gaizki elikatuak eta egoera txarrean egoteaz gain, batzuentzat heriotzaren atari edo zigor gogorren pasaleku izatera iritsi zen Ventasekoa.

Errepublikako urteetan, kartzelako sotoak izandakoak «inkomunikazio aldiak» burutzeko baita «Pepa», hau da heriotz zigorraren zain zeuden zigortuentzat, ziega gisa ere erabili zituzten 1939z geroztik. Hori dela eta, lehen epaiketa izan ostean, esate baterako, han egon ziren gaitibu Bittori Etxeberria eta Itziar Mujika.

Dena den, 3. solairuan adineko emakumeentzako zegoen galerian eman zuten denbora gehiena, ia bere osotasunean. Hori dela medio, eta haien eskutitzen arabera, tratu nahiko onargarria eman zietela zirudien. Bigarren epaiketa izan ostean, hainbat ardura hartu zituzten kartzelan, ekonomatuan edo tailerretan laguntzaile moduan, eta horrek hobetu egin zuen haien egoera. Elikadurari zegokionez, betidanik izan zuten, Madrilen zegoen Dolores Urrozen bitartez, egundoko laguntza familien aldetik. Era berean, haiek zeuden galerietan hainbat lekaima zeudenez eta bereziki bertako kaperau izan zen Victor Martinez de Salinasen bitartez, laguntza handia izan zuten ezkutuko posta bidezko harreman ugaria eta ziurra bermatzeko.

1941eko uztailaren 3an izan zuten lehen epaiketa. Fiskalak eskatutako zigor guztiak ontzat eman zituzten epaileek. Horren ondorioz, hermeretzi heriotza-zigor eta gainerakoentzat kartzela-zigor luzeak. Manuel Revuelta legegizonak, asaldatuta, helegitea jarri zuen Epaitegi Gorenaren aurrean. Nolabaiteko arrakasta izan zuen, zeren, horri esker, beste epaiketa bat izan baitzuten 1942ko irailaren 18an. Epaitegi Gorenak hartutako azken erabakiaren ondorioz, heriotza-zigor bakarra ezarri zuten; Luis Alavaren aurkakoa, hain zuzen ere. Besteek zigorraldi desberdinak jaso zituzten: sei epaituek (Itziar Mujika, Felipe Oñatebia, Bittori Etxeberria, Julian Arregui, Jose Etxeberria, Esteban Etxeberria) 30 urtekoak; beste zazpik (Rafael Goñi, Agustin Ariztia, Tere Verdes, Rafael Gomez, Luis Canova, Inocencio Tolaretxipi, Modesto Urbiola) 25na urte; zigor apalenak 20 urtekoak izan ziren, Patxi Lasa, Iñaki Barriola, Felix Ezkurdia, Antonio Causo, Delia Lauroba eta Victor Gonzalezen kalterako. Ikusi dugunez, emakumeei zegokienez, 30na urte jaso zituzten Itziar Mujikak eta Bittori Etxeberriak, espioitzan aritzeagatik. Teresa Verdeseke, delitu bera egotzita, 25, eta Delia Laurobak, 20 urte.

Nolanahi ere, kartzelaldi luze horiek baino latzagoa izan zen Luis Alavaren heriotza-zigorrek indarrean jarraitzea. Lehenengo epaiketarekin konparatuta, zigor hori zuten guztiek, haien artean Bittori Etxeberriak eta Itziar Mujikak, beren burua salbu jarri zuten kartzelaldi horien truke. Ingeniari arabarraren kasuan, ardura eta kemen handiz mugitu zituzten hari diplomatikoak, erlijiosoak, politikoak... azken zigor hori gauza ez zedin. Baina alferrik, 1943ko maiatzaren 6an exekutatu baitzuten Porlierreko patioan. Hori zela medio, Las Ventasen zeuden Terek, Bittorik eta Itziarrek aukera izan zuten, eskutitz baten bitartez, on Luisi

mezu hunkigarri bat helarazteko. Eskutitz horretan, gogora ekartzen zituzten aurretik kinka horretatik igaro ziren hainbat burkide (Abaitua, Lauaxeta, Azurmendi, Markiegi...), nabarmentzeko horien jarraibideak bultzatu zuela berek egindako gutzia. Era berean, sinestun kartsuak izanik, patu berbera izateko izendatu zuela Jaungoikoak Luis Alava zioten, maitasunezko besarkada batekin azken agurra emanetz.

Dirudienez, ez zuten espero erabakitako heriotza-zigor hori gauzatuko zenik. Kanpora bidalitako beste eskutitz batean, horrela zioten, etsipenez: «Bi urte eta erdi hauetan asko sufritu dugu, baina beti bukatzeko itxaropenez, eta berak —Luis Alavak— esaten zigun moduan, bukaera elkarrekin Elizondo aldean ospatzeko...».

Egia esan, 1943 aldean, nazioarteko testuinguruak hala aginduta, frankismoak 1936az geroztik martxan jarritako heriotzako legeria zein egitura judiziala motelago eta bigunago jartzera behartuta zeuden; eta, orduz geroztik, kopuru aldetik bederen gutxitu egin ziren azken zigor horiek. Horregatik, zailagoa da ulertzea Luis Alavaren kontra izandako itsumen hori. Dena den, urte hartan bertan, martxoaren 30ean hain zuzen ere, dekretu berri bat indarrean jarri zuten frankistek, «askatasun baldintzatuak» ematearren. 1940ko ekainaren 4an antzeko bat eman zutenetik, bosgarrena zen hori. Helburua zen kartzeletan zeuden milaka preso gutxitzea.

Azken horiez baliatuta eta, ziur aski, Luis Alavaren erailketak esparru kristau eta eskuindarrean sortutako egonezaz lagunduta, haiek jasotako zigorrak errebisatzen hasi ziren, askatasun mota hori ezartzeko asmoz. Delia Lauroba izan zen Ventasetik Donostiara joan zen lehena. Hasieran libre, baina gero berriro kartzelatu zutenean, Ondarretan gelditu zen. Beste hiruek —Bittorik, Itziarrek eta Terek—, aldiz, Madrilgo kartzelan jarraitu behar izan zuten. Zalantza izan zuten tokian tokiko kartzeletara joatea eskatzeko, baina nahiago izan zuten ezagutzen zuten kartzela hartan elkarrekin jarraitzea. Azkenean, 1945eko apirilean jaso zuten «askatasun baldintzatu» hori. Jakina, kartzelatik ateratzek ez zekarren erabateko askatasunik, zeren beren herrietatik kanpo jarraitu behar izan baitzuten. Hori dela eta, urte pare bat gehiago eman behar izan zituzten Madril aldean, askotariko lanetan, 1947an etxeratzeko behin betiko baimena eskuratu zuten arte.

Urte hartan, maiatzean, Euskal Erresistentziak bultzaturiko greba orokorra piztu zen Bizkaian, arrakasta handiz; baina historiagile

gehienek azpimarratu dutenez, mobilizazio horrekin borroka aro berri bat ireki beharrean, itxi egin zen II. Errepublikarekin batera sortu zena. Ordurako, nazioarteko testuinguruak ere bizkarra eman zien erakunde eta esparru antifrankistei, Gerra Hotza zela medio, diktadura sustengatuz. EABri zegokionez, erakunde moduan, erbestean soilik izan zituen nolabaiteko azalpenak. Estatuan, aldiz, desagertu egin zen antzinako Emakumeen Erakundea, baina garbia zen urte horietako balantzea: estraineko urteetako lan politikoa, askotan bigarren mailan gelditzen zena, askoz urrunago eraman zuten, erresistentzia frankistan lehen lekua hartzeraino, Bittori, Tere, Itziar eta Delia bezalakoek.

## 2. irudia

Ezkerretik, Delia, Itziar, Tere; goian, Bittori (1941).  
(Argazkia: Sabino Arana Fundazioa)



## Iturriak

Euskal Nazionalismoaren Agiritegia

Tere Verdeseke emandako eskutitz eta agirien sorta. 1238 leg. 1 carp.

## Ahozko iturriak

Bittori Etxeberriarekin egindako elkarrizketa. Gartzainen, 1989an.

Felicitas Ariztia eta Timoteo Plazarekin egindako elkarrizketa. Elizondon, 1989an.

Angeles Azketarekin egindako elkarrizketa. Iruñean, 1992an.

Modesto Urbiolarekin egindako elkarrizketa. Iruñean, 1990ean.

Iñaki Barriolarekin egindako elkarrizketa. Donostian, 1997an.

## Bibliografia

AMEZAGA, A. (1980). *La Mujer Vasca*, Bilbo: GEU.

BARRIOLA, I. (1978). *19 Condenados a muerte*, Donostia: Ediciones Vascas.

CHUECA, J. (1991). «Mujeres antifranquistas en la retaguardia. El caso de Navarra». *Las mujeres y la guerra civil española*, Madril: Ministerio de Cultura.

—, (1999). *El nacionalismo vasco en Navarra 1931-1936*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

CHUECA, J., FERNANDEZ, L. (1997). *Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian*, Lasarte Oria: Euskaldunon Egunkariaren argitalpena.

CUEVAS, T. (1985-2004). *Testimonios de mujeres en las cárceles franquistas*, Huesca: Instituto de Estudios Alto aragoneses-UNED.

GARGALLO, L. (2011). *El sistema penitenciario de la Segunda República. Antes y después de Victoria Kent (1931-1936)*, Madril: Gobierno de España.

HERNANDEZ HOLGADO, F. (2004). *Mujeres encarceladas. La prisión de Ventas de la República al franquismo, 1931-1941*, Madril: Marcial Pons.

IBARZABAL, E. (1978). *50 años de nacionalismo vasco*, Donostia: Ediciones Vascas.

LARRAÑAGA, P. (1978). *La mujer en el nacionalismo vasco*, Donostia: Auñamendi argitaletxea.

NUÑEZ DIAZ BALART, M. (1997). *Consejo de Guerra los fusilamientos en el Madrid de la posguerra (1939-1945)*, Madril: Compañía Literaria.

RODRIGUEZ TEIJEIRO, D. (2011). *Las cárceles de Franco. Configuración, evolución y función del sistema penitenciario franquista (1936-1945)*, Madril: Los Libros de la catarata.

ROMEU, F. (1994-2004). *Silencio roto. Mujeres contra el franquismo*, Madril: El Viejo Topo.

- UGALDE, M. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua / Emakunde.
- VINYES, R. (2001). *Irredentas. Las presas políticas y sus hijos en las cárceles franquistas*. Madril: Temas de Hoy.
- H.E. (Hainbat egile) (1986). *Navarra 1936. De la esperanza al terror*, Iruñea: Al-taffaylla Kultur Taldea.
- H.E. (1998). *Espetxean 1937-1942. Semilla de libertad. Bizitza eta Heriotza giltzapean*, Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- H.E. (2012). *Situación penitenciaria de las mujeres presas den la cárcel de Saturrarán durante la guerra civil española y la primera posguerra*, Astigarraga: Emakunde.

**Hurbileko bizipenak  
eta testigantzak**



## Julene Urzelai, duintasunaren isla

Asier Aranbarri Urzelai

Gure etxeko egurrezko besaulki batean dut izeko Juleneren lehen oroitzapen zuzena. Aurrera eta atzera mugitzen zen horietako batean. Bere ahots berezitik zetozen hitzak datozkit burura: «Aizak, eder hori, jaitsi hadi Batzokira eta ekarri iezaidak «rubio» pakete bat». Nik arrapalada bizian jaisten nituen bi solairuak, eta *di-da* batean egiten Batzokira bitarteko 30 metroak. Gustura igotzen nion izekori enkargua —niretzat izeko baizen, nahiz eta *aittitteren* arreba izan—, buelten truke. Bedertzi bat urte izango nituen.



<http://www.guregipuzkoa.net/photo/1013907>

Zerbaitek atentzioa ematen bazidan, nahiz ume bat izan, izeko Juleneren dotorezia zen. Iñaki Anasagastik berak ere horrela zioen, ezagutu zuen eguna oroitzuz, Caracaseko «Radio Euzkadi»n eginiko elkarrizketa baten aitzakian: «*Gogoan dut nola heldu zen Pacairigua eraikinera. Zinez dotore jantzia, bere begi urdin zoragarriekin, itxura berezi eta apartekoaz. Hark espia film bat zirudien, kapela loreduna besterik ez zuen falta*». Horrelakoxea zen izeko Julene; 1920ko hamarkadako aktorea baten itxura zuen.

Aurretik ere banuen gure Ameriketako senideen berri; gogoan ditut etxeko sukaldeko bazkari-afari haiek, bereziki, gabon usain goxoan. Beti zegoen gure etxea jendez beteta. «Hotel Americanoa» zioen gure aita zenak. Zenbat lan gure amama Felirentzat. *Aittitte*, amama eta izeko Joakine ere, Juleneren ahizpa zaharrena, gurekin bizi ziren, eta horrek urzelaitarren gotorleku bilakatzen zuen gure etxea.

Buruko lainopetik datozkidan oroitzapen haietan, gogoan dut izeko Juleneren senar Paco Zamakona ere, bisita hartan Euskadi agurtu eta gutxira hil zen Venezuelan. Gizon alaia eta elkarrizketa handikoa. Melokotoia ardotan bustita jaten zuen bitartean, istorio zaharrak kontatzea gogoko zuena. Hantxe egoten nintzen ni, mahai ertzean adi-adi entzuten.

Politak ziren niretzat, urzelaitar anai-arreben pasarteak. Gogorak bezain politikak. Bakoitzaren oroitzapenetatik osatzen doazen istorioak, alegia.

Bizkaitarrak deitzen omen zieten herrian urzelaitarrei, gerra aurreko garai haietan. Horrela zioen izeko Joakinek. *Birraittitte* Joxemarik, bere aitak, lehen unetik abertzale sutsu izanik, maiz irakurtzen baitzuen izen bereko egunkaria, pilotaren bueltan mugitzen zen etxe hartan. Gerra piztu ondorengo irailean, utzi beharra izan zuten etxea, hain zuzen ere. Urzelaitarrek, beste hainbat eta hainbat familiak bezala, ihes egin beharra izan zuten Azkoititik Bizkai aldera. Busturiara aurrena, handik Axpera eta handik Gernikara.

Hantxe harrapatu zituen bombardaketak, eta handik Santanderrera egin zuten ihes. Han, berriz, itsasontzi bat hartu eta Frantziara jo behar izan zuten azkenean.

Ihesaldi horretan banatu zen betirako zortzi senideko familia, *birraittitte* Joxemari hila baitzen, berriro senide guztiak elkartu ziren egunean. Gerra piztu eta urte askora.

Zortzi senidetik bost itsasoz bestaldera joan ziren: Julene bera, Josebe, Joxeleon eta Iñaki Venezuelara, azken hori pixkat geroago, herrian ezer bilatzen ez eta gobernu frankistaren debeku guztien kontra, Pa-saian polizoi sartu eta Ternuaraino iritsi zen, eta handik Venezuelaraino jaitsi, anai-arrebengana. Eta Emili, berriz, Argentinara, hiru ume txiki-ekin. Joakine Baionan geratu zen hainbat urtez, eta herriratu ziren bakarrak Alejandra eta Justino —nire aittitte— izan ziren. Azken horrek ere asko sufritu zuen, pelotari profesionala izaki, erregimen frankistaren aldetik. Etxean entzunda dut, karteletan ere ez zutela haren izenik jar-tzen, X bat baizik, hainbat isun ordaintzeaz gain. Bekatu bakarra zuen: abertzale izatea.

Alde horretatik, hainbat etxetan bezala, badira hor bizpairu pasarte, oilo-larrua jartzeko modukoak.

Bata Gernikan, babes-aterpe batean ezkutatuta zeudela, bonba ba-tek aterpea zapuztu eta zutik geratu zen egurrezko zutabe bati esker bi-zirik atera zituztenekoa. Iluntze partean, ordu batzuen ostean atera zi-tuzten bertatik; eta bertan, izeko Julene eta Joakine. Segituan datorkit burura izeko Joakinek esaten zuen kontakizun hura, suntsiketaren on-dorengo harri artean inor ba al zegoen galdera nola entzuten zuen. Bon-bardaketaren ondorengo harri suntsituak kentzen ari zirenean, «Inor ba al dago hor?» galdetzean, nola erantzun zuten, «Gu, hemen... hemen behean». Zirrarra datorkit oraindik ere. Izekok miraritzat jotzen zuen hura, zutabe hartan zegoen Ama Birjinaren estanpa bati esker.

Bigarrena, *aittitte* Justinorena. Santanderren zeudela, kamioi bate-rako bidean, aittittek topo egin omen zuen frankisten bandoan zegoen pilota-munduko agintari ezagun batekin (*aittitte* pilotaria zen); hark nora zihoan galdetzean, kamioia seinalatu omen zion, eta non esaten dion agintari horrek kamioi hartan ez sartzeko, beste baterako bidea hartzeko baizik. *Aittitteren* erantzuna: «nirekin datozenak ere bide hor-tatik badoaz bai». Eta horrela aldatu ziren lekuz. Ondoren jakin zuten jatorrizko kamioia fusilamendu-pareta batera zihoala. Ikaragarria!

Edo gure amama Felik zioena, Justinoren emazteak, Frantziatik ba-rrena Iparraldera iritsi eta, berriro Azkoitira bueltatu nahian, nola egin zen kargu Irungo familia bat beraz eta bere alaba txiki Lidez, ezertaz ezagutzen ez zituztenean. Haiei esker Azkoitiratu ziren ama-alabak. «Leku guztietan dago jende ona» zioen amamak pasarte hura kontaktzen zuen bakoitzean.

Egia esan, zorte handia izan dut *aittitte*, amama eta izekorekin bizitzean. Horri esker barneratu ditut gerra aurreko belaunaldi haren izate, balio eta bizimoduari aurre egiteko moduak. Kate baten zati sentitu naiz, alegia; historia kolektibo baten parte.

Zergatik diodan hori? Ume-umetatik begi zabal-zabalekin entzuten nielako. Eta ondorioz, balio jakin batzuen jabe bihurtuz hezi nintzelako. Etxeko sukaldeko sutatik, transmisioan hain garrantzitsua den argi izpitik, zetozkidan balioak, alegia. Eta hor, argi dago ezinbestekoa izan zela emakume abertzaleen papera, ama eta amamen papera; benetan garrantzitsua.

Zer ikasi dugu belaunaldi horretatik? Zer jaso dugu? Zein dira izeko Julenek eta haren antzekoek eman diguten lekukotzaren ezaugarriak?

Hainbat dira, baina gorrotorik eza azpimarratuko nuke aurrena. Pasatutakoak pasatu, jasandakoak jasan, sufritutakoak sufritu, ez nuen nik gorrotorik sumatzen izeko Juleneren begietan. Jarrera irmoz, une bakoitzean behar zena egindakoaren lasaitasuna baizik ez.

Sartu ere horrelaxe sartu baitzen politikan. Xabier Euzkitzek Mikel Atxaga zenak koordinatutako *Bidegileak* sailean jasotzen duen moduan, aurrez aipaturiko Iñaki Anasagastik eginiko elkarrizketari jarraiki, honela zioen izeko Julenek, hainbat mitinetan egindako aurkezpen-lanak kontuan izanda: «Ekintza prosetetistera joaten jarraitu nahi nuen galdetza etorri zitzaidan Aita Estefania, jesuita. Geroxeago harekin eta beste zenbait jesuitarekin bilera egin nuen, eta Euzkadiren alde zerbait egitera behartua nengoela esan zidaten. Gainera, baliabide harrigarriak jarri zituzten nire esku: Loiolako artxibategia, liburutegia eta jakintza guztia». Hortik aurrera, Jose Antonio Agirre lehendakariarekin, Leizaola lehendakariarekin edo Manuel de Irujorekin izan zen mitinkide. Baita Esteban Urkiaga «Lauaxeta»rekin ere, eta hark jarri zion «Urretxindorra» goitizena.

Hil berri den haren lagun Genoveva Aldalurrek zioen moduan: «Julenek bazuen aparteko zerbait. Berezko dotorezia zuen, ahotsak ere asko laguntzen zion, eta oso ondo adierazten zituen ideiak. Edukatua baina, aldi berean, indar haundikoa».

Hori izan zen asteko mitin bat ematearen arrazoia, gerra iritsi arte. Bazuen, ordea, bereziki oroitzen zuen mitin bat Julenek; oso barrenean zeramana. Bilboko Euskalduna pilotalekuan emanikoa, alegia. Horrela

zioen Iñaki Anasagastiri emaniko elkarrizketa hartan: «EABren propaganda-batzordeak Euskal Amari omenaldia antolatu zuen, Bizkai Buru Batzarrak babestu zuena. Euskalduna pilotalekua leporaino bete zen, milaka izan ziren mitina kanpotik jarraitu behar izan zutenak, barnean lekurik ez eta. Luis Arana Goiri izan zen buru, Sabinoren anaia. Maria Teresa Zabalak, Polixene Trabuduak eta nik neuk hitz egin genuen».

Huraxe zen Batzokitik zigarro-paketea ekartzen nion eta Ameriketatik etortzen zen izeko, beti ahizpari eta gure izeko Joseberi besotik helduta. Urteak bete ahala barnerratu nituen kontatzen ari naizen gorabehera hauek guztiak; baina egurrezko besaulki hartan eserita zegoela, gerora izena jarri nion sentsazio bat banuen gorputzean, nahiz hamar urte ez izan: inork zapuztea lortu ez zuen duintasuna.

Zerbait baldin bazen, duina baitzen izeko Julene, eta harekin baita belaunaldi hura ere. «Buru beti tente» zioen. Egindakoaz lasai dagoen hari ateratzen zaion barne-patxada horrekin, harro bere jatorriekin, sendo bere abertzaletasunean. Esanak esan, besteekiko gorrotorik ez. Eta itxaropentsu, beti esperantzan. Aurrera begira, aberria pausoz pauso egiten denaren ziurtasunarekin. Pausoz pauso, baina beti aurrera!

Ildo horretan, bazuen gure izeko Julenek pasarte polit bat itxaropenaren inguruan. Berak zioen inoiz ez zuela pentsatzen, erbesteratu ondoren, bizia Venezuelan emango zuenik. Segituan bueltako zen esperantzan joan zen; baina, nahiz eta sorterrira bisitaren bat edo beste egin, Caracasen bertan hil zen, bere Azkoitia maitetik urrun, 1983an.

Aita ez zuen ikusi berriz bizirik, eta aberrira bueltatzearen itxaropen-sugarra piztuta nola mantendu zuen galdetzean, honako hau zioen: «Gauen, Caracaseko zerura begiratzean, gauza bat esaten nion neure buruari. Ikusten ari naizen ilargi bera ikusiko dutela nere aitak eta amak ere Azkoititik». Horrek, eta nola ez, fedeak, indar ematen zion, ematen zien. Itxaropena, Euskal Aberrira bueltatzearen esperantza, piztuta mantenduarazten zien.

Eta esperantza horri esker ekin zion, besteak beste, Caracaseko Radio Euzkadiko esatari lanari. Mitinetan bezala, irratiz ere hizkuntza bakarra erabili izan zuen. Jatorrizkoa zuena, euskara. Beti Euskadiren aldeko lan zintzoan.

Hortxe erakusten du izeko Julenengan islatzen den belaunaldi horrek beste ezaugarri bat: konpromisoa. Zerbait baldin bazen izeko Ju-

lene, konprometitua baitzen abertzaletasunean, aberrigintzan, herri-gintzan. Mitinlari izatetik, gerra garaian erizain lanetan aritzera igaro zen ahizpa Joseberekina batera, EAJ-PNVk Euskal Herritik atera zuen arte. Heriotza-zigorra ezarri zioten, eta Azkoitin ere mezak eman zituzten haren arimaren alde, fusilatu zutelakoan.

Parisera eraman zuten eta han, senarra ezagutzearekin batera, *Eresoin*karen partaide izan zen. Eusko Jaurlaritzak sorturiko taldea zen hura, Euskal Herria mundu zabalean ezagutzera emateko asmoz.

Gure izeko Julene traketsa izan arren kantu, dantza eta musika kon-tuetan, hark ondo zioen moduan —*eta horren lekuko zuzena naiz*— «Urzelaitarrenean, kardantxiloek ere ez zuten kantatzen», halako espi-ritua eta indarra zuen jendearen animoa goian atxikitzeko, Europako hainbat herrialdetan barna ibili baitzen *Eresoin*ka taldean, lanari gogo-tik ekin ziola. Horrelaxe agertu zen garai hartako moda-aldizkari baten azalean ere. Izan ere, edonor txunditzeko gai ziren begi urdin zoragarri haiek.

Zahartzaroen ere —nik ezagutu nuenean— begirada hark bazuen indar berezia, osasun pattalekoa izan arren, barneraino sartzen zen bizi-poza islatuz. Bizitzari aurre egiteko grina zuen. Abertzaleok barneratua dugun «*Lepoan hartu eta segi aurrera...*» hori laburbiltzen zen izeko Ju-leneren begi urdin haietan.

Horixe etorri zait burura izeko Juleneri eta Joseberi Sondikako aire-portuan hegazkinera igotzean —ia hegazkinaren pareraino iristen zinen garai hartan— argazki bat atera niela gogoratzean, osaba Joxeleonek nire jaunartzean oparitutako *Agfamatik pocket* harekin —botoi gorri bat zuen, eta kamera bera mugituz *rist-rast* pasatzen zuen karreta—. Huraxe izan zen izeko Julene ikusi nuen azken eguna.

«Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak...» esango luke Letek, Laboaren ahots gozotik. Horixe pentsatu nuen, Sondikako pistan barrena, izeko Juleneren bastoi hari begira. *Eta horixe pentsatzen dut orain.*

Egurrezko makila hartantxe irudikatzen baita hirugarren belaunaldiaren lekukotza. Gurea, alegia. «Jarraituko dugu zuek ereindako bide-tik, izeko Julene eta belaunaldi hartakook. Zor dizuegu» ateratzen zait barne-barnetik Emakume Abertzale Batzari egin zaion omenaldi hone-tan.

Handik gutxira hil zen. Aurretik Carlos Garaikoetxea lehendakariak ere bisitatu zuen ospitalean, eta haren emazte Sagrario Mina etorri zen Azkoitian ospatu genituen hileta-elizkizunetara. Gogoan dut oraindik eliza-atarian nola egon ziren lehendakariaren emaztea eta neure ama izeko Julenez hizketan, alboan —nagusien kontuak izan arren— entzuteko eta ulertzeko saiakera egiten nuen bitartean. Harro sentitzen nintzen izekoz.

Bukatzeko, izeko Juleneren lagun zen Maite Baztarrikaren hitzak, nire egiten ditudan hitzak: «Juleneri buruz zer esan? Emakume harrigarria zen. Euskal Herri osoa konkistatu zuen». Ni, behintzat, konkistatu ninduen: urkoarekiko gorrotorik gabe, duintasunez, itxaropenez, konpromisoz, eta beti aurrera eginez. Azken finean, abertzale izanez.

Agur eta ohore izeko Julene eta harekin batera joanak zaizkigun garaikide guztiak; bereziki, Emakume Abertzale Batzakoak!

Katea ez da eten.

## Julia Askorbe

Erkuden Goikoetxea Askorbe

Soy Erkuden Goikoetxea Askorbe y agradezco poder decir cuatro cosas sobre mi madre. Momentos que vividos son siempre más fuertes de lo que se refleja en un breve y sesgado relato.

Mi madre era Julia Askorbe. Nació en Iruña el año 1915 y allí vivió hasta que el 1941 se casó y se fue a Alsasua porque mi padre era el farmacéutico del pueblo.

No tengo «grandes cosas» para contar.

No fue una mujer destacada en el Partido Nacionalista Vasco, pero su espíritu y talante nacionalista hicieron que se las arreglara para poner su granito de arena en el mundo abertzale. Recordaba perfectamente la sede de Zapatería 50 y lo que por allí se iba fraguando. No mantuvo todo contacto como hubiera querido con sus amigas de Iruña aquella época, porque al estar en Alsasua y tener siete hijos... como que ya estaba bastante ocupada.

Era maestra (profesión que nunca ejerció) y en su juventud formó parte del grupo de mujeres de Iruña, preocupadas por asumir y difundir el espíritu nacionalista y el euskera. Parece que ella algo aprendió, y siempre aparentó saber más de lo que sabía... Eso es bueno, verdad?

Durante la guerra colaboró como enfermera voluntaria, formada para esa tarea de manera rápida para poder ayudar.

Mi padre era un republicano convencidísimo, así como el resto de sus hermanos que fueron militantes comprometidos.

Y allí cayó ella, casada con el más pequeño de cinco hermanos... ¡Mira que para hacerse hueco ...! No tuvo que ser fácil. Además cuando



se casó se encontró en un pueblo —muy duro durante la guerra— y en el que seguramente era complicado convivir con libertad.

Yo creo que por decisión expresa o tácita (eso nunca lo supimos) en casa se evitaba todo comentario que pudiera generar cualquier tipo de discrepancia política entre mis padres.

Mi madre iba dejando su impronta como podía. Hay algunos hechos puntuales que lo revelan:

Cuando nació yo que era la tercera hija, (1945) decidió ponerme de nombre Erkuden, con la consiguiente extrañeza de la gente..

Hasta entonces no se había registrado este nombre. ¿Porqué a nadie se le había ocurrido, o porque nadie se atrevió? Corresponde a una virgen que hay a la salida del pueblo y que no tiene una clara traducción al castellano. Pues así lo quiso ella

Recordemos que eran tiempos en lo que las mujeres guardaban «cuarentena», y al menos en Alsasua, no asistían al bautizo de sus hijos. Y al no poder estar presente, no sabía si podría sacar adelante su deseo. Por eso, encargó que defendiera su idea a la señora que le ayudaba en casa y que mandaba mucho... No fue tarea fácil por la oposición de mi madrina (devotísima de San Antonio) y el recelo del cura del pueblo... Al final se llegó a un amigable acuerdo. El nombre completo sería María —innegociable para el cura— Erkuden —el deseo de mi madre— y Antonia —para dejar contenta a la madrina—... Por supuesto para su satisfacción siempre me llamaron sólo Erkuden.

Este fue un detalle revelador de su postura en defensa del euskera. En unos 10 años no hubo nadie con ese nombre, aunque ahora ya es muy frecuente. Pero todos sabían en el pueblo que ella había abierto camino.

- En nuestra casa, se bendijo en euskera: Onetsi jauna eguneroko janaria... Y todos: Amen. También mi padre, sin decir jamás si le parecía bien o mal.
- Los villancicos que nos enseñó y que recordamos de nuestra infancia fueron en euskera. Y las felicitaciones de Navidad, que hacíamos para nuestra familia, llevaban un hermoso Zorionak.
- Cuando éramos pequeños por cualquier motivo nos vestía de caseros. Así lo reflejaban las fotos que nos hacía con un corderito,

en la nieve, etc. Las chaquetas de cuadros con corazones, los *kai-kus*... ¿quién las llevaba? Pues nosotros. Ella se atrevía y disfrutaba.

- Muy orgullosa, usaba expresiones y palabras en euskera que ahí quedaban. Como decía, no sabía mucho, pero lo rentabilizaba un montón. En este aspecto decir que años más tarde se encontró con una compañera del bachillerato, que era de Leiza y que llegó a Alsasua como profesora del Instituto. Pertenecía a las «emakumes» de Leiza y a esa sí que le apoyó, en lo que pudo, para fomentar el euskera.

Para valorar su postura hay que contextualizar todos estos detalles en el ambiente un tanto hostil de Alsasua en los años 40 y 50...

Por otra parte, en Alsasua participó activamente y con autoridad, en los grupos que organizaban tareas de formación a través de clases de cocina, de alfabetización, de costura, etc. Entonces todas estas actividades se hacían a través de la parroquia.

Siempre se sintió orgullosa de este sentimiento nacionalista y tuvo un PREMIO cuando uno de sus hijos llegó a formar parte del Gobierno Vasco y a ser alcalde nacionalista ;de Alsasua!.

Seguro que si ella me oyera añadiría un montón de cosas... pero yo aquí me quedo, agradeciendo en su nombre poder participar aquí con esta pequeña aportación.

## Haydée eta Polixene

Elixabete Garmendia

Emakume Abertzale Batzako kideen zereginik ezagunena, mediati-koena, hizlari eta propagandista gisa egin zuten agerpena izan zen. Gerra aurretik, Pizkunde betean, hiru deialdi izan ziren 1933ko bozetarako: udal-hauteskundeak udaberrian, Gorteetako diputatuena azaroaren 19an, eta Estatutuaren plebiszitua bi aste lehenago. Euzko Alderdi Jeltzaleak indar guztiak jarri zituen kanpaina horietan, emakumeenak barne; hor gorpuztu zen emakume mitinlarien figura, ospea eta sona ekarriko zien plaza-andreena.

Mitinlari haietatik bi ezagutzeko aukera izan nuen: Haydée Agirre, 1988 inguruan, eta Polixene Trabudua, 2000. urtean; azken hori Jaurlaritzaren *Bidegileak* sailerako biografia egiterakoan. Biak, erbestetik itzultita, azken urteak Euskal Herrian igarotzera etorriak ziren. Adinean oso aurreratuta egon arren, bizi-bizi gordetzen zituzten gerra aurreko eta inguruko oroitzapenak, azken batean, hura izan baitzen haien ibilbidean aldirik bete eta erabakigarriena.

Argazki ezagun batean biak elkarrekin ageri dira, beste bi mitinlari-ekin batera: M. Teresa Zabala (Bilbo, 1911) eta Julene Urzelai (Azkoitia, 1912). Izan ere, lauak izan ziren hizlari 1933ko otsailaren 5ean Bilboko Euskalduna frontoian ospatu zen «Euskal amari omenaldia» deituriko ekitaldian. Lehen aldia izan zen, gainera, emakumezkoek soilik hitza hartu zutena.

Omenaldi hura mobilizazio andana baten ondoren zetorren. Haydée Agirre (Santurtzi, 1907) Larrinagako kartzelan preso sartu zuten lehen emakumea izan zen, 1932ko abenduan. Handik hilabetera, Haydée bera eta Polixene Trabudua (Sondika, 1912), biak bidali zituen presondegira Bizkaiko gobernadore zibila zen José María Amilibiak. Bermeon egin-

dako mitin batean independentziaren alde hitz egiteagatik isuna jarri zien gobernadoreak; hura ordaindu ez, eta horregatik atxilotu zituzten. Jokaldia ez zitzaion ondo atera gobernadoreari: bi emakumeen alde piztu zen elkartasun-uholdeak biderkatu egin zuen haien fama. Historiara pasatuko zen Haydée eta Polixene Larrinagako kartzelan, burdin hesiaren atzean, ageri ziren argazkia.

Haydée eta Polixene jeltzaleen sektore erradikalenekoak ziren; *Jagi-Jagi* kolaboratzaileak biak. Polixeneren artikuluetan bada bat bereziki esanguratsua, izenburutik hasita: «Soy revolucionaria» (*Jagi-Jagi*, 1934). Idatzi horretan, Gandhiren doktrina aldarrikatzen du Trabuduak, desobediencia zibila. Bere irekitasunaren froga garbia. Mitinetako grabaziorik ez dago, ez soinuzkorik eta ezta irudizkorik ere; argazkietan eta prentsan bakarrik topa daitezke hitzaldi haien oihartzunak; horiek oinarri hartuta, erakarmen handiko hizlari sutsu gisa irudika daitezke emakume mitinlariak.



Lehertu zen gerra 1936an, eta hor beste paper batzuetan ikusiko ditugu bi emakumeak. Haydée erizain aritu zen Basurtuko ospitalean eta Ertzaina Igiletuan (motorizatuan). Berak kontatzen zuen Ertzainen larrazko txamarrarekin janzten zela, eta pistola ere erabiltzen zuela. Eta gehiago: gerra ondoren Madrilen burdin estraperloa egiten ibili omen zen, erresistentziarako dirua ateratzeko. Hartan, polizien esku erori eta haietako batek —Zarauzko emaztea zeukan udatiar batek— utzi zuen aske, lehenbailehen hankak jasotzeko aginduta. Poliziak bazekien nor zen Haydée Agirre; jakingo zuen, baita ere, aita, itsas merkataritzako kapitaina, Santurtziko alkate izana, fusilatu ziotela. Haydée konbentzitura zegoen aita beregatik hil zutela, alaba mitinlariarengatik.

Polixenek *Crónicas de amama* liburu autobiografikoan kontatuta dauzka gerratik ihesi ibilitako zalapartak. Senarra, Jose Mandaluniz, Athletic-eko jokalaria ohia, gudari zebilen, eta hiru haur zeuzkaten ordurako. Laugarrena La Roseraien izan zuen Polixenek, Jaurlearitzak Miarritze eta Bidart artean jarri zuen ospitale hartan. Sondikako lehen andereñoa izan zen hura, aurretik Donibane Garaziko zitadelan gerrako haurrentzat antolatutako udalekuetan irakasle aritu zena.

La Roseraien topo egin zuten Polixenek eta Haydéeek, azken hori erizain zebilela. Gerora Parisen ere bai, eta han kontatu zion Haydéeek Polixeneri bere istorioa, Mirentxu alaba izan zuenekoa. Haydée ama ezkongabea zen, garai eta giro hartan. Haydéeek, berrogeita hamar urte geroago, adierazten zuen bera ez zegoela ondo ikusia bizimodu tradizionalagoa zeramatenen aldetik.

Bukatu zen gerra, eta haren inguruan sortutako erakunde eta taldeak. Polixene udalekurik gabe geratu zen eta Haydée *Eresoinkarik* gabe, han ere ibili baitzen aldi batean. Erbestean bizitza berriro antolatu beharra zegoen, II. Mundu Gerra zetorkion Europa hartan.

Haydée hogeita hamar urtez bizi izan zen Andorran, antigoalekoen denda bateko arduradun. Polixene, Frantzian zehar ibili eta gero, Bilbora itzuli tarte labur batez, eta Venezuelara joan zen azkenena; ia berrogei urtez bizi izan zen han. Bere lanbideari ekin zion, irakaskuntzari, eta urteetan irakasle izan zen Sabanetako kartzelan, arrisku handiko presoan artean.

Polixenek idazten jarraitu zuen, eta horren emaitza dira argitaratuta dauzkan bi liburuak: *Artículos de amama* eta *Crónicas de amama*; bere ibilbidearen testigantza ematen du horietan, oso modu koloretsuan, bi-

zipenez eta sentipenez beteta. Bere bilakaera ideologikoaren eta bizi-bilakaeraren ispilu dira bi liburu horiek.

Adinean aurrera zihoazela itzuli ziren biak, Haydée eta Polixene, Euskal Herrira. Eta biengan suma zitekeen halako etsipen puntu bat. Badago hor alderdi pertsonal bat: ia inork ez zituen ezagutzen hain famatu izandako mitinlariak. Bestetik, hura ez zen haiek amestutako aberria. Estatutua, Jaurlaritza, ondo, baina haiek independentziaren alde borrokatu zuten. Adin handikoak izan arren, biak emakume modernoak ziren, egunera zeudenak, irekiak, eta borrokalari sena galdu gabe-koak.

Emakume Abertzale Batzak eskaini zien plazara ateratzeko aukera. Gerraren ondorioak eraman zituen mundu zabalera. Beren giro eta garaiko hesiak apurtzen jakin izan zuten. Eredugarri gertatzen dira, gaur egun ere, Haydée eta Polixene.

## Alicia de Aretxabaleta Mendia: emakume aurreratua bere sasoirako

Iosu Madariaga Garamendi

UPV/EHUko Irakasle Titularra eta Alicia de Aretxabaletaren iloba

Alicia de Aretxabaleta Mendia Bilboko Alde Zaharreko Barrenkale 4an jaio zan, 1901eko irailaren zan, uriburuko merkatari-familiaren babespean. Patxo de Aretxabaletaren eta Alberta Mendiaren alaba zan, eta emakume bakarra izan zan lau neba-arreben artean —euretako bat, Alberto, Aliciak 16 eukazala hil zan—. Colón de Larreategui kalean bizi zan, sasoiako hezkuntza formal eta erlijiosoa jaso eban eta, 7 urte eukazala, musika-ikasketak egiten hasi zan Bizkaiko Akademian.

1909. urtean-edo, 8 urte eukazala, umeen abesbatzako kidea zan, eta 1904an sortutako Euzko Gaztedi alkarteko antzerki-taldearen antzezlanetan parte hartzen eban. Abesbatza horretako hezitzaile eta prestatzailelea Martín Pérez de Anuncita organu-jolea zan. Lehenengo biderrez, Alfredo de Etxaberen «*Mil metros de película*» lanean abestu eban, eta, urte batzuk geroago, Etxaberen beste lan batean be parte hartu eban: «*Lide eta Ixidor*». Lan horretako musikea Santos Intxaustirena zan, eta, sasoi haretan, piano-irakaslea zan.

1911. urtean, Lehen Jaunartzea egin eban Done Bikendi parrokan, eta, urtebete geroago, bibolina ikasten hasi zan. 1914an, Bilboko Cervantes Eskolan amaitu ebazan ikasketak, eta, 1915ean, Epalzaren Alarguna bekea emon eutsien, Irakasle Ikasketak egiteko. Bilboko Udal Artxiboan adierazoten danez, 1915eko urriaren 27an, udalak honako erabaki hau hartu eban, Instrukzino Publikoko Batzordearen txostenaren arabera: «*Acuerdo por el que se costea a Alicia Arechabaleta y Mendia la carrera de maestra superior en la Escuela normal de la villa*».

1918an, Aretxabaleta-Mendiatarrak Bilboko Alde Zaharreko Banco España kalera joan ziran bizitzen. Hori dala eta, are gehiago hurreratu



Bibolina jotzen (1912)

zan Posta kaleko Euzkeldun Batzokijaren eta, batez be, Bidebarrieta kaleko Euzko Gaztediren inguruan gazteentzat garatutako jardueretara. 1919. urtean, euskera ikasten hasi zan Atxuriko Arte eta Ogibideen Eskolan, eta Evaristo de Bustinza, «Kirikiño», izan zan bere irakaslea. Hurrengo urteetan, euskera ikasten ibili zan buru-belarri. Holan, bada, 1920an Auzuneko Eskoletarako oposizinoak gainditu baebazan be, ez eban lanpostua hartu.

Urte hareetan, Alicia de Aretxabaletak bete-betean parte hartu eban Euzko Gaztediko antzerki-taldean. Euren jardueria bizi-bizia zan, eta Alfredo de Etxabek eurentzat idatzitako lanak antzezten ebezan. Era berean, Nicolás Viarren, Luis González-Txabarriren eta Ricardo Gilotxeren lanak be antzeztu ebezan. «*De la vida rústica*» lanean, Alicia bera aktore nagusia izan zan lehenengo biderrez, eta «*Simoneta de Artabe*» izan zan bere pertsonaia. Horrezaz gainera, Manu de la Sotaren «*Aquel Bilbao de nuestros padres*» bakarrizketa be antzeztu eban Aliciak.

Halanda be, beharbada «*Pedro Mari*» lana izan zan arrakastatsuen —ikus-entzuleen kopuruari begira, behintzat, askotan antzeztu behar izan eben-eta—. Etxabek Arturo Campiónen kontakizunari buruz egindako egokitzapena zan, eta 1922an estreinau eben. Aktore nagusiak Alicia





Seguran, euskera ikasten (1921)

de Aretxabaleta, «*Anita de Urtasun*» moduan, eta Lucio de Aretxabaleta izan ziran —edozean be, ez ziran senitartekoak—. Antzezlan hain arrakastatsua izan zanez, birea egin eben Euzkadin zehar. 1923ko maiatzaren 26an, Bilbotik lau autobusetan urten ziran Gipuzkoarantz. Egun horretan bertan, estreinaldia egin zan Donostian, eta, honako hauxe agertu zan uriko urte-liburuetan: «*Un notable Cuadro Dramático bilbaíno —del que eran primeros actores Lucio y Alicia de Arechavaleta— estrena esta noche en el teatro del Príncipe la versión castellana del melodrama «Pedro Mari», de D. Alfredo de Echave, obteniendo un gran éxito*». Gero, Iparraldera, Iruñera, Gasteizera... be joan ziran. Birea amaitu ostean, Bilbora itzuli ziran urte bereko bagilaren 8an-edo.

Dana dala, Euzko Gaztedi alkartearen jarduerak ez ziran antzerkira mugatu. Esate baterako, familia behartsuei laguntzeko Euskal Jantzitegia antolatu eben, eta era guztietako jarduera kulturalak be bai: arratsaldiak, berbaldiak... Hain zuzen be, 1922ko apirilaren 10ean Ambrosio Martín O'Daly irlandarrak emondako berbaldiak Euzko Gaztedi alkar-teko emakumeen artean eragin handi-handia euki ebanez —bertan, emakume irlandarren jardueren barri emon eban, eta, beharrezkoa izan ezker, edonora joateko prest egozala eta seme-alabei aberriaren



«Pedro Mari» antzezlanean aktore nagusia, «Anita de Urtasun» (1924)



Antzerki taldeko bidaia (1923)

inguruko maitetasuna igorten eutseela azaldu eban—, emakume irlandarren antzera lan egiteko alkartu ziran berehala.

50 bat emakume gaztek emon eben izena, eta Emakume Abertzale Batza sortu eben. Alicia de Aretxabaleta lehenengo batzarreko idazkari aukeratu eben. Bagilaren 25ean, Sabino Aranaren omenez Sukarrietan egindako ekitaldian, Emakumeen Ikurrina bedeinkatu eben. Zuria zan, eta ikurrintxua eukan ezkerreko goiko aldean. 1923ko irailean diktadurea heldu zanez, talde hori desegin egin zan, eta Euzko Gaztedi zein beste alkarte batzuk be bai —halanda ze, 17 hilebetez baino ez ziran abian egon—.



Euzko Gaztediko txangoa (1927)

1931ko bagilean, sortzaileak alkartu ziran barrero, gazte guztiei dei egin ostean barrero be jarduerak antolatzeke asmotan. Orduan, 520 bat emakume alkartu ziran, hasieran. Alicia de Aretxabaleta batzarreko idazkari aukeratu eben barrero.

Euzko Gaztedi alkartean bete-betean garatutako lanaz gain, Alicia de Aretxabaleta lehenengo Bilbao Orkestra Sinfonikoko (1922-1933) bibolin-jolea be izan zan. Lehenengo urte hareetako jardueria, osteria, ez zan profesionala. Era berean, korda-laukotea be osotu eban Pilar de Arambarrigaz (bibolin-jolea), Juan Carlos Isusigaz (biola-jolea) eta Pablo Elolagaz (biolontxelo-jolea), eta Euzko Gaztedik antolatutako arratsaldiak alaitzen ebezan.



Bilboko Orkestra Sinfonikoa sortu zanean, bibolina jotzen (1922)

Euzko Gaztediren esparruan, Alicia de Aretxabaletak José Antonio de Garamendi Ansa ezagutu eban, eta, 1925ean, senar-emaztegai egin ziran. 1931ko maiatzaren 7an, 29 urte eukazala, José Antoniogaz ezkondu zan Begoñako basilikan. Egun horretan, bere neba Hector be ezkondu zan leku berean. 31 urte eukazala, lehenengo biderrez izan zan ama, eta familia ugaria osotu eban, bi seme eta lau alaba euki ebazan-eta. Gerra Zibilean, bere familia senarraren laguntza barik atera behar izan eban aurrera. Senarra, hain zuzen be, Frantziara erbesteratu behar izan zan, eta, 1940an itzuli zanean, espetxeratu egin eben. Bere aita 1954an hil zan; eta bere ama, 1959an, lehenengo bilobea jaio ostean. 1981ean, urrezko ezteiak ospatu ebezan; eta, hamar urte geroago, diamanitezkoak, euren lehenengo birbilobak jaio ziranean. 1997an, senarra hil jakon, 94 urte eukazala, ia-ia zazpi hamarkadatan alkarregaz bizi ostean.

Alicia de Aretxabaletak bete-betean parte hartu eban XX. gizaldia-  
ren hasierako emakumeen arlo publikoen konkistan, sasoiko adierazpen  
kulturaletan eukitako agerpen nabariaren bitartez. Ezelako zalantza bar-  
rik, bizimodu hori eroan ahal izan eban, familia jagoteko zeregin tradi-  
zionala beranduko edadean hartu ebalako bere gain —jokabide hori as-  
koz be arruntagoa da gaur egun antxina baino—. Gero, gerrea hasi eta



Alicia de Aretxabaleta eta José de Garamendi (1931)



Urrezko Ezteiak (1981)



BOSaren 75. Urterrunean omenaldia (1997)

diktadura frankistea ezarri zanean, familia baino ez zan bere bizitzako ardatza izan. Familia ugari hori, hain zuzen be, urtero-urtero alkartzen zan Lekeition, irailaren zan, San Antolin egunean, marinel-uriko zaindariaren jaietako egun nagusian, amamaren urtebetetzea ospatzeko.

1997an alargun geratu ostean, musika-zaletasunari ekin eutsan barriro, eta bibolina jotzen hasi zan lehengo moduan. Sasoi horretan, hain



Gudari Egunean  
omenaldia (1999)



Emakume Abertzale Batzaren  
80. urteurrenean omenaldia (2002)

zuzen be, merezidutako omenaldia eskeini eutsien Bilbao Orkestra Sinfonikoaren sorrerearen 75. urteurrenean. Era berean, beste foro batzuetan be omendu eben, eta, euren artean, Emakume Abertzale Batzaren sorrerearen 80. urteurrena nabarmendu beharra dago. Ekitaldia bera 2002. urtean egin zan Euskalduna Jauregian, Aliciak 101 urte eukazala.

Azkenik, 2004ko apirilaren 23an, 102 urte eukazala, bere familia ugariaz inguratuta, nasai-nasai hil zan Bilbon, mendebetetik gorako bizitzan eraldatzen ikusi eban udalerrian, hain zuzen be.

Alicia de Aretxabaleta bere sasoiko emakumea izan zan. Bere hezkuntza, bizitza eta jokabidea sasoiko kanonen arabera izan ziran. Dana dala, bere amaren seteari eta sentikortasunari esker, zeresan handia euki eban herrialdeko bizimodu kulturean, joan dan gizaldiko lehenengo zatian. Era berean, emakume aurreratua be izan zan bere sa-soirako, bere ideia eta ekintza asko bat datozalako gaur egunekoakaz —orain, hain zuzen be, emakumeek euren lekua daukie gizartean—. Behin batean, generoen arteko hezkuntza desbordinari buruz adierazo eban akats bera egin ebala belaunaldi bitan, baina hirugarrenean ez ebala holakorik onartuko, inondik inora. Hori dala eta, gizonezko iloben hezkuntza bardintasunezkoa izango zan, eta, bertan, ez zan sexuen arteko ezelako bereizkeriarik egingo. Halanda ze, norabide biko jabe-

kuntza egia bihurtu zan bere familian bertan, emakumeen zein gizonen artean, alkarren arteko mendetasunik ez eukitean. Adibidea baino ez bada be, Alicia de Aretxabaletak bere sasoiko balioei eutsi eutsen, balio horreek bere oinordekoei igorri eutsezan —zuzentasuna, zintzotasuna, apaltasuna, sinismena, euskaltzaletasuna, abertzaletasuna...—, emakume kritiko eta edegia izan zan eta bere bizitza luze baizen emonkorrean jakin eban bilakatzen.

Gudari Egunean omenaldia (1999) Emakume Abertzale Batzaren 80. urteurrenean omenaldia (2002).

Bere bizitza eta beste horrenbeste emakumerena historian ostenduta geratu ziranez, berreskuratatu eta ondrau egin behar doguz gaur egun, gure herrialdeko historia jazo barriko giltzarriak ulertzeko.

## Gregoria Etxebarria Eguskiza

Begoña Zalduegi

Begoña Zalduegi Etxebarria naz, eta gure ama zan Gregoria Etxebarria Eguskizaren barri emon gura deusuet.

Gure ama Lemoakoa zan, berton jaioa, Lemorieta auzoko baserri batean, 1916an. Zazpi seme-alaben artean, bera zan nagusiena.

Ez dakit noiz hasiko zan gure ama EABren partaide izaten, ezta zergaitik be; baina bere etxean, betidanik, nazionalismoa izan zan nagusi. Bere aita, gure aitite, Lemoako alkatea izandakoa zan, nahiz eta, gerrea hasi baino arinago, itxita izan kargua.





Edozelan be, eta nahiz eta baserritar familia bateko alaba nagusia izan, horrek dakarzan ardura eta lanakaz, kontua da gure ama gazte hasi zala EABren barruan lanean. Gomutan eukozan, oraindino, hil aurretik: gerrea hasi baino lehenago, Tallerreta auzoan, Ariztondotarrak euen tabernaren ganeko pisuan egoan Lemoako batzokia, eta zelan joaten ziran bertora euren laguntza eskeintzera eta bertoko ekintzatan parte hartzera. Sasoi honetan izan eban Polixene Trabudua entzuteko aukerea be, Lemoako zelai batean emon eban mitinean; hain zuzen be, Zubizikuko erreka bestaldean egoan zelaian. Amak gomutan eukon zenbat eta zenbat jende batu zan mitina entzuteko.

Lemoako EABren barruan, ikurrinaduna edo «abanderada» kargua bete eban gure amak. Ohore haundiko kargutzat eukon honako hau, eta halan izango zan, nahiz eta ez deuskun kontau, ikurrina ekitaldi publikoetan eroateaz aparte, karguak beste zeregin eta ardurarik ekarren ala ez.

Gerra hasi aurretik, Igorrekoa zan Isidro Zalduegi Kortadi gure aitegaz hasi zan nobioetan. Baina denbora gitxi izan eben, ia segidan gerrea eta haren ondorioak etorri ziralako ama eta aitentzako. Eta gure aita be atzean geratu ez zanez politika-lanetan eta gerra-denboretan, ba gero bientzako etorri ziran kartzela eta estutasun larriak. Larrinaga, Puerto de Santa Maria eta halako lekuak bete ebezan gure aita eta amaren nobio-denborak.

Gerra hasi zanean, gure ama Lemoan bizi zan. Orduko kontuen artean, sarri aitutzen euskun Kanterean egoan zuloa erabiltzen zala refugio modura, hegazkinak etorten ziranean. Behin, umea jaioten be ikusita eukon gure amak.

Gerra galdu, frankotarrak Bilbon sartu eta handik hilabetera, hasi ziran gure ama eta aitentzako arazo larriak, arazo nahiko ez bada baserritarra izan eta egunero sendia aurrera atera beharra. 1937ko uztailaren 29an, goizeko 8.30ak ziranean, Guardia Zibilak etorri jakiezan etxera. Aititegaitik galdetu, eta Gregoria gure amak esan eutsien Markesastiko zubian egoala lanean eta bera joango zala deitzera. Halan egin eban, eta, bertora heldu zanean, «Aite, guasan etxera, su espetxera eruateko itxaroten dagos guardia sibilek eta» esan eutson gure amak aititeri. Etxera heldu, eta aitite prestau, eta orduan estazinoko medikuaren etxean egoan udaletxera joan zan, Guardia Zibilak agindu moduan. Han, bera-gaz batera, Felix Munitxa, Fernando Zalbidegoitia eta Fructuoso Gaztelu

be batu ziran. Linearako erabiltzen zan autobusean sartu eta Zornotzara eroan ebezan. Ordu batzuk pasa eta handik gitxira, ez aitite bakarrik, gure ama be eroan eben presa. Eta, aititegaz batera, Zornotzako Karmeliten ikastetxean sartu ebezan; eta eurekaz batera Fermin Arrese, Alejo Ereño, Gregorio Ariztondo eta gure amaren EABko kidea zan Mikaela Kamara. Gero, aitite, Fermin, Felix eta Fructuoso, arratsaldeko trenean, Durangora eroan ebezan.

Hurrengo egunean, Fermin, Gregorio, Alejo, Mikaela eta gure ama Lemoako tren-geltokira eroan ebezan barriro, eta, zortziak eta laurdenetan, bai Mikaelak eta bai gure amak, trenean, Bilborako bidea hartu eben. Orueko Txaletean egon zirala kontau euskun, eta gero handik Larrinagako espetxera eroan ebezala.

Abuztuaren 13an epaitu eben eta sei urteko kartzela-zigorra ezarri eutsen, paperetan dinoan moduan «por delito de rebelión». Amagaz batera kartzelara eroan ebezan beste batzuen izenak be gogoratzen ebezan: Feli Amorrortu, Sabina Azueta eta Eduarda izeneko bat, baina honek arinago itzi ebezan libre, eta Mikaela eta gure amak baino ez eben kartzelan jarraitu.

Larrinagatik Saturraranera eroan eben. Ez dakit ikusita daukazuen espetxe honen gainean egindako pelikulea, baina gure amak kontautakoak bat dator. Han bizi ebazanek benetan egun triste eta gogorrak izan ziran. Hango monjak gaiztoak zirala sarri esaten eban; eta tratu txarrak jasan ebezen bertan, baten batek sexualak be bai. Gogorra zan baita be gabaz fusilamenduak ziranean, gehienetan emakume komunisten artean. Han entzuten ziran oihuak ez eukoizan gure amak ahaztuteko.

Bitartean, etxetik, orduan bere nobioa zan gure aitarengandik hartutako eskutitzak eta barriak ziran gure amarentzako poztasun bakarrenetarikoa. Honetariko baten, Puerto de Santa Mariatik idatzitako eskutitzean, gure aitak zera esaten eutsen: «Yo aquí bien. Con mis amigos. Gosea eta zorri handia». Umoretsua eta alaia izan zan beti gute aite, momenturik eskasenetan be. Hamabi urteko kartzela-zigorra emon eutsien Arratia batailoiko gudaria izateagaitik, eta Larrinagan eta Puerto de Santa Marian egon zan. Saturrarango beste pasadizu bat be kontaten euskun amak. Behin, pastela bialdu eutsien kartzelara, eurekaz han egon eta kanpoan ziran batzuk. Eta pastela heldu, heldu zan; baina, eurretarike batek, besteai ezer esan barik, dana jan ei eban. Gure amaren

esanetan, alkartasuna eta antzekoak ziran nagusi kartzelan, baina go-seak eta egoerak eragindako joko zikinak be izaten ziran nonoiz.

Bere egunean ezarritako sei urteetako zigorretik hiru bete ebazan. 1940ko ekainaren 28an, aurreko sententzia berrikusi eta *libertad atenuada*-ko zigorra ipini eutsen: sei hilabeteko kartzela-zigorrera bajatu eutsen kondenea; kalera urten zan, baina hiru urte bete eta gero.

Etxera, herrira heldu ziraneko eguna be ez eukon ahaztuteko gure amak. Bera eta bertokoa zan Mikaela Kamara etorri ziran batera, trenean. Lemoara heldu ziranean, jende asko batu zan eurei harrerea egiteko. Orduko alkatea zanak esan behar izan eban halako harrerea Frankori berari be ez eutsiela egiten; gure amaren esanetan, alguazila ahalegindu zan makilegaz bata eta bestea joaz jendea urruntzen, baina alperrekoa izan eban.

Baina kartzela amaitu eta oraindino gauzak ez ziran errazak izan: urteak pasau ziran eta, oraindino, 1941eko urrian, epaitegitik etorritako agindu baten bitartez, etxeko ondareak zelakoak ziran jakitea eskatzen zan, haren balorazinoa egiteko, antza danez isun edo multaren bat ordaintzeko; beharbada, 1942ko martxoan etorritako 250 pezetako multa, «por responsabilidades políticas». Gure amak gogoratzen eban oraindino 1943an be sarri joan behar izaten ziralda Guardia Zibilaren kuartelera, inspekzioak pasetan. Gerrea, kartzelea eta abarrak amaitu bai, baina errepresinoak jarraitzen eban. Pentsa daigun, gainera, gure amaren etxean bizi zan egoerea ez zala bape erraza. Gure aitite, bere aita, kartzelan zan; bera, zazpi neba-arrebetariko nagusia be, kartzelan egondakoa. Herrian kontu haundiarekin ibili behar; oraindino Guardia Zibilen bigilantzia eta jazarpina jasaten eban. Familiko neba-arreba bi be aita oraindino kartzelan zala hil ziran, tuberkulosiak jota. Ez zan egoera erraza.

1943an ezkondu ziran gure gurasoak, behin aite be kartzelatik urten eta gero, ezarritako hamabi urteetatik hiru beteta. Bedian morroitzan eta Galdakaon bizi eta gero, azkenik, barriro be Lemoara bueltau ziran, Lemorieta auzoan egoan baserria alkilauz.

Ez gerreak, ez kartzeleak, ezta ondorengo diktadoreak be ezin izan eban gure ama eta aiten sentimendua eta kemena ilundu. Oraindino, Francoren garaietan, biak be hainbat lan egin eban, beste batzuk laguntzeko asmotan: besteak beste, amak kontaten euskun dirua batzen ebela oraindino kartzelatan egoazenai bialdu edo laguntzeko. Bere izaerea eta

sentimenduak oraindino zutunik egoazan; eta, bitxikeri modura, nire ustez benetan esanguratsua dan anekdota bat esango deutsuet: behin, Franco Lemoatik pasa zanean, Ulibarriko presea inauguratzeko, gure amak, balkoian, zuria, berdea eta gorria zan mantela eskegi eban.

Amaitzeko, gomutan daukat, oraindino, Franco hil eta gero, mezean zala, alboan bera salatu eban pertsonetariko bat jarri jakonean; abadeak alkarri eskua eta bakea emoteko agindu ebanean, gure amak albokoari begiratu eta, azkenean, eskua emon eutson. Guri kontau euskunean, oraindino be bihotzean eta gorputzaren barruan ziztada sentitzen ebala adierazo euskun.

# Josefina Irujo, emakume baten ibilbide eta testuinguru historikoa

Josu Chueca  
UPV/EHU

Begien aurrean duzun artikulu hau aurkeztu genuen Josefina Irujo hildakoan landu eta Donostian egin zen «Nazioarteko Kongresua, Ikerkuntza Irakaskuntza eta Feminismoa» delakoaren «Emakumeen Historia: egiten ari diren ikerketak» atalean. Ohiko arazo ekonomikoak zirela medio, argitaratu gabe geratu ziren biltzar horretako ponentzia eta komunikazio guztiak. Ordutik hona urte asko igaro dira, eta aldatu beharra izan dugu hitzaurrean idatzi genituen hainbat gogoeta historiografiko. Zorionez, asko aldatu da, onerako, emakumeen ikusezintasuna eta genero horren gaineko isiltasun historiografikoa. Ikerketa ugari, biltzar asko eta, batez ere, historia-atal sendo bat gorpuzten ari da «zokorata» zeuden gai horiek ikergunetzat harturik. Dena den, oraingoz, hutsune handiak ditugu eta arras desorekatua dugu emakumei eta gizonei eman diegun arreta eta lortu ditugun emaitzak. Horren adierazpide izan daiteke aipaturiko Josefina Irujo: politikan oso engaiatua izan den irujotarren familiako partaidea, baina, aldi berean, ezezagunena.

## Josefina Irujo jaio zeneko giroa

Josefina Irujo, familiako gainerako partaideak bezalaxe, Lizarran munduratu zen, 1902ko apirilaren 24an. Daniel (1864-1911) eta Aniana (1866-1950) zituen gurasoak, eta zazpigarrena zen anai-arreben artean. Beste ahizpa batzuk izan zituen, baina oso umetan hil ziren, eta bera geratu zen alaba bakarra.

Familiak euskal nazionalismoarekin izan zuen lotura korronte politiko horren hasieratik bertatik zetorkion. Izan ere, irujotarren aita, Da-

niel legegizona, aritu zen Sabino Aranak izan zituen zenbait epaiketen defendatzaile gisa. Entzute handiko bilakatu zen hark 1902an Aranaren alde egindako defentsa. Horretan, alde juridikoetako mugak gaindituz, esparru politikora eraman zuen epaiketaren funtsa.

Bide batez, irujotarrek oso harreman sendoak izan zituzten, Nafarroan, 1878az geroztik sortu zen «Asociación Euskara de Navarra» elkar-tearekin. Izan ere, elkargo horretako sortzaileen artean zegoen Juana Irujorekin ezkonduetako Estanislao Arantzadi abokatu eta euskaltzalea. Ez da harritzekoa, beraz, Nafarroan 1910az geroztik euskal nazionalismoak lehen urratsak egin zituelarik, Iruñerrian eta Lizarrerian egundoko lana egitea familia horretako partaideek. Azken eskualde horri dagokionez, oso zaila dugu mugimendu horrek izan zuen garapenaren berri ematea irujotarrak kontuan hartu gabe.



Josefina Irujo eta bere neba Andres Buenos Airesen (1991)

Haiek izan ziren lehenetakoak euskaltzaletasunetik euskal nazionalismorako tarte egin zutenen artean, xx. mendeko bigarren hamarkadan. Ordutik aitzinera, 1936ko Gerra iritsi bitartean, ideologia horren bozeramaile eta aldarrikatzaile porrokatuenetakoak. Horiekin, «euska-

ro»en aitzindariak desagertuz joan ziren heinean —Daniel Irujo 1911rako hil zen, eta Estanislao Arantzadi, 1918ko Oñatiko Euskal Ikasketen lehen biltzarra egiten ari zela, han bertan hil zen—, beste belaunaldi batek bermatu zuen lekukoaren txandatzea.

Gehiegikeriarik erran gabe, orduko Nafarroan sortutako abertzale guztien artean, abizen batek hartu zien aurre bertze guztiei: irujotarrenak. Familia horretako anaiarik zaharrena, Manuel, ardura eta ekimen politikoak zirela medio ospetsuen bilakatu bazen ere, bidezkoa da erratea haren lorpen politikoak, gerra iritsi artekoak behintzat, euskal abertzaletasunarekin bat egiten zuen familia baten ahaleginen gailurra zirela. On Manuel Nafarroako ur politikoetan etengabe mugitzen zen ontzi politiko baten branka ezagun izan ziren, haren anaia, arreba eta gainerako familiako zein lagun anitzen ekimenak ere; sekula huts egin gabe, euskal abertzaletasunaren aldeko arraun nekaezin bailiran aritu ziren. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu Josefinaren nekeak zein ardurak.

## Josefina Irujo eta Lizarraldeko EABko jarduera

Dakigunez, II. Errepublikak biziki zabaldu zuen emakumeari zegokion eginbehar politikoa. Bozkatzeko eskubidea eskuratzea ez ezik, emakume anitz ekintza politikoetara ere hurbildu ziren urte horietan. Euskal nazionalismoaren baitan, Primo de Riveraren diktaduraren bezeretan sortu eta gorpuzten hasi zen erakundeak, Emakume Abertzale Batzak, alegia, egundoko garapena izan zuen erregimen errepublikanoak ireki zuen abagune politikoari esker. Alde horretatik, Nafarroa ez zen salbuespena izan eta, urte horietan guztietan, emakume nazionalistek, tokian tokiko elkarteak eratzeaz gain, aktibitate aunitz eramán ziztuzten aurrera.

1931ko udazkenean, urriaren 23an, Iruñeko «Centro Vasco» delakoan egindako bilkuran sortu zen EABko lehen elkarte nafarra. Berehala, bertze hainbertze egin zuten Lizarrako hainbat emakumek. Izan ere, 1931ko azaroaren 5ean, Maria Puy Ruiz de Aldak, Silvina Martinez de Marañonek eta Josefina Irujok «A las mujeres de Estella» izenburua zuen mezua kaleratu zuten *La Voz de Navarra*ren bitartez, Nafarroako Gobernu Zibilean haren arautegia aurkeztu ostean. Horri jarraituz, zenbait egun geroago, Lizarrako «Napar Etxea»n elkartu ziren, erakunde hori martxan

jartzeko eta zuzendaritza hautatzeko. Egunkari jeltzalearen arabera, lehendakaria Carmen Garate zen bitartean, idazkari izendatu zuten Josefina Irujo. Antzeko ekitaldiak burutu zituzten beste herrietan eta, horren ondorioz, beste elkarte batzuk osatu zituzten. Gerra Zibila hasi zenean, hamazazpi zeuden legezaturik Nafarroako Elkarteetako Erregistroan; baina komunikabide abertzaleetan azaldu ziren berrien bitartez, aise antzeman dezakegu beste batzuk aritu zirela urte horietan, nahiz eta legezaturik ez egon.

Lizarraldeko erakundeari dagokionez, Napar Etxearen babes sortu zen, eta handik garatu zituen bere ekimen gehienak. Ez dakigu zehatz-mehatz zer bazkide kopurutara irits zitekeen, ez eta zer-nolako garpena izan zezakeen ere. Militanteen ezaugarriei zegokionez, erran beharra dago bertze bazkide nazionalisten familikoak zirela. Lanbideen aldetik, eta Iruñekoekin konparatuz, oso gutxi aritzen ziren etxetik kanpo aktibitateetan. Adinari zegokionez, Iruñean 20-24 urte bitartekoek osatzen zuten talderik zabalena; Lizarran, aldiz, 25-29koak nagusitzen ziren.

Emakume hauek landu zituzten arloak hiru ataletan laburbil ditzakegu:

- a) Zuzeneko aktibitate politikoan emendatzea emakumezkoek zuten parte hartzea. Erakunde gehienek, eskuinekoek zein ezkerrekoek, beren hizlarien artean emakumezkoen partaidetza ugaritu bazuten ere, horretan nabarmendu ziren Nafarroako EAJkoak eta EABkoak. 1932ko udaberrirako Euskal Estatutuaren aldeko kanpaina gori-gori zegoelarik, makina bat emakumek hartu zuen parte ekintza publikoetan. Orduetik aurrera, iraunkorra izan zen hitzaldi porpagandistikoetan emakumearen parte hartzea. Policarpo Larrañagak gertaera hori azpimarratu, eta hizlari nafarren zerrenda joria plazaratu zuen.

Emakumeek, mitin horietan, beren generoari zuzendutako mezuak bota zituzten, gizarte tradizionalak banatzen zituen rolak errespetatuz. Sutsu azaldu ziren ohiko familiaren aldekoak, eta baita erlijioa hezkuntzaren baitan bermatzearen aldekoak ere. Esate baterako, Dolores Hermoso de Mendoza lizarratarrak, Olejuan emandako mitinean, dei egin zien «ama guztiei, bizitza familiarra mehatxatzen zien arrisku guztiez kontura zitezen». Maria Puy Ugartek eskolako laizismoarekin lotu zuen Estatutuaren



aurkako botoa. Emakumezkoek antzeko ikuspuntu batetik defendatzen zuten afera politikoetan parte hartzea, haxe erranez: «Emakumeek etxeko lasaitasuna uzteak, herrietan barrena propaganda egiteko, ez luke harridurarik sortu behar. Emakumeak bere feminitatearik batere galdu gabe, gizonaren ondoan joan behar du proselitismoaren ardura horretan, etxearen eta familieren hondamena eragozteko».

Hala ere, beste hitzaldi batzuetan, emakumeek aukera izan zuten gaurkotasun handiko gaiak jorratzeko. Orduan, beren parte hartzea ez zen beste hizlarien lagungarri, mitinaren ardatz baizik. Ildo horretatik, aipa dezakegu Josefina Irujok berak Arellanon emandako hintzaldia. Hitzaldiaren luzera eta gaien zerrenda ikusita, erran daiteke interbentziorik funtsezkoena izan zela; izan ere, egun hartan berari egokitu zitzaion Nafarroak bizi zuen une politikoaren azterketa egitea, eta baita Estatutuaren inguruan sortutako eztabaidari ekitea ere.

- b) Euskalduntzearen alde egindako saio eta lanen bultzatzaileak. Bigarren Errepublikaren lehen hilabeteetan, 1918 eta 1920 urteetan Oñatin eta Iruñean egindako biltzarretan, erakunde euskaltzale guztiek eskaerak igorri zizkien lau foru aldundiei eta Ministerio de Instrucción Pública delakoari, elebitasunaren aldeko erabakiak martxan ipini nahian. Maila teorikoan, elebitasunaren oinarri eta onura pedagogikoak onartzen baziren ere, instituzio publikoetatik ez zen inolako aurrerapausorik ematen euskarazko irakaskuntza gauzatzeko.

Utzikeria eta zokoramendu horri aurre egiteko, elkarte euskaltzaleak aginte eta irakaskuntza publikoaren eremutik kanpo aritu ziren II. Errepublikako urteotan, beste hezkuntza-sare baten euskarriak eraikiz. Orduan, euskal eskola izenekoak suertatu ziren egitura berri horren aitzindari. Jo eta ke lan egin zuten, sorreran eta baita funtzionamendua sostengatzen ere, erakunde abertzale guztiek eta, bereziki, Emakume Abertzale Batzaren partaideek.

Lizarran ere, orduko emakumeek egin zituzten lehen eginahalak euskal eskola abiarazteko. Hango EABko partaideek Udalari agiri bat bidali zioten, 1931ko urriaren 17an, dirulaguntza eta leku egoki bat eskatuz euskal katedra bat irekitzeko. EABko buruzagiek ez ezik, emakume andana batek ere sinatu zuen zinegotzietan igo-rritako mezua. Horren ondorioz, eta beste gestio batzuk burutu

ostean, 1932ko martxoaren 10ean hasi zen lehen euskal katedra eta, zenbait hilabete geroago, lehen euskal eskola, Petrita Azpiroz-zen eskutik.

c) Folklorean eta beste kultura-esparru batzuetan egindako lana.

Ez ziren euskararen irakaskuntzara mugatu orduko emakume abertzaleen ardurak. Lizarrako «Napar Etxea», emakumeen eraginpean, hitzaldi-zerrenda luze baten areto bilakatu zen. Besteak beste, hortik igaro ziren euskal nazionalismoak zituen hizlari ospetsuenetakoak; haien artean, andre mitinlari nabarmenak. Esate baterako, Julia Fernandez Zabaleta, Catalina Alastuey, Karmele Errazti, Julene Urzelai... Bertakoek ere –Maria Puy Ugarte, Dolores Hermoso de Mendoza, Josefina Irujo bera...– parte hartu zuten horrelako jardueretan. Aipagarriak dira, adibidez, Lizarrako irakasle eta EABko partaide zen Carmen Goikoetxeak astero eman zituen Euskal Herriaren historiari buruzko saioak.

Praktika kulturalako esparruan ere, Euskal Herriko gainerako lurraldeetan bezala, oso garrantzitsutzat jo zituzten antzerki zein folklore mailan bultzatu beharreko ekimenak, euskal nazionalismoa zabaltzeko asmoz. Lizarraldean gogor ekin zioten bigarren arlo horri. Horretan, EABkoak beste abertzaleekin batera hasi ziren tokian tokiko dantzak berreskuratzen eta beste eskualdetakoak ikasten. Horrela, 1932ko Gabonetan, Emakume Abertzale Batzak prestatuturiko jaialdian, Lizarrako ezpata-dantzariek egin zuten haien aurkezpena. Dena den, EABkoek, abertzale batzuen irizpideei helduz, tokian tokiko dantzak irakasteari ekin zioten. Ezpata-dantzaren hegemoniari kritika eginez, euskal folkloreak zuen aberastasuna eta aniztasuna landu eta kaleratu behar zutela erabaki zuten orduko abertzale askok.

Hori zela eta, larrain-dantzaren aldeko batzorde bat osatu zuten, desagertzeko arriskuan zegoen Nafarroa erdialdeko dantza hari eusteko asmoz. 1933ko otsailetik maiatza bitartean saioak egiten jardun ondoren, Lizarrako zaindariaren egunean aurkeztu zuten dantza eta talde berria. Orduz geroztik, Lizarrako mutiko eta neskatoei dantza haiek irakasteaz gain, antzeko taldeak eratu zituzten Lizarralde osoan barrena. Esate baterako, Iruñean, 1935eko Aberri Egunaren karietara egindako jaialdian, Sesma, Bargota eta Aiegiko dantza-taldeak, aritu ziren.

## 1936ko Gerraren ondorioak. Kartzela eta erbestealdia

Ordurako, iruñeratua zen Josefina Irujo. 1935ean Angel Blancorekin ezkondu zelako joan zen bizitzera Nafarroako hiriburura. Horren ondorioz, Lizarrako ardurak utzi egin zituen eta Iruñeko EABkoekin jarraitu zuen, 1936ko Gerra iritsi bitartean. Nafarroan, jende askorentzat, jazarpenik bortitzena hasi zen, 1936ko gatazkak hartu zituen dimentsio eta ezaugarriak zirela medio. Matxino faxistekin eta militarrekin bat egin ez zutenek egundoko errepresioa pairatu behar izan zuten 1936ko uztailearen 18az geroztik. Lehen une horretatik, eskuindarrak eta armada nafar lurraldeaz bere osotasunean jabetu zirelako, ez zuten inolako aukerarik izan ezkertiarrek, errepublikanoek eta euskal abertzaleek, era antolatuan bederen, Errepublikaren alde azaltzeko. Errepresioaren mende gelditu ziren gehienak, probintziaren mugak zituen kaiola handi batean harrapaturik izanen bailiran. Abagune hartan, arras adierazgarria dugu irujotarren adibidea. Nafarroatik kanpo zeuden anaiek lehen unetik izan zuten aukera legeria errepublikanoaren aldeko joera erakusteko. Aitzitik, Lizarran edo Iruñean zeuden beste senideak (haien artean Josefina, Eusebio, Delfin, Pilar Elizalde, Angel Blanco...) matxinoen menpe zeuden oso laster. Izan ere, altxamendua hasi bezain laster jasan behar izan zituzten eskuineko aginte berriak piztutako gorrotoaren ondorioak. Amesgaitz luze bati hasiera eman zioten egun haietan; askatasuna ez ezik, heriotzaren mehatxua ere gero eta hurbilago sentitu baitzuten. Josefina Irujok oso bizirik zituen, anitz urte geroago, orduan pairatutako estualdiak:

Ni ezkondurik nengoen, eta ordurako Iruñean bizi nintzen. Baina, uda zenez gero, Lizarran geunden. Uztailearen 18an, gure etxea miatu zuten. Lau gazte karlista etorri ziren, txapela gorritz; Lizarrakoak ziren eta ezagunak. Ez zuten aurkitu inongo gizonik etxean, eta han geunden nire ama, Aniana oso adindua, ni neu haurdun, nire koinata Pilar, egoera berberean.

Azkenean, alde egin zuten. Gero, Eusebio eta Mirentxu (Manuelen alaba) etorri zirenean, erabaki genuen Urbasara joatea, egun batzuk pasatzera, gauzak argitzen ziren bitartean. Guk uste genuen, hamabost egunotan, dana bukaturik egonen zela. Biharamunean, nire senarrak hara eraman gintuen. Han familia eza-gun batekin egon ginen, oso ongi... Nire senarra (Angel Blanco) bizpahiru aldiz etorri zen janaria ekartzera. Baina halako bidaia batean atxilotu eta Iruñera eraman zuten. Orduan, denok erori ginen haien eskuetan: Eusebio nire anaia, nire ama, Miren, de-

nok... Iruñera eramán gintuzten. Gizonak kartzelara eta andreak Ursulinetako komentura, baina atxiloturik. Han gelditu ginen, beraz, giltzaperaturik; baina pixka bat geroago, nire egoera ikusita, utzi zidaten etxera joaten, baina beti atxilotu gisa. Eskandalagarria suerta zitekeen komentu batean haur bat jaiotzea. Abuztuaren lehenengo egunak ziren, eta hilabete bat geroago, irailaren hasieran, izan nuen umea. Koinata Pilarrek ere laster izan zuen berea... Gero, hilabete batzuk igaro ostean, Gurutze Gorriak egingako preso-truke baten bitartez, Frantzia aldera atera ginen, 1937ko udaberrian. Senarrak lortu zuen baimena guri Hendaia-raino laguntzeko, baina ez zen itzuli. Han gelditu ginen, zerua eta lurra bertzerik ez genuelarik. Geroxeago, Capbretonera jo genuen eta han egin genituen lau urte.

Espainiako gerra amaitu zen tarte horretan, baina galtzaileen nekeak denbora luzez jarraitu zuen artean. Armada nazia frantziaratzeara zela medio, gauzak berriro okertu ziren euskaldun eta espainar errefuxiatuentzat. Aunitzek, nazismoarengandik ihes egiteko asmoz, bigarren atzeraldia egin behar izan zuten. Orduko helmuga askoz urrunago zegoen kokaturik, itsasoz bertzalde, alegia. Josefina Irujok, haren amak eta bi alabek (Karmenek eta Amaiak) Argentinara jo zuten, euskaldun askok egin zuten antzera.

Izan ere, naziak Pariseratu ziren egun berean, 1940ko ekainaren 11n, Bordeleko kaiatik itsasoratu ziren *Gloire* izeneko pakebotean. Bidaia arras gorabeheratsua izan zuten. Horretaz konturatzeko, nahikoa da erratea sei hilabete behar izan zituztela Atlantikoa zeharkatzen. Bordeletik ekainaren 11n atera baziren ere, ez ziren Buenos Airesera iritsi abenduaren 14ra arte. Ontziarekin izandako arazoak tarteko, etenaldi batzuk egin behar izan zituzten Casablancan eta Dakarren, beste itsasontzi batean, *Ville d'Alger* delakoan, jarraitzeko bidaia.

Urruntasun geografikoa ez zen aski izan haien Euskal Herriarekiko grina itzaltzeko eta, Atlantikoz bertzaldetik bazen ere, diktadura frankista luzean, gogo handiz sostengatu zituzten hainbat ekimen kultural eta politiko, euskal nortasunari eusteko. Hala eta guztiz ere, Espainiako diktaduraren iraupenaren eta gogorkeriaren ondorioz, euskaldun askorena izan zen erbestean hiltzearen patua. Besteak beste, han gelditu ziren betirako Josefina ama, Aniana, 1950ean hilik, eta bere senar Angel Blanco, 1973an. Josefina ere Buenos Airesen eman zuen azken hatsa, 1992ko urriaren 17an, hain zuzen ere.

Dena den, alferrik da Josefina Irujo bezalakoen arrasto historikorik bilatzea. Handikeriaz egin dituzten hainbat liburu historikotan ez baita azaltzen horrelakorik. Gerraren galtzaile izatea, erbestean halabeharrez laketzea, Euskal Herritik urrun hiltzea, abertzale eta emakume izatea... osagai nahiko dira historia ofizialetik kanpo gelditzeko. Horregatik, historia bere osotasunean berreskuratzeke, bere duintasunean barrena izkiriatzeko, ezinbestekoa dugu Josefina Irujo bezalakoak gogoraraztea, eta historiaren orrialdeetara ekartzea.

**Zertzelada biografikoak**  
Izan ziren guztiak ez daude,  
baina dauden guztiak ziren

Gurutze Ezkurdia  
Begoña Bilbao  
Karmele Perez  
Josu Chueca  
UPV/EHU

## Catalina Alastuey Garaikoetxea

Iruñean jaio zen, 1899ko abenduaren 26an. Irakasle-ikasketak burutu zituen San Jose plazako Eskola Normalean. Ikasketak amaitutakoan, San Francisco udal-ikastetxean hasi zen irakasle. Horretaz gain, berak sortu zuen «Asociacion de las antiguas alumnas de la Normal de Pamplona» delakoa.

Iruñean Emakume Abertzale Batza antolatu zutenean, 1931n sartu zen bera zuzendariorde. Hurrengo urteetan, beti izan zituen goi-mailako ardurak. EAJ alderdian ere, hainbat aldiz izan zen ordezkari asanblada nazionaletan, 1935eko uztailaren 25ekoan edo 1936ko urtarrilaren 26koan.

Azpimarratzekoa da Nafar Kontseilu Administratiboa delakoaren partaide izan zela, 1930az geroztik. Lehen emakumezkoa izan zen erakunde hartan, erakunde intelektualen ordezkari hautatu zutenean, aipaturiko datan.

Udal-eskolatik ere bota egin zuten, 1936ko Gerra hasi eta berehala. Urte askoan, eskola partikularrak ematea izan zuen ogibide bakarra, ohiko irakaskuntzatik kanporatua zegoelako.



## Pilare Alba Loiarde

Iruñean jaioa, 1913ko azaroan, baina Goizuetan hezi eta hazi zen. Donostian egin zituen irakasle-ikasketak. EABkoekin harremanetan sartu zen Goizuetan bertan eta, geroxeago, Elizondon. Hantxe aritu zen irakasle, bertako ikastolan, eta harreman oso estuak izan zituen Baztango emakumeekin ere. Gerra hasitakoan, Bizkaira jo zuen, eta Mundedan aritu zen 1936-1937 ikasturtean.

Umeen erbesteratzeaz arduratu zen tarte hartan eta, azkenean, berak ere erbesteratu behar izan zuen, Donibane Garaziko zitadelara, hain zuzen. Hantxe aritu zen irakasle, 1939ko udazkena iritsi bitartean. Itzuli zenean, nahiz eta familia abertzale ezaguneko partaide izan, ez zuen jazarpenik jaso. 1941ean, gainera, lekaike sartu zen Berrizko komentuan. Hori ere lagata, irakaskuntzari heldu zion, hainbat ikastetxe eta ikastolatan, 70 urte bete arte. Ondoren, sorterrira, Goizuetara jo zuen, haurtzaroko erabateko euskal giroan laketzeko.





## Rakel Alda Gorostiola, «Kataliñ»

Rakel Vicenta Alda Gorostiola 1886ko irailaren 21ean jaio zen Getxon. Aita dendaria zuen, Santiago Alda Jubera, Euzko Alderdi Jeltzaleko bazkuna; Larrazabaleko hitzaldian egon, eta, 1906-1908 bitartean, Diputazioko EAJko lehendakari izan zen. Lanbidez enpresen administratzaile izanik —Aznar familiarena ere bazen—, goi-mailako egoera sozioekonomikoa zeukan.

Rakelen amaordea, Claudia Senosiain, eta ahizpa Milagros *Ropero Vascoko* kide izan ziren hura sortu zenetik. Milagros Alda emakume ikasia zen, Estatu Batuetako Smith's College-n bekadun egonekoa 1919-1922 bitartean. 1904-1905 ikasturtean sarrerako azterketa gainditu, eta Bilboko Irakasle Eskola Normaleko Goi-mailako Gradua zeukan. Egiptologian nabarmendu zen, Adolfo Meyer-ekin ezkondu ondoren. Ester Alda Senosiain ahizpaordeak ere irakasle-ikasketak egin zituen.

Rakelek, 1901eko irailaren 24an Nafarroako Irakasle Eskola Normalean sarrera-froga gainditu eta, lehen mailako ikasketak egin zituen; 1902ko maiatzean denak amituak zituen. 1904ko otsailean Bilboko Lehen Mailako irakasleen errebalida pasatuta, 1906ko urtarrilean Lehen Hezkuntzako goi-mailako errebalida gainditu zuen, honako epaimahai honen aurrean: Juliana Agirrezabala lehendakaria, Dolores Lopez Marxel idazkaria, eta Luisa Diaz Recarte, Josefa Briana eta Maria Berasategi kideak.

Rakel Juan Estraderekin ezkondu zen 1909an. Lanbidez etxeoandrea bazen ere, bi neskameren laguntza zuen etxean, zortzi seme-alaben ama izan baitzen; senarra burdin-denda baten jabea zenez, diru-sarrera handia zuen. Gaztaroan irakasle aritu zen: 1906an maistra laguntzaile izendapendun («supernumeraria») izendatu zuten; Maria Jesus Ibaseta

maistra laguntzaile jabe («propietaria») zegoen eskola berean; 1908an maistra laguntzaile aritu zen, lehenik Marzanako eskolan eta, ondoren, urte berean, Larraskituko eskolan. Dimisioa aurkeztu zuen 1910eko martxoaren 18an.

Rakel lehenengotariko emakume abertzalea izan zen, eta «Kataliñ» ezizenez plazaratu zen. 1907an *Aberri* aldizkarian idazten hasi zen Purificación Gorostiza «Garbiñe»k «De colaboración femenina» atala sortu zuenean. Bere pentsamenduan jeltzalea zen; batetik, desagertzeaz zegoen mundu euskaldunaren ohiturak, pentsamenduak, sineskerak seme-alabei irakatsi beharraren alde idatzi zuen, eta, bestetik, industrializazioaren ondorioz erlijioak eta pentsamendu laikoak eragiten zuen mundu berriaren kontra agertu zen. Mirentxu eta Liberekin eztabaidan «Asociación Femenina Nacionalista Vasca» sortzea proposatu zuen, baina, antza denez, proposamena sakonegia izan zen garairako. Libek irtenbide bideragarriagoa aurkeztu, eta martxan jarri zen *Ropero Vasco* zeritzona. Izena eman zuen berehala, berak proposatutako elkartea antolatuko zelakoan. 1922an bete ziren bere asmoak, Emakume Abertzale Batza sortu zenean Bizkaian. Garai hartan ezkondua zegoen, bost seme-alaben ama zen, eta maiatzean jaioko ziren bikien haurdunaldian zegoen. Alargunduta, EABko lehendakariorde izendatu zuten 1933-1935 bitartean, Errepublikara garaian. Emakume aurrerakoia zen, emakumeek etxetik kanpora irten behar zutela esaten zuen, eta gizonekin lankide izan behar zutela aberrigintzan.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU / Emakunde; Bilboko Udal Agiritegia; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia.



## Libe Iñese Altuna Okamika

Bilbon jaio zen 1916ko azaroaren 12an. Joseba Altuna «Amilgain» euskaldunberria eta gerra aurreko euskararen sustatzaileetarikoa, eta Iñes Okamika zituen gurasoak; biak ikaskide aurreratuak izan ziren Bilboko Institutu Zaharreko euskarazko katedran Kirikiño irakaslearekin —R.M. Azkue ordezkoi irakasle 1904-1909 bitatean—. 1911n, *Euskaltzale Bazkunako* gazteak ziren, eta, 1915ean ezkondurik, giro euskaltzale horretan hezi zituzten sei seme-alaba: Libe Iñese (1916), Miren Edurne Karmele (1919), Andima Gorka Iker (1921), Miren Ibone (1923), Miren Garbiñe (1925) eta Miren Keltse (1928). Libek, zaharrenak, Indautxuko Irakasle Eskola Normalean ikasi zuen, eta hiru neba-arreba gazteenek, berriz, Bilboko Belostikale kaleko Eusko Ikastola Batzan.

Libe, gazte-gaztetatik, hamasei urterekin, Bilboko EABn afiliatu zen; gazteenetarikoa zen Nekane Legorburu, Julene Urzelai eta horiekin batera, haien aldean berrogei urtekoak ere bai baitziren. Hizlari oso ona zela, Altuna 'tar Libe izenpean *Euzkadin* idazten zuen euskaraz, eta EABko mitin askotan parte hartu zuen propagandista gisa, horietan ere euskaraz.

Ogibidez irakasle ibili zen Bizkaian. *Euskadi 'ko Agintaritzaren Egunerokoan*, 1937ko martxoaren 18ko Aginduak Mundakako haur-ikastolako irakasle izendatu zuen; baina Gerra Zibila gogortu zenean, eta Bilboko Posta kaleko bere etxea bonbardatu zutela, gurasoek seme-alabak arriskuan ikusi eta erbestera bidaltzea erabaki zuten. Horrela, Libe eta bere ahizpa Miren irakasle egon ziren Donibane Garaziko zitadelan («La Citadelle» izeneko gotorlekuan) ikasle erbesteratuekin. Donibane Garazin zegoen garaian, Libereren neba Andima, 14 urtekoa, ikasle zen bertan. Neba-arreba gazteenak —Ibone, Miren Garbiñe eta Keltse— Ingalaterrako Southampton-era joan ziren. Donibane Garazin urtebete egin on-

doren, 1937ko abuztuaren 10ean, Libe Belgikara abiatu zen Diega Eraso andereñoarekin batera, koloniako hirurogeita zazpi ikasleen bidaia-ardura hartuta.

Erbestetik itzultzerakoan, Berrizko Mesedetako mojen komentuan sartu zen, eta eskolak eman zituen Bizkaiko zenbait herritan. Lehenengo Berrizen, gero Bilboko Otxarkoaga auzoan, ostean Santutxuko Begoñazpi ikastolako zuzendari izan zen eta, azkenik, Markinako Mesedetako komentura itzuli zen. Horietan guztietan euskal kulturaren sustatzaile sutsu izan zen, eta ikasleak etengabe animatzen zituen kultura-jardueretan parte hartzeko edota literatura-lehiaketetan, sekulako garrantzia ematen baitzien jakituriari, intelektualitateari eta euskaltasunari. Libe euskaltzaletasunean murgildu zen bizitza osoan, eta hala ibili zen 1968ko urriaren 3tik 5era ere Euskaltzaindiaren Arantzazuko Biltzarrean parte hartuz.

Erref.: ALTUNA Gabiola, A. (2011). *Joseba Altuna «Amilgain» 1887-1971*, Bidegileak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Argazkia: BARAIZARRA, Luis (2009). *Nire sasoiko Markina-Xemein*, Markina-Xemeingo Udala, 209. orria.

## Elisa Alzola, «Ane Miren»

Elisa Alzola Abadiñoko EABko kidea zen. Esteban Erkiaga «Lauaxeta»k zirikatatu zuen idaztera, eta hark proposatutako «Ane Miren» ezi-zena erabili zuen.

1932an *Euzkadik* zenbaki berezia plazaratu zuen Sabino Aranaren heriotzaren urteurrenean; bertan zetozen Polixene Trabudua, Gloria Zubia «Onintze», Mercedes Kareaga, Sorne Unzueta eta Paulina Ramosen artikulua. Salaketa jaso ostean, merkatutik erretiratu egin behar izan zuten zenbaki hura, Onintzek «*Sólo por Dios ha resonado*» artikuluan independentziaren aldeko oihua jaurti zuela eta. Beste emakume askoren artikulua, «Ane Miren»enak haien artean, egunkari eta aldizkarietan argitaratu ziren, doktrina nazionalistaren aldekoak denak.

1933-1936 aldikoak izan ziren EABko kideek eginiko 120 idazlan baino gehiago, gehien-gehienak euskaraz idatziak eta *Euzkadin* argitaratutakoak. Idazleen artean ziren Julene Azpeitia «Arritokieta», Jule Gabilondo «Maite», Monica de Lekunberri «Mirentxu», «Emakume bat», «Tene», «Emakume aldra», «Mañariko», «Ane Miren», Subiñas'tar Miren, «Josune», «Andereño bat», eta Karmen Gurtubai. 1934ko urtarrilaren eta 1936ko uztailaren artean, *Mendigoxalen*, *Amayurren* eta *Euzkon* ere idatzi zuen; azken horretan denak euskaraz. *Euzkadin*, 1933ko otsailaren 4an, «A ti madre vasca» artikuluan, honela zioen Bossuet aipatuz: «Todos los grandes hombres se han formado sobre las rodillas de sus madres». Bere ikuspegian, amaren lana ezinbestekoa zen abertzaleen hezkuntzan.

Emakumeak EAJko kide izateko eskubidea onartu zen Tolosan, 1932ko abendutik 1933ko urtarrilaren 29ra arte ospatu zen EAJko asanblada nazionallean. Era berean, Euzkal Amari omenaldia antolatu zen, eta ekimen hori izan zen prentsan agertutako zenbait artikuluren gaia.

1983ko ekainaren 2an, omenaldia egin zitzaien Errepublika garaian andereño izandakoei Euba-Amorebietan. Garai horretan, Elisa Alzolak kritika gogorrak jaurti zituen Euskaltzaindiak euskararen batasuna bideratu zuen moduaren kontra, bere burua sabindar aitortuz.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde, (357-358, 514 orriak); «A ti madre vasca», E. 4.II-1933.



## Elvira Aristizabal Vicente

Lizarran jaio zen 1905eko urtarrilaren 25ean, eta bertan hil zen 1990eko uztailaren 5ean. Gonzalo Aristizabal Eraso jostuna zuen aita, eta, aldi berean, zinegotzi izan zen hainbat aldiz eskuin liberalaren aldetik. Elvirak beste bide bat hartu zuen politikara hurbiltzeko, euskal nazionalismoarena, hain zuzen ere. 1918an bere herrian «Napar Etxea» ireki zutenetik, korronte horrek indar handia hartu zuen, eta harekin lerrokatu zen Elvira. Fortunato Agirre bere senarra (1928az geroztik), Errepublikaren bezperetan, EAJko herri-mailako buruzagia zen eta, berehala, Napar Buru Batzarreko partaide bihurtu zen. Lizarran 1931ko ekainaren 14an Euskal Herri osoko udal-ordezkariek bildu zirenean, udal-anfitrioaren ordezkaritza eta eginbeharra burutu zuen Fortunatok, Eusko Ikaskuntzak prestatutako estatutua eztabaidatzeko. Orduan zinegotzi hasi bazen ere, 1933an alkate izendatu zuten. Elvirari dagokionez, Emakume Abertzale Batzaren lehendakariorde izan zen 1935-1936 urteetan. 1931n erakunde hori eratu zutenetik, buru-belarri aritu zen «Gaztetxu» eta dantza-taldeak eratzeko. Horrez gain, jarduera ugari bultzatu zituzten (euskal katedra, euskal eskola, larraintzako dantza berreskuratzea eta finkatzea...). 1936ko hauteskundeez geroztik, berrabiatze politikoa sumatzen zenean (Euskal Estatutuarekin bat egiteko, giza arazoak birplanteatzeko), guztia pikutara bidali zuen udako matxinadak. Fortunato Agirre eta Elviraren familiaren kasuan, 1936ko uztailaren 18an bertan jaso zuten zartada errepresibo ankerra. Fortunato bere herrian, Arellanon, atxilotu, eta Lizarrako kartzelan izan zuten preso. Alkatearen emaztea, beste asko bezala, preso baten emazte bihurtu zen egun batetik bestera. Egunero eramaten zioten jatekoa, irailaren 29ra arte. Egun hartan, kartzelan ez zegoela esan zieten. Gero jakin zuten Taxoarrera eramán zutela, erailtzeko. Elvira alargun gelditu zen, hiru seme-alabekin (Fidelita, Jose Miguel eta Juliantxo) eta beste biren esperoan (Mikele eta Miren). Azken bi horiek Iruñean jaio ziren, azaroan.

Zail zuten herrian egotea, eta pare bat urtean Donostian bizi izan ziren gerra amaitu bitartean. Berrero Lizarraratu zirenean, Elvirak eta seme-alabek Gonzalo aita-aitatxiren babesa izan zuten. Fortunatoren erailketarekin hautsi nahi zuten abertzaletasunaren eta demokraziaren katea ez zen puskatu Agirre-Aristizabal familian; ezta Lizarrerrian ere. Izan ere, urteak igaro eta, herri horretan izandako ekimen euskaltzale guztietan jardun zuten familia horretako partaideek. Elvira Aristizabal 1990ean itzali bazen ere, Fortunatoren alaba hilondokoek lan handia egin dute gerran eraildakoen memoria berreskuratzen.



## Francisca Astibia, «Onintze», «Astitxe»

Francisca Astibia 1900ean jaio zen. Ezkongabea, Bilboko Emakume Abertzale Batzako kide zen, eta Euzko Gaztediko langilea. Olerkaria zen emakumea eta «Astitxe», «Onintze» ezizenez idatzi zuen. Hizlari ere aritu izan zen 1930eko hamarkadan. Bilboko *Euzkerea* aldizkarian argitaratu ziren haren olerkiak. Haietariko bat, «¡Agur Eguzki!», Aita Onaindiaren *Milla Euskal Olerti Eder* bilduma-lanetan dago. Sabino Aranak idatzitako *Libe* euskaratu zuen, «Astitxe» ezizena erabiliz.

1930eko urrian, Euzko Gaztediko Euzkara Batzordeak —Euzkeltzale Bazkunako kidez osaturik zegoenak— euskarazko zortzi klase antolatuta zituen. Haietariko bat Franciscak eman zuen; izan ere, oso ezaguna zen, bere olerkiak eta ipuinak prentsan agertzen baitziren hogeiko hamarkadatik aurrera.

1923-1930era bitartean, eta ostean ere, egunkari eta aldizkari abertzaleetan idatzi zuten idazle emakumeek, gehienak EABko kideak: *Euzkerea*, *Euskal Esnalea*, *Euskalerrriaren Alde*, *Jaungoikozale*, *Euzkadi*, *Diario Vasco*, *Bizkaitarra*, *Argia* eta *El Obrero Vasco*. Haien artean zegoen Francisca Astibia «Astitxe» edo «Onintze» ere. EABko kideek emakumearen inguruko gaiak lantzen zituzten: emakumeen papera, betekizuna eta lekua gizarte abertzalean.

1932ko Aberri Egunari buruzko propaganda-lanetan ere aritu izan zen. Espainiako Errepublikako lehendakari zen Alcala Zamorak Bilbo bisitatu zuen egunean, EABk manifestazioa deitu zuen eta Asaltoko Guardiiek haien kontra egin zuten; emakume erasotuen artean zen Francisca ere (ikus, Teresa Viguera).

1933ko hauteskundeetako garaipena ospatzeko Sabin Etxean egin zen bazkarian izan zen «Onintze», emakume mitinlari eta propagandis-

ten artean. Horretaz *Jagi-Jagi* aldizkarian idatzi zuen artikuluan, hausnarketarako deia egin zuen, gogoraziz hauteskunde-garaipena pausobat baino ez zela askatasuna lortzeko; eta, batez ere, emakumeen egin-beharra azpimarratu zuen helburu hori lortzeko bidean: seme-alaben heziketa abertzalea. Emakumeen aldarrikapen politikoa nabarmendu zuen, ez bakarrik ama eta emazte bezala, emakumeak politikan parte hartzearen alde eginaz.

Hainbat autoreren artean poesia abangoardista egin zezaketen egiileen soslaiaren bila ari zela, benetan halako poemak idatzi zituzten idazleak izan zirela dio Jurgi Kintanak. «Ez dut argitaratu gabeko eskuizkriburik topatu», baina bai topikoak hausten dituzten hainbat poema. Esate baterako, Francisca Astibia «Onintze» idazleak 1930ean *Euzkerea* aldizkarian argitaraturiko poema existentzialak aurkitu ditu. «Emakume jeltzalea zen, katolikoa, baina fedeari buruzko zalantzekin poemak idatzi eta, gainera, argitara eman zituen». «Onintze»ren berri Jon Kortazarrek emana zuen aurretik, «baina haren lanak ez daude inon bilduta».

1932an *Euzkadik* zenbaki berezia plazaratu zuen Sabino Aranaren heriotzaren urteurrenean; bertan zetozen Polixene Trabudua, Gloria Zubia «Onintze», Mercedes Kareaga, Sorne Unzueta eta Paulina Ramosen artikulua. Salaketa jaso ostean, merkatutik erretiratu behar izan zuten zenbaki hura, Onintzek independentziaren aldeko oihua jaurti zuela-eta «*Sólo por Dios ha resonado*» artikuluan.

Erref.: URUBURU, Laura. (1997). *Emakume abertzale batza (1922-1936)*. Bidegileak, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; Oiartzabal, Ainhoa. *Berria*. 2009-06-05.



## Concepción Azaola Kariaga

Concepción Azaola Kariaga 1895ean jaioak Jose Azaola eta Elena Kariaga zituen guraso; aita jabea zen, eta Larrazabaleko hitzaldian gonbitekide. Ama, Elvira Azaola amama zenagaz batera, *Ropero Vasco*ko hasierako taldekidea zen, zuzendaritzakoa. 1928ko zuzendaritzan aurkitu dugu bera, idazkariorde, Sofia Mac-Mahon buru zela. Carlota Olano de Orue zen zuzendariordea, Maria Rugama de Chávarri idazkaria, Jesusa Maguregi diruzaina, eta Crisanta Zumalakarregi, Juana Chalbaud eta Elena de la Quintana bokalak. Emakume horiek, ezkonduak izan arren gehienak, parte hartzen zuten etxetik kanpoko ekintzetan, maila sozial onekoak zirelako, etxeokak edo senarrak enpresajabeak edo industrialak ziren-eta (de la Sota, Chávarri, Orue...). Kultura-maila handikoak ziren; Concepcionen neba Jose Luis ingeniari izateak esaten digu goi-mailako ikasketak zituela.

Emakume gehienak etxetik ziren nazionalista, geroago EABn izena emateagaz ikusiko den moduan. Hala aurkitu dugu Concepción Azaola Bilboko EABko zuzendaritzan, 1935ean hartu baitzuen zuzendariordetza, Rakel Alda eta Juliana Mujikak karguak utzi zituztenean. Urte hartan Teresa Azkue zen batzordeko lehendakaria, idazkaria Jesusa Yarritu, idazkariordea Maria Begoña Solozabal, diruzaina Mercedes Rouse eta bokalak ziren Mercedes Viguera, Ventura Kareaga, Sofia Mac-Mahon eta Concepción Olaziregi. Concha Azaola EABko lehendakariorde izan zen 1935-1937 bitartean. Ez zen ezkondu.

1937an, Bilbo nazionalen eskuetan erori ondoren, EAB berrantolatzen saiatu ziren Bartzelonan elkartu ziren lau lurraldeetako emakumeen artean, eta Concepcion Azaola izendatu zuten lehendakari. Luze-roan Iparraldean erbesteraturik bizi zen. 1953an Bilbora itzuli zen, eta

sekulako lan humanitario egin zuen familia abertzaleen artean. Bertan zendu zen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.

## Angeles Azketa Ezkieta

Iruñean jaio zen 1911n, eta bertan hil zen 2000. urtean.

Beste emakume asko lez, irakasle-ikasketak egin zituen. Dena den, idazkari aritu zen hainbat lantokitan. EABren partaide izanik, ez zuen parte hartu zuzendaritza-taldeetan. Dena den, oso ekimen handikoa suertatu zen «Gaztetxu» zirelakoak martxan jartzeko, eta hainbat unetan (Errege Egunean, Gabon del Solidario...) egin zituzten jaialdietan, dantza-ikastaroetan eta abarretan parte hartzeko.

Era berean, *Jostari* antzerki eta folkore taldeko partaide izan zen. EABko bazkideez gain, EGIkoak eta EAJkoak aritu ziren Jose Goñi Barrondoren aginduetara. Arrakasta handiz antzeztu zituzten «Pedro Mari» edo «Emanuel» antzerki-lanak. Mitinlari aritu zen hainbat aldiz, Julia Fernandez Zabaletarekin, 1933ko hauteskundeetan.

Gerra hasitakoan, anaia (Joakin) eta mutil-laguna (Jose Elizalde) gudariek in joan ziren, eta berak eta beste emakume batzuek San Cristobal eta Iruñeko kartzeletan zeuden presoan aldeko lanak egin zituzten (arropak garbitu eta prestatu, janariak eraman, propaganda, informazioa eta eskutitzak ezkutuan garraiatu), arrisku handiz. Angelesek zor-tea izan zuen, errepresioa saihestu zuelako.

Trantsizioko urteetan, Manuel Irujoren idazkari bihurtu zen eta, ondorengo urteetan, indarra izan zuen bitartean, gogo handiz egin zituen kudeaketa- eta idazkaritza-lanak, Batzokian lehengo eta Elkartetxean gero.



## Teresa Azkue Goroztizaga

La Habanan jaio zen 1889ko abuztuaren 7an, eta Bilbon bizi izan zen. Felix Landabururekin ezkondu zen; 1917an Begoña alaba eta hurrengo urtean, 1918an, Peli semea izan zituen. Urte berean alargundu zen. Alaba, Begoña Landaburu, EABko kide izan zen, mesedetako lekaime Berrizen; eta semea EAJko alderdikide eta jesuita izan zen. Familiatik zetorkion sena: Resurrección Maria de Azkue, Euskaltzaindiako lehendakariaren loba zen, eta ama eta ahizpak *Ropero Vasco*ko kide izan ziren haren sorreratik. Senarra, Felix Landaburu Madaria (1886-1918), EAJren ordezkari izan zen Bizkaiko Diputazioan. Teresaren neba, Fermín, Euzko Gaztediko kide izan zen, eta beste neba, Ramon, Santoñako kartzelan erail zuten frankistek 1937an. Bere ahizpa Isabel EABko kide da Bilbon, eta koinata, Carmen Landaburu, Abandoko Batzokian EABko buruzagitzako kide (1932-1933). Federico Zabala koinatua buruzagi aberzalea izan zen.

Teresa hizlari edo mitinlari aritu zen Errepublika garaian. Bilboko EABko lehendakari izan zen 1932tik 1937ra arte. EAJko Asanblada Nazionalean Bizkaiko ordezkari hautatu zuten 1934ko urtarrilean. Euzko Gaztedik sortutako Junta de Señoras-eko lehendakariorde ere izan zen. Luis Arana Goiriren aurrean, saiatu zen emakume nazionalistak esku-bide osoko EAJko kideztat onar zitzaten, baina ez zuen lortu. Alderdikide egin zen, proposamena onartu ondoren, 1934an; BBBko Gizarte Laguntzako zuzendari izendatu zuten, eta Bizkaiko ordezkari izan zen Asanblada Nazionalean.

1932an, Bilboko EABko buruzagitzan alde batera utzi zituzten *Aberr*i joeraren aldekoak ziren Carmen Errazti «Etxakin», Paulina Ramos, Alicia Aretxabaleta eta Jesusa Fresnedo, eta, haien ordeztan, Teresa Azkue, Juliana Mujika, Jesusa Zubizarreta eta Mercedes Viguera sartu ziren buru-

zagitzan. Sartu ziren buruzagien ezaugarrien artean, nabarmena zen *Aberriko* kide ez zirela eta, beren jarrera plazaratu ez bazuten ere, EAJ/PNVko joera autonomikoaren aldekoa izan zen euren politika. Gerra Zibilaren ondoren atzerriratu egin zen, 1946an Mesedetako erlijiosa sartu Berrizeko komentuan, eta 1973ko maiatzaren 2an zendu zen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; ONAINDIA, Alberto (1983). *El «pacto» de Santoña. Antecedentes y desenlace*, Bilbo: Laiz.



## Julene Azpeitia Gomez, «Arritokieta»

Julene Zumaian jaio 1888ko urtarrilaren 8an; Marcos eta Martina zituen gurasoak. Hiru ahizpa zituen: Maria, Anita eta Catalina. Aita foruzale zen, eta sentimendu hori helarazi zion Juleneri. Hamabost urte bete arte, herriko Karmeldarren ikastetxean ibili zen, eta oso nota onak ateratzen zituen. Handik Donostiara abiatu zen irakasle-ikasketak egiteko asmoz. Irakasle-ikasketen goi-maila, berriz, Bilboko Goi Mailako Eskola Normalean lortu zuen, 1906an, 18 urte bete zituenean. Emakume Abertzale Batzako kidea zen, eta munduan zehar asko ibilitakoa.

Irakasle lanetan Aizarnazabalen hasi zen 19 urterekin. Gustura ibili zen zekiena praktikan jartzen, baina apendizitisak jota hiltorian egon zen eta, bizipen haren ondorioz, handik alde egitea erabaki zuen. Astorki-Txabarri familian etxe-irakasle egon zen 1906tik aurrera. Bizkaiko auzo-eskoletako oposaketetan lehena geratu, eta beste andereñoen ikuskari izendatu zuten; baina urtea pasatu eta uko egin zion karguari. 1911tik 1916ra arte Bizkaiko Ea herrian egon zen. Urte berean, «boterez» Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen. Mexikora senarrarengana joan, eta lau urtean bizi izan zen San Luis de Potosítik hurbil. Han harremanetan jarri zen euskal etxeetako euskaldunekin eta, herriminez, euskaraz idazteari ekin zion. 1920an Bizkaiko auzo-eskoletako oposaketak atera eta eskolaz eskola ibili zen: Zornotzako Deudeako S. Migel eskolan (1921), Mendiola eskolan (1924), Matienakoan (1926). 1930eko hamarkadan, aholkularitza pegagokikoa eta prestakuntza-ikastaroak eskaini zituen Euzko Ikastola Batzan. Gerra Zibila iritsi zenean, jarduna eten behar izan zuen hamaika urtez zigortuta. Berrero lanean hasi zen Diputazioaren Gorlizeko ospitalean (1947), ostean Burgoseko eskoletan (1949-52), eta, azkenik, Markinako eskolan (1955etik 1958ra). Han jubilatzen, 70 urte zituela.



Bere ardura haurrengan euskararekiko maitasuna sortzea zen, bai irakaskuntzan bai idazlanetan. Ehundik gora artikulua idatzi zituen, haurren hazkuntzaz eta hezkuntzaz *Euzkadin*, «Euzkotar Umien Aldez» sailean, «Arritokieta» ezizenaz sinatuz. Sukalde-liburu bat eta zenbait nobelaz gain, umeentzako ipuinak eta irakurgaiak idatzi zituen. Haur-literaturan zegoen hutsunea betetzen ahalegindu zen, idazkera egokiz eta helburu pedagogikoz. Azken urteetan, Loiola Herri Irratian eta Arrate Irratian kolaboratzen zuen, beti euskaraz.

Pedagogo euskaltzale honek aparteko lana egin zuen euskal irakaskuntza bultzatzeko eta umeengan euskararekiko maitasuna susperetzeko. Bizitzan zehar euskararen alde eginiko lana zela eta, ohorezko euskaltzain izendatu zuten 1975ean. 1980ko otsailaren 5ean Bilbon hil zen, 92 urte zituela.

Erref.: AA. AA. (1988). *Julene Azpeitia. Ehun urte mugan (1988-1988)*. Zumaiako Udala.

## Maria Barbier, «Mirentxu»

Maria Barbier arabarra zen. Lehenengo *Gipuzkoarra* aldizkarian idatzi zuen, eta ondoren *Aberrin*, 1907an sortu zen eztabaidan parte hartuz. Jarrera kontserbadorea zuen. Purificación Gorostiza «Garbiñe»ren ekimenari jarraipena emanez, eztabaida izan zuen Rakel Alda «Kataliñ»ekin eta Liberekin emakume abertzalearen eginbeharraren inguruan; eta *Ropero Vascoren* sorrerako eztabaidan ere parte hartu zuen. Gazterik hil zen, 1908an.

Carmen Erraztik, EAB aurkeztu zen 1922ko lehen hitzaldian, adibidetzat jarri zituen Garbiñe, Mirentxu eta Tene, Euzko Gaztedik antolatutako ekitaldian. Bere pentsamoldean, emakumeak antzinako ohituren jarraitzaile eta bultzatzaile izan behar ziren, seme-alabak pentsamolde horretan heziz. Emakumearen eginbearra etxe barruko lanetan zegoen, baita seme-alaben heziketan ere, bertako arrazako gizonekin ezkonduz, euskaraz mintzatuz, seme-alabei irakatsiz eta Euzko Ikastolen Batzarentzako dirua bilduz. Beren ardura zen ohitura onak eta zaharrak mantentzea eta irakastea, hots, gaur eguneko hizkuntzan lan egitea erreprodukzio kulturalaren alde.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; ARCE PINEDO, Rebeca. (2008). *Dios, Patria y Hogar: la construcción social de la mujer española por el catolicismo y las derechas en el primer tercio del siglo XX*, Santander: Kantabriako Unibertsitatea.



## Maritxu Barriola Irigoien

1907ko abenduaren 5ean jaio zen Donostian Mercedes Irigoienen eta Abelino Barriola antzerkigilearen alaba. Pianoa eta erizaintza ikasketak egin zituen, eta gazte-gaztetatik ibili zen laguntzen Ramon Labordak Donostiako Kursaal antzokia zeneko azprietan antolatzen zuen *Poxpoliña* jaietan. Donostiako EABko kide izanik, hizlari ere izan zen hitzaldi batzuetan.

Gerran, familia ihesi joan zen Donibane Lohitzunera. Alemanak Iparraldea inguratzen hasi zirenean, itsasontziz Venezuelara joan ziren barriolatarrak. 1944an Abelino aita Paben hil zenean, orduantxe itzuli zen Maritxu Donostiara. Familiak zuen zapata-dendan lan egin zuen administratzaile, eta denda hori izan zen, askotan, euskaltzaileen biltoki.

Ez zien inoiz ukorik ekin euskaltzaletasunari eta kristautasunari; alderantziz, suharra zen alde horretan, eta laguntza ekonomiko handia eman zuen elizako euskal liburuak zein ikastoletako beste batzuk argitaratzeko. 1950ean *Urte guziko meza bezperak* latinetik euskaratzeko lanak ordaindu zizkion Nicolas Ormaetxea «Orixe» zenari; 1953an, berak ordaindu zuen *Kristoren antz-bidea (Kempis)* izeneko liburua ere, Larrañaga apaizak euskaratua. Meritu handiko lana zen. Frantziako Tour-sen inprimatu, mendiz ekarri eta Valentzian koadernatu ziren liburu haiek. Ikastoletako haurrentzat *Aurren eliz-liburutxoa* argitaratu zuen, bere kargu, Donostian 1949an, Gasteizeko gotzainaren *imprimatur* eta guzti. *Xabiartxo* ere berrargitaratu zuen, Lopez-Mendizabali baimena eskatuta.

Euskal udalekuen aitzindari izan zen, 1965ean Arabako Barrian zegoen klausurako komentuaren antolaketan. Bere burua eskaini zuen egoitza apaintzeko, txukuntzeko eta behar zen guztia prestatzeko, hau-

rrak joan orduko dena prest egon zedin. Ogibide hori oso ondo ezagutu zuen Maritxuk Iparraldean erbesteratua egon zenean. Gerratean, 1937an, Bizkaitik eta Gipuzkoatik haurrak Iparralderantz abiatu zirenean, Manuel Intxaustik eta emazteak Jatxoun «Lurdes Euzko Aur-Etxea» udalekua antolatu zuten 33 neska-mutilentzat, sei eta hamalau urte bitartekoentzat. Gastu guztiak euren esku zeuden; Maritxu izendatu zuten udalekuaren zuzendari, eta hari laguntzeko Koro ahizpa, eta Teresa eta Lupe Urkiola tolosar ahizpak, gainerako zerbitzuetaokekin batera. Euskara eta euskal kultura nagusitzen ziren eguneroko ekintzetan: dantzak, musika, antzerkia, kantak, kanpo-irteerak, eta ogibideren bat mutikoei irakastea... lantzen zen. Etxe hori eredutzat hartu zen, familiarra, txukuna, garbia, antolatua zelako; eta horretan, Maritxuk bazuen zer ikusirik.

Oso emakume alaia eta independentea zen, eta bakarrik bizi izan zen beti. Udalekuez gain, oso sartuta egon zen kristau-mugimenduan, euskal presoak laguntzeko zerrendak herriz herri osatuz, eta herriko parrokoen bidez laguntza espetxeetara bideratuz.

Apendizitisak jota hil zen Donostian 1988ko irailaren 17an, laurogei urte zituela.

Erref.: EGIA, G. (1997). *Emakumea Euskal Irakaskuntzan. Bidegileak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; ALONSO CARBALLÉS, J.J. (1998). *1937, Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica: historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940*. Bilbo: 37an Atzerriaraturiko Haurren Elkarte. Argazkia: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/25666>.



## Angelita Bilbao Bilbao

Bilbon jaio zen 1903ko martxoaren 1ean. Eritzaintza-ikasketak egin zituen Bilboko «Zarza» klinikan eta Bilboko Emakume Abertzale Batzako kide egin zen.

1931n Uruguaira emigratu zuen, Euzko Alderdi Jeltzaleak enkarguz hara bidalita; hots, Montevideon eratzea Emakume Abertzale Batzaren adar bat.

Montevideon zegoela, Regino Galdósen eta Justo Zárateren laguntzaz «Euskal Ordua» izeneko irratsaioa sortu zuen *Radio Montevideon*, Roberto García Quevedoren zuzendaritzapean. Irratsaioaren helburua zen euskal entzuleen artean zabaltzea Alderdiaren ideologia, eta hara joandakoekin lotura ideologikoa gordetzea. Egitasmo horrek lau urte iraun zituen, 1932tik 1936ra. Montevideon ikurriña jartzearen kontua ere Angelitari zor zaio. Bilbotik eramandako ikurrina Montevideoko «Euskal Erria» euskal etxeari oparitu zitzaion Angelitaren bidez, eta lehenengoz bertan inarrosi zen, 1933ko abuztuaren 6an.

Espainan Gerra Zibila hasi zenean, Euskadira itzuli zen eta Bilboko Basurto Ospitaleari eskaini zizkion bere zerbitzuak, erizain bolondres gisa lan egiteko. Gerran hainbat frontetan ibilia, Bilboko bonbardaketa izan zenean, Bilbotik atera zuten, eta Santanderrera bidali zuten ospitalean zeuden gaixoeekin batera. Santander jausi zenean, Euzko Jaurlaritzak aginduta Bartzelonara abiatu zen itsasontziz, eta handik Frantziako Bordelera, Errepublikako gobernua jausi zenean, 1937an. Frankoren gobernuak Angelita hiltzeko agindua eman zuen.

Frantziatik berriro Montevideora itzuli zen eta, 1940an, Cipriano Jose Garcia bilbotarrarekin ezkondu zen. Azkenik, Argentinako Buenos Airesen finkatu zuen bizitokia, eta bertan sortu zuen Emakume Aber-

tzale Batza. Behin baino gehiagotan, zuzendaritzako kide izan zen hiri hartako Laurak Bat euskal etxean ere. 1980an itzuli egin zen bere herrira, eta Buenos Airesen hil zen 1990eko ekainaren 24an.

Erref.: *Auñamendi Enziklopedia*. (Egilea: Alberto Irigoyen Artetxe historialaria).



## Maria Biskarret Navaz

Iruñean jaio zen 1907an eta bertan hil zen 1988ko azaroaren 11n. Lehen ikasketak Ama Dominiketan burutu ostean, irakasle-ikasketak egin zituen Iruñean bertan. 1927rako maistra zen, eta horretan aritu zen hainbat herritan.

EAB eratu zutenean, Iruñean, 1931ko urrian, bera hautatu zuten idazkariorde. Hurrengo urteetan, nahiz eta bazkide izan, ez zuen horrelako ardurarik izan. Dena den, bere jardun nagusia euskal irakaskuntza Iruñea aldean bultzatzea izan zen. Izan ere, Nafarroako lehen ikastola sortzeko martxan jarri zuten «Euskal Hizkuntzaren Patronato» delakoaren partaide izan zen Maria Biskarret. Jakina denez, Miren Saizar andereñorekin hasi zen ikastetxe hori, baina hainbat irakasle eta kultur gile abertzaleren sostengua izan zuen, elkarte horren bitartez.

Gerra aurreko azken ikasturtean Tafallako eskolan jardun zuen. Gerra hasitakoan, Donostian zegoen, Eusko Ikaskuntzak antolatutako ikastaro batean. Hori zela medio, aukera izan zuen erbestera joateko. Iruñeratu zenean, irakasletza lanbidetik kanporatu egin zuten, eta 1941era arte ezin zuten aritu egin behar horretan. Berrirori onartu zutenean, deserriratzeko moduan, Erratzura bidali zuten, jakin gabe euskaldunen artean zoriontsu egiten zutela Biskarret anderea. Izan ere, Baztango herri horretan jardun zuen, erretiroa iritsi arte. Gertu zituen, beraz, burkide politiko eta lagunak. Azken urteak Iruñean eman zituen, ahizpa Presentxuren laguntzarekin.

Erref.: FERNANDEZ, S., RODA, P. (coords.) (1998). *Ellas, Las mujeres en la historia de Pamplona*. Pamplona Iruña: Emakumearen Zinegotzigoa. (226-228 orriak).



## Rosa Bustintza Ozerin, «Mañariko Errose»

Rosa Bustintza Ozerin, «Errose Mañariko» Mañarian jaio zen 1899an. Euskal idazle aipagarria izan zen, ipuingintzan nabarmendu zena. Euskal Herriko ipuinak batu, jantzi, idatzi eta argitaratu egin zituen. Irudimen aberatsa zuen; baserrietan zehar hamaika ipuin zahar jaso eta berpiztu zuen, eta balio handiko lana egin zuen euskal kulturarako eta etnologia aldetik. Olerki eta kantu-letrak ere egin zituen; euskara erraz eta herrikoian sorturiko lan horiek hainbat euskal aldizkaritan barreiatu daude. *Euskal Herriko Ipuinak* izenburupean argitaratu dira bere ipuin eta alegiak. Ebaristo Bustintza, «Kirikiño»ren iloba zen. Euzkeltzale Bazkunak sortutako saria, Euzkadin idazten zutenen artean banatzekoa, irabazi zuen 1932. urtean.

Gutxi dakigu bere bizitzaz. 1909an, Kirikiño osaba Erroseren ahizpa Basilerekin ezkondu zen, Errosek 10 urte zituenean. Beraz, Kirikiñoren loba eta koinata izan zen, aldi berean, eta ahizparekin bizi izan zen bizitza guztian. Bizi ere, Mañariko herri barruan bizi izan zen, Urkiolarako bide nagusiaren ertzean dagoen Zumelaga etxean. Kirikiño zendu zenean, 1929an, Errosek 30 urte zituen eta, ordutik aurrera, ahizpa biak bizi izan ziren elkarrekin, biak bietara. Gerra garaian erbestera jo zuten, eta elkarrekin ibili ziren han ere. Karmelo Etxenagusiaren esanetan, Errose Bustintza folklorista eta kronista handia izan zen, «saso bateko Euskal Pizkundea dalako mobimentu zoragarri eta baikorrean folkloristatik eta kronistatik sutsu eta maitegarrienetarikoak izan zan. Ama Euskeraren beharginik handi eta sutsuenetariko, ezertariko duda barik».

1953ko abuztuaren 20an hil zen, Mañarian, Rosa Bustintza Ozerin «Mañariko Errose» euskal idazlea.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; *Euskal idazleak bizkaieraz* (K. Etxenagusia, Labayru Ikastegia) liburuan argitaraturiko Errose Bustintza, Mañariko-ren ipuina; *Euskonews & Media* 133. zk. (2001 / 7-27 / 9-7).



## Pilar Egiraun

Pilar Egiraunen jaiotze-dataren berririk ez dugun arren, badakigu Bilboko Autonomia kalean bizi izan zela, 27. zenbakian. Bere neba Juan Euzko Gaztediko eta Eusko Ikaskuntzako kide izan zen.

Marokoko Gerra zela-eta, Euzkotarren Aldezko JEL-Bazkuna taldea antolatu zen, eta kide izan zen bertan. 1922ko maiatzaren 7an izendatu zen Emakume Abertzale Batzako lehen zuzendaritza taldea, baita arautegia adostu ere. Karmele Errazti hautatu zuten lehendakari, eta Pilar Egiraun idazkari. Beste kideak izan ziren Paulina Ramos, Maria Jesus Ibaseta, Jesusa Fresnedo, Alicia Aretxabaleta eta Petra Gandarias. Pilarrek pentsakera abertzale moderatua zuen, eta *Aberri* joeraren aldeko agertu zen.

Izendatzen den lehenengo zuzendaritza taldeko kide bezala aurkitzen badugu ere, hurrengo urtean ez Pilar, ez Petra Gandarias ez dira agertzen. Karmele Erraztiri egindako elkarrizketa batean (*Alderdi*, 1953-XI), biak moja joan zirela argitu zuen. Haien ordez, Concepción Gangoitzi eta Sorne Unzueta hautatu zituzten.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde.



## Pilar Elizalde Esandi

Lizarran jaio zen, 1906ko azaroaren 3an, eta mendea betetzear zuela, Iruñean hil zen 2006ko abuzutuaren 9an. NBBko partaide izan zen Eusebio Irujorekin ezkondua, Lizarrako EABren partaide genuen. Errepublikan etorritakoan, 1931ko urriaren 17an, «Euskeraren Katedraren aldeko manifestua» sinatu zuen euskarazko irakaskuntza bultzatzeko asmoz. Horren ondorioz sortu zen lehen ikastola hurrengo ikasturtean. Gerra Zibila lehertu eta berehala atxilotu zuten. Hilabete pare bat preso egon zen Iruñeko Ursulinas komentuan. Erditzear zegoelako askatu egin zuten, alaba Maria Dolores izateko. 1937ko ekainean erbesteratu zuten, eta 1940ra arte Capbretonen bizi izan zen beste familiar batzuekin. Gehienak emakumeak eta umeak ziren. Izan ere, hainbat senar, Eusebio esate baterako, edo koinata Delfin preso zeuden Espainiako kartzeletan.

II. Mundu Gerra Frantziara hedatu zenean, mugaz hona etorri zen, baina 1947an erbesteratu egin zen, senarrarekin Caracas aldean elkartzeko. Han egon ziren 1960ra arte. Orduan, frankistek kendutako farmazia berreskuratu ahal izan zuten, eta behin betiko itzuli ziren Lizarrara.



## Karmele Errazti Perez De Saratxo, «Etxakin»

Bere esaldia ei zen: «Bixitza, atsegiñez beterik dago, gura-dabenen-tzat. Zugatz oritsubak, landara loratsubak, txoritxu abeslarijak, exar distiratsubak, naikuak dira pozaldi andija emoteko» (Carmen Errazti, «Etxakin». *Euzko Deya*, 1916 eta 1917 urteetako pasarteak).

Bilbon jaio zen 1885ean. Euskara ikasi zuen Kirikiñoren maisutzapean eta euskararen irakasle izatera heldu zen. Kirikiñok berak *Euzkadin* argitaratu zuen Carmenek idatzitako ipuina; handik aurrera idatzi egiten zuen, noizean behin, beti euskaraz. Prentsa abertzalean idatzi zuen lehenengotariko emakumea izan zen, «Etxakin» ezizenez sinatuz.

Lanbidez etxekoandre zen arren, hasieratik *Ropero Vascon* ibili zen Mercedes ahizpagaz batera, eta Euzkotarren Aldezko Jel Bazkunako kide ere bazen.

Keperin Xemeingoarekin ezkondu zen 1914an. Senarra «Jemein, Errazti y Zenitagoya» enpresa siderometalurgikoaren jabe zen, beste bi kiderekin batera, eta *Aberri* joeraren liderra izan zen bere neba Jose Mariarekin batera. *Oleskari biyak* komediarekin saria jaso zuen Euskaltza-leen Bazkunak 1915ean antolatutako ekimenean. 1916tik aurrera, *Euzko Deyan* idatziz, emakumeen iritzia eraiki eta kaleratzen saiatu zen, «Euzkeldun neskatillai» zuzenduriko artikulu bidez. Iritzi-artikuluak ziren gehienak, baina ipunak eta antzerkiren bat ere idatzi zuen, denetan bere, Sabino Aranaren ideologiaren arabera iritziak plazaratuz. Euskaraz mintzatzen ziren emakumeei idazten zien Etxakinek, haien heziketarako norabideak emanez.

1922an, Emakume Abertzale Batza eratu zenean, lehendakari izendatu zuten, aho batez. Bere hiru ahizpak ere (Mercedes, Piedad eta Elisa) EABko kide izan ziren.

Garai gogorrek bizi izan zituen, Primo de Riveraren diktadurak klan-destinitatean lan egitera behartu baitzuen; ondoren, indarberrituta, EABren lidergoa berreskuratu zuen 1931n. 1932an berriz lehendakari hautatu bazuten ere, ez zuen kargua onartu, arduradunak berritu egin behar zirela pentsatzen baitzuen. Teresa Azkuek ordezkatu zuen.

Maila intelektual gorenekoa, goraipatzekoa da bere bizitzan emakumeen egoera hobetzeko ahaleginetan eman zuen indarra eta kemena.

Carmenen pentsaera sabindarra izan zen, sasoi ofizialetan zein klan-destinitatean egindako lanetan eta hartutako arduetan ikus daitekeen bezala. Pauben zendu zen 1954ko ekainaren 23an. Bere bizitza Emakume Abertzale Batza indartzera eta abertzaletasunaren indarrak suspertzera bideratu zuen emakume honek idatziz utzi dizkigu bere lanak «Etxakin» ezizenez hasierako sasoietan, eta «Emakume Bat» atzerriko sasoietan.

Erref.: UGALDE, Mercedes. *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; *Auñamendi entziklopedia, Euskomedia* [www.euskonews.com/efemerideak](http://www.euskonews.com/efemerideak); [http://eu.wikipedia.org/wiki/KarmeLe\\_Errazti](http://eu.wikipedia.org/wiki/KarmeLe_Errazti).



## Maria Etxabe Aldai

Zarautzen jaio zen 1904an. EABko lehendakari izan zen Zarautzen.

1922ko abenduaren 3an euskararen aldeko kongresua egin zen Bilbon, Euzko Gaztediren egoitzan. Han, EABri eman zitzaion euskararen ardura. Batzar hartan, beren eginkizun bezala hartu zuten euskararen erabilera eta zabalkundea. Handik aurrera aldizkarietan zein egunkarietan idatzi zuten, nahiz eta testu asko mitinetan esandakoen transkripzioak ziren. Maria Etxabe zen hitzaldiak euskaraz ematen zituenetarikoa.

*Itziar 'ko Ama*, Arriola abadearen *La Virgen de las Angustias*en itzulpenarekin Gipuzkoako Kutxak antolatutako literatura-saria irabazi zuen. Azpeitian estreinatu zen antzerkia, 1929ko irailean.

Euskal Esnaleak antolatutako hitzaldietan parte hartu zuen, 1930eko apirilean *Zorionaren iturria gizonak non du?* gaiaren gainean mintzatuz. Hitzaldi hori 2002an argitaratu zuen Zarauzko Olerti Etxeak.

1930eko uztailean ekitaldi garrantzitsu bat antolatu zuen Euskaltzaleak elkarteak Donostian, «Homenaje de la mujer al euskera» izenez. Aipagarria da Maria Etxabek eskaini zuen hitzaldia, «La mujer y el euskera».

Donostiako EABk 1935-1936 bitartean antolatutako hitzaldietan, Pía Goenagarekin batera hizlari izan zen *doctrina sabinianoa eta aberriaren aldekoa* zabalduz.

1937tik aurrera Eresoinka taldean aurkituko dugu, kantari. Jose Antonio Agirre lehendakariak sortutako proiektua da Eresoinka; gure kanta, dantza zein antzerkia erakusteaz gain, euskal identitatea gal ez zedin bildutako musikariak, dantzariak eta intelektualak Europan zehar

ibili ziren 1937-1939 bitartean, leku batetik bestera zebilen euskal enbaxada moduan.

1993ko maiatzaren 5ean zendu zen bere herrian, Zarautzen.

Erref.: *Zarauzko Udala* (on-line); ATXAGA, Mikel. (1997). *Euskal Emakume idazleak (1908-1936)*. Bidegileak, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; *Auñamendi Enziklopedia* (Egilea: Felix Ibargutxi); <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1012495>.



## Julia Fernandez Zabaleta

Iruñean jaio zen 1898ko urriaren 8an. Lizarraldekoak zituen gurasoak, baina lana zela medio hiriburura jo zuten. Han jaio zen Juliak izan zuen anaia bakarra, Balentin. Juliak lehen ikasketak burutu ostean, Iruñean bertan, San Jose plazan zegoen Irakasle Eskolan egin zituen maistrarenak. 1916an, titulua lortutakoan, Bartzelonara jo zuen, Maria Montessori italiar pedagogo famatuaren metodoak ikasteko asmoz. Handik itzuli zenean, txosten mardula idatzi zuen Iruñeko Udalerako, Montessoriren eredu pedagogikoak goraiatuz. San Franciscoko udal-eskoletan hasi zen lanean, eta han jardun zuen 1936ko gerrak eztanda egin zuen arte.

Irakaskuntzaz gain, euskararen aldeko ekimen publikoetan behin eta berriro azaldu zen Iruñerrian, baita eskualde euskaldunetan ere. 1923an, esate baterako, Euskaltzaindiak antolaturiko «Euskal Egun»etan hartu zuen parte hizlari gisa. Euskararekiko utzikeria salatzeaz gain, mintzaira horretan kokatzen zuen euskaldunen zorientasuna.

Arlo politikoan, Errepublikako urteetan buru-belarri aritu zen ideia jeltzaleak zabaltzen. Ildo horretatik, EABren bultzatzaile nagusietakoa dugu Nafarroan. Izan ere, 1931ko urriaren 23an eratu zuten lehen taldea Iruñean eta, ordutik, bera bihurtu zen buruzagi gorena. Hurrengo urteetan, nahiz eta emakume batzuek ardura hori hartu, zuzendaritza talde guztietan aritu zen, eginkizun desberdinekin.

Iruñetik at, Nafarroa osoan ibili zen emakumeen erakundea zabalitzen. Izan ere, nahiz eta zuzendaritza probintzialik ez izan, Iruñekoa bazuen; eta, bereziki, hedatze-lan horietan buru-belarri aritu ziren Julia Fernandez eta Catalina Alastuey, lurralde osoko buruzagiak bailiran.

Era berean, 1934az geroztik, ardura politikoak eskuratu zituen EAJn bertan, Iruñeko Buru Batzarreko partaide bezala. Hori berrikuntza handia zen alderdi politikoetan eta, bereziki, alderdi jeltzalean. Euskadi mailan egin zituzten EAJren asanbladetan ere, parte hartze esanguratsua izan zuen Julia Fernandezek.

Gerra hasitakoan, mugaz bestaldera jo zuen hasiera batean, geroxeago Bizkaiaratzeko. Han parte hartu zuen hezkuntza sailean, Bixente Amezagaren aginduetara, 1936-1937 ikasturtean. Bilbo erori baino egun batzuk lehenago erbesteratu zen, eta gerra amaitu arte ez zen itzuli Iruñera. Anaia Balentinek ere erbesteratu jo zuen, eta Mexikon egon zen hil bitartean. Julia, berriro Iruñeratu zenean, udal-lanpostutik desjabetu egin zuten. Hori zela eta, etxe-irakaskuntza izan zuen lanbide, eta eskolak eman zizkien inguruko lagunen seme-alabei.

Julia Fernandezek aurkako jazarpena ez zen mugatu lan-arlorara. Izan ere, jende askoren harridurarako, 1951n haren kontrako eskumikua bultzatu zuten Pablo Gurrupide bikarioak eta Enrike Delgado Gomezek. Azkenean, Juliaren aldeko jendearen erantzuna ikusita, bertan behera laga zuten zigor-nahi bitxi hura. Heriotza ere bitxi samarra izan zuen maistra abertzale hark. Txertoa jarritakoan, bat-batean hil zen 1961eko otsailaren 10ean.

Erref: ESTORNES, Idoia. (1983). *La Sociedad de Estudios Vascos*, Donostia: Eusko Ikaskuntza. 210. or. (argazkia).



## Jesusa Fresnedo Bustillo

Santurtzin jaio zen, 1879an. Emakume Abertzale Batzako kideen artean adinduenetarikoa zen, eta sasoirako kultur-maila altukoa, irakasle-ikasketak egindakoa. Maistra lanean aritu zenik ez dakigu. 1901 aldera Luis Arbeloarekin ezkondu zen; elektrizitateko negozioa zuen hark, eta maila ekonomiko ona. Bilboko Udal Batzordeko buru izan zen 1930eko hamarkadan. Sei seme-alaba izan zituen. Etxean, Concepción koinatak izan zuen etxeko lanen ardura, bi neskamegaz batera. Haietariko bat, Isabel Benedicto, *Ropero Vasco*ko kide izan zen, baita Euzkotarren Aldezko JEL-Bazkunakoa eta EABkoa ere.

Jesusa eta senarra *Aberri*ren joerakoak ziren. Jesusa *Ropero Vasco*ko eta Euzkotarren Aldezko JEL-Bazkunako kide izan zen sortu zenetik: baita Bilboko Emakume Abertzale Batzako ere, 1922-1923an eta zuzendaritzako kide izan zen, gainera, 1931n. Azken horretatik irten egin zen, *Aberri* joeraren kide ziren Karmele Errazti, Paulina Ramos, eta Alicia Aretxabaletarekin batera, eta, haien ordeaz, Teresa Azkue, Juliana Mujika, Jesusa Zubizarreta eta Mercedes Viguera izendatu zituzten.

1922ko abenduan, alabak, Carmen Arbeloak, Euzko Gaztedik antolatatu zuen Arturo Campionen *Eskuz-esku* komedia antzeztu zuen, Bilboko Campos Eliseos antzokian, Alizia Aretxabaleta eta Paulina Ramosekin batera. Bilboko Emakume Abertzale Batzako kide ziren Jesusaren alabak, Maria Begoña, Jesusa, Sorne eta Libe.

1932ko Aberri Egunari buruzko propaganda-lanetan aritu izan zen. Espainiako Errepublikako lehendakaria zen Alcalá Zamorak Bilbo bisitatu zuen egunean, 1933ko udaberrian, EABk manifestazioa deitu zuen, eta Asaltoko Guardiiek haien kontra egitean hainbat emakume erasotu zituen; haien artean zen Arbeloaren andrea, Jesusa bera ziurrenik. *Euz-*

*kadik* maiatzaren 11n zioen emakume askok medikuen laguntza behar izan zutela; haien artean ziren Eugenia Zubizarreta, Juliana Mujika, Francisca Astibia, Sorne Arbeloa, Polixene Trabudua, Inés Ereño, Libe Bidaurrezaga, Sofia Mac-Mahon, Miren Nekane Legorburu, Begoña Landa.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia.



## Julia Gabilondo Arruza-Zabala

Mungiako medikua zen Joan Gabilondoren alaba, Trobika kalean jaio zen 1902ko urtarrilaren 29an. Amaren aldeko aitita zen Mungiakoa. Dendaria zen ahizparekin batera euskaraz irakurtzeko eta idazteko zaleztasun handia zeukan; eta Lauaxetaren lagun izateak euskal sua eta euskaraz idazteko gaitasuna gehitu zizkion.

1930ean, *Euskal Esnaleak* antolatutako saria irabazi zuen Julia Gabilondok Donostian, *Nor da kementsuagoa, gizona zkoa ala emakumezkoa* gaiaz. Julia Gabilondok bizkaieraz idatzi zuen, nahiz eta aita gipuzkoarra izan. Gerra ondoan, Beasainen eta Lazkaon aldi bat egin eta Donostiara aldatu ziren. 1994ko urtarrilaren 1ean hil zen Julia.

Gerra garaian, *Eguna* euskarazko lehen egunkarian (1937), Augustin Zubikaraik eta Eusebio Erkiagak osatzen zuten erredakzio-gunearen gunea. *Eguna* egunkarian sarri idazten zuen «Mait» ezizenez, askotan lehen orrian. Abertzaletasunaren alde, gudarien alde eta emakumezkoek gizartearen alde abertzearen alde eginkizunaz idazten zuen.

Julene Azpeitiarekin batera, bera izan zen *Euzkadi* egunkarian gehien idatzi zuena, Lauaxetaren 1932ko maiatzeko deiar erantzunez. Mungiatik idazten zuen. Guztira 30 idazlan baino gehiago dira bereak, eta guztiak euskaraz. Sarrien darabiltzan gaiak: Sabino Aranak irakatsitako ideiak, eta emakumeek abertzale mugimenduan gogotik parte hartu beharra. Horrekin batera, euskararen zabalkundea egiteko gogo nabari da, eta Eusko Alderdi Jeltzalearen ideien azalpena irakurleei jakitera emateko xedea.

1934ko otsailean Bilboko *Juventud Vascak* euskaraz antolatutako hitzaldietan ere hizlari ibili zen. Artikuluetan zein hitzaldietan —euskaraz denak—, euskararen beraren alde egin, gainera. Emakumeei zuzen-

tzen zitzaien, azpimarratuz askotan seme-alaben hezkuntza erlijiosoan eta abertzalean zuten erantzukizuna.

*Ekin* eta *Euzkon* euskaraz idatzi zuen 1934-1936 bitartean.

1936an, hizlari izan zen EAJ/PNVk Bizkaiko herri askotan antolatutako hitzaldietan.

Donostian hil zen 1994an.

Erref.: UGALDE, Mercedes. (1993). *Mujeres y nacionalismo vasco*, Bilbo: UPV/EHU; ATXAGA, Mikel. (1997). *Euskal Emakume idazleak (1908-1936)*. Bidegileak, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; URUBURU Laura. (1997). *Emakume Abertzale Batza (1922-1936)*. Bidegileak, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza; *Eusko-news & Media* 152. zk. (2002/1-25/2-1).



## Consuelo Gallastegi Uriarte

Consuelo Felicitas Gallastegi Uriarte Bilbon jaio zen 1900eko azaroaren 5ean. Aita, Santiago de Gallastegi, Bilboko dendaria. Ama, Guillerma Uriarte, Bizkaiko Lezamakoa zen. Aitita, Julian Gallastegi, Eloorriokoa, eta amama, Elorz, bilbotarra ziren. Amaren aldetik, lezamarrak ziren Eusebio Uriarte eta Juana Bautista de Agirregoitia. Amarekin eta neba Santiagorekin (bulegoko langilea zen neba) bizi izan zen. Ahizpak, Natividad eta Sabina, Bilboko Emakume Abertzale Batzako kide ziren. Beste neba, Elias Gallastegi, «Sara» edo «Gudari», *Aberriko* buruzagia izan zen.

Ezkongabea, Bizkaiko Irakasle Eskola Normaleko ikasle izan zen, sarrera-azterketa 1916an egin zuelarik. Maria Berasategi buruak, Sandalia Elisa de la Casa idazkariak eta Martina Casianok osatu zuten tribunala. 1919an lortu zuen irakasle titulua, eta ostean maistra aritu zen.

Euzko Ikastola Batzako Gobernu Batzarreko kide zen Concepción Gangoitigaz batera, emakume bakarrak, EABko lehendakariorde zen Gangoiti eta idazkariorde Gallastegi. Bilboko Belostikaleko Gobernu Batzarreko kide ere izan zen. Sasoi hartan emakume gutxi zegoen gobernu-karguetan, Euskal Eskoletan ez bazen. Emakume Abertzale Batzako idazkariorde izendatu zuten 1931ko ekainean; Carmen Errazti zen lehendakaria, Alicia Aretxabaleta idazkaria, Maria Jesus Ibaseta diruzaina, eta Jesusa Fresnedo, Paulina Ramos eta Sorne Unzueta ziren bokalak. Kargu berean egon zen 1932ra bitartean.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia. *Titulos, Magisteritza* 1919, 148. or.



## Petra Gandarias Magunagoikoetxea

Bilbon jaio zen 1901eko maiatzaren 26an Petra Gandarias Magunagoikoetxea. Aita Juan Gernikakoa zen eta ama Vicenta Gorozikakoa. Somera kaleko 39. zenbakian bizi ziren. Ama 14 urtera arte Gorozikan bizi izan zen, eta ez zekien irakurtzen ez idazten. Aitite, Andres Gandarias, baserritarra zen, Gernika-Lumokoa, eta amama Maria Muxikakoa. Amaren aldeko aitita Ibarrurikoa, eta amama Maria Antonia Zallo-Etxebarria Gorozikakoa. Bere moduan, ahizpa Marina ere Bilboko EABko kide zen. Neba bat ere bazuten delineatzailea. Ez zen ezkondu.

1916ko ekainean, Bilboko Irakasleen Goi Eskola Normaleko sarrera-azterketa gainditu zuen. Maria Berasategi buru lanetan, Sandalia Elisa de la Casa idazkari eta Martina Casiano kide lanetan, horiek osatu zuten epaimahaia.

1922ko maiatzaren 7ko asanbladan onartu zen Emakume Abertzale Batzako lehen zuzendaritza-taldean izan zen Petra. Harekin batera, honako hauek izan ziren taldean: Carmen Errazti, Pilar Egiraun, Paulina Ramos, Maria Jesus Ibaseta, Jesusa Fresnedo eta Alicia Aretxabaleta. Gazteak ziren gehienak, Jesusa Fresnedo 43 urtekoa zen zaharrena, eta Petra eta Alicia Aretxabaleta gazteenak, 21 urte gaz. Gazteak eta ikasita-koak, haietarik gutxienez lau maistrak ziren eta.

Urte berean, 1922ko azaroan, euskara-irakasle ibili zen Bilboko Euzko Gaztedin; egunero ematen zituen 1. mailako eskolak, Antonia Ojangurenegaz batera.

«Emakume batek» Karmele Erraztik *Alderdin* 1953an idatzitako artikuluan aipatu zuen Pilar Egiraun eta Petra moja joan zirela, eta horregatik utzi zutela EABko zuzendaritza 1923an.

Oso gazte lekaime edo monja joan zen Esclavas del Sagrado Corazónera. Handik lasterrera Madrilerara bidali zuten eta bertan «superiora» izendatu. Bere bizitzako azken urteak Salamancan eman zituen. Hanzendu zen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia, Tituluen erregistro-liburua, 1919, 148. or.

## Concepción Gangoiti

Concepcion Gangoiti ez dakigu zein urtetan jaio zen. «Señora de Uriarte»tzat agertzen da, eta alaba bakarra izan zuen, Dolores, Emakume Abertzale Batzako kide izan zena. Irakasle ikasketak egin zituen, eta Emakume Abertzale Batzako lehendakariorde izendatu zuten 1931ko ekaineko hautaketan; ardura berean jarraitu zuen 1932ko abendura arte, eta orduko hautaketan ordezkatu egin zituzten zuzendaritza-taldean *Aberri* joerako gelditzen ziren kideak. Pilar Egiraun eta Petra Gandarias moja joan zirenen ordeztatu zen zuzendaritza-taldera Concepcion Gangoiti, Sorne Unzuetaekin batera. Bere ordeztatu Rakek Alda Gorostiola sartu zen 1932ko abenduan. Zuzendaritza-taldea alde egiteak ez zuen aldentu Emakume Abertzale Batzak antolatzen zituen ekimenetatik. 1932ko *Aberri* Eguneko ospakizunetan, parte hartu zuen Sabin Etxea liraintzeko egin zen ekimenean.

Irakaskuntza arloarekin harremanetan izan zen, Euzkotarren Aldezko Jel-Bazkunako zuzendaritzako kide, baita Euzkal Ikastola Batzako kide eta lehendakariorde ere 1931-1932 bitartean. Horrez gainera, Belostikaleko eskoletako administrazio-taldeko kide ere bazen.

1931n, Espainiako Errepublikako behin-behineko lehendakariak onartu egin zuen Katalunian katalanaren irakaskuntza eskola eta ikastetxe guztietan, dekretu baten bidez. Euskaldunentzat eskumen bera eskatzera joan zen, Madrilera, Eusko Ikaskuntzako, Euskaltzaindiako, Euzkararen Adizkideak Elkarteko, Euzkaltzale Bazkunako eta Euzkaltzaleko ordezkarietara osatutako Batzordea. Baina ez zuten ezer lortu, eta ezinezkoa zenez elebiduntasuna Euzkadiko eskoletan ezartzea, Euzkal Eskolen Federakundea sortzeko ekimena bultzatu zuten.

Horretara, 1932ko ekainaren 4an, Euzko Gaztedik, Emakume Abertzale Batzak eta Euzko Irakasle Bazkunak bultzatuta, Euzkal Eskolen



Federakuntza antolatu zen Bilbon. Lehendakari eta kide ziren Francisco Horn, Concepcion Gangoiti de Uriarte, Elias Gallastegi, Consuelo Gallastegi, Felix de Zubizarreta, Manuel de Egileor eta Jose Villalonga. Oso epe laburrean aritu izan zen lanean elkarte hori, frankistak sartu arte, baina hainbat maistra graduatuk lan egin zuten bertan. Frankistak sartu zirenean, erakunde horrek egindako lana deuseztatzen saiatu ziren, gogorki. Eskola horietan, Euzko Ikastola edo *Escuela Vasca* zeritzonetan, bultzatu ziren lehenengoz irakaskuntza euskalduna, aisialdia gogoan hartzen zuena, sasoirako oso aurrerakoia, euskal dantzak, antzerkia zein musika.

Concepcionez erlijioarekin zerikusia zuten beste ekintza batzuk ere bultzatu zituen. 1932an, Emakume Abertzale Batzako lehendakariorde zela, karlistek ordezkari nabarmen batzuk bidali zituzten Erromara nazionalisten eskumikua eskatzera. Erroman bizi zen eta Vatikanoko Diplomaziarekin harremana zuen Hipolito Larrakoetxe abade abertzaleari idatzi zion, ardura har zezan gai hartaz; ekimena geldiarazi egin zuten, eta bertan behera geratu zen. Bestalde, Gorbeako Egiriñauko landan ermita bat eraikitzeko sostengu-taldeko kide ere izan zen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; Izenik gabe: *Ikastola* <http://euskalerrria.galeon.com/amigos2033347.html>; Iñaki Anasagasti. *Semblanzas*. [http://www.ianasagasti.com/semblanzas/semblanzas\\_Jose\\_Luis\\_Anasagasti\\_el\\_catire.htm](http://www.ianasagasti.com/semblanzas/semblanzas_Jose_Luis_Anasagasti_el_catire.htm).



## Miren Gezala Sagarzazu

Lezon jaio zen 1912an. Aita Pasai Donibaneko portuko aduanazain eta Lezoko alkate zuen. Elias Salaberrirekin batera batzokia sortu eta herriko zenbait gauzatan parte hartu zuen (musika-bandako musikari, besteak beste). Gizon kementsua zen, eta horrela hezi zituen bere ondorengoak. Mirenen gurasoek uste zuten anai-arreba guztiak eskolatu behar zirela, pentsamolde irekietan, hain zuen. Herriaren aldeko izaera eragile eta dinamiko hartan hezi zituzten bederatzi seme-alabak, eta denetik egiten zekiten horietarikoak ziren. Miren buru argia zen eskolan, jenio bizikoa, bihurria baina alai. Gauza askorekiko zaletazuna erakusten zuen: txistua eta pianoa jotzen bazekien, eta josgintzan, abesbatzan, dantzan, antzerkigintzan... murgildu zen, beti ere, Euskal Pizkundeko giro abertzalean.

18 urtekin Donostiara joan zen irakasle-ikasketak egiteko, eta 21 urte zituela eskolak emateko baimena jaso zuen. Euskaraz irakastea erabaki zuen. Horrela, Lezoko plazan zabaldu zuen ikastola. Egunez, hurrei ematen zizkien eskolak, eta gauzez, berriz, helduei ordubeteko eskolak, idazten eta irakurtzen ikas zezaten. Emakume Abertzale Batzaren militante zela, mitinlari aritu zen, eta orduko jarrera aberkoia jarraituz, garaiko dantza, mendi-talde zein antzerki-lanetan ibili zen. Emakume Abertzale Batzak antolatzen zituen ekitaldi guztietara joaten zen, uste baitzuen pentsamendua eta sentimenduak gizarte-ekintzetan adierazi behar zirela, bai bata bai bestea.

Gerra Zibila hasi zenean, ahizpa gazteena Salamankan zegoen, raketista baitzen. Aita eta familia haren bila joan ziren, eta handik erbesteraren ibilbide latza hartu zuten: Iparraldea, Madril, Bartzelona... Familia Donibane Garazin zegoen bitartean, berak eskolak ematen zizkien ikasle erbesteratuei bertako zitadelan («La Citadelle» izeneko gotorle-

kuan). Hamabost urte egin zituen erbestean, «probintzia baskongadoetatik» 150 kilometrora bizitzeko debekua jarri baitzioten. Handik itzulterakoan, irakaskuntzara sartu zen berriro, baserriz baserri puntuak lortu arte, etxetik hurbil zegoen ikastetxe bat aukeratzeko asmoz —bera Lezon bizi zen—. Azpeitiko eta Idiazabalgo eskoletan aritu zen, puntuak lortu arte. Horrela, Pasai Donibaneko ikastetxean plaza lortu zue-nean, bertan gelditu zen erretiroa hartu arte, beti ere, euskara eta aber-tzaletasuna gogoko izanik.

Azken hiru urteetan Oiartzungo zaharren egoitzan bizi izan zen, burua argi zuela; bertan egon zen 2003an hil arte.

Erref.: *Lezoko hitza* (2012-02-03). «Bizitza osoa irakasteko griñaz». On-line.

## Purificación Gorostiza, «Garbiñe»

Purificación Gorostiza, «Garbiñe», 1885ean jaio eta gazterik zendu zen, 1909an, 24 urterekin. Barakaldoko Erregaton bizi zen. Lehen Hezkuntzako maisu baten alaba zen, maistra, eta neba abokatua zuen.

Idoia Fernandezek dioenez, «mende hasieran gizartean zegoen kontserbadurismoak bilakatzen uzten ez badio ere, oso data goiztiarretatik topa dezakegu emakumearen ekarpena nazionalismoaren parametroetan. 1907.ean Purificación Gorostiza «Garbiñe»k *Aberri* eta *Gipuzkoarra* aldizkarietan argitaratutakoarekin, emakume batek prentsan idazten hastea suposatu zuen. Berehalaxe, garairako oso gogo ausartean, Rakel Alda «Kataliñ»ek *Asociación Femenina Nacionalista Vasca* izenekoa antolatzea proposatu zuen, nahiz eta Libek proposatutako *Ropero Vascon* antolaketa izan aurrera egin zuen bakarra».

Hala, 1907an *Aberri* aldizkariak emakumeak idazten has zitezen dei egin zuenean, bera izan zen lehena erantzuten; bere izenez sinatutako artikulua dugu, Sabino Aranaren heriotzaren urteurrena zela eta. Ondoren, Garbiñe ezizenez idazten du. Bere ekimenez sortu zen, *Aberri* aldizkarian, «De colaboración femenina» arloa. Idazten zuenaren inguruko pentsamendua abertzaletasunaren barruan kokatzen da, baina eztabaida politikoetan parte hartu gabe, hori gizonen arloan sartzea eta haien pare jartzea zen eta. Azken finean, haien pentsamenduan, bate-tik, desagertzeaz zegoen mundu euskaldunaren ohiturak, pentsamendua, sineskerak erreproduzitzearen ardura hartzen zen, eta, bestetik, industrializazioaren ondorioz erlijioak eta pentsamendu laikoak eragiten zuen mundu berriaren kontra agertzen ziren, erlijio katolikoak aldarrikatzen zuenaren alde eginez.

Haientzat oso gogorra zen anonimo izatetik irtetea, garai hartan eragin handia baitzuen segurtasun ezak, txarto ikusiarenak, beldurrak.

Hala eta guztiz ere, bere izenez sinatu zuen berak idatzitako lehenetarikoa artikulua, Aranaren heriotzaren ingurukoa, kemena adieraziz.

Prentsaren bidez, pentsatzen zuena zabaltzen aitzindari izan zen, bai emakumeen aldeko askatasunaren alde egitean, bai abertzaletasunaren zabalkundean. Dena den, oso gutxi izan ziren haren jarraitzaileak. Karmele Erraztik idazle haiek —Garbiñe, Mirentxu, Tene—jarri zituen adibidetzat bere lehen hitzaldi publikoan, Euzko Gaztedik antolatutako hartan, 1922ko azaroaren 25ean.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; FERNANDEZ, Idoia (1994). «Emakumea, Hezkuntza eta Nazioa Euskal Herrian», *Jakin*, 94, 29-47. *Auñamendi Enziklopedia* (<http://www.euskomedia.org/aunamendi/67783>).

## Maria Jesus Ibaseta Mendizabal

Maria Jesus Ibaseta Mendizabal Lazkaon jaio zen 1885eko azaroaren 20an. Bilbon bizi zen, Rodriguez Arias kalean, 5. zenbakian. Ikasketetan, bermatzaile modura Josefa Mendizabal agertzen da, seguruenik ama. 1903an, edo akaso urteren bat lehenago, irakasle-ikasketetako lehen ikasturtea burutu zuen Gipuzkoako Irakasleen Eskola Normalean. Ondoren, 1905eko ekainean, Bilboko Irakasleen Goi Eskola Normalean, Goi-mailako Lehen Hezkuntzarako errebalida-espeditzea ematen zitzaien eta Goi-mailako Irakasle ikasketetako titulua lortu zuen 1904-1905 ikasturtean. Epaimahiko buru Juliana de Agirrezabala eskolako zuzendaria zen, Victoria de Ucelay idazkaria, eta Maria Berasategi bokala.

Maria Jesus Ibaseta Bilboko udal-maistra izan zen 1906tik aurrera. Hasieran ordezkapenak eginez Seigarren Barrutiko eskolan, Urazurrutiakoan, Bosgarren Barrutikoan. Ondoren, 1907an maistra laguntzaile izendatu zuten eta Zorroazako haurren eskolako zuzendari izan zen; urte berean Iturribideko Lehen Hezkuntzako maistra izatera pasatu zen; 1908an Marzanako eta Larraskituko eskoletan maistra laguntzaile izendatu zuten, 1910ean dimisioa aurkeztu zuen arte. Ondoren, 1914tik aurrera zuzendari izan zen. Urte hartan, Bilboko Udalak bultzatuta, 1914-1915 ikasturtean, emakume helduentzako gau-eskoletan jardun zuen, Marzanako eskolan. Baita, igandeetako Nagusientzako Eskoletan ere. 1916an protesta egin zuen ez ziotelako utzi Colonia eta Itxasoko Bainuetako ekintzetan parte hartzen udal-maistra bezala. Urte hartan, hiriko haurren matrikulazioaren ardura zuen bere gain, beste batzuekin batera, eta 1917an Indautxuko Nesken Eskoletako zuzendaritza eskuratu zuen oposaketa librearen bidez. 1918an arbelak eskatu zituen euskarazko klaseak eman ahal izateko; Bilboko Udalak euskarazko eskolak antolatu eta bera izendatu zuen irakasle Indautxuko Eskolan. Azken ur-

teak Muxikako Eskolako zuzendari eman zituen, harik eta erretiroa hartu zuen arte.

1920an Jose Maria Erraztirekin ezkondu zen. «Jemein, Errazti y Zenitagoya» lantegiko ugazaba zen, *Aberriko* buruzagietariko bat, eta Carmen Erraztiren neba. Beraz, Maria Jesus eta Karmele koinatak ziren. Sei seme-alaba izan zituen, eta berekin bizi ziren ahizpa Aurelia —Bilboko EABko kide 3oeko hamarkadan—, eta Elisa Casa Rojas, Normaleko irakaslea. Neskame bat zeukan.

Maria Jesus Eusko Ikaskuntzako eta Euzko Irakasle Bazkunako kide izan zen, eta Emakume Abertzale Batzako lehen zuzendaritza-taldekoa, diruzaina, hain zuzen. Karguan egon zen 1922-1923ra bitartean eta, ondoren, 1931tik 1932ra aritu zen. Taldea eta araudia 1922ko maiatzaren 7an hautatu zituzten. Taldekiak honako hauek ziren: Karmele Errazti, Pilar Egiraun, Paulina Ramos, Jesusa Fresnedo, Alicia Aretxabaleta eta Petra Gandarias. Gehienak bilbotarrak ziren, Maria Jesus eta Jesusa izan ezik —bata lazkaotarra, bestea santurtziarra—, eta gehienak *Aberriren* joerakoak. Haietatik, gutxienez lau, irakasle-ikasketak egindakoak.

1932ko urtarrilean antolatu zen zuzendaritza-taldean diruzaintzan zegoen, baina urte bereko abenduko hautaketan Dolores Roussek ordezkatu zuen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; Bilboko Udal Agiritegia; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia. Fin de Carrera 1902-1951, 553. or.



## Maria Iturriaga Dañobeitia

1912an jaio zen. Aita, Candido Iturriaga itsasgizona zena, Erandio-Goikoko Batzokiko zuzendaritzakoa izan zen eta ama, Maria Dañobeitia, etxeko andrea. Badirudi etxe onekoak zirela, neskamea zuten eta. Ahizpa Carmenekin eta lehengusu Pedro Dañobeitiarekin batera bizi izan zen. Carmen Dañobeitia lehengusina, Erandio-Goikoko EABko zuzendaritzakoa izan zen. Mariak piano ikasketak egin zituen arren etxeko-andre geratu zen, ez zen ezkondu. *Juventud Católica Femeninako* kidea eta Bilboko Emakume Abertzale Batzako idazkaria izan zen 1936/1937 bitartean. Idazkari izendatu zutenean Jesusa Yarritu, Mercedes Viguera, Sofia MacMahon eta Ventura Kareaga irten ziren zuzendaritza taldetik eta horien ordezkaria bera, Maria Teresa Artalarrea eta Ascension Videk izendatu zituzten.

1937ko ekainean erbesteratu egin zen eta Parisetik eta Bruxelles-etik ibili zen. Urte berean, Teresa Azkuek Belgikako *Casa Social Católica* bisitatu eta bertako agintariengandik laguntza lortu zuen. Hala, Julia Mujikari beka osoa eman zioten eta Maria Iturriagari eta Rosario Ajuriagerrari ordaindu gabeko ikasketak egiteko aukera. Julia Mujikak bekaren ondoren lan kontratua lortu zuen bertan jarraitzeko. Bestalde, Maria Iturriagak egindako ikasketen berri emateko txostena egin zuen: «Rapport de la «Emakume» Señorita Maria Iturriaga sobre sus estudios en Belgica y Paris», 1938ko abuztuaren 30ean.

Jakin izan dugunez «abiadore» izan nahi zuen. Gaztelania, euskara, frantsesa eta ingelera menperatzen zituen. Prestakuntza handiko emakumea, behartsuei laguntzen ere aparteko lana egin zuen. Hirukote hau Maria, Rosario eta Julia gaur eguneko Gizarte Hezitzaileen prestakuntza izateaz gainera, lan horretan aitzindariak izan ziren.

Erref.: LARRAÑAGA, Policarpo (1978): *Emakume Abertzale Batza. La Mujer en el Nacionalismo Vasco*, III, Auñamendi, 123 zkia. 163-175 orr. UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Ventura Kareaga Cirarda

1905ean jaio zen Ventura Kareaga Cirarda. Ama, ahizpa Aurora eta hirurak etxeoandre ziren arren, etxean bi neskame zituzten.

Ventura Kareaga balio handiko emakumetzat hartzen zuten, eta Bilboko EABko zuzendaritza-taldekide hautatu zuten 1932ko abenduan; harekin batera, Rosario Olazabal eta Dolores Rouse hautatu zituzten. 1936ko urtarrilean utzi zuen kargua.

Bestalde, Ventura Kareaga, Juliana Mujikarekin batera, Bizkaiko ordezkari aukeratu zuten 1935eko ekainaren 2an ospatutako PNV/EAJko asanbladan parte hartzeko. Urte bereko uztailean, Gasteizen egindako asanbladan hiru emakumek hartu zuten parte, Catalina Alastueyk, Juliana Mujikak eta Ventura Kareagak. Belostikaleko eta Errotatxuetako eskolen alde lan handia egin zuen, Euzko Ikastola Batzaren kide bezala. Ventura ez zen ezkondu, Ramon Azkueren neskalaguna zen, baina Ramon fusilatu egin zuten Santoñan.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde.



## Mercedes Kareaga Gisasola

Eibarren jaio zen 1908ko abenduaren 15ean; aita Cayetano grabatzaile handia zuen, eta ama Emilia. Emakume aurreratua, antolaketa-rako dohain handikoa eta kementsua, gazte-gaztetatik hasi zen lanean behartsuen eta emakumeen alde. Irakasle-ikasketak egiten hasi zen, baina ez zuen bukatu. Erlijioarekiko grinak bultzatuta, 16 urterekin katekista izan zen, eta ez zion horri utzi 1936. urtera arte, gizarte-gaiak eta hezkuntza baitziren haren bizitzaren ardatz nagusiak. Emakumeen eskubideen alde borrokatu zuen, sozialki eta politikoki, EAJren alderdikide eta Emakume Abertzale Batzako militante gisa. Izan ere, 1931ko urtarrilaren 9an, Eibarren sortu zen EABren bultzatzaileetako bat izan zen, eta alderdian hainbat kargu bete zituen. 1931n eta 1932an, J.A. Agirre, Monzon, Manuel Irujo eta beste hainbat burukiderekin, hogeitami- netik gora eman zituen (Deba, Eibar, Gasteiz, Leitza, Izaba...), beti azpi- marratuz emakumeak gizartean bete behar zuen lekua. Hitzaldi sorta batzuetan ere aritu zen hizlari, emakumearen egoera islatu nahian. «Kareaga'tar Eskarne» izengoitia erabilia *Argia*, *Euzkadi* eta *El Día* aldizka- rietan idatzi zuen.

Gerratean, bere familiarekin batera Bilbon ezkutatu zen; handik Asturiaserako bidea hartu zuten, baina nazionalak Asturiasen sartu zirenean, Mercedesek Frantziara ihes egin nahi izan zuen itsasontziz; «Almirante Cervera» itsasontziak begiztatu, ordea, eta bidea itxi zien. Eibarrera itzulita eskolak garbitzen jarri zuten zigortuta, hainbatero poli- ziarengana joatera behartuta. Horrela ibili zen, herriaren alde egiten zuen lanari esker, betebehar hori kendu arte.

Mercedesentzat funtsezkoa zen premia zutenekiko ardura eta kezka izatea, hala beharturik zegoenaren alde etengabe lana egitea. Horrela gauzatu zituen ondorengo hiru egitasmo. Lehena, 1951n, *Goi Argi* Elkar-

tea, emakumeentzat bakarrik sortutakoa; gizartearen alde eta kristautasunean oinarrituta emakumeei prestakuntza eskaintzea zuen lehen egitekoa: hitzaldiak, ikastaroak, eskolak, sukaldaritza, herriko hainbat gauzatan lagundu... Bigarren egitasmoa 1964an gauzatu zen, berak sortua eta eratua, Eibarko Ongintza Patronatua. Herrian izandako poliomieltis agerraldiei eta gaixotasunaren ondorioei aurre egiteko sortu zuen; Mercedes bera eta Peli Egaña izan ziren partzuergoko batzarkide saiatuenak eta finenak. Hasieran umeentzako pentsatuta egon arren, laster hasi ziren helduendako zerbitzuak eskaintzen, eta horrela, era hartako laguntza medikorik beste inondik jasotzerik ez zuten beharrentzako errehabilitazio-zentro bilakatu zen. Hirugarren egitasmoa, 1973an kokatzen da, «Cayetano Careaga» tailer babestuak sortu zituen. Tailer haiek atzeratutako umeentzako eta ume gormutuentzako eskolak ziren, gazte atzeratuei lana edo beharra emateko sortuak, hots, lanean jarri eta soldata bat jasotzeko aukera eskainiz, sekula lanaren truke dirua irabazteko modurik ez zuenentzat. Herriaren alde eginiko lana eskertuz, 1974an, Udalak eta herriko elkarte guztiek antolatutako omenaldi batean «grabatzaileen bola» eman zioten, herrian edozein alorretan nabarmentzen den eibartarri urtero ematen zaion saria. 1997ko otsailaren 26an hil zen.

Erref.: Egoibarra. *Mercedes Kareaga Gisasola*. Egilea: Begoña Azpiri, Ego Ibarra batzordearen idazkaria. <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1434>.

## Victorina de Larrinaga Arriaga

Victorina Bilbon jaio zen 1866an. Basaberen alarguna zen. Aberatsa, bere palazioaren irudia dugu adierazle. Abertzaletasunaren eta erlijiozko ekimenen bultzatzaile amorratua izan zen, maila ekonomikoan zein militantean. Bere ekimen ekonomikoari esker, hainbat egitasmo gauzatu ziren: 1913an agertu zen *Euzkadi* egunkariaren eta 1922an *La Voz de Navarraren* babesle izan zen; Gorlizeko erietxekoa ere bada; Erroman, 1930ean Instituto Pontificio Orientaleko Liburutegia eraiki zen bere kargura. Berrizeko Mesedetakoan bidez, Txinako Wuhú-n neska gazteen eta maistra indigenen hezkuntzarako diru-emaile izan zen, besteak beste. «La Reina Vasca» ezizenez ezagutzen zuten. 1922ko Eusko Ikaskuntzaren II. Kongresuan etengabe parte hartu zuen, eta *Ropero Vasco*ko bultzatzaile eta lehendakari izan zen.



Bilboko Larrinaga Arriagaren jauregia

Garai hartan, 1907an, *Aberri* aldizkarian, Purificacion Gorostiza «Garbiñe»ren, Maria Barbier «Mirentxu»ren, Rakel Alda «Kataliñ»en eta Liberen artean, eztabaida sortu zen emakumeen antolaketa baten gaineko beharrianaz. Libek *Roperoren* proposamena egin zuen, karitate eta diru-laguntzak emateko bide bezala aurkeztuz, baina, zeharka, abertzaletasunaren propaganda eta emakumeen arteko elkartasuna lantzen joateko bide bezala aurreikusita. Badirudi Victorinak «Libe» ezizez idatzi zuela: «Somos... miradas con recelo por los hombres en estos asuntos que ellos creen que pertenecen exclusivamente a su competencia y se nos mira así, como con aire burlón, en cuanto salimos de nuestro cuarto de costura ó de otras ocupaciones domésticas. Empezando por lo pequeño su gran proyecto de RV., nada más que por la asociación de beneficencia El ropero vasco, poco a poco nos iremos acostumbrando nosotras y acostumbrando a los demás a vernos constituyendo compactas masas de asociación femenina» (Libe, «Carta a Kataliñ», A, 3-VIII-1907).

1908ko otsailaren 2an antolatu zen *Ropero Vasco* zeritzon taldea. Victorina ohorezko zuzendari izendatu zuten, nahiz eta emakumeen lehen elkarte horren arima Victorina bera izan zela dirudien. Lehendakari Sofia de Mac-Mahon izendatu zuten, eta kideak Carlota Olano, Juana Chalbaud, Elena de la Quintana eta Concepcion Azaola. Gehienak *Comunion Nacionalista Vasca* joeraren aldekoak. Geroago, Afrikako gerra zela eta, Euzkotarren Aldeko Jel-Bazkunaren buru izan zen.

1932an, Aberri Eguneko ospakizunetako emakumeen parte-hartze arrakastatsuen ondoren, Kizkitzak proposatu zuen Victorina de Larrinagari omenaldia egitea, Euskal Emakumearen egunean; ez zitzaion egin, ordea, Euskal Amari egindako omenaldira arte.

Victorina de Larrinaga 1933ko azaroaren 3an zendu zen, eta haren hileta-elizkizunak abertzaletasunaren doluaren isla izan ziren, Kizkitzaren esanetan lehen emakume abertzalea izan baitzen. Haren hileta-elizkizunetara politikari eta ekonomia-munduko jauntxo ugari joan zen.

Erref.: ESTORNÉS, I.: [www.euskomedia.añamendi.com](http://www.euskomedia.añamendi.com); LARRAÑAGA, P. (1978). *La Mujer en el Nacionalismo Vasco. Emakume Abertzale Batza*, Donostia: Auñamendi; UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU – Emakunde; Argazkia: MAS, E. (2000). *Ricardo Bastida un arquitecto para Bilbao*. Bilbo: BBK bilduma, 82. or.



## Julia Laskibar Larreta-Azelain

Tolosan jaio zen, 1897ko urriaren 4an, tolosar familia ezagunean. Aita Bartolome legegizon zuen; ama Victoria etxekoandrea. Julia zen gazteena bederlatzi neba-arreben artean. Familia abertzalea oso errotua zegoen herrian. Adrian, Juliaren neba, udal-arkitekto izan zen gerra aurretik. Juliak berak gazterik ezagutu zituen familian eta herrian gauzatzaren ziren egitasmo kultural eta politiko berriak. Ulertzekoa da bera izatea Tolosako Alderdi Jeltzalean afiliatu zen lehen emakumea. Horrez gain, Emakume Abertzale Batzako kide egin zen, 1931n berau eratu bezain laster. 1936ko Gerran, Tolosatik ihes egin behar zuen —ahizpa Rosariorekin batera—, bera hiltzeko agindua baitzegoen.

Hasieran Ziburun bizi zen. Iparraldean bizi zela, egoera latzak pasatu behar izan zituen, beste erbesteratuen antzera. 1946an, 48 urte zituela eta ezkongabe, Eusko Jaurlaritzan gizarte-laguntza eskatu zuen Iparraldean bizitzen jarraitu ahal izateko; izan ere, Tolosan bere izenean zituen ondasun guztiak konfiskatuta izateaz gainera, 100.000 pezetako isuna zeukan jarria. Arrazoi horrexegatik, luzaroan ahizpa Rosaritoren laguntzari esker bizi izan zen, eta bere koinatuarekin, Periko nebaren alargunarekin.

Juliak laguntza eskaintzen zien ihes egiten zuten erbesteratuei, baina Alderdiak egiteko berezia eman zion: kontaktua izatea, Amerikatik zetorren laguntza abertzaleen artean banatzeko. Bere ardura zen arropak, janariak, dirua, eta abar banatzea preso edo erbesteratuei; eta abertzaleen artean lehentasuna eman behar zien gaixoei, adinekoei edo haurrak zituzten senideei. Berak urteko une jakinetan jasotzen zuen euskal etxeetatik bidaltzen zen dirua (gabonetako zozketa, zein tonbola, zein diru-bilketatik batua), batez ere Mexiko, Venezuela eta Argentinako euskal etxeetatik bidaltzen zena. 1938tik aurrera Ziburutik eta

1963tik Donibane Lohitzunetik, jaso eta anonimoki zabaltzen zuen bi-tartekari jakin batzuen artean banatu beharrekoa, haiek ondoren bana zezaten, bai Iparraldeko, bai Pariseko, bai Hegoaldeko abertzaleen artean. Ardura hori bere eskuetan egon zen hogeita hamarreko hamarkadako azken urteetara arte, 1977ra arte.

Bestalde, Alderdiak jarritako gainerako betekizunez arduratzen zen Iparraldean. Berak hartu zuen Concha Azaolak, 1977an hil zenean, utzi zuen Emakume Abertzale Batzaren lehendakaritza.

Hegoaldera etorri arren, Julitxok Donibanen egina zuen bizimodua. Ehun urte zituela, Donibane Lohitzuneko «Txikaldi» adinekoen egoitzan zuen bizitokia.

Erref.: EASN (Euskadiko Artxiboen Sistema Nazionala). Badator// IRARGI (Centro de Patrimonio Documental de Euskadi)// Sabino Arana Fundazioa – Agiritegia; Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Miren Nekane Legorburu

Bilbon jaio 1915ean. Familia karlista zen arren, 16 urte zituela Emakume Abertzale Batzan sartu zen, bere neba Bidebarrietako Euzko Gaztediko kidearen eraginez. Hasierako prestakuntza-ekitaldietan eta eztabaida-saioetan Sorne Unzueta ren laguntza izan zuen, baita oratoria-saioetan ere. Lehen mitina 17 urte zituela eman zuen, Ermuako batzokiaren inaugurazioan, eta sekulako arrakasta lortu zuen. Ez zeukan prestakuntza askorik, baina erraztasunez hitz egiteak eta abertzaletasuna bihotz-bihotzez erakusteak Eusko Alderdi Jeltzalearen propagandista bilakatu zuten. Hizlari baino mitinlari zelako igandero, batzokiz batzoki haien ekitaldi garrantzitsuenetan adoretzu eta suharki parte hartu zuen. Euskararik ez zekielako Enkarterrietan ibili zen, eta Bilbo ingurutik Basauri eta Galda-kaoraino.

Alcalá Zamora II. Errepublikako lehendakaria Bilbora etorri zenean, Emakume Abertzale Batzako emakumeek antolatutako isileko manifestazio batean zegoela, Bilboko udalaren parean erasotu eta jipoitu zuten, bera eta beste batzuk, Asaltoko Guardiek. Horren ondorioz, luzaroan bihotzeko gaixoa izan arren, Bilboko Larrinagako espetxean sartu zutenean, «Gora Euzkadi Askatua» oihukatu zuelako, aurkitu zituen Haydeé, Polixene eta Teresa Zabala EABko emakume mitinlariak.

Mitinetatik gainera, parte hartu zuen Alderdiaren Idazkaritzan, bereziki Hauteskunde Bulegoan, kuotak eta urteko hauteskundeak antolatzeko.

Gerra Zibila hasi zenean, arriskutik aldentzeko, erbesteratzea gomendatu zion Ajurriagerrak. Horrela, ama hartuta itsasoratu zen Santurtzin, *El Cisar* izeneko itsasontzian. Handik Iparraldeko Donibane Garaziko zitadelara joan, eta haur eta familia erbesteratuekin bizi izan zen. Ostean,



---

Parisen eta Ingalaterran ibili zen 40 urtean, etxera etorri gabe. Alderdiak Iruñeko Asanblada antolatu zuenean, atzerritik bueltatu zen senarrarekin —Antonio Gamarra, Arabako Alderdiko buruzagia eta UNESCOko kazetaria Parisen—. Gasteizen hil zen, 2006ko urrian, 91 urte zituela.

Erref.: AMEZAGA, Arantzazu. (1980). *La mujer vasca*, Bilbo: GEU Argitaletxea.

## Monika Lekunberri Uriona

Monika Galdakaon jaio zen, 1910eko maiatzaren 19an. Familian bertan ezagutu zuen abertzaletasuna. Ama etxekoandrea zuen, eta aita, Jenaro, Dinamitako lantegiko postaria; biak ziren euskaltzaleak. Carmelo Leizaola euskaltzalea ere, Dinamitara ingeniari gisa lanera joan zenean, Monikaren etxean egon zen apopilo. Monika, beharbada horregatik, gazterik hasi zen politikan eta euskararen alde lan egiten. Galdakaoko EAB 1932ko abuztuaren 28an sortu zen, eta 1933ko irailean 198 afiliatu izan zituen; herriko EABren idazkari Monika bera izan zen luzaroan, 1934ko urtarriletik 1935eko ekainera arte.

Maistra ikasi zuen Bilboko Irakasle Eskolan. 1926ko ekainean, sarre-ra-azterketaren lehen saiora aurkeztu zen, baina ez bigarrenera; irailean berriro aurkeztu eta sarrerako hiru frogak —idatzizkoa, ahozkoa eta froga praktikoa— gainditu zituen. Horrela, 1930ean maistra titulua lortu zuen. 1934ko apirilaren 14an Galdakaon Plazakoetxe auzoan inauguratu zen Euzko Ikastolan lan egin zuen, sorreratik gerrak eztanda egin arte. 1936ko udan, Galdakaoko Udalaren beka bati esker, Donostiara joan zen Eusko Ikaskuntzak antolatzen zituen udako ikastaroetan parte hartzeko. Orduantxe harrapatu zuen gerrak. Iparraldera ihes egiteko zegoela, azkenean, Galdakaon gelditu zen; eta 1937ko udaberrian, ikastolan, ikasleak eta andereñoa jolastokian zeudela, ihes egin behar izan zuten bonbardaketatik urrun.

Eskolak emateko debekua eman zitzaion 1936ko abenduko Dekretuaren bidez, eta geroago ere ez zuen lortu baimenik luzaroan. Handik aurrera, bere etxean ematen zituen eskolak, edo etxez etxe joaten zen, liburu barik, ez baitzuen eskolak emateko baimenik. Baimena eman zitzaionean, akademia bat jarri zuen bere etxean, eta autonomo modura kotizatu behar izan zuen, erretiroa hartzean zerbait edukitzeko.

Hasiera batean, bera bakarrik arduratzen zen ikastolako haur guztiei eskolak ematen. Baina matrikulak gora egitearekin batera, sasoi batean bere ahizpa Gloria izan zuen laguntzaile. Bi talde egon zirenean, nagusiei Monikak ematen zizkien eskolak, eta txikiei Rosa Lekerika morgatar andereñoak.

1934tik 1936ra bitartean, euskaraz idatzi zuen zertxobait. Galdakaoko Euzko Ikastolaren sorreraz eta funtzioaz *Euzkadi* egunkariko asteroko «Ikasle-ingoskija»n idatzi zuen 1935eko maiatzaren 4an, «Monica de Lekunmerat» ezizenez. «Monika de Lekunberri» izenez ere izenpetu zuen noizbait.

Etxean izandako ezbehar batek eraginda hil zen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia; «Galdakao remueve su pasado» *Deia*. 2010/10/15; *Galdako Gogora* bloga: Ikastolako umeen oroimena 2012/06/8.



## Sofia Mac-Mahon Jacquet

Sofia Mac-Mahon 1890ean jaio zen Bilboko goi burgesiako familian. Ramon de la Sota Aburtorekin ezkondu zen 1913an. Ramon PNVko buruzagi izan zen, *Comunion* joerako kidea, eta haren anaia Manuel *Aberri* eta *Jagi-Jagiko* buruzagia. Sofiak eta Ramonek sei seme-alaba izan zituzten, eta zazpi neskame eta maiordomoa zituzten etxeko lanetan laguntzeko. Etxeko lau neskame EABko kide ziren, baita koinata ere. Bere neba-arrebekin batera (Carolina, Elena eta Pedro) Eusko Ikaskuntzako kide zen, eta bere koinatekin (Catalina eta Maria Luisa) *Ropero Vasco* eta *Juventud Nacionalistako* kide.

1927an *Ropero Vasco* kide zela argitaratu zen *Euzkadin*, eta zuzendari hautatu zuten 1928ko hauteskundeetan. 1921ean, Marokoko gerran ari ziren gudariei laguntzeko asmotan sortu zen Euzkotarren Aldezko JEL Bazkuneko Emakumeen Batzordearen buru Victorina de Larrinaga bazen ere, bi lehendakariorde izendatu zituzten: Sofia bera eta Teresa Azkue.

Sofia emakume ekintzailea zen, eta 1931n Bilboko Euzko Gaztediko egoitzan ospatu zen Emakume Abertzale Batza birsortzeko batzarrean parte hartu zuen. Garai hartan, PNV/EAJ barruko bi joerak, *Aberri* eta *Comunion*, bildu ziren hartan, Emakume Abertzale Batzako ekimenetan parte hartzen hasi zen; urte batzuk geroago zuzendaritza-taldeko kide hautatu zuten.

1932ko *Aberri* Eguneko ospakizunetan parte hartu zuen, Sabin Etxearen dekorazioaren Batzordean parte hartuz eta *Aberri* Egunari buruzko propaganda lanetan arituz. Era berean, Espainiako Errepublikako lehendakari zen Alcala Zamorak Bilbo bisitatu zuen egunean, EABk manifestazioa deitu zuen, eta Asaltoko Guardiek haien kontra egitean,

emakume erasotuen artean zen Sofia ere. Erasotua eta erasotzailea, zapatata batekin guardia bati lepoan joko aritu baitzitzaion.

1934-1935, Emakume Abertzale Batzako zuzendaritza-talderako hautatua izan zen, Rosario Olazabal, Dolores Rousse eta Ventura Kareagarekin batera. Kargua 1936ko hauteskundeetan utzi zuen Jesusa Yarrantu, Mercedes Viguera eta Ventura Kareagarekin batera. Bera irteteak EABko zuzendaritzan goi burgesiaren presentzia galtzea ekarri zuen. Haien ordez, Maria Iturriaga, Maria Teresa Artalarrea eta Ascension Videan sartu ziren. Maria Teresa Artalarrea, STVko kide zen heinean, emakume langileen presentzia bermatu zuen EABko zuzendaritzan.

Hainbat sostengu-taldetako kide da; Errotatxuetako eskolen sostengurako batzordekide izan zen, eta baita Gaztetxuen sorreran bere semeek izan zuten ekimenen bultzatzaile ere.

Hauteskundeetako Eskualdeko Batzordearen Sostengu ekonomikorako, laguntzarako EABko emakume bezala parte hartu zuen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU/ - Emakunde; Emakume. Polixene Mandaluniz, *Garaia*, XI-1976, 12. zk. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## **Damasa Matxinandiarena Eslava**

Agoitzen jaio zen 1905eko apirilaren 17an. Iruñean hil zen 1991ko maiatzaren 28an. EAB martxan jarri zuen bere sorterrian, 1932an. Iruñeratu zenean, oso aktiboa izan zen hiriburuko EABn ere. Senarra zuen Modesto Urbiolarekin batera, Alava sareko lanetan aritu zen. Haien etxean eta ardurapean, sendagaien biltegi antzekoa antolatu zuten presoei laguntzeko. Haurdun zegoelako ez zuten atxilotu 1941eko sarekadan. Izan ere, Modesto Madrilen atxilotu berria zelarik, Damasak bosgarren semea izan zuen. Egoera hartan aurrera egin behar izan zuen, baina ez zen batere kokildu. Hainbat aldiz, isunak pairatu zituen, egingdako adierazpen publikoengatik.



## Juliana Mujika Agirrezabal

Juliana Josefa Mujika Agirrezabal Bilbon jaio zen 1905eko martxoaren 17an. Aita Victor Mujika, Bergarakoa, arotza, eta ama Salustiana Agirrezabal, Alameda de San Mames kalean bizi ziren, 28. zenbakian, 5.en pisuan. Aitita, Jose Mujika, eta amama, Francisca Garitano, bergararrak ziren. Amaren gurasoak ere, Jose Ramon Agirrezabal eta Maria Lazpiaur, bergararrak ziren. Ezkongabea, Victor aitarekin eta Julia Gisasola amaordearekin bizi izan zen. Bere ahizpa Eugenia Emakume Abertzale Batzako kide izan zen, ez ordea bere ahizpaordeak. 1920ko ekainean Bizkaiko Irakasle Eskola Normalean egin zuen sarrerako azterketa. Sasoi hartan, Aldameda San Mamesen bizi zen, baina 34. zenbakian. Julia laugarrena zen. Bere aitarengandik jaso zuen euskara eta aberriarenganako maitasuna eta hark bultzatu zuen EABn parte har zezan.

Ikasketak Montpelliierreko frantziskotarrek Bilbon zuten Pilar ikastetxean egin zituen, dena frantsesez, eta gazte zelarik Angulemara frantsesa ikastera joanda zegoen. Ostein irakasle ikasketak egin zituen Bilboko Solokoetxeko Normalean.

1932ko Aberri Egunari buruzko propaganda-lanetan aritu izan zen. Espainiako Errepublikako lehendakaria zen Alcala Zamorak Bilbo bisitatu zuen egunean, EABk manifestazioa deitu zuen eta, Asaltoko Guardiek haien kontra egitean, emakume erasotuen artean dugu Juliana, EABko idazkaria.

1932an, Emakume Abertzale Batzako zuzendaritza-talderako aukeratu izan zen; horrela gauzatu zen Aberriko kideen ordezkapena, Rosario Olazabal, Dolores Rousse eta Ventura Kareagarekin batera. 1932-1933 bitartean EABko idazkari, eta, 1934-1935 artean idazkariorde izan zen. Urte hartan, Juliana Rakel de Aldarekin batera irten zen zuzendaritzatik

eta, haien ordez, Concepcion Azaola, Maria Begoña Solozabal eta Concepcion Olaziregi sartu ziren.

Horrez gain, Juliana, Ventura Kareagarekin batera, Bizkaiko ordezkari aukeratu zuten 1935eko ekainaren 2an ospatu zen PNV/EAJko asanbladan parte hartzeko. Urte bereko uztailean, Gasteizen ospatu zen asanbladan, hiru emakumek hartu zuten parte: Catalina Alastueyk, Juliana Mujikak eta Ventura Kareagak.

Bere ikastaldeko lagun batek abisatu zion EABn zuen militantziaz, kontuz ibiltzeko, egoera larrian zegoela. Horregatik, 1937-6-13an Santurtzitik ikatz-ontzi ingeles batean alde egin zuen bere ama eta bost neba-arrebekin. Azkenean, sendiekin batera Britainian erbesteraturik egon zen. Juliak lan handia egin zuen erbesteratuei laguntzen, zekien frantsesari esker interprete lan egiten baitzuen zenbait egoera latzetan -gaixok medikuekin hitz egiteko, botikak lortzeko zein dokumentuak kudeatzeko-. Handik Belgikara joan eta hango ikastetxe katoliko batean asistente sozial ikasketak burutu zituen hiru urteetan zehar, Maria Iturriaga eta Rosario Ajuriagerrarekin batera. 1941eko Gabonetan Bilbora itzuli zen. Ordutik aurrera Bilbon bizi izan zen. Irakaskuntzatik at geratuta, Sota, Txabarri eta honelako familietan klase partikularrak ematen zituen. Katekista lanetan ere luzaroan aritu zen. Izaeraz arteza eta karakter handikoa zen, eta sentimendu erlijiosoak eraginda, sekulako lan humanarioa eta soziala egin zuen gerraondoan, familia abertzaleei lagunduz. Familia hauetan zeuden arazo gordinei aurre egiten saiatu zen; beste abertzale batzuek emandako laguntza jaso, eta arropak, dirua, botikak —tuberkulosia oso zabalduta baitzegoen-, janariak eta abar banatzen zituen beharrezana zutenen artean. Bilbon hil zen, 1991ko ekainaren 15ean, 86 urte zituela.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde.





## Robustina Mujika Egaña, «Tene»

Robustina Deban jaio zen 1888ko maitzaren 24an. Familia onekoa zen, gurasoak, Joan Joxe eta Josefa Juliana, herriko janari-denda handienaren jabeak ziren-eta. Tene hamabi senideen artean bederatzigarrena zen, eta alabetan zaharrena. Gurasoak euskaldun jator, kristau zintzo eta abertzale sutsuak ziren, eta balio horietan hezi zituzten seme-alabak. Tenerentzat denda zen lehen eskola eta jolastokia, eta herriko jendea ezagutzeko lehen gunea, ia bakarra. Herriko eskolan oso ondo ibili zen gai guztietan, eta hamalau urterekin atxiki zitzaion dendako ardura. Unibertsitate-ikasketak ondo eramango zituelakoan gaude, baina familiaren ardura eraman behar izan zuenez, ezin! Dendari-lana gero eta hobeto eraman arren, ezkogintza ere ikasi behar zuen, berau ogibide bilakatzu. Tenek gogokoa zuen idaztea eta irakurtzea, eta horrela ematen zuen ahal zuen denborarik gehien. Hortik, idazteko erraztasuna ere!

Tene, idazle izateaz gain, politikaritzat hartu behar da. 1923an, EAJ zatitu zenenean, CNVn lerrokatu zen bera. Handik aurrera, helburu didaktiko-politikoak agertuko da idazketetan, hots, emakume abertzalearen prototipoa marraztea, Sabino Arana burkideak emakumeei emandako paperaren arabera taxutuz. 1923an, EAB sortu zenean, Tenek *Azarri Bazkuna* sortzea proposatu zuen, EAB baino moderatuagoa; baina ez zuen arrakastarik izan, Deban eta Ondarrun salbu.

Hizlari suharra zen; EAJko ekitaldi agerikoetan parte hartu zuen, hitzaldietan zein orduko egunkarietan —*Euskal Esnalea, Euzko Deya, Gure Herria, Euskerea, El Día, Euzkadi, Agur, Luzaro, Goiz Argi eta Deva*—. Poesiak eta antzerti-lanak idatzi zituen, baina *Itziarri idatziak* idazlana bilakatu zen benetako emakume abertzalearen eskuliburu. Idazlan aberkoiak dira, hemeretzi gutun eta 23 olerki osotara. Eskutitze-

tan, emakume abertzaleen eginkizunak plazaratzen zituen, eta naturari eta Euskal Herriko edertasunari eskainiak dira olerkiak. Bereziki kezkatzen zuen euskararen egoerak, bai eta emakumeak hartan zezakeen ardurak ere.

Debako Emakume Abertzale Batzako lehendakari izan zen 1935etik aurrera, eta baita Gipuzkoako EABko lehendakari ere (1935). Izan zituen karguengatik, Iparraldera jo behar izan zuen, eta han euskal errefuxiatuen alde lan egin zuen. Gerraostean hainbat artikulu eta ipuin idatzi zituen Debako jaien programetan. Hortik kanpo gutxi. Bat, 1964an, nekazari bizitzari buruzkoa —Ondarrun Txomin Agirre 1. saria lortu zuena— eta, bestea, 1969an *Cuadernos de vascuence hablado* izenburukoa, Zarautzen argitaratua, seme-alabak ikastoletara agintzen dituzten guraso erdaldunentzako eskuliburua.

Emakumearen Nazioarteko Urtean (1975), Euskaltzaindiako oho-rezko kide izendatu zuten, Julene Azpeitia eta Madeliene Jauregiberrirekin batera. 1981eko irailaren 16an zendu zen Deban, bere herrian.

Erref.: DORRONSORO, L. (1984). *Tene Mujika (1888-1981)*. Bidegileak. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. <http://www.guregipuzkoa.net/photo/9664>.



## Koldobike Natxitube Gametxogoikoetxea

Elantxoben jaio zen 1912ko maiatzaren 19an. Aita merkataritza itsas-  
ketako kapitaina zen. Gerraurrean atera zuen irakasle titulua Bilboko  
Eskola Normalean. Eskola hartako artxiboetan agertzen da 1928an sa-  
rrera azterketa gainditu zuela.

Miren ahizpa (1926-7-3//2003-1-23) baino zaharragoa zen Koldobike,  
lehenago hasi zen maistra Aldundiak sortutako auzo-eskoletan, eta han-  
txe Koldobike, laguntzen edo: «Miren Geldon egon zan maistra. Natxi-  
tube. Oraindinokarren urteran bete edo joan izango da. Horreek izan zi-  
ran, sikanen be, neba bi eta ahiztak: Garbiñe, Mikel eta ez dakit ba  
horren ahiztea etorten zan hona ahizteagana sarri. Gure nebea Juan  
ejenploetan gustetan jakon horrerri eta bedarra ebagiten dabilen lekurai-  
no-eta makina bat bider joan jako. Koldobika polite zan». (Juana Re-  
menteria).

1932-1933 ikasturtean hasita, Bilbon dabil maistra, Errotatxuetako  
eskolan, harik eta 1937an Belgikako bidea hartu zuen arte. Euskara ira-  
kasle zeb, 1. eta 2. mailan, eta beragaz ziren Libe Barrena, Miren Alberdi  
eta Esteban Urkiaga «Lauaxeta». Gerraurrean Koldobike, Miren eta Gar-  
biñe Sabinetxean ibiltzen ziren, euskaran, kulturean, politikan.

Home Aignan-en egon zen, gerrak bidalita, hara joaneko umeen an-  
dereño. Ume horiei laguntzen zein familia berriak bisitatzen ibili zen  
Maria Arrien, Cipriana Aldekoa eta Lucia Ardanza andereñoakaz batera.

Bere ahizpa Garbiñek (1917-2-10//2007-3-4) kontatzen zuenez «Bru-  
selan *Gora ta gora Euskadi* kantatzen genuen igandetako mezatan. Dei-  
garria egiten zen han, ondo kantatzen genuela esaten ziguten, baina  
han ginen gu negarra dariola». Europako gerrak ekarri zuen bueltan  
—Koldobike, Miren eta Garbiñe 1939ko urriaren 10ean bueltatu ziren—

baina Irunen atxilotu eta, Francoren kontrako politika egitearen akusaziopean, Ondarretako kartzelan lehenengo eta Deustuko Unibertsitatean gero sartu zuten. Beste askori moduan, lanerako baimena kendu zioten.

Euskara irakasle izan zen Madrilén, Euskal Etxean sortu zen euskaltegian. 1977-1978 ikasturte hartan bertan, urriaren 11n, hasi zen Koldobike Natxitube Bizkaiko euskara irakasten bederatzi ikasleri. Han jarraitu zuen urte batzuetan. 1980ko urrian, euskaltegiko ikasle batek, Carlos de Goyeneche y Silvelak, Balbuenoko markesa eta enbajadorea zenak, gutuna idatzi zuen Euskal Etxera, Koldobike Natxitube euskarako andereñoaren lana zein haren giza ezaugarriak gorai patuz. 1995eko maiatzaren 27an hil zen.

Erref.: BELTRÁN DE HEREDIA, Pablo J. (2003). *Historia de Euskal-etxea – Hogar Vasco de Madrid*. Urazandi bilduma, 14. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza. // Juan Luis Goikoetxea (zuzeneko grabaketak); LARRAÑAGA, Policarpo. (1978). *Emakume Abertzale Batza*. Donostia: Colección Auñamendi; ARRIEN, Gregorio (1983). *La generación del exilio*. Bilbo: Onura, 64. or. (argazkia).



## Rosario Olazabal de la Maza

Rosario Olazabal Bilbon jaio zen 1901eko urriaren 5ean. Aita, Agustín Olazabal, Ulibarrikoa zuen, arabarra, oihal-denda baten ugazaba. Ama, Maria del Pilar de la Maza ere arabarra zuen, Agurainekoa. San Francisco kalean bizi ziren, 27. zenbakian. Aitaren gurasoei zegokienez, Ildelfonso Ulibarrikoa zen, eta Benita Larralde Menbilekoa. Amaren aldekoak, Antonio Larrondokoa zen eta Akilina Jauregi Santikurutze Kanpezukoa. Dena den, aita berriz ezkondu zen, eta amaorde Juliana Gomez, izeko Josefa eta ahizpaorde Soledadekin bizi izan zen.

Hamabost urte zituelarik, 1916ko irailean, Bilboko Irakasleen Goi Eskolan sarrera-froga egin eta gaingitu egin zuen. Maria Berasategi izan zen epaimahaiburu, Elisa de la Casa idazkari, eta Martina Casiano epaimahaikide. Euzko Ikastola Batzak irakaskuntza lanetan bultzatutako ekimenen ondorioz, urtebetez, 1932tik 1933ra, aritu zen maistra, Bilboko Errotatxuetako ikastolan. Han Koldobike Natxitube izan zuen lankide.

Ondoren, dendari lanetan aritu zen. Ez zen ezkondu.

Bilboko EABko zuzendaritza-taldearen aukeraketaz eztabaida handiak izan ondoren —batzuk taldearen erdia ordezkatzea proposatu ostean—, 1932ko abenduan aukeratu zuten idazkariorde. Beragaz batera Rakel Alda, Dolores Rousse eta Ventura Kareaga sartu ziren. 1933ko abenduko hauteskundeetan uko egin zion zuzendaritza-taldean jarraitzeari, kargu berritzearen inguruko eztabaidaren ondorioz. Rosariorekin batera, Jesusa Zubizarreta irten zen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; Bilboko Udal Agiritegia; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Araceli Placer Martinez de Lecea

Araceli Placer Martinez de Lecea Arabako Ozaeta herrian jaio zen, 1915ean. Aita Gerardo Placer zuen, Zaragozan jaioa, baina Donostian egon zenean euskara ikasi zuena. Ozaetan mediku zela ezagutu zuen Feliziana Martinez de Lecea, Araceliren ama. Harekin ezkondu eta hamabost seme-alaba izan zituen. Haietatik hamahiru Ozaetan jaio ziren, aita 35 urtez Barrundiako mediku izan zelako. Beste bi, Elbira (1901) eta Maria Nieves (1903) alabak, berriz, Busturian jaio ziren, han ere mediku egon zelako. Busturian, harremana izan zuen Sabino Aranarekin, eta hor kokatu behar da familia honen abertzaletasuna.

Araceliren familia abertzalea eta erlijiosoa zen, eta gizartearekiko konpromiso handia erakusten zuena. Esate baterako, Jose, neba nagusia, militantziaren hasieratik EAE/ANVn afiliatua egon zen, eta Gasteizen sortzaileetako bat izan zen 1931. urtean. Gasteizko Batzordeko idazkari zela, EAE/ANV barruan ezker korrontea bultzatu zuen; azken hilabeteak Lauxetarekin batera pasatu zituen Gasteizen espetxeratuta, eta olerkaria hil zutenetik hamar egunera bera ere fusilatu egin zuten, 1937ko uztailaren 5ean. Felix, hirugarren anaia, eusko itsas armadan ari zen; Eloyk, hamaikagarrenak ere, euskara zuen ikergai. Gerra sasoiaren Estatu Batuetara joan eta, 26 urtean hainbat unibertsitatean gaztelaniako irakasle ibili ondoren, azkenean, Renoko Unibertsitatean bukatu zuen, irakasgaia bera irakasten, «Basque Studies Program»eko ekintzetan parte hartzen zuen bitartean. Maria Dolores ahizpa zaharragoa Arabako EABko karguduna zen.

Araceli familia horretan hezi zen, eta Gasteizko Emakume Abertzale Batzuan kidetua zen gazte-gazterik. Arabako EAB 1931n sortu zen, eta 1932an Araceli, 16 urterekin, mitinak ematen hasia zegoen. Alai, gaztea eta prestatua, irakasle ikasketak oraindik bukatu gabe, igandero ibiltzen

zen mitinak ematen. Horrela, Carmen Gamarra eta Pilar Landaburu mitinlariekin lurralde osoko herrixkak ezagutu zituen. Hasiera batean, bere izenez agertzen zen mitinetan, baina gero, Normaleko irakasle-ikasketak ez gainditzeko beldurrak eraginda, Miren Egoinoa ezizenez jarraitu zuen. Mitinetan, «Gure Miren Egoinoa mitinlari kementsua» esanez aurkezten zuten Araceli.

Gerra hasi zenean, ahizparekin batera Bilbora abiatu zen erizain gisa. Bilbon egon zen hiria suntsitu arte, eta bertan ikusi zituen ikustekoak. Frantziako «La Roseraie» ospitalera abiatu zen gerrako gaixoekin batera, erizain lana eskainiz. Hegoaldera itzuli zenean, Gasteizen espetxeratu zuten. Zeukan apurraz maleta osatu eta Venezuelara abiatu zen misiolari; baina Ecuadorren beharrian handiagoa zegoela ikusirik, harako bidea hartu zuen. Aracelik zortzi urtean misiolari lana egin zuen Ecuadorren, Los Rios izeneko erakundearen bidez. Berak zuen esperientzia kontuan izanik, 1969an Bizkaiko Medicus Mundi erakundeak proposatu zion haiekin lan egitea. Horrela ibili zen osasungintzaz zekiena besteen alde jartzen, misiolari sekular gisa. Azkenik, Gasteizko Santiago Apostol Ospitaleko artxibategiko arduradun gisa lan egin zuen, erretiroa hartu arte. Gasteizen hil zen, 1997an.

Erref.: AMEZAGA, Arantzazu. (1980). *La mujer vasca*, Bilbo: GEU Argitaletxea; *Hamaika Bide Elkarte*. Euskal Erbesteen kultura (hamaikabide.org); Placer Martinez, Eloy. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Paulina Ramos Abarrategi

Bilbon, Lertxundi kalean jaio zen 1896ko ekainaren 6an. Aita Justo Ramos Suarez bertako semea zuen, eta ama Frantziska Abarrategui Otxoa de Retana Arabako Medarosketakoa. Bilboko Goi Mailako Normalean egin zituen irakasle-ikasketak. Oinarrizko gradua 1910ean lortu zuen Indautxuko Normalean. Goi-mailako titulua, berriz, 1913an, Soloakoetxeko egoitzan, eta titulu bietan bikain aterata. Handik lasterrera, Bilboko udal-eskolako oposaketara aurkeztu eta Erriberako plaza lortu zuen, 1918ko urtarrilaren 25ean. Neskei ematen zizkien eskolak, eta M.<sup>a</sup> Jesus Ibaseta, Raket Alda eta beste euskaltzale batzuk lankide zituela, lanari utzi behar izan zion 1937ko ekainaren 9an, 1936ko Garbiketa Dekretuak eraginda. Euzko Irakasle Bazkuneko kide izan zen.

Bizkaiko Pizkundeko giro kultural eta aberkoian murgildurik, politikan sartu zen. Bera izan zen, Irlandako Ambrosio Martin O'Daly-k hitzaldia eman ondoren, Gallastegik proposatutakoari jarraitu ziona. 1922an, Bilboko Euzko Gaztedin antolatutako hitzaldi sortan, 26 urte zituela lehengoz hitza hartu, eta Emakume Abertzale Batza sortzeko urratsak zabaldu behar zirela proposatu zuen, irlandar emakumeen antzera. Ulertzekoa da, beraz, EABren sorreratik zuzendaritzan parte hartzea. Bilboko EABko lehen idazkari izan zen 1922-1923 urteetan, eta bokala 1931n. Gerra aurreko urteak eman zituen aberriaren eraikuntzan emakume eragilearen papera aldarrikatuz, Emakume Abertzale Batzaren ideologiaren zutabeak —JEL, Jaungoikoa eta *Lagi zarra*— ardatz harturik.

Emakume jantzia zen, argia eta hizlari gogotsua, dohain bereziz jaioa. 1924an Endika Oruetarekin ezkondu zen; Bilboko Euzko Gaztediko sortzaileetarikoa zen hura ere, eta *Aberritarraren* aldekoa. Herriz herri, batzokiz batzoki... olerkiak irakurri, hitzaldiak eman, eta kultura-ekital-



dietan parte hartzea zen Paulinaren egitekoa. Senarra ere alderdiko ideologiaren hizlari ospetsua zen, antzerki-gidoigilea eta Bilboko *Pizkundia* eta *Oldargi* antzeztaldeen sortzailea (1929). Biak oso konprometiturik agertzen ziren alderdiak antolatzen zituen ekintza, ekitaldi politiko zein ospakizunetan, jeltzaleek eta emakumeek aldarrikatzen zuten ideologia-rekin bat eginik. Hogeita hamarreko hamarkadan, senarra Bizkai Buru Batzarreko idazkari izendatu zuten eta, ostean, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuneko zuzendariorde. Arrazoi politikoak zirela medio, bi aldiz, 1912an eta 1939an, Donibane Lohitzunera alde egin behar izan zuen. Paulina ere 1937an erbesteratu zen, hiru semeekin —Jon Sabin (13 urte), Javier Iñaki (12 urte) eta Paul Ander (10 urte)—. Frantziako Oloron inguruko Saint Christau Lurbeko kolonian errefuxiatuak, eskolak ematen zizkien bai semeei bai gainerako haur erbesteratuei, Sorne Unzueta andereñoarekin batera.

Frantzian alemanak sartu zirenean, 1941ean *Alsinan* itsasoratu zen senarra, beste erbesteratu askorekin, Buenos Aires aldera. Bertan, Euzko Ekintzaren lehendakari izendatu zuten 1943an; baina, hurrengo urtean, biriketako minbiziak eraginda hil zen. 1947an, Paulinak, alargunduta eta hiru semeekin Bilboko Irala kalean bizi zela, aldeko zenbait txosten atxikirik, bere garbiketa-espeditatea berrikusteko proposatu zuen Gobernamentu Ministerioan. Bere aurrekariak ikusirik, ezezko erantzuna jaso zuen 1949an.

Erref.: ALONSO CARBALLES, J.J. (1998). *1937, Los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica: historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940*. Bilbo: 37an Atzerriraturiko Haurren Elkarte; Bilboko Udal Agiritegia; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Dolores Rousse Gerekiz

Dolores Rousse Gerekiz 1900. urtean jaio zen. Ama, Adelaida Gerekiz, *Ropero Vasco*ko kide izan zen; neba Jose Mari itsas gizona zen, eta Angel Mari delinentea. Etxean neskame bat zuten, Josefa Goikoetxea, EABko kide; haien koinata ere, Luisa Abasolo, EABko kide zen. Dolores bera ez zen ezkondu, eta etxeakoandre izan zen.

Bilboko EABko zuzendaritza-taldearen aukeraketaz eztabaida handiak izan ondoren, 1932an, Dolores aukeratu zuten Emakume Abertzale Batzako zuzendaritza-talderako, diruzaina, hain zuzen. Rakel Alda, Rosario Olazabal eta Ventura Kareagarekin batera sartu zen zuzendaritzan. *Aberri* joerako kide ziren emakumeen ordez hautatua izan zen. Teresa Azkuek jarraitu zuen buru, Rakel Aldak hartu zuen lehendakariordetza, Juliana Mujika zen idazkari, Rosario Olozabalek idazkariordetza hartu zuen, eta Mercedes Viguera, Jesusa Zubizarreta eta Ventura Kareaga ziren bokalak. 1937ra arte aritu zen Bilboko EABn diruzain, bere lana estimatua baitzen. Bizkai Buru Batzarreko propagandarako batzordekide izan zen, EABkoa izateaz gainera.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Pilar Sansinenea Goñi

Donostian jaio zen 1905eko azaroaren 21ean. Gazterik umezurtz gelditu zen, eta 15 bat urte zituela edo, osaba-izeben etxean bizi izan zen Tolosan. Osaba Doroteo Ziaurritz sendagile eta politikari euskaltzale ezaguna zuen —Euzko Alderdi Jeltzaleko lehendakari 1935etik, 1951n Donibane Lohitzunen hil zen arte—. Tolosako mugimendu euskaltzalea oso lotuta egon zen politikarekin, eta egoera hartan ernatu ziren eta elikatu Pilarren euskaltzaleatasuna eta abertzaleatasuna. Horrela, gazterik sartuta politikagintzan, 1931n Tolosan Emakume Abertzale Batza sortu zenean, lehendakari izendatu zuten, eta 1933an Gipuzkoako EABko bokal.

Irakasle-ikasketak egin zituen Donostian eta hurbil-hurbiletik ezaugu zuen Tolosako lehen ikastolaren sorrera (1922), 1936ra arte iraun zuena. Osaba Doroteo, Antonio Labayen —Pilarren koinatua—, Lizardi, Periko Laskibar, Ixaka... izan ziren, besteak beste, ekimen hori bultzatu zuten euskaltzaleak. Pilar hasiera-hasieratik izan zen ikastolaren urgazle. Indarrak bildu eta maiz antolatzen zituen pedagogia berrietan sakontzeko bilkurak, eta horietan harreman estua izan zuen EABko kide eta maistra ziren Iñaxi Munita eta Elbira Zipitriarekin. Hirurak Eusko Ikaskuntzako kide ziren, eta badakigu 1932ko udako ikastaroetan parte hartu zutela.

Gerra aurretik, Jexux Elozegi tolosarrarekin ezkondu zen; ingeniari eta arkeologoa zen, eta Aranzadi Zientzia Elkartearen sortzailea. 1932tik aurrera argazkilaria profesional gisa aritu zen. Orduetik aurrera, Pilar lehen baino indar handiagoz murgildu zen politika-lanetan eta euskal kulturaren. Gerra sortu eta frankistek Tolosa hartu zutenean, Hondarribira joan ziren, eta handik Ziburura lehendabizi eta Sarara gero. Europan zehar, biak ibili ziren euskal izaeraren berri emateko Eusko Jaurlari-

tzak 1938an antolatu zuen Eresoinka euskal dantza eta abesbatzan, Pilar kontraltoa baitzen. Bigarren Mundu Gerraren aurretik, senarra Tarbeseko (Frantzia) arma-fabrikari aritu zen lanean bi urtez (1939-1940), baina alemanen erasoak gertu zela eta, Euskal Herrira itzultzea erabaki zuten; Jexux Elosegik *batallón de trabajadores* lan egitera beharturik egon zen hilabete batzuetan, Oiartzungo Aiako errepidean. Pilartxoren familiak urte batzuetan Pasai Donibanen lan egin ondoren, arrain-olio bitaminikoak egiteko fabrikari, senar-emazteak Donostiara joan ziren bizitzera, Ulia auzora. Senarra gaixotu zenean, Tolosara itzuli ziren bertiko. 1979an alargundu zen, baina Pilar Sansineneak ez zion inoiz utzi euskaltzaleei laguntzeari; Lazkaoko Bénédictarren eskuetan utzi zuen senarraren argazki bilduma —herri baten pertsonaia, jai, ospakizun eta abarren testigantza zena—, euskaldunen ondasun kultural gisa. Pilar Tolosan hil zen 1997ko abuztuaren 28an, laurogeita hamaika urte zituela.

Pilarrek ez zuen asko idatzi, baina badakigu 1953an argitaratu zuela RSBAP Boletinean «Contribución al estudio del dialecto roncalés» izeneko artikulua, 37 orrialdekoa, elkarkidetzan idatzita ordena honetan: Michelena, L.; Beloqui, J.J.; Sansinenea, P. de; eta de Elósegui, J.

Erref.: *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*; *Añamendi Enziklopedia* (Egilea: Xabier LaSalle); <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1006993>



## Miren Begoña Solozabal Larrauri

1899an jaio zen Begoña Solozabal. Aita Jose langilea zen eta Bizkai Buru Batzarreko kidea. Ama Justa *Ropero Vasco*ko ohorezko kide izan zen. Etxeko lanetan baziharduen ere, Francisca Makoaga neskamea EABko kide izan zen. Ahizpa Valentina Solozabal ere EABko kide izan zen. Begoñak musika-ikasketak zituen eta pianoko irakasle zen.

1935eko maiatzean, EABko zuzendaritza-taldea berritu zenean, idazkariorde-lanak hartu zituen. Hautapen horretan, Rakel Alda eta Juliana Mujikaren ordeztatu zituzten Concepcion Azaola, Concepcion Olaziregi eta Begoña bera. Teresa Azkueren lehendakari zapean, Concepcion Azaola zen lehendakariorde, Jesusa Yarritu idazkari, Dolores Rousse diruzain, eta Mercedes Viguera, Ventura Kareaga, Sofia Mac-Mahon eta Concepcion Olarizegi bokalak. 1937ra arte egon zen karguan.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



### Sorne Unzueta Landeta, «Utarsus»

Primitiva Sabina Unzueta Landeta Bilbon jaio zen 1900eko azaroaren 27an. Aita, Benigno Unzueta Uribarri, hargina edo igeltseroa, gernikarra zen, eta ama, Magdalena Landeta Ituarte, Igorrekkoa. Bilboko Marzana kaleko 10ean bizi ziren. Aitaren gurasoak Ignazio Antonio Unzueta Zabalera, Mendarokoa, eta Braulia Uribarri Etxebarri ziren. Amaren gurasoak Miguel Antonio Landeta Ozamiz, Ajangizekoa, eta Josefa Iriarte Bilbao Muxikakoa ziren. Lehen ikasketak Atxuriko eskolan egin zituen eta sari nagusia jaso zuen. Gregorio Erraztirekin ezkondu zen 1925ean, Abandoko San Vicente elizan, eta bost seme-alaba izan zituzten. Bere ahizpa Basilisa, 1894an jaioa, Bilboko Irakasleen Goi Eskola Normalean ikasi eta maistra izan zen, Sorne bezala. Abandoko giroan jaio eta hazi zen Sorne, eta bertan abertzaletu. 16 urte zituenean, Ebaristo Bustintza «Kirikiño» irakasle zuela, euskara ikasi zuen, eta ordutik aurrera Sorne izena hartu zuen. Bilboko Irakasleen Goi Eskola Normalean maistra titulua hartuta, 1920 ostean sortutako auzo-eskoletan aritu zen, Errigoitin, Plentzian, Lemoan, Berangon... Eta joera orokorraren kontra eginez, ikasleei euskaraz irakasten zien. Bizkaiko Euzko Ikastola Batzako kide zen.

Idazle nabarmena izan zen, «Utarsus» ezizenez sinatzen zuen, eta prentsa abertzalean idatzi zuen beste emakume idazle batzuekin batera. 1920ko hamarkadan hainbat idazlan argitaratu zituen *Euzkerea*, *Euzko Deya* eta *Jaingoiko-Zale* aldizkarietan, eta baita *Euzkadi*, *Diario Vasco*, *Bizkaitarra*, *Argia* aldizkari eta egunkarietan ere. Mitinlari-lanetan ere aritu izan zen herriz herri, abertzaletasuna zabalduz. 1934an, propaganda abertzalea egiten ibili zen zenbait hitzalditan, Julene Urzelay, Haydée Agirre, Lucia Ardanza, Miren Urdangarin eta Miren Nekane Legorburugaz, besteak beste. Ekintza horietan abertzaletasunaren eta erlijioaren inguruko hausnarketak egiteaz gain, PNV erreferentziazko tokian

zegoela aldarrikatzen zuten, erdian, ez ezkerrekoekin ez eskuinekoekin. Gainera, euskal eskolak zabaltzearen beharrezana aldarrikatzen zuten, eta baita erlijiotik abiatutako giza justizia ere. 1936ko Aberri Egunean EABko emakumeen izenean mintzatu zen, beste gizonezko birekin batera, eta, euskaraz hitz egiteaz gain, egunero euskaraz hitz egitearen alde agertu zen.

Feministen kontra egon arren, hasieratik aritu zen emakumeen aldeko borrokan Sorne. 1931n eztabaida bizia sortu zen prentsan emakumeen eginbeharrak definitzearen premia aldarrikatuz, eta Emakume Abertzale Batza martxan jartzeko eskaria eginez: «¿Esperaremos a que los hombres, ellos solos, nos traigan la libertad? No; no podemos descansar mientras ellos trabajan para ir luego únicamente a celebrar su triunfo...Tenemos que ayudarles a sembrar la semilla salvadora del nacionalismo... EAB nos llama».

EABko kide izan zen sorreratik eta, 1922ko berrantolaketan, Petra Gandarias eta Pilar Egiraunen ordeztatu zen zuzendaritzan, 1932ko urtarrilerarte.

1937an alde egin behar izan zuen Frantzia aldera, eta hamabost urte egin zituen erbesteratuta. Europako Bigarren Gerran, alemanen okupazioaren aurrean, erresistentziakoekin lan egin zuen. Ondoren, berriz ere Hegoaldera etorri eta urte gogorak iraun zituen, lanik gabe. Luze bizi izan zen; 2004. urtean zendu zen, 104 urte zituela.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; UPV/EHUko Bilboko Irakasleen Eskolako Agiritegia; Utarsus, (Untzueta, Sorne. «Colaboracion femenina, ¿Cuándo?» *Bizkaitarra*, 30-V-1931; ETXEBARRIA, Igone. (2000). *Sorne Unzueta. Utarsus*, Gasteiz: Eusko Jaur-larritza; *Añamendi/ Euskomedia*: Utarsus (Egilea: Asier Barandiaran); Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Karmele Urresti Iturrioz

Ondarroan jaio zen, 1916an. Antzosolo etxeko Frantzisko Urresti eta Karmen Iturriozen alaba zen —sei neba-arreba ziren—; gaztetan joan zen Bilbora. Basurtoko ospitalean hasi zen lanean, erizain. Ez zen denbora askorik pasatu Valladolideko bidea hartu zuenerako, erizaintza-ikasketak egitearren. Hantxe harrapatu zuen faxisten altxamenduak, 1936an. Jaioterrira itzultzea erabaki zuen. Eusko Gudarostearekin bat egin zuen, erizain lanetan: Bilbo, Portugalete, Santoña... Azkenean, Kantabriako herri horretan, ontzia hartu eta, gudari zaurituekin batera, erbestera bidea hartu behar izan zuen; Larresorora. hain zuzen.

Jose Antonio Agirreren Gobernuak Lapurdiko herrian ospitalea eraiki zuen, eta han hasi zen lanean. Han zela, Eresoinka kultur elkartean parte hartu zuen —kontraltoa zen— Euskal Herriaren kultura eta izatea zabalteko. Eresoinkan ezagutu zuen senarra, Txomin Letamendi Murua, gudari kapitaina; hiru sema-alaba izan zituen: Ikerne, Txomin eta Patxi.

Senarra 1946an atxilotu eta 1950ean kartzelan torturatuta hil ondoren, Venezuelara joan zen Karmele —1975ean itzuli zen Ondarroara—. Han Emakume Abertzale Batzako buru hautatu zuten, Caracaseko Euskal Etxean.

«Familia honek liburu bat merezi du, memoria abertzalean leku berezia. Urrestitarrak, Jon, Anita, Miren, Josu, Gaizka... euretariko bakoitzak da historia bat; eta izan dituzten seme-alabek eta ilobek azken ehun urte hauetako historia abertzalea idazteko beste ematen dute». Ondarroan hil zen, 2012an.

Erref.: *Gara*, heriotza-oharra, 2010eko maiatzaren 23koa; Anasagasti, Iñaki: *Deia*, 2010eko maiatzaren 24a; Azurmendi, Jose Felix: *Deia*, 2010eko ekainaren 12a; <http://www.guregipuzkoa.net/photo/1011717>.





## Teresa Verdes Elorriaga

Bilbon jaio zen 1907ko apirilaren 29an; Emeterio Verdes-Atxirika eta Manuela Elorriaga Mendietaren alaba. Gurasoek liburu-denda zuten Bilboko parte zaharrean, eta moldiztegi propioa. Aita EAJko kide garrantzitsua zen Bilbon eta, haren enpresan ekoizten zenari esker, abertzaletasunaren teorizazio eta aldeko idatziek une loratuak ezagutu zituzten Euskal Herri osoan. Enpresa handituz joan zen heinean, sekulako lana egin zuen euskal liburugintzaren ekoizpenean. Horrez gain, abertzaleek aukera izan zuten bertan zenbait liburuxka, kartel, gramatika, testuliburu inprimatzeko, euskaraz zein gaztelaniaz. Familia horretan jaio zen Teresa.

Teresak etxean ezagutu zuen Euskal Pizkunde garaian pil-pilean egosten zen kultura, eta han elikatu zen bere abertzaletasunaren sentimendua. Gazterik, Emakume Abertzale Batzuan afiliatu zen, eta euskal erresistentziako informazio-sarean ibili zen gerratean. Teresaren neba, Jose Felix, abertzale zigortua, Bilboko Larrinaga espetxean zegoen; baina barruan nahiko libre ibiltzeko aukera zuenez, Teresa ahizparen bidez, informazio pribilegiatua trukatzeko kanpokoekin. Hari ematen zitzaizkion beste presoentzat sartu beharreko eskutitzak edo gainerako informazioak, eta alderantziz.

Teresak eta kideek informazio garrantzitsua bideratzen zuten hartan, erbesteko euskal gobernuak «Alava» sarea eratu zuen, Luis Alabaren gidaritzapean. Han sartu zen Teresa, euskal presoen informazioa jasotzeko (epaiketaz, espedientez...), zein egoera politikoaz edo militarraz dokumentazio estrategikoa eskuratzeko aginduekin. «Balio handiko» lana egin zuen zeregin horretan. «Ariz» izengoitia erabilita, 1937tik aurrera, frankismoaren urte gordinenetan, Teresak sarbide erraza zuen Burgosko Kapitania Nagusiaren eta Auditoriaren agiritegietara, eta in-

formazioa biltzearen arduraduna zen. Han jasotakoa Delia Laurobari pasatzen zion, eta hark Donostiako Itziar Mujika Irastorzari. Katean azkenak, Bittori Etxeberria Agerreberre elizondorarak, jaso eta mugaz beste aldera eramaten zuen informazioa. Alderantzizko bide bera erabiltzen zuten, erbestean zeuden agintarien mezuak bideratzeko. Laukote hura «lau euskal espiak» izenez ezagutzen da, gaur egun. Delia ez ezik, beste hirurak Emakume Abertzale Batzako kide izan ziren.

«Alava» sarekideak 1940ko abenduan harrapatu zituzten. 1941ean, Teresak 34 urte zituela, heriotza-zigorra kondenatu zuten —beste 19 kide ere bai—. Vatikanoren partaidetzari esker, bere zigorra ordezkatzeari lortu zuen, eta Madrilgo Ventas emakumeen espetxean 25 urteko espetxe-zigorra izatera murriztu zitzaion. 1942ko apirilean lortu zuen askatasuna, eta, ordutik aurrera, Frantziako erresistentziaren alde lan egiten zuen *Comète* sarean, zonalde okupatuan jausten ziren pilotuen bila, hain zuzen ere. Gerra bukatzerakoan, euskal presoek aldeko laguntza ematen jarraitu zuen, senideen Bilboko liburu-dendan lan egiten zuten bitartean.

Bilbon hil zen, 1959ko martxoaren 16an.

Erref.: *Auñamendi Enziklopedia*: (Maria Teresa Verdes); JIMENEZ de ABERASTURI, J.C. (1999). *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la segunda guerra mundial (1937-1947)*. Bilbo: IVAP. EGAÑA, Iñaki. (1998). *Gerra Zibila Euskal Herrian. 1936. Errepresioa Nafarroan* (II. lib.), Nafarroa: Aralar liburuak. 71. or. (argazkia).

## Ascensión Videá Ibarretxe

1886an jaio zen Ascensión Videá; lanbidez, eskulanak egiten zituen. Ahizpa Basilisarekin bizi zen, eta hura Abandoko Emakume Abertzale Batzako zuzendaritzakoa zen. Mercedes Vigueraren izeko zen, haren ama zena Mercedes Videaren ahizpa.

Bilboko Emakume Abertzale Batzako zuzendaritzako kide izan zen 1936-1937 bitartean; 1936ko urtarrilean, Jesusa Yarrantuk, Sofia Mac-Mahonek, Ventura Kareagak eta Mercedes Viguerak kargua utzi zuten, eta Maria Iturriagak, Maria Teresa Artalarreak eta Ascensión Videak hartu zuten haien ordeaz. Ascensiónek lehendakariordetza hartu zuen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde.



## Mercedes Viguera Videá

Mercedes Viguera Videá 1908ko urtarrilaren 30ean jaio zen, Bilbon. Pedro Maria Vigueraren eta Mercedes Videaren alabak irakasle-ikasketak egin zituen, eta Bilboko EABn afiliatu zen. Ama ere EABkoa zuen, *Junta Nacionalista Vasca de Socorro*seko bokala, eta Abandoko EABko lehendakariorde 1932-1933 bitartean. Ahizpa Miren Begoña eta amaren bi ahizpak, Basilisa eta Ascension, ere EABko kideak izan ziren.

1931ko abenduan, EABko zuzendaritza-talderako aukeratu zuten, Carmen Erraztiren lehendakaritzapean. Bilboko EABko zuzendaritza-taldearen aukeraketaz eztabaida handiak izan ondoren —batzuek taldearen erdia ordezkatzea proposatu zuten—, 1932an Carmen Erraztik, Paulina Ramosek, Alicia Aretxabaletak eta Jesusa Fresnedok utzitako karguak bete zituzten Teresa Azkuek, Juliana Mujikak, Jesusa Zubizarretak, eta Mercedes Viguerak. Mercedes karguan egon zen 1935era arte, 1933ko abenduan aldatzea egokitu arren. 1936ko urtarrilean utzi zuten kargua Jesusa Yarrantuk, Sofia Mac-Mahonek, Ventura Kareagak, eta Mercedesek, haien ordez Maria Iturriagak, Maria Teresa Artalarreak eta Ascensión Videak hartzeko.

EABk parte-hartze aktiboa izan zuen 1932ko martxoaren 27an Bilbon izan zen lehenengo Aberri Egunean. Propaganda egiteaz gainera, prentsan idatzi zuten emakumeek. Mercedes izan zen, beste emakume batzuekin batera, Bilboko kaleak ikurriñaz eta beste hainbat ornamentuz bete zituena, ospakizunak iraun zuen hiru egunetan. Hurrengo urtean, 1933an, Alcalá Zamora Errepublikako buru zena Prietorekin Bilbora etorri zenean, nazionalistak haren kontra agertu ziren, «Gora Euzkadi Azkatuta», «Euzkadi es la patria de los vascos» eta antzekoak idatziz, haiek pasatu behar ziren lekuetan. Jelkide asko espetxeratu zituzten Larrinagan, eta EABko emakumeek horren kontrako manifestazioa deitu zuten.

Teresa Azkue buru zela Alcala Zamoraren bila abiatu zirenean, Asaltoko Guardiiek bidea itxi arren, aurrera egin zuten, harik eta guardia horrek kolpez eta biolentziaz jo zituzten arte. *Euzkadik* diosenaren arabera, Mercedes Viguera pistolaz mehatxatu zuten.

Mercedes maistra izan zen; 1922ko ekainean gairitu zuen sarrerako azterketa Bilboko Normalean; bere epaimahaian Encarnacion Garcia y Garcia izan zen buru, Luisa Abad idazkari eta Martina Casiano bokala —Eskola Normalean Zientzietarako laborategia lehenengoz antolatu zuena—. Euzko Ikastola Batzari laguntzeko, etxez etxe ibili zen, EABko Ventura Kareaga eta Concepción Gangoitigaz batera.

1934an Jose Iraragorriekin ezkondu zen, Bilboko mediku-familia ezaguneko zenarekin.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde.



## Jesusa Yarritu Beaskoetxea

1886an jaio zen Jesusa Yarritu Beaskoetxea. Aita Doroteo Yarritu eta ama Esperanza Beaskoetxea izan zituen. Ama, ahizpa Ana eta lau lehen-gusina EABko kide ziren. Jesusa Yarritu ez zen ezkondu, etxetik kanpo lan egin zuen, bulegari.

1933ko abenduan Teresa Azkueri, Juliana Mujikari eta Jesusa Zubizarretari EABko zuzendaritzako karguak uztea egokitu arren, azken horrek izan ezik, besteek aurrera jarraitu zuten. Jesusa Zubizarretak eta Rosario Olazabalek utzitako lekura sartu ziren Sofia Mac-Mahon eta Jesusa Yarritu. Jesusak idazkaritza hartu zuen; 1936ko urtarrilean utzi zuen kargua eta, beragaz batera, Mercedes Viguerak, Sofia Mac Mahonek eta Ventura Kareagak. Haien ordeztan, Maria Iturriaga, Maria Teresa Artalarrea eta Ascension Videak sartu ziren.

Bizkaiko Diputazioan lan egin zuen idazkari modura eta balio handiko emakumetzat zeukaten. Gerra piztu zenean EABn zuen kargua zela eta lanetik bota zuten. Iparraldera erbesteratu zen.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde. Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.



## Teresa Zabala Azkue

Maria Teresa Zabala Azkue Federiko Zabala Allenderen alaba zen, Eusko Alderdi Jeltzaleko kide nabarmenduarena. Teresa Emakume Abertzale Batzako kidea eta mitinlari sutsua zen, eta ospe handia hartu zuen hitzaldietan zuen jario zuzen eta argiagatik; EABko ideiak zabal-tzen pertsonaiarik nabarmenduenetarikoa izan zen. Irakasle-ikasketak egin, eta Jesusen Bihotzeko kongregazioan sartu zen.

Bere pentsamenduan bi ardatz zeuden: abertzaletasuna eta erlijioa. 1932an, EABko urteurrenean, Barakaldon emandako mitinean, emakumearen eginbehar historikoa goraiatu zuen: «La mujer no es solo la que da el ser sino la que enseña a ser, y por eso, emakumes de Barakaldo, Euzkadi sera lo que nosotras queremos que sea...» (*Euzkadi*, 1932-XII-13).

1933ko otsailaren 5ean, «Euskal Amari Omenaldia» ospatu zuten Bilboko Euskalduna frontoian. Lau mitinlarik hartu zuten hitza egun hartan: Haydée Agirrek, Polixene Trabuduak, Julene Urzelayk eta Maria Teresa Zabalak. Lehen aldia zen abertzaleen ekitaldi batean emakumezkoek soilik hitz egiten zutena.

1933an hiru emakume mitinlari —Haydée Aguirre, Polixene Traudua eta Nekane Legorburu— kartzelaratu zituztenean, elkartasun-ekitaldiak antolatu ziren, eta Teresa Zabalak mitina egin zuen EABko egoitza itxi baino lehen. Urte berean, 1933an, Alcala Zamora Errepublikako buru zena Prietogaz Bilbora etorri zenean, nazionalistak haren kontra agertu ziren «Gora Euzkadi Azkatuta», «Euzkadi es la patria de los vascos» eta antzekoak idatziz haiek pasatu behar ziren lekuetan. Jelkide asko espetxeratu zituzten Larrinagan, eta EABko emakumeek horren kontrako manifestazioa deitu zuten. Teresa Azkue buru zela Alcala Zamoraren bila abiatu zirenean, Asaltoko Guardiek bidea itxi arren, aurrera egin

zuten, harik eta guardia horrek kolpez eta biolentziaz jo zituen arte. Teresak, hurrengo mitinean, honela esan zuen: «Hoy en las figuras de esas valientes mujeres, perseguida con multas, procesos y carceles, las que nos admiran, nos conmueven y nos encantan, porque vemos en ellas personificado lo que vale la mujer vasca, lo que es capaz de hacer...».

Bilboko Udalak Jesusen Bihotzaren irudia botatzeko erabakia hartu zuenean, oso sutuki defendatu zuen, beste batzuekin batera, horren kontrako iritzia.

Teresa Zabala Jesusen Bihotzeko moja izan zen, eta Bogotan zendu zen, 1988ko martxoaren 25ean.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde; Auñamendi/ Euskomedia; Elisabete Garmendia Lasa: *Pizkundeko lau emakume mitinlari*: <http://www.euskonews.com/>; Argazkia: Sabino Arana Fundazioa.





## Elbira Zipitria Irastorza

Zumaian jaio zen, 1906ko maiatzaren 28an; Jazinto eta Mariaren alaba zen. Haurra zela, familia Donostiara joan zen bizitzera. Hamasei urte zituela, 1922an, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako beka batez egin zituen lau urteko irakasle-ikasketak, Donostian bertan. 1926an, ikasketak bukatzerakoan, Miguel Muñoak sortu eta babesten zuen euskal ikastetxe batean —Koruko Andre Marian— hasi zen lanean, 6 urte arteko hurrekin.

Bere pasioa irakaskuntza zen, baina politika ere gogoko zuen. Elbira erakunde askotako partaide zen. Gipuzkoan 1931n sortu zen Irakaskuntzako Maisu-Maistra Elkarteko kide zen, baita Euskaltzaleak eta Eusko Ikaskuntzako kide ere. Politikan eragile sustatzailea izan zen. Donostiako Emakume Abertzale Batzako kide eta idazkari zen (1934), eta baita idazkari hark argitaratzen zuen aldizkarikoa ere. Berba egiteko dohain bereziz, zenbait mitinetan adierazi zituen bere iritzi politikoak, baita *El Dia* egunkarian ere, «Ira» ezizenez idazten zituen artikuluetan.

1936ko Gerrak eraginda, Azkainen, Ziburun eta Donibane Lohitzunen bizi izan zen. 1939tik aurrera, berriz, Saran, labaiendarren etxean. Han ezagutu zituen euskal ikertzaile, idazle eta pentsalari asko —Joxemiel Barandiaran eta Jesus Eloseggi etnografoak, K. Mitxelena, Nemesio Etxaniz...—. Hala ere, adiskidetasun eta harreman intelektual estuagoa izan zuen Orixerekin. Harekin izaten zituen sakoneko eztabaidak euskarari buruz eta euskal pentsamenduaren eraikuntzari buruz. Are gehiago, Elbirak berak ekoitzi zuen Orixek itzulitako *Leioakumea* liburua, 1948an Parisen argitaratua.

Erbestetik 1942an bueltatu zen bere betiko etxera, eta han sortu zuen, Fermin Kalbeton 26an, bere etxe-eskola. Hasieran, haur gutxi batzuk ziren, baina taldea handituzerakoan, 1947tik aurrera, taldea ikastola

bihurtu zuen. Bertan, egunez haurrak eta gauez helduak euskalduntzen zituen Elbirak. Irakasle dinamiko eta sortzailea zen, eta ikastolen mugimendu berriaren beharrianak asetzeko, indar handia jarri zuen ikastolako maisu-maistra berrien prestaketan, bai pedagogikoki bai edukietan, frankismoan defizit horrekin titulatzeko baiziren Normaletatik. Donostiako «Erresidentzian» prestakuntza alternatiboa eskaini zien, klase praktiko eta teorikoen bidez, pedagogia berritzailearen nondik norakoak esperimentatuz. Elbira izan da gerra ondorengo ikastolako pedagogiaren didakta eta bultzatzaile, pedagogia-metodo berri eta aurre-rakoien sortzaile. Hori zela eta, «Montessori euskalduna» esaten zioten.

Hegoaldeko 1970eko Hezkuntza Legeak zekarren antolaketa itxiegia zela zeritzon, eta, ahal bezain laster, irakaskuntza utzi zuen. Orixe ikastolan jubilatuta zen, 1971n, 65 urte bete zituenean. Donostiako ospitalean hil zen 1982ko abenduaren 25ean, eta Bizkaian ilobiratu zuten, 26an, Mañu herrixkan, miresten zuen amamaren ondoan lurra hartuta.

Erref.: LARRAZABAL, Jesus M. (argitaratzailea) (2012). *Elbiria Zipitria gogoan*. Donostia: UPV/EHU, Gipuzkoako Foru Aldundia: <http://media.guregipuzkoa.net/photo/1009008>.

## Gloria Zubia Erdoiza

Durangon jaio zen 1906ko abenduaren 31n. Filosofia eta Letrak ikasteko gogoan izan zuen, baina ezin, emakume gehientzat bide hori itxita baitzegoen.

Hasiera batean, *primoderiberatarra* zen, eta biziki parte hartu zuen Durangoko karlismoaren alde, «margarietan» afiliaturik egon zelako. Baina, 1926an, Luis Arregi Garaigordobil ezagutu —senarra izango zuena— eta, haren eraginez eta Enrique Oruetaren idazki batek eraginda, abertzaletasunean sartu zen. Bere burua abertzaletzat zuen eta, Euzko Alderdi Jeltzaleak emakumen afiliazioa onartu zuenean, Durangon afiliatu zen lehen emakumea izan zen. Durangoko Emakume Abertzale Batzako kide zela, haurrentzat euskarazko eskolak, dantzak eta kantak, eta oratoria-eskolak ematen zituen. Tabirako Batzokiko ikastolako irakasle zen, eta Durangoko *pospoliñen* taldearen zuzendari. Gero eta gehiago sartu zen Alderdiaren barne-antolaketan. EAJko Durangoko Uri Buru Batzarrean eragile fina izan zen eta, lehendakariak alde egin zuenean, berak hartu zuen lehendakaritza gerra bukatu arte. Hizlari gogotsua zen.

Gerratean, Ajuriagerrak hala eskatuta, Durango utzi eta familia osoarekin Bilbora abiatu zen. Agindu bat eman zitzaion: egunero Durangora abalak eramatea, herritik jendea mugi ez zedin. Gerraondoan, 1937an erbesteratu zen Iparraldera (Kanbo, Biarritz...). Gerra bukatzerakoan, 1941ean, senarra lan egiten jarri zuten erregimenaren aldeko behe-zereginetan, eta Gloriari, bitartean, Iruñera bizitzera joan zedin agindu zion Alderdiak.

Bost urtean bizi izandu zen han, batetik lasai, bestetik beldurrez jositia; isilpeko lana bete behar zuen, espetxeetatik zetozen eskutitzak ba-

natzeko agindua baitzuen. «Alava» sarea jausi zenean, espetxeen arteko zubi-lana egiten hasi zen.

Gerra sasoiari, EBBko Kultura Sailak gudarientzat liburu bat idazteko eskatu zion. Hala egin zuen, eta *A las madres, hermanas y novias de Euzkadi* izenburupean, lehen saria jaso zuen liburuak. Liburua galdu egin zen eta ez zen berriro argitaratu.

Alicanten hil zen, 1987ko abuztuaren 19an.

Erref.: *Auñamendi Enziklopedia* (Egilea: Ainhoa Arozamena Ayala)/ ESTÉVEZ, Xosé. et al. (1985). *Protagonistas de la historia vasca (1923-1950)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.



## Jesusa Zubizarreta Ezpeleta

1899an jaio zen Jesusa Zubizarreta. 1921ean Angel Anuzitarekin ezkondu zen; lanbidez, etxeko lanak egiten zituen. Lau seme-alaba izan zituen, Josune, Miren, Jabier eta Andoni. Felix Zubizarreta Bizkai Buru Batzarreko kidearen —1933an izendatua— senitartekoa zen. 1932an Bilboko Emakume Abertzale Batzako zuzendaritzako kide hautatu zuten, eta karguan jarraitu zuen 1933ko abendura arte.

1932ko Emakume Abertzale Batzako zuzendaritza-taldea berriztean, emakume batzuek —Teresa Azkuek, Juliana Mujikak, Mercedes Viguerak eta Jesusak berak—, Araudiaren interpretazioa eginez, aurreko zuzendaritza-taldeko lehendakartzaren irteera proposatu zuten. Zuzendaritza-irten ziren Karmele Errazti, Paulina Ramos, Alizia Aretxabaleta eta Jesusa Fresnedo, *Aberri* joerakoak guztiak.

1933ko abenduan, Teresa Azkueri, Juliana Mujikari eta Jesusa Zubizarretari EABko zuzendaritzako karguak uztea egokitu arren, azken horrek izan ezik, aurrera jarraitu zuten besteek. Jesusa Zubizarretak eta Rosario Olazabalek utzitako lekura sartu ziren Sofia Mac-Mahon eta Jesusa Yarritu.

1932an, parte hartu zuen lehenengo Aberri Egunaren ospakizunak prestatzeko lanetan, tokia antolatzen eta dekorazio-lanetan. Berari, beste emakume batzuen laguntzaz, *Sabin Etxea* hornitzea egokitu zitzaion, Nafarroa gai hartuta.

1933an EABko zuzendaritza utzi egin zuen, Rosario Olazabalekin batera, eta euren ordezkari Jesusa Yarritu eta Sofia Mac-Mahon hautatu zituzten.

Erref.: UGALDE, M. (1993). *Mujeres y Nacionalismo Vasco. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza. 1906-1936*, Bilbo: UPV/EHU - Emakunde.



© sabino arana fundazioa

